# *Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzo Txostena*

# *1998/1999 ikasturtea*

Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkurak 2000 otsailaren 3an onetsia

***Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko I. txostena*** Nafarroako Eskola Kontseiluak egin zuen, eta aldeko 20 boto, aurkako 2 boto eta abstentzio batekin onetsi zen 2000ko otsailaren 3an egindako Osoko Bilkuran.

Hona bilkura horretan egon ziren pertsonen zerrenda:

**Guillermo Herrero Maté jauna**(Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakaria).
**Juan Antonio Andión Gastón jauna** (Nafarroako Parlamentua).
**Reyes Berruezo Albéniz andrea** (Nafarroako Unibertsitate Publikoa).
**José Manuel Contreras Naranjo jauna** (CONCAPA).
**Trinidad Eslava Muruzábal jauna** (Inbertsioen Zerbitzuko zuzendaria).
**Mª Dolores Estaun Yuste andrea** (Herrikoa).
**Pedro Eza Goyeneche jauna** (Nafarroako Parlamentua).
**Francisco Javier Fernández Ayesa jauna** (SEPNA-FSI).
**Ignacio Mª Iraizoz Zubeldía jauna** (ANEG-FERE).
**Isabel Irigoyen Aristu andrea** (Herrikoa).
**Antonio Jaurrieta Ezquerro jauna** (Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuko zuzendaria).
**José Luis Larrea Cenoz jauna** (STEE-EILAS).
**Pello Mariñelarena jauna** (Nafarroako Ikastolen Elkartea).
**Fernando Méndez Velayos jauna** (UGT ).
**Javier de Miguel Sáenzjauna** (CC.OO.)
**Javier Navallas Rebolé jauna** (Ikasketa eta Ikastetxeen Antolamendurako Zerbitzuko zuzendaria).
**Iñaki Ochoa de Olza jauna** (Administrazioko eta Zerbitzuetako langileak).
**Rosa María Pérez Bardot andrea** (CSI-CSIF).
**Rosario Repáraz Abaitua andrea** (Nafarroako Unibertsitatea).
**Ricardo J. Sada Aldaz jauna** (ANEG-FERE).
**Luis Sarriés Sanz jauna** (Aitortutako ospea duen pertsona).
**José Domingo Server Savall jauna** (Ikastetxeak Finantzatu eta Ikasketetarako Laguntzak Emateko Zerbitzuko zuzendaria).
**Loreto Villar Rubio andrea** (Herrikoa).
**Javier Lacarra Albizu jauna** (Eskola Kontseiluko idazkaria).

**1. ARAUEN GARAPENA......4**
1.1. Legeak, Foru Dekretuak, Foru Aginduak eta Ebazpenak......4
1.2. Nafarroako Eskola Kontseiluaren irizpenak......7
1.3. Parlamentuko jarduera hezkuntza gaietan, 98-5-28tik 99-5-28ra. ......9
**2. IKASLEAK. ......12**
2.1. Ikasleak, etapaka......12
2.2. Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak. ......14
2.3. Erregimen Bereziko Irakaskuntzetan ari diren ikasleak......22
2.4. Helduen Hezkuntza eta hezkuntza arreta berdintzaileak......25
2.5. Ikasleak/Talde ratioak......32
2.6. Hezkuntza eta lanbide orientazioa......35
2.7. Ikasleen eskubideak eta betebeharrak. Ikasleen elkarteak......37
2.8. Bekak. Nafarroako Gobernuaren Deialdia ......40
2.9. Selektibitatea ......45
2.10. Bestelako hezkuntza programak: Osasuna, Ingurumena......49
**3. GIZA BALIABIDEAK......53**
3.1. Ikastetxe publikoetako irakasleak......53
3.2. Itunpeko ikastetxeetako irakasleak......66
3.3. Administrazioko eta zerbitzuetako langileak. ......70
3.4. Irakasleak prestatzeko programak. Irakasleei Laguntzeko Zentroak. ......71
**4. IKASTETXEAK. ......85**
4.1. Ikastetxeen kopuruaren bilakaera. ......85
4.2. Unitateen kopuruaren bilakaera......88
4.3. Ikastetxeen antolamendua eta funtzionamendua......91
4.4. Azpiegitura eta Ekipamenduak......94
4.5. Gobernu Organoak. ......101
4.6. Ikasleen gurasoen elkarteak......104
4.7. Eskolaz kanpoko jarduerak......106
**5. EUSKARA NAFARROAKO HEZKUNTZA SISTEMAN......109**
5.1.- Euskararen eta euskarazko ikastetxeen, irakasleen eta matrikularen bilakaera. ......110
5.2. Irakasleek euskara ikasteko jarduerak: birziklapena eta beste......122
5.3.- Euskararen eta euskarazko irakaskuntza bultzatzeko jarduerak. ......125
5.4. Helduentzako euskara irakaskuntzaren bilakaera......131
**6. HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOA. ......132**
6.1. Egitura orokorra......132
6.2. Hezkuntza ikuskatzailetza. ......135
6.3. Eskola zerbitzuak......137
**7. HEZKUNTZARAKO AURREKONTUAK. ......143**
7.1. Aurrekontuen bilakaera. ......143
**BOTO PARTIKULARRAK. ......151**

## 1. Arauen garapena.

### *1.1. Legeak, Foru Dekretuak, Foru Aginduak eta Ebazpenak.*

Ondotik Hezkuntzaren inguruan sorturiko zenbait instantziak 1998/1999 ikasturtean (1998ko irailaren 1etik 1999ko abuztuaren 31ra bitarte) zehar egindako jarduerari buruzko zenbait datu emanen ditugu, alde batetik bereiziz arau juridikoak (lege mailakoak nahiz erregelamendu mailakoak izan) eta bestetik administrazio-egintzak.

Azken horiei dagokienez, ikusirik ugari direla, haien zenbakizko aipamena egin dugu; harekin batera adierazi dugu zein zerbitzuk proposatu duen eta zein maila administratiborekin formulatu den.

**Legeak:**

1. 11/1998 Foru Legea, uztailaren 3koa, Batxilergoa, Gradu Ertaineko Heziketa Zikloak eta Gizarte Garantiako Programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duena. (Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 85. zenbakia, Data 1998-07-17koa).

**Foru Dekretuak:**

Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak proposaturik, 83 foru dekretu onetsi ditu guztira. Hona, gure iritziz, garrantzi handiena dutenak:

225/1998 FORU DEKRETUA, uztailaren 6koa, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Lanbide Hastapenerako Programak irakasten dituzten ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia erregulatzen dituena. (Nafarroako Eskola Kontseiluak hari buruzko irizpena eman zuen).

256/1998 FORU DEKRETUA, irailaren 1ekoa, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 4. artikulua garatzen duena.

356/1998 FORU DEKRETUA, abenduaren 21ekoa, Nafarroako Eskola Kontseiluaren edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren Antolakuntza eta Funtzionamendurako Erregelamendua onesten duena. (Nafarroako Eskola Kontseiluak hari buruzko irizpena eman zuen).

33/1999 FORU DEKRETUA, otsailaren 2koa, Nafarroako Eskola Kontseilua-Hezkuntzako Batzorde Nagusiko kideak izendatu zituen maiatzaren 4ko 33/1998 Foru Dekretua aldatzen duena.

153/1999 FORU DEKRETUA, maiatzaren 10ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan Hezkuntza Orientazioa arautzen duena. (Nafarroako Eskola Kontseiluak hari buruzko irizpena eman zuen).

233/1999 FORU DEKRETUA, ekainaren 21ekoa, Nafarroako Foru Komunitatean gizarte garantiako berariazko programak arautzen dituena. (Nafarroako Eskola Kontseiluak hari buruzko irizpena eman zuen).

255/1999 FORU DEKRETUA, uztailaren 6koa, Pertsona Helduen Oinarrizko Hezkuntza arautzen duena eta Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan horren irakaskuntzaren egitura eta curriculum zehatza ezartzen dituen. (Nafarroako Eskola Kontseiluak hari buruzko irizpena eman zuen).

256/1999 FORU DEKRETUA, uztailaren 6koa, Nafarroako Foru Komunitatean Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikasketak emanen dituzten ikastetxe publikoen sarea ezartzen duena. (Nafarroako Eskola Kontseiluak hari buruzko irizpena eman zuen).

Lanbide Heziketako Maila Ertaineko eta Goi Mailako Heziketa Zikloei buruzko Foru Dekretuak (beltzez ageri da zein Lanbide Familiatakoa den Heziketa Ziklo bakoitza):

| Maila Ertaineko Zikloak | N.A.O. |
|---|---|
| **Nekazaritza jarduerak** | |
| Nekazaritzako ustiategi estensiboak | 97/12/22 |
| Nekazaritzako ustiategi intentsiboak | 97/12/22 |
| Abeltzaintzako ustiategiak | 98/02/25 |
| Lorezaintza | 97/04/23 |
| Baso-lanetako eta Natur Ingurunea Zaintzea | 97/07/25 |
| **Jarduera fisikoak eta kirolak jarduerak** | |
| Landa Ingurunean Gorputz eta Kirol Ekintzak gidatzea | 98/08/14 |
| **Administrazioa** | |
| Administrazio kudeaketa | 96/10/02 |
| **Arte grafikoak** | |
| Arte grafikoetako inprimaketa | 98/08/14 |
| Arte grafikoetako aurreinprimaketa | 97/07/21 |
| **Merkataritza eta marketinga** | |
| Merkataritza | 96/05/31 |
| **Eraikuntza eta obra zibila** | |
| Eraikuntzako akabera-lanak | 96/12/02 |
| Igeltserotzako obrak | 97/07/21 |
| Hormigoizko obrak | 98/02/25 |
| **Elektrizitatea-Elektronika** | |
| Ekipo eta instalazio elektroteknikoak | 96/12/02 |
| Kontsumorako produktu elektronikoak | 96/12/11 |
| **Fabrikazio mekanikoa** | |
| Mekanizatua | 9610/02 |
| Soldadura eta galdaragintza | 96/12/04 |
| **Ostalaritza eta turismoa** | |
| Sukaldaritza | 96/12/27 |
| Pastelgintza eta ogigintza | 97/07/25 |
| Jatetxe eta taberna zerbitzuak | 97/06/13 |
| **Irudi pertsonala** | |
| Dekorazio estetika pertsonala | 97/06/13 |
| Ile-apainketa | 96/12/04 |
| **Elikagaien industriak** | |
| Barazki, Haragi eta Arrain Kontserbagintza | 98/08/24 |
| **Arotz-lanak eta altzariak** | |
| Arotz-lanen eta altzarien neurrirako fabrikazioa eta instalazioa | 97/06/13 |
| **Ibilgailu autopropultsatuen mantenimendua** | |
| Karrozeria | 97/06/13 |
| Ibilgailuen elektromekanika | 96/12/04 |
| **Produkziorako mantenimendua eta zerbitzuak** | |
| Lerroen makineria eta kondukzioen mantenimendu elektromekanikoa | 97/04/18 |
| Hotz, klimatizazio eta berokuntza instalazioak muntatu eta mantentzea | 97/04/18 |
| **Kimika** | |
| Laborategia | 97/06/13 |
| Prozesu-eragiketak planta kimikoetan | 99/09/10 |
| **Osasuna** | |
| Erizaintzako zainketa lagungarriak | 96/05/31 |
| Botika | 98/11/13 |
| **Testilak, konfekzioa eta larrua** | |
| Konfekzioa | 99/03/05 |
| **Eskulturari aplikaturiko arte grafikoak** | |
| Ebanisteria artistikoa | 97/04/23 |

| Goi Mailako Heziketa Zikloak | N.A.O. |
|---|---|
| **Nekazaritza jarduerak** | |
| Nekazaritza enpresen kudeaketa eta antolamendua | 99/08/04 |
| Baliabide naturalak eta paisajeko baliabideak kudeatu eta antolatzea | 99/09/08 |
| **Administrazioa** | |
| Administrazioa eta finantzak | 96/12/27 |
| Idazkaritza | 96/12/11 |
| **Arte grafikoak** | |
| Arte grafikoetako industrien produkzioa | 99/09/08 |
| **Merkataritza eta marketinga** | |
| Nazioarteko merkataritza | 96/05/31 |
| Merkataritza eta marketingo kudeaketa | 97/11/05 |
| Garraioaren kudeaketa | 98/11/13 |
| Kontsumitzailearentzako zerbitzuak | 99/09/08 |
| **Eraikuntza eta obra zibilak** | |
| Eraikuntzako proiektuak garatu eta aplikatzea | 99/09/08 |
| **Electrizitatea-Elektronika** | |
| Produktu elektronikoak garatzea | 97/12/22 |
| Instalazio elektronikoak | 97/07/21 |
| Erregulazio eta kontrol automatikoko sistemak | 96/12/23 |
| Telekomunikazio eta informatika sistemak | 98/08/14 |
| **Fabrikazio mekanikoa** | |
| Eraikuntza metalikoak | 98/08/24 |
| Proiektu mekanikoak garatzea | 99/03/05 |
| Mekanizazioaren bidezko produkzioa | 96/12/11 |
| **Ostalaritza eta turismoa** | |
| Lojamendua | 98/08/24 |
| Turismoko informazioa eta merkataritza | 98/02/25 |
| Jatetxeak | 98/02/25 |
| **Irudi pertsonala** | |
| Estetika | 97/11/05 |
| **Elikagaien industriak** | |
| Elikagaien industriak | 99/08/04 |
| **Informatika** | |
| Sistema informatikoen administrazioa | 96/12/23 |
| Aplikazio informatikoen garapena | 98/08/14 |
| **Zur-lanak eta altzariak** | |
| Zur-produkzioa eta altzariak | 97/12/24 |
| **Ibilgailu autopropultsatuen mantenimendua** | |
| Automozioa | 97/11/05 |
| **Produkziorako mantenimendua eta zerbitzuak** | |
| Industri ekipoen mantenimendua | 97/04/18 |
| **Kimika** | |
| Analisia eta kontrola | 97/12/24 |
| **Osasuna** | |
| Anatomia patologikoa eta zitologia | 99/03/05 |
| Osasun arloko dokumentazioa | 97/07/25 |
| Diagnostikorako irudia | 99/03/05 |
| Diagnostiko klinikoetarako laboratorioa | 99/08/04 |
| Hortz-protesiak | 99/08/04 |
| Ingurugiro osasuna | 96/05/31 |
| **Zerbitzu soziokulturalak eta komunitatearentzako zerbitzuak** | |
| Animazio soziokulturala | 99/09/10 |
| Haur hezkuntza | 98/11/13 |
| Gizarte integrazioa | 98/08/24 |

| Diseinu grafikoa | | Liburuari aplikaturiko arteak | |
|---|---|---|---|
| Autoedizioa | 98/11/13 | Grabatua eta estanpazio-teknikak | 98/11/13 |
| | | **Eskulturari aplikaturiko arteak** | |
| | | Eskulturari aplikaturiko arteak | 97/12/24 |
| | | **Barruetako diseinua** | |
| | | Dekorazio obretarako proiektuak eta zuzendaritza | 99/09/10 |
| | | **Diseinu grafikoa** | |
| | | Argazkilaritza artistikoa | 97/04/23 |
| | | Publizitaterako grafika | 97/04/23 |
| | | **Industri diseinua** | |
| | | Altzariak | 98/11/13 |
| **Erdi mailako zikloak, guztira:** | **35** | **Goi mailako zikloak, guztira** | **43** |

## Foru Aginduak:

Hezkuntza eta Kultura kontseilariak, guztira, 301 foru agindu eman ditu. Ondotik zehaztu ditugu haiek, datozen zerbitzuaren arabera sailkaturik:

| | Pedagogi berrikuntza | Inbertsioak | Ikasketen Antolamendua | Euskara | Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua | Idazkaritza Teknikoa | Giza Baliabideak | Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia | Ikastetxeak Finantzatu eta Ikasketetarako Laguntzak Emateko Zerbitzua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| FF.AA. | 14 | 95 | 69 | 7 | 3 | 27 | 39 | 18 | 29 |

### Ebazpenak:

<u>Hezkuntza Zuzendari Nagusiak</u> guztira 1.211 ebazpen eman ditu. Ondotik zehaztu ditugu haiek, datozen zerbitzuaren arabera sailkaturik:

| | Pedagogi berrikuntza | Inbertsioak | Ikasketen Antolamendua | Euskara | Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua | Idazkaritza Teknikoa | Giza Baliabideak | Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia | Ikastetxeak Finantzatu eta Ikasketetarako Laguntzak Emateko Zerbitzua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ebazpenak | 366 | 419 | 160 | 106 | 31 | 69 | 24 | 3 | 33 |

<u>Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak,</u> Hezkuntza eta Kultura kontseilariak eskuordeturik (Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren irailaren 30eko 400/1996 Foru Agindua, 1996ko urriaren 11ko 124. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua), 1.324 ebazpen eman ditu.

LOGSEaren lege-garapena Nafarroan, araubide orokorreko hezkuntzari dagokionez, ia bukatuta dago; oraindik ere 0-3 urte adin-tartea araupetu gabe dago, ordea. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak zenbait txosten prestatu ditu adin-tarte horri buruz, eta Nafarroako Parlamentuan aurkeztu ere egin ditu. Nafarroako Eskola Kontseilua, bere aldetik, horri buruzko txosten bat egiten ari da. Une honetan, zenbait erabaki hartu dira Parlamentuan eta Gobernuan tarte hori 2000 urtean garatzeko.

## *1.2. Nafarroako Eskola Kontseiluaren irizpenak.*

Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 7. artikuluak, Nafarroako Eskola Kontseiluaren eginkizunak eta eskumenak araupetzen dituenean, organo horren berezko kontsulta-jarduerak jatorri hirukoitza izatea aurreikusten du: lehenbizi, Hezkuntza eta Kultura Departamentuari derrigorrez kontsultatu behar zaizkion gaiak (7. artikulua, 1. idatz-zatia); bigarrenik, Nafarroako Eskola Kontseiluak bere ekimenez Hezkuntza eta Kultura Departamentuari proposamenak eta txostenak ematen ahal dizkio gai jakin batzuei buruz, bada gai horiek (7. artikulua, 2. idatz-zatia); eta hirugarrenik, hezkuntzaren programazio orokorrarekin loturiko bestelako gaiak, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Kontseiluak aztertzeko aurkez ditzakeenak (7. artikulua, 3. idatz-zatia).

Sailkapen horri jarraituz, Nafarroako Eskola Kontseiluak ondoko irizpenak eman ditu:

<u>Derrigorrezko txostenak</u>:

- *1/1998 irizpena, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Lanbide Hastapenerako Programak irakasten dituzten ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia erregulatzen dituen Foru Dekretuari buruzkoa. Nafarroako Eskola Kontseiluak 1998ko ekainaren 30eko Osoko Bilkuran onetsi zuen.*

- *3/1999 irizpena, 153/1999 FORU DEKRETUA, maiatzaren 10ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan HEZKUNTZA ORIENTAZIOA arautzen duen FORU DEKRETUAren proiektuari buruzkoa. Nafarroako Eskola Kontseiluak 1999ko apirilaren 29ko Osoko Bilkuran onetsi zuen.*

- *4/1999 irizpena, 1999-2000 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitateko ikasketa arautuek izanen duten eskola egutegia egiteko arauak onesteko Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Hezkuntza zuzendari nagusiak egindako ebazpen-proiektuari buruzkoa. Nafarroako Eskola Kontseiluak 1999ko apirilaren 29ko Osoko Bilkuran onetsi zuen.*

- *5/1999 irizpena, Nafarroako Foru Komunitatean GIZARTE GARANTIAKO EDO LANBIDE HASTAPENEKO programak arautzen dituen Foru Dekretuaren proiektuari buruzkoa. Nafarroako Eskola Kontseiluak 1999ko ekainaren 3ko Osoko Bilkuran onetsi zuen.*

- *6/1999 irizpena, PERTSONA HELDUEN OINARRIZKO HEZKUNTZA arautzen duena eta Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan horren irakaskuntzaren egitura eta curriculum zehatza ezartzen dituen Foru Dekretuaren proiektuari buruzkoa. Nafarroako Eskola Kontseiluak 1999ko ekainaren 29ko Osoko Bilkuran onetsi zuen.*

- *7/1999 irizpena, Nafarroako Foru Komunitatean HELDUEN OINARRIZKO HEZKUNTZAKO IKASKETAK emanen dituzten IKASTETXE PUBLIKOEN SAREA ezartzen duen Foru Dekretuaren proiektuari buruzkoa. Nafarroako Eskola Kontseiluak 1999ko ekainaren 29ko Osoko Bilkuran onetsi zuen.*

<u>Bere ekimenez</u> egindako txostenak:

- *2/1999 irizpena, Bigarren Hezkuntzako Giza gaiei buruz Hezkuntza eta Zientzia Ministe-*

*rioak 1998ko ekainean eman zuen irizpenari buruzkoa. GIZA GAIEN IRAKASKUNTZA Nafarroako Foru Komunitateko BIGARREN HEZKUNTZAN. Nafarroako Eskola Kontseiluak 1999ko martxoaren 23ko Osoko Bilkuran onetsi zuen.*

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak eskaturik egin dituen baina derrigorrezkoak ez diren txostenak:

- *1/1999 irizpena, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan IRAILEKO APARTEKO AZTERKETAK ALDATZEAri buruzkoa. Nafarroako Eskola Kontseiluak 1999ko martxoaren 23ko Osoko Bilkuran onetsi zuen.*

### *1.3. Parlamentuko jarduera hezkuntza gaietan, 98-5-28tik 99-5-28ra.*

Aipaturiko araugintzazko garapenaren datu osagarri, interesgarria da unibertsitatez besteko hezkuntzari buruz Parlamentuan sortzen den jarduera ez-legegintzazkoa, zehazki organo horrek bere gain duen sustapen eta kontrol jarduerei dagokienez.

Jarduera hori Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordean edo Osoko Bilkuran gauzatzen da.

Honako hauek dira Hezkuntza eta Kultura Batzordeko kideak:

**1999ko martxoa:**

**Lehendakaria:**
Luis Gerardo López Eslava jauna (NDE).
**Lehendakariordea:**
Carlos García Adanero jauna (UPN).
**Idazkaria:**
Isabel Arboniés Bermejo andrea (IU/EB).
**Kideak:**
Alberto Catalán Higueras jauna (UPN).
Pedro Eza Goyeneche jauna (UPN).
Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrea (UPN)
Joaquín Salcedo Izu jauna (UPN).
Mª José Pérez de E. Urrea andrea (NAS).
Inmaculada Pinilla Baigorri andrea (NAS)
Juan Andrés Platero Alda jauna (NAS)
J. Mateos Hernández jauna (NAS)
Inmaculada Matías Angulo jauna (NDE)
Pedro Mª Antuñano Zarraga jauna (NDE)
Patxi Zabaleta Zabaleta jauna (HB).
Pedro Mª Romeo Lizarraga jauna (HB)
Begoña Errazti Esnal andrea (EA/EAJ-PNV)

**1999ko urria:**

**Lehendakaria:**
Mª Isabel Beriain Luri andrea (UPN)
**Lehendakariordea:**
Félix José Puyo Rebollo jauna (EH)
**Idazkaria:**
Isabel Delgado López andrea (NAS)
**Kideak:**
Esteban Garijo Pérez jauna (UPN).
Josefina Bozal Bozal andrea (UPN)
Alberto Catalán Higueras jauna (UPN)
Pedro Eza Goyeneche jauna (UPN)
José Javier Viñes Rueda jauna (UPN)
Juan Antonio Andión Gastón jauna (NAS)
Carolina Castillejo Hernández andrea (NAS)
Aurkune Ortiz Egizabal andrea (EH)
Juan Cruz Alli Aranguren jauna (CDN)
Isabel Arboniés Bermejo andrea (IU/EB)
Begoña Errazti Esnal andea (EA/EAJ-PNV)

Era askotako gaiak lantzen dira batzordean; hori dela eta, ezinezko zaigu guztiak aipatzea. Gainera, kontuan hartu behar da, izenak adierazten duen bezala, Batzordeak Hezkuntza duela helburu, Unibertsitateko hezkuntza barne, bai eta Kulturarekin loturiko guztia ere. Ondotik ematen ditugun datuak Nafarroako Parlamentuko Jardueren Oroit-idazkitik ateratako laburpen bat dira: 1998ko maiatzaren 28an hasi eta hurrengo urteko egun bera bitartean, IV. legegintzaldian, unibertsitatez besteko hezkuntzari buruz aztertutako gaiak dira.

**Hezkuntza eta Kultura Batzordea:**

Egindako bilkurak .......... 22
Mozioak .......... 15
Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren agerraldiak .......... 14

**Osoko Bilkura:**

Jabeldurak .......... 2
Ahoz erantzuteko galderak .......... 2
Idatziz erantzuteko galderak .......... 30
Onetsitako erabakiak .......... 9
Osoko Bilkuran eztabaidaturiko mozioak .......... 6

Hona Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordean gehien aztertu diren gaiak, ikusirik zenbat aldiz aztertu diren:

**1998 URTEA:**

- *Euskararen irakaskuntza eta euskarazko irakaskuntza.*
- *Eskola garraioa.*
- *Derrigorrezko Hezkuntzako eta Derrigorrezkoaren ondoko Hezkuntzako talde bereziak (Gizarte garantia, Lanbide Hastapenak).*
- *Hizkuntza modernoak.*
- *LOGSEaren batxilergo berria – haren mapa eta finantziazioa -.*

**1999 URTEA:**

- *Euskara.*
- *Testu-liburuen doakotasuna.*
- *0-3 urte hezkuntza zikloa.*
- *Eskola garraioa.*
- *Batxilergoko eta UBIko irakaskuntza.*
- *Hezkuntzako aurrekontuaren garapenari buruzko jarraipena.*
- *Matrikula eta eskariak.*

Hona Nafarroako Parlamentuak 1998ko ekainetik 1999ko ekainera bitartean hezkuntzaren inguruan onetsitako erabakiak:

- *Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da José Mª Iribarren ikastetxe publikoan eta Ermitagaña BHIn D ereduko lerro bana ireki dezan. (1998ko ekainaren 24ko 48. A.O.). (Ebazpena, 1998ko ekainaren 17ko 55. A.O.).*

- *Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Arte Ederretako Eskolan, arte-batxilergoaren irakaskuntzan, D eredua ezar dezan. (1998ko ekainaren 24ko 48. A.O.). (Ebazpena, 1998ko ekainaren 17ko 55. A.O.).*

- *Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak salbuespen gisa San Francisco ikastetxean D ereduan matrikulatutako ikasleentzat neurriak har ditzan eskatzen da. (1998ko ekainaren 24ko 48. A.O.). (Ebazpena, 1998ko ekainaren 17ko 55. A.O.).*

- *Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ave María ikastetxean D ereduan matrikulatutako ikasleen taldea zatibitu dezan. (1998ko uztailaren 24ko 48. A.O.). (Ebazpena, 1998ko ekainaren 17ko 55. A.O.).*

- *Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntza eta Kultura Batzordeak "D" ereduari buruz 1998ko ekainaren 26an onetsitako ebazpena bete dezan. (1998ko irailaren 15eko 68. A.O.). (Ebazpena, 1998ko irailaren 25eko 72. A.O.).*

- *Ebazpena. Horren bidez Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen da eskola garraioari buruzko Plan bat egin dezan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia. (1998ko urriaren 19ko 79. A.O.). (Ebazpena, 1998ko azaroaren 2ko 84. A.O.).*

- *Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Lodosako barrutiko derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzako ikasleak Eskola Garraioari buruz egiteke dagoen Planean sar ditzan. (1998ko azaroaren 2ko 84. A.O.). (Ebazpena, 1998ko azaroaren 23ko 90. A.O.).*

- *Ebazpena, eredu elebidunak ezar daitezen, irakaskuntza frantsesez, ingelesez edo alemanez emateko. Osoko Bilkurak onetsia (1998ko azaroaren 20ko 89. A.O.). (Ebazpena, 1998ko abenduaren 18ko 96. A.O.).*

- *Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da eskola-garraioaren plan bat egitura dezan. Osoko Bilkurak onetsia. (1999ko urriaren 18ko 1. A.O.).*

Atal honetan ikus daiteke Nafarroako Gobernuak eta Hezkuntza Departamentuak unibertsitatez besteko hezkuntza sistema berriaren beharkizunei egokitzeko burutu behar izan duten araugintzazko garapena. Bere neurrian balioetsi behar da araugintzazko garapen hori, Nafarroa hezkuntzako eskumen guztiak bereganatuak dituen autonomia izanik, arau mailan daukan ahalmena kontuan harturik.
Horri dagokionez, Eskola Kontseilu honen iradokizuna da arauak emateko ahalmen hori ahal den guztian erabili behar dela.

## 2. Ikasleak.

### *2.1. Ikasleak, etapaka.*

Atal honetan zehatz-mehatz azalduko dugu gure hezkuntza sistemako hezkuntza etapa ezberdinetan dauden ikasleen kopurua, bai LOGSEaren arabera ari direnak, bai bukatzen ari diren aurretiko ikasketetetako planen arabera ari direnak ere.

Datu hauek 90/91 eta 98/99 ikasturtetakoak dira; 90/91 ikasturtean bereganatu zituen Nafarroak hezkuntza eskumenak.

Deigarri egiten zaigun lehenbiziko datua guztizko kopuruei dagokie. Beherakada nabarmena gertatu da: 90/91 ikasturtean 105.804 ikasle izatetik 98/99 ikasturtean 83.193 ikasle izatera iragan da, hau da, % 21,37ko galera gertatu da.

Datu positibo gisa, nahiz eta ñabardura batzuk egin behar diren, ikus daiteke Haur Hezkuntzako 2. zikloko ikasleen kopurua finkaturik dagoela azken lau urteetan: 13.850 ikasle inguru izan dira. Halaber, positiboa da ere 3, 4 eta 5 urteko haurren % 100 eskolaratuta daudela, hau da, eskolaratze erabatekoa gertatzen dela.

Ikastetxe publikoen eta itundutako ikastetxeen araberako Nafarroako eskolaratzeari dagokionez, sektore publikoak gora egin du: publikoan % 58,53 eta itunpeko pribatuan % 41’47 izatetik (90/91 ikasturtea) publikoan % 60,95 eta itunpeko pribatuan % 39,05 izatera iragan da.

Estatu mailako eskolaratzea ondoko zen 96/97 ikasturtean, sektore publikoa eta itunpeko sektore pribatua kontuan harturik: % 67’64 publikoan eta % 32’36 itunpeko pribatuan.

| | 90/91 ikas-turtea | 91/92 ikas-turtea | 92/93 ikas-turtea | 93/94 ikastur-tea | 94/95 ikastur-tea | 95/96 ikastur-tea | 96/97 ikastur-tea | 97/98 ikastur-tea | 98/99 ikastur-tea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Haur Hezkuntzako 2. Zikloa** | | | | | | | | | |
| Publikoa | 7.955 | 7.998 | 7.887 | 7.972 | 7.870 | 7.998 | 8.266 | 8.336 | 8.444 |
| Itunpekoa | 7.088 | 6.391 | 6.420 | 6.331 | 6201 | 5.873 | 5.728 | 5.549 | 5.514 |
| **Guztira** | **15.043** | **14.389** | **14.307** | **14.303** | **14.071** | **13.871** | **13.994** | **13.885** | **13.958** |
| **Lehen Hez. /OHO** | | | | | | | | | |
| Publikoa | 31.685 | 29.830 | 27.984 | 26.880 | 25.784 | 18.283 | 17.439 | 17.334 | 17.252 |
| Itunpekoa | 24.844 | 23.526 | 22.482 | 21.225 | 20.072 | 13.558 | 12.684 | 12312 | 11.936 |
| **Guztira** | **56.529** | **53.356** | **50.466** | **48.105** | **45.856** | **31.841** | **30.123** | **29.646** | **29.188** |
| **Bigarren Hez.** | | | | | | | | | |
| Publikoa | | | | | | 6.658 | 10.821 | 13.637 | 13.286 |
| Itunpekoa | | | | | | 5.137 | 7.841 | 10.105 | 9.712 |
| **Guztira** | | | | | | **11.795** | **18.662** | **23.742** | **22.998** |
| **Batxilergoa/UBI** | | | | | | | | | |
| Publikoa | 11.940 | 10.755 | 10.443 | 10.125 | 9.807 | 9.592 | 7.163 | 4.866 | 5.795 |
| Itunpekoa | 7.164 | 7.318 | 7.185 | 7.105 | 6.940 | 6.736 | 4.756 | 3.041 | 2.946 |
| **Guztira** | **19.104** | **18.073** | **17.628** | **17.230** | **16.747** | **16.328** | **11.919** | **7.907** | **8.741** |
| **LH** | | | | | | | | | |
| Publikoa | 7.417 | 6.766 | 6.639 | 6.464 | 6.633 | 7.321 | 6.416 | 5.655 | 5.151 |
| Itunpekoa | 4.504 | 4.578 | 4.413 | 4.509 | 4.537 | 4.458 | 3.593 | 2.598 | 2.233 |
| **Guztira** | **11.921** | **11.344** | **11.052** | **10.973** | **11.170** | **11.779** | **10.009** | **8.253** | **7.384** |
| **REM** | | | | | | | | | |
| Publikoa | 2.779 | 3.714 | 4.490 | 4.966 | 5.002 | 4.294 | 2.619 | 1.403 | 693 |
| Itunpekoa | | 15 | | | | | | | |
| **Guztira*** | **2.779** | **3.729** | **4.490** | **4.966** | **5.002** | **4.294** | **2.619** | **1.403** | **693** |
| **Hez. Berezia** | | | | | | | | | |
| Publikoa | 152 | 141 | 116 | 98 | 93 | 85 | 70 | 94 | 82 |
| Itunpekoa | 276 | 280 | 225 | 211 | 195 | 170 | 156 | 159 | 149 |
| **Guztira** | **428** | **421** | **341** | **309** | **288** | **255** | **226** | **253** | **231** |
| **Publikoa, guztira** | **61.928** | **59.204** | **57.559** | **56.505** | **55.189** | **54.231** | **52.794** | **51.325** | **50.703** |
| **Itunpeko pribatua, guztira** | **43.876** | **42.108** | **40.725** | **39.381** | **37.945** | **35.932** | **34.758** | **33.764** | **32.490** |
| **GUZTIRA** | **105.804** | **101.312** | **98.284** | **95.886** | **93.134** | **90.163** | **87.552** | **85.089** | **83.193** |

* 1994/95 ikasturtera arte lanbide moduluak ere biltzen ditu

1990/91 eta 1998/99 bitarteko datuak “Nafarroako Hezkuntza Estatistika”tik hartutakoak dira.

### 2.2. Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak.

Espainiako Estatuan Eskola Integrazioa, Programa Esperimental gisa, 1985 urtean hasi zen, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak ikastetxeak horretara borondatez biltzeko egin zuen deialdiaren bitartez. Laguntzarako giza baliabideak jartzen hasi ziren orduan (irakasle adituak eta ekipo psikopedagogikoak), sentimenezko gaigabeziaren bat –ikusmena eta entzumena–, mugimenduzko gaigabeziaren bat edo gaigabezia psikikoren bat zuten ikasleei hezkuntza-erantzun integratua emateko.

1985-90 aldian, Nafarroan, integrazioa gero eta orokorragoa bihurtu zen. 1990ean, berez, "integrazio ikastetxeak" ziren OHOko ikastetxe publiko guztiak eta 6 itunpeko ikastetxe.

Programari buruzko ebaluazioa egiterakoan, HKMak ez zuen integrazioa bera zalantzan jartzen; bai ordea hura posible eta eragingarria izan zedin behar ziren baldintzak: Ikastetxeko Proiektuak sartzea eta ez izatea Ikastetxeko Proiektuaren eransgarri bat.

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 2ko 1/1990 Lege Organikoak (LOGSE izenaz ezagutzen dugu) 36. artikuluan ezarri zuen ikasle guztientzat ezarritako helburuak erdiesteko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleek hezkuntza sistemaren barrenean behar diren baliabideak edukitzeko daukaten eskubidea. Horretarako, zehazten du ikasle horiei eskaini beharreko arretak normalizazioaren eta eskola-integrazioaren printzipioak bete beharko dituela.

Guztientzako hezkuntza funtsezko eskubide gisa lortu nahi duten hezkuntza politika demokratikoen helburuen barrenean, gaigabezia baldintza pertsonenekin loturiko hezkuntza premia bereziak dauzkaten ikasleen eskola integrazioaren printzipioa dago.

Hezkuntza ikasle guztientzat BAT dela jotzen da; izan ere, hezkuntza helburuak berdinak baitira guztientzat, nahiz eta haiek erdiesteko ikasle batzuek hezkuntza bitarteko edo baliabide material, antolamenduzko edo/eta pertsonal ezohikoak eta berezituagoak beharko dituzten.

Horrela, bada, "Hezkuntza Berezia" ondokoa da gaur egun: ikasle jakin batzuek, ahal dela, Hezkuntzaren helburu orokorrak eta komunak erdiesteko hezkuntza sistemak eduki behar dituen eta abian jarri behar dituen neurrien multzoa.

"Hezkuntza Premia Bereziak" (HPB) terminoak, berriz, ikasle horiek aipatu nahi ditu: hain zuzen ere, gaigabezia fisiko edo psikiko edo sentimenezkoa edukitzearen ondoriozko baldintza pertsonalengatik, edo jokaera asaldura larriak edukitzeagatik, eskolaratuta dauden aldian orokorrean eskaintzen direnez bestelako hezkuntza neurriak eta neurri lagungarriak behar dituzten ikasleak, hau da, "Hezkuntza Berezia" behar duten ikasleak.

Ikasle jakin batzuek, beren ahalmen fisiko edo psikikoengatik, eduki ditzaketen hezkuntza premia iraunkorren ondoan, beste ikasle batzuek aldi baterako izan ditzakete premia bereziak, beren motibazio edo interesengatik, desabantaila soziokulturalen bat edukitzeagatik edo adimen ahalmen handia dutelako. Horrek guztiak beharrezko egiten du hezkuntza ikasleen aniztasunari egokitzea, banakako ezberdintasunak errespetatuaz.

LOGSEa baino lehen ere, Nafarroan bazeuden Hezkuntza Berezirako hezkuntza zerbitzuak. Hezkuntza Bereziko Ikastetxeak, Mugimenduzko edo Entzumenezko minusbaliotasunen bat

zuten ikasleak lehentasunez hartzeko Integrazio Ikastetxeak, minusbaliotasun berariazkoei arreta emateko zerbitzuak eta laguntzako irakasleak eta orientazio ekipoak ikastetxe arruntetan hezkuntza premia bereziak zituzten ikasleei arreta emateko.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak beharrezko jo zuen baliabide eta zerbitzu horiek artikulatzea eta hezkuntza bereziaren arloan Hezkuntza Administrazioaren zerbitzuen jarduketa-irizpideak bateratzeko laguntza pedagogikoaren euskarri behar lukeen egitura bat sortzea. Horren ondorioz, 1993an Nafarroako Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroa (NHBBZ) sortu zuen. Hona haren egitura eta osaketa:

- 1 Zentroko zuzendaria.
- 1 Orientatzailea eta gizarte langile bat Entzumena eta Hizkuntza moduluan.
- 1 Orientatzailea eta gizarte langile bat Mugimendu-arazoetarako moduluan.
- 1 Orientatzailea Ikusmena moduluan.
- 4 Orientatzaileak eta 2 gizarte langile Arazo Psikikoen eta Portaera Arazoen moduluan.
- 2 Dokumentazio Unitateko arduradunak.
- 1 Informazioa eta Baliabideak Unitateko arduraduna.
- 1 Teknologia Berrien Unitateko arduraduna.

HPBak dituzten ikasleen **eskolaratzeak** ondokoak ekarriko ditu berekin:

1) Aurreinskripzioa ikastetxe arruntetan eta berezietan.
2) Ekipo psikopedagogikoen balioespena, zentroko orientatzaileen bitartez. (57/1996 Foru Agindua).
3) NHBBZaren berariazko ekipoekin batera lan egitea. (76/1993 Foru Dekretua eta 57/1996 Foru Agindua).
4) Eskolaratze modalitatearen proposamena zehaztea ondokoetan:
   a) *Ikastetxe arrunta:*
   Ikasle baten premia bereziak ikastetxe arruntetako ohiko baliabideekin edo laguntzako baliabideekin (irakasleak, tutoreak, laguntzako irakasleak, zaindariak, logopeda, NHBBZaren kanpoko laguntzak, kabinete pribatuen ikastetxe barruko edo ikastetxez kanpoko laguntzak –itunpeko ikastetxeen kasuan) asetzeko modukoak badira.
   b) *Lehentasunezko ikastetxea:*
   Ikastetxe arruntetan eskolaratzeko modukoak izan baina beren urritasunaren ezaugarriengatik (mugimenduzko edo entzumenezko urritasuna) laguntza berezituagoa eta jarraituagoa behar badu, eta laguntza hori emateko behar diren baliabide pertsonalak materialak eta teknikoak dauden tokian eskolaratzeko modukoa bada.
   c) *Ikastetxe berezia:*
   Ikasle baten HPBek banakako laguntza sustengatua edo iraunkorra eta jarduketa bereziak eskatzen baditu, eta horiek ikastetxe arrunt batean ohiko baliabideekin eta laguntzako baliabideekin emateko modukoak ez badira, ikastetxe bereziaren aukera egingo da. Nafarroan horrelako 2 ikastetxe publiko daude: Tuterako “Torre de Monreal” eta Iruñeko “Andrés Muñoz” ikastetxeak.
   d) *Hezkuntza bereziko unitatea:*
   Herrietan, ez ikastetxe berezirik ez lehentasunezko ikastetxerik ez dagoenez, zenbait ikastetxe arrunti ohikoak ez diren baliabideak ematen zaizkie; besteak beste, mugigarritasun arazoak gainditzeko modukoak izateko edo ikasle internoak eduki ahal izateko Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehen ikasmailetan. Horrelako ikastetxeak daude Lizarran, Tafallan, Altsasun eta San Adriánen.
   e) *Ikastetxe berezia/ikastetxe arrunta eskolaratze konbinatua:*
   Matrikula ikastetxe berezi batean egiten da; bertan hartuko du ikasleak hezkuntzaren

zatirik handiena; beste ikastetxea, berriz, osagarria izango da: ikasleak gizarteratze helburuak erdiesteko aurreikusita dago.
(Hori guztia aldiro aztertzen ahal izanen da; betiere ikaslearentzako erantzunik egokiena, dauzkan beharren araberakoa eta gizarteratze egoera ahal den eta handiena lortzekoa, bilatuko da).

5) Hezkuntza Departamentuko Eskolaratze Batzordearen irizpena.

**<u>Hezkuntza Bereziko Berariazko Programak:</u>**

**Burlatako "Santa Maria" laguntza zentroko hezkuntza programa.**

Santa Maria Gizarte Ongizate Departamentuko laguntza zentro bat da. Egoitza-zentroa da, eta gure Komunitateko adimen gaigabetu handiei laguntza ematen dihardu. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak hezkuntza programa bat garatzen du bertan –urriaren 15eko 1016/93 Ebazpenaren bitartez onetsi zen programa hori–, NHBBZaren psikikoen moduluaren laguntzarekin. Ikastetxe horretan erabateko dedikazioa duten irakasle espezialistak ari dira zentroan.

Zentroak 61 adimen gaigabetu handi eta larri hartzen ditu (46 internoak dira eta 15 kanpoan bizi direnak); horietatik 21 18 urtez behitikoak dira eta gainerakoak helduak dira.

Programa hori garatzeko honako baliabideak daude:

- 1996/97 ikasturtea: Pedagogia Terapeutikoko bi irakasle, NHBBZari atxikitakoak, erabateko dedikazioarekin. 10 ikaslerekin ari dira (bi taldetan)
- 1997/98 ikasturtea: Baliabide berak, 14 ikasle eta hiru talde.
- 1998/00 ikasturtea: Baliabide berak, 10 ikasle eta bi talde.

**Haur eta Gazteen Unitatea.**

Tratamendu trinkoko programa bat da, diziplina anitzen ikuspegi batetik landutakoa. Osasun Departamentuek (Adimen Osasuneko Institutua) eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuak burutu nahi dute. Garapeneko Asaldura Orokorreko diagnostikoa duten gaixoei zuzentzen zaie, baldin eta beren bilakaera zuzentzeko modukoa bada, eta 3 eta 10 urte bitartekoak badira.

Hasierako helburuek isolamendutik atera, komunikazioa eta elkarreragin soziala erraztu eta sustatu nahi dute, eta jokaeran ateratze hori oztopatzen edo galarazten duten asaldurak geldiarazi edo gutxitu nahi dituzte. Kontua da eskolako integrazio progresiboa gerta dadin aurretiaz behar diren oinarriak jartzea eta baldintzak ezartzea.

Hezkuntza Departamentuak honako langile hauekin laguntzen du programa hau:

- Pedagogi Terapeutikoko irakasle bat
- Hezkuntza laguntzaile bat
- Egunero taxiz 3 ikasle eta hezkuntzako laguntzailea garraiatzea

Programak 2 ikasturte irauten du, goizeko 9:00etatik 12:00etara, astelehenetik ostieralera. NHBBZeko Psikiko eta Konduktualen moduluaren laguntzarekin gauzatzen da. Programa ikastetxe aurrentetan eskolaraturik dauden 6 haurrekin hasi da.

**Derrigorrezkoaren ondoko etapa: Lanbide Hastapen Bereziko Programak.**

Gaigabezia psikikoarekin loturiko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei zuzentzen zaizkie prorama hauek; Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ikastetxe publiko edo pribatuetan horretarako baimendutako ataletan ematen dira. Unitate horiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Derrigorrezkoaren Ondoko Hezkuntzako ikastetxeetan egoten dira.

Haien helburua da egitura integratu eta normalizatuak sortzea Hezkuntza Premia Berezi iraunkorrak dituzten ikasleei laguntza emateko D.B.H. bukatu eta gero ere. Orain gutxi arte deskonektaturik egon ohi diren bi arlo elkarrekin lotzeko balio du honek: hezkuntzaren arloa eta lan arloa. Horixe da hezkuntzaren mundutik heldutasunerako bideari ekiteko moduetako bat.

D.B.H.n ezarritako helburuak erdietsi ez dituzten eta Lanbide hezkiketako titulaziorik ez duten 16 eta 21 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. 2 edo 3 ikasturteko iraupena du.

**Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleen bilakera,**
**hezkuntza etaparen arabera sailkaturik.**

| Hezkuntza etapa | 1993/94 ikasturtea | 1994/95 ikasturtea | 1995/96 ikasturtea | 1996/97 ikasturtea | 1997/98 ikasturtea | 1998/99 ikasturtea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Haur Hezkuntza | | | 574 | 180 | 183 | 200 |
| Lehen Hezkuntza | | | | 450 | 495 | 572 |
| Oinarrizko Hezkuntza | | | | | 111 | 137 |
| D.B.H. | | | 251 | 225 | 271 | 302 |
| Batxilergoa | | | | | | 5 |
| L.H. | | | | | 60 | 68 |
| F.P.E. /P.I.P.E./G.B.P. | | | (*) 265 | 86 | 112 | 95 |
| EE.MM. | | | | 21 | 17 | 2 |
| **GUZTIRA** | | | **1.090** | **962** | **1.249** | **1.381** |

F.P.E./ P.I.P.E. Heldutasunera iragatea, Lanak ikastea (16-21)
(*) Ikastetxe berezietako ikasleak, hezkuntza etapa guztietakoak.
*1999ko datuak, NHBBZek emandakoak*

## Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleen bilakaera.
## Ikastetxe arruntetan eta Ardatz Diagnostikoaren arabera.

| | 1993/94 ikasturtea | | 1994/95 ikasturtea | | 1995/96 ikasturtea | | 1996/97 ikasturtea | | 1997/98 ikasturtea | | 1998/99 ikasturtea | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoa | Itunpekoa | Publikoa | Itunpekoa | Publikoa | Itunpekoa | Publikoa | Itunpekoa | Publikoa | Itunpekoa | Publikoa | Itunpekoa |
| **Diagnostikoaren arabera** | | | | | | | | | | | | |
| Psikikoa | 380 | | 127 | | | | 690 | | 512 | 195 | 619 | 353 |
| Komunikazioa | 36 | | | | | | 82 | | 69 | 29 | 75 | 43 |
| Entzumena | 76 | | 105 | | | | 64 | | 53 | 20 | 52 | 26 |
| Ikusmena | 50 | | 42 | | | | 22 | | 19 | 9 | 21 | 13 |
| Mugigarritasuna | 83 | | 70 | | | | 61 | | 71 | 24 | 75 | 62 |
| Buruz apartak | | | | | | | 21 | | 15 | 10 | 21 | 21 |
| NHBBZek hartu ez dituen ikasleak | | | 281 | | | | 22 | | | | | |
| **Balio anitzeko ikasgelak (Psikikoak)** | 19 | | 66 | | | | | | | | | |
| **Batura** | | | | | | | | | **739** | **287** | **863** | **518** |
| **GUZTIRA** | **644** | | **691** | | **825** | | **962** | | **1.026** | | **(*)1381** | |

(*) Ikastetxe arruntetan eta berezietan
*1999ko datuak, NHBBZek emandakoak*

## Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleen bilakaera.
## Ikastetxeen arabera.

| | | 1993/94 ikasturtea | | 1994/95 ikasturtea | | 1995/96 ikasturtea | | | | 1996/97 ikasturtea | | | | 1997/98 ikasturtea | | | | 1998/99 ikasturtea | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Ikastetxe bereziak** | Publikoa | Itunpekoa | Publikoa | Itunpekoa | Haur H. | Oinar. H. | L.H.B | Guztira | Haur. H. | Oina. H. | L.H. B | Guztira | Haur. H | Oina. H. | L.H. B | Guztira | Haur. H | Oina. H. | L.H.B | Guztira |
| **Publikoa** | Andrés Muñoz | 51 | | 50 | | 9 | 30 | 11 | 50 | 7 | 28 | 15 | 50 | | 39 | 8 | 47 | 2 | 38 | 8 | 48 |
| | Torre Monreal | 29 | | 21 | | | 10 | 12 | 22 | 1 | 7 | 13 | 21 | 1 | 13 | 10 | 24 | 0 | 20 | 9 | 29 |
| | Guztira | 80 | | 71 | | 9 | 40 | 23 | 72 | 8 | 35 | 28 | 71 | 1 | 52 | 18 | 71 | 2 | 58 | 17 | 77 |
| **Itunpekoa** | Santa Maria zentroa* | | 35 | | 30 | | 32 | | 32 | | | 32 | 32 | | 14 | | 14 | 0 | 11 | 0 | 11 |
| | El Molino** | | 73 | | 75 | | | 59 | 59 | | | 53 | 53 | | 6 | 47 | 53 | 0 | 13 | 38 | 51 |
| | Isterria** | | 69 | | 74 | | 45 | 25 | 70 | | 41 | 26 | 67 | | 18 | 42 | 60 | 0 | 34 | 30 | 64 |
| | Virgen de Orreaga* | | 36 | | 29 | 3 | 20 | 9 | 32 | 11 | 11 | | 22 | 4 | 21 | | 25 | 6 | 21 | 0 | 27 |
| | Lakuntza/San Adrián/Oncineda** | | 22 | | 4 | | | | 0 | | | | 0 | | | | | | | | |
| | Guztira | | 235 | | 212 | 3 | 97 | 93 | 193 | 11 | 52 | 111 | 174 | 4 | 59 | 89 | 152 | 6 | 79 | 68 | 153 |
| | **Guztira** | **315** | | **283** | | 12 | 137 | 116 | **265** | 19 | 87 | 139 | **245** | 5 | 111 | 107 | **223** | 8 | 137 | 85 | **230** |

* Gizarte Ongizate Departamentuarekin itundutako zentroak
**Hezkuntza de Kultura Departamentuarekin itundutako zentroak. *1999ko datuak, NHBBZek emandakoak*

**Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleen bilakaera.**
**Zentroen titularitateasren arabera sailkaturik.**

| Ikastetxeen titularitatea | 1993/94 ikasturtea | | 1994/95 ikasturtea | | 1995/96 ikasturtea | | 1996/97 ikasturtea | | 1997/98 ikasturtea | | 1998/99 ikasturtea | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Publi-koa** | **Itunpekoa** | **Publi-koa** | **Itunpekoa** | **Publikoa** | **Itunpekoa** | **Publikoa** | **Itunpekoa** | **Publikoa** | **Itunpekoa** | **Publikoa** | **Itunpekoa** |
| Ikastetxe bereziak | 315 | | 283 | | 72 | 193 | 66 | 142 | 85 | 138 | 88 | 142 |
| Ikastetxe arruntak | 644 | | 691 | | 654 | 171 | 688 | 274 | 739 | 287 | 775 | 376 |
| **Batura** | | | | | **726** | **364** | **754** | **416** | **824** | **425** | **863** | **518** |
| **Guztira** | **959** | | **974** | | **1.090** | | **1.170** | | **1.249** | | **1.381** | |

*1999ko datuak, NHBBZek emandakoak*

Azken urte hauetan, gizartean, oro har, gero eta sentsibilizazio handiagoa antzeman da hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen gizarteratze eta eskolaratzeari dagokionez.

Nafarroako hezkuntza administrazioak ahalegin handiak egin ditu, eta oraindik ere egiten ari da, bai baliabide materialetan (instalazioak eta ekipamenduak), bai giza baliabideetan.
Horren guztiaren ondorioz, pertsona horiek eskola sisteman sartu dira integrazioaren eta normalizazioaren printzipioak betez. Integrazio prozesu hori, oro har, positiboa izan dela esan daiteke, nahiz eta orain ikasle horiek DBHra iritsi diren eta horren aurrean erronka berriak dauzkagun.

Azken urte hauetan, murriztu egin dira hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen ehunekoak sare publikoko ikastetxe arruntetan eta itunpeko irakaskuntza pribatuko ikastetxeetan; hala ere, antzeman daiteke sare publikoak hezkuntza premia bereziak dituzten ikasle gehiago hartzen jarraitzen duela, guztien % 68 hain zuzen ere. DESOreka hori pixkanaka zuzendu beharko da araugintzazko esku-hartzeen bitartez eta ebaluazio eta kontrol tresnak hobetuz, hala nola ikasleak hartzeko moduan eta baliabideak zuzen erabiltzean, Ikastetxeetako Partehartze, Gobernu eta Ebaluazioari buruzko 9/1995 Legeak ezartzen duen moduan.

Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak hobeki eskolara daitezen, Ikastetxeetako Partehartze, Gobernu eta Ebaluazioari buruzko Legeak ezarri zuen hezkuntza administrazioek bermatuko dutela hezkuntza premia bereziak dituzte ikasleak fondo publikoen kargura eskolaratzen direla; betiere, ikasleen banaketa orekatua mantenduko da, eta errespetatu egingo da ikasle horiek kasuan kasuko ikastetxeetako unitateetan ehuneko berdinetan banatuta daudela, salbu-eta bestelako irizpide bat gomendatzen denean ikasleen hezkuntza erantzun hobea lortzeko.

### 2.3. Erregimen Bereziko Irakaskuntzetan ari diren ikasleak.

Gure komunitatean ezarrita dauden Erregimen Bereziko Irakaskuntza zentroak Musika, Dantza, Arte eta Hizkuntza Modernoen arlokoak dira.

Musika Irakaskuntzen atala bereziki interesgarria da gure Foru Komunitatean; izan ere, artearen eta musikaren arloan daukagun eskarmentu zabala Nafarroako Udalek XIX. mendetik bultzatu izan dituzten ekimenetatik dator; mende hartantxe sortu ziren alor honetako arauz besteko irakaskuntza ez-ofizialak udal zentroetan emateko ardura.

Nafarroako musika irakaskuntzak oinarrizko udal kontserbatorioetan eta musika eskoletan eman izan dira orain arte. Musika eskola gehienak ere udalenak dira. Egoera hori 1993/1994 ikasturtean hasi zen aldatzen, Nafarroako Gobernuaren eta udal batzuen ekimenez, Hezkuntzari buruzko Legean, LOGSEn alegia, kontserbatorioentzat ezarritako gutxieneko beharkizunei begiratuta. Horri jarraituz, arestiko udal kontserbatorio oinarrizkoak musika eskola bihurtzen hasi ziren; azken horiek eskakizun akademiko eta antolamenduzko gutxiago dute, baina bidea ematen dute, sarrera-azterketa baten bitartez, zuzenean pasatzeko araupeko musika ikasketak egiteko. Araupeko ikasketa horiek Iruñeko "Pablo Sarasate" Kontserbatorioan emanen dira soilik. Hori da, eta ez beste ezer, ondoko koadroko estatistiketan musika ikasketetan agertzen diren aldaketen arrazoia.

Hala eta guztiz ere, zenbakiak azterturik, laurogeiko hamarkadan musika-ikasketetan izaniko eskari izugarriaren ondoren, halako egonkortze bat antzeman daiteke eskarietan: zortzi mila ikasle inguru ari dira, gaur egun, musika ikasketak egiten. Harrigarria da eskaintza pribatuaren murritza, gainerako lurraldeetan antzeman daitekeenaren aldean; seguruena hori gure komunitateko udalen eskaintza zabalari zor zaio.

Dantza irakaskuntzak ikastetxe BAKARREAN biltzen dira: Iruñeko eskola bat da hori. 98/99 ikasturtean, 166 neska eta mutiko ari ziren ikasten Dantzako Berariazko Eskolan –Nafarroan dagoen zentro publiko bakarra da.

Nafarroako arte irakaskuntzei dagokienez, ikusi ahal izan dugu ikasketa hauetarako izan den eskaria etengabe igotzen joan dela, eta etengabeko eskari hori LOGSEn ezarritakoaren babesean gertatu dela. Une honetan, BI arte-eskola daude –Corellan eta Iruñean–. Arte batxilergoaz gainera, Publizitaterako Grafikako, Argazkilaritza Artistikoko eta Ebanisteriako goi mailako zikloetako lanbide irakaskuntzak ere bildu dituzte ikastetxe horiek. Horrela, bada, 1990/1991 ikasturtean 291 ikasle izatetik 1998/1999 ikasturtean 377 ikasle izatera iragan da.

Hizkuntza modernoen ikasketak etengabe ari dira gora egiten eskariei dagokienez; hala ere, ez laurogeiko hamarkadan bezala. 1990/1991 ikasturtean 3.612 ikasle izatetik 1998/1999 ikasturtean 4.645 ikasle izatera pasatu da. Alemanera eta italiera dira igoera handiena izan duten hizkuntzak; haien atzetik ingelesa eta euskara ageri dira. Azpimarratzekoa da 1993/1994 ikasturtean Urrutiko Hizkuntza Eskolako programak sortu zirela, eta oso baliagarri suertatu dela hori eskariak bideratu eta hizkuntza modernoen irakaskuntza txertatu eta gorpuzteko; horretarako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe arruntetako baliabideak eta irakasleak erabili dira. 1998/99 ikasturtean, 35 ziren (15 publikoak eta 20 pribatuak) Hizkuntza Modernoen irakaskuntza programa integratuan sarturiko zentroak: 3.456 ikasle ari ziren batera Hizkuntza Modernoen –frantsesa eta ingelesa– irakaskuntza arruntetan eta Hizkuntza Eskolak berez dituen irakaskuntzetan ikasten.

## Eskolaratzearen bilakaera
## Erregimen Bereziko irakaskuntzan ari diren ikasleak

| | 1990/91 ikas-turtea | | 1991/92 ikas-turtea | | 1992/93 ikas-turtea | | 1993/94 ikas-turtea | | 1994/95 ikas-turtea | | 1995/96 ikas-turtea | | 1996/97 ikas-turtea | | 1997/98 ikas-turtea | | 1998/99 ikas-turtea | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publi-koa | Priba-tua | Publi-koa | Priba-tua | Publi-koa | Priba-tua | Publi-koa | Priba-tua | Publi-koa | Priba-tua | Publi-koa | Priba-tua | Publi-koa | Priba-tua | Publi-koa | Priba-tua | Publi-koa | Priba-tua |
| **Kontserbatorioak** | 12.484* | 537 | 7.227 | 294 | 5.827 | 282 | 4.055 | 206 | 3.024 | 108 | 2.546 | 25 | 1.254 | | 967 | | 1.063 | |
| **Musika Eskolak** | | | | | | | | | | | | | 6.928 | 450 | 7.184 | 499 | 6.582 | 515 |

* Ofiziala eta librea; gainerako urteetan soilik matrikula ofizialak zenbatu ditugu.

| | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Dantza Eskola** | 99 | | 83 | | 91 | | 75 | | 52 | | 31 | | 90 | | 77 | - | 81 | |

| | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Arte Eskolak** | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Antzinako Plana | 291 | | 302 | | 309 | | 259 | | 274 | | 276 | | 258 | | 173 | | 125 | |
| Erdi Mailako H.Z. | | | | | | | | | | | | | 15 | | 31 | | 21 | |
| Goi mailako H.Z. | | | | | | | | | 32 | | 34 | | 58 | | 101 | | 131 | |
| Batxilergo Artistikoa | | | | | | | | | | | | | | | | | 130 | |

| | 1990/91 ikas-turtea | | 19991/92 ikas-turtea | | 1992/93 ikas-turtea | | 1993/94 ikas-turtea | | 1994/95 ikas-turtea | | 1995/96 ikas-turtea | | 1996/97 ikas-turtea | | 1997/98 ikas-turtea | | 1998/99 ikas-turtea | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Hizkuntza Eskola Ofizialak** | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Ikastetxe kopurua | 2 | | 2 | | 2 | | 2 | | 2 | | 2 | | 2 | | 2 | | 2 | |
| IKASLEAK (mat. ofiziala) | 3612 | | 3267 | | 3883 | | 3687 | | 4158 | | 4108 | | 4550 | | 4614 | | 4645 | |
| Alemanera | 303 | | 242 | | 364 | | 351 | | 511 | | 528 | | 641 | | 510 | | 621 | |
| Euskara | 632 | | 535 | | 672 | | 680 | | 759 | | 771 | | 846 | | 896 | | 907 | |
| Frantsesa | 719 | | 685 | | 796 | | 728 | | 803 | | 778 | | 850 | | 895 | | 821 | |
| Inglelesa | 1861 | | 1754 | | 1891 | | 1736 | | 1834 | | 1773 | | 1954 | | 2049 | | 2053 | |
| Italiera | 97 | | 51 | | 160 | | 192 | | 251 | | 258 | | 259 | | 264 | | 243 | |
| IRAKASLEAK | 44 | | 48 | | 51 | | 49 | | 49 | | 47 | | 59 | | 61 | | 62 | |
| | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| **Urrutiko Hizkuntza Eskola** | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| IKASLEAK | | | | | | | 1360 | | 1984 | | 3555 | | 3493 | | 3520 | | 3456 | |
| Ingelesa | | | | | | | 1360 | | 1898 | | 3258 | | 3139 | | 3092 | | 2909 | |
| Frantsesa | | | | | | | | | 86 | | 297 | | 354 | | 428 | | 547 | |
| IRAKASLEAK | | | | | | | 3 | | 3 | | 4 | | 5 | | 0 | | 5 | |

*Nafarroako Hezkuntza Estatistikan bildutako datuak, 1990-91 eta 1998-99 bitarteko ikasturteei buruzkoak.*

Hizkuntza Erregimen Bereziko irakaskuntzak abenduaren 1eko 1523/1989 Errege Dekretuan bilduta daude; haren bitartez, irakaskuntza horietako lehen mailako gutxieneko edukiak onetsi ziren. Urrutiko irakaskuntzei dagokienez –Nafarroaren kasuan Nafarroako Urrituko Hizkuntza Eskola Ofiziala izeneko erakundeak (azaroaren 15eko 339/1993 Foru Dekretuaz sortua) ematen ditu eskola horiek–, 1993ko azaroaren 2ko Ministerio Agindu batez araupetu ziren. Agindu haren bitartez, urrutiko irakaskuntza horien lehenbiziko mailako oinarrizko zikloko curriculuma ezarri zen.

Hala eta guztiz ere, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren lehentasunezko helburua da Nafarroako hiru hizkuntza eskolen arauzko garapena eta garapen curricularra sustatzea, bai eta haiek ematen dituzten irakaskuntzak eta haien arteko koordinazioa ere.

Erregimen Bereziko musika irakaskuntzak, musika eskoletan eta "Pablo Sarasate" goi mailako kontserbatorioan ematen dira. Musika eta dantza eskolak abenduaren 21eko 421/1992 Foru Dekretuan ezarritako oinarrizko arauen bitartez araupetu ziren.

"Pablo Sarasate" kontserbatorioan ematen diren irakaskuntzei dagokionenez, bi ikasketa plan daude batera, 66ko plana izenaz ezagutzen dena –bukatzeko bidean dago hori–eta LOGSEren plana –lehenbizikoaren ordez ezarri da eta ezarriko da. Azken horren ezarpena LOGSEk aurreikusitako egutegiaren arabera ari da gauzatzen. Azpimarratzekoa da Nafarroa, beste autonomia batzuekin batera, aitzindaria izan dela plan berria ezartzen.

Dantza irakaskuntzei dagokienez, musika eskoletan ematen diren irakaskuntzekin gertatzen den bezala, 91ko plan esperimentala, bukatzeko bidean dagoena, eta LOGSEk Dantza Eskola Berariazkoentzat ezarritako plana daude batera.

## 2.4. Helduen Hezkuntza eta hezkuntza arreta berdintzaileak.

Puntu honetan hezkuntza jarduketaren alor bat sartu dugu, gizarte moderno eta garatuen ezaugarria dena; haren arabera, herritarra etengabeko hezkuntzaren subjektua da, bizi osorako, ez adinarengatik ez egoerarengatik mugarik jarri gabe.

1998/1999 ikasturtera arte, jarduketa hori ondokoen bitartez gauzatu da: antzinako Helduen Hezkuntza Iraunkorreko Ikastetxeen eta Ikasgelen bitartez, Nafarroako Urrutiko Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxeak (CENAVEBAD izenaz ezagutzen da) emaniko Oinarrizko Irakaskuntzen bitartez eta Urrutiko Batxilergo Irakaskuntzen bitartez –Nafarroako Urrutiko Batxilergoko Institutuak (INABAD izenaz ezagutzen da) emandakoak dira horiek–, eta Gaueko Batxilergoko ikasketen bitartez; Iruñeko "Plaza de la Cruz" eta "Navarro Villoslada" eta Tuterako "Benjamín de Tudela" BHIetan eskaintzen dira azken horiek.

1999ko uztailaren 6an (1999ko abuztuaren 30eko 108. N.A.O.), ikasketa horiek berriz araupetu dira ondoko Foru Dekretuen bidez:

255/1999 FORU DEKRETUA, uztailaren 6koa, Pertsona Helduen Oinarrizko Hezkuntza arautzen duena eta Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan horren irakaskuntzaren egitura eta curriculum zehatza ezartzen dituena.
256/1999 FORU DEKRETUA, uztailaren 6koa, Nafarroako Foru Komunitatean Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikasketak emanen dituzten ikastetxe publikoen sarea ezartzen duena.

Nafarroako Eskola Kontseiluak bi agiri horiei buruzko irizpena eman zuen. Hona haien ezaugarri nagusiak:
Helduen Oinarrizko Hezkuntza arautzen dute, nola-eta Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako curriculumak egokituz; beraz, irakaskuntza hauek albabetatzetik hasi eta Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua lortu bitarteko aldi osoa hartzen dute.
-Oinarrizko irakaskuntza hauek egotezko ala urrutiko modalitateetan hartu ahal izanen dituzte hemezortzi, eta ohiz kanpo hamasei, urtez goitiko pertsonek.
-Helduen oinarrizko prestakuntzak hiru maila ditu:

1. Hasierako heziketa, bere beharren arabera pertsona bakoitzak nahi duen denboran jaso ahal izanen da, astean 10 orduz; zortzi modulu izanen ditu hiru zailtasun gradutan sailkaturik: alfabetizazioa, irakurle berriak eta finkapena.
2. Oinarrizko heziketa, hiru esperientzia alorretan banaturik: komunikazioa, matematika eta natur eta gizarte ingurumena. Lau hileko sei modulutan antolatuta dago hori guztia, bi alor bakoitzeko. Bi lauhilekotan irakatsiko da.
3. Bigarren Hezkuntza: bidea emanen du Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua lortzeko; bi ziklotan antolatuko da (bi lauhileko izanen ditu bakoitzak), eta lau esperientzia alor bilduko ditu: komunikazioa, matematika, natur ingurumena eta gizarte ingurumena. Ikasketa hauek lau hileko hogei modulutan banatuko dira, eta lau lauhilekotan (bi ikasturte) irakatsiko dira.

Ikasketa hauek LOGSEk aurreikusitako irakasleek emanen dituzte, Helduen Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxeetan (I eta II. mailak) eta Bigarren Hezkuntzako Institutuetan (III. maila), eta hala behar izanez gero, urrutiko hezkuntzaren bitartez eta Helduen Oinarrizko Hezkuntzako Ikasgelen bitartez (I eta II. mailak). Ikastetxe hauek eta Ikasgela izenekoak eremu geografikoen arabera antolatuko dira.
-Ikastetxe hauek guztiek malgutasuna izanen dute beren eragin esparruko eskakizunei erantzuna eman ahal izateko.

-Helduen hezkuntzako sarea honela egituratuko da:

- Helduen Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxe Publiko bat, "José Mª Iribarren", Iruñean. Horretan egotezko modalitateko I eta II. mailak emanen dira. Nafarroa osorako II. mailako urrutiko modalitatea ere emanen du.
- Helduen Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxe Publiko bat Tuteran. Horretan egotezko modalitateko I eta II. mailak emanen dira.
- Helduentzako Bigarren Hezkuntzako Institutu bat Iruñean, egotezko eta urrutiko modalitateetako III. mailako irakaskuntzak emateko, Nafarroa osorako. Institutu horretan LOGSE batxilergoko urrutiko irakaskuntzak ere emanen dira Nafarroa osorako
- Tuterako "Benjamín de Tudela" Bigarren Hezkuntzako Institutua: egotezko modalitateko III. mailako irakaskuntzak emanen dira bertan.
- Zenbait eskualdetan, Helduentzako Oinarrizko Hezkuntzako Ikasgelak egonen dira, haietako bakoitzari atxikitako udalek egituratuak. Honakoak izanen dira: Altsasu, Elizondo/Lekaroz, Lizarra, Zangoza eta Tafalla.
- Hezkuntza eta Kultura Departamentuak baimena eman ahal izanen du III. mailako irakaskuntzak emateko zenbait institututan, sor daitezkeen eskakizunei erantzun egokia eman ahal izateko.

Foru Dekretu hauek osatu eta garatzeko ondoko foru aginduak eman dira:

- Foru Agindua, abuztuaren 24koa, Pertsona Helduen Oinarrizko Hezkuntzako irakaskuntzen ezarpena arautu eta Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan 1999/2000 ikasturtetik aitzina irakaskuntza horiek egiten dituzten ikasleak ikastetxe horietan sartu eta matrikula egiteko jarraibideak ematen dituena.
- Foru Agindua, Nafarroako Foru Komunitateko Helduentzako Oinarrizko Hezkuntzako ikasleak ebaluatu eta kalifikatzeko arauak ematen dituena.
- Foru Agindua, Nafarroako Foru Komunitatean 18 urtez goitiko pertsonek Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua zuzenean lortzeko azterketa libreen antolamendua arautzen duena.

**Helduen Oinarrizko Irakaskuntzak (HHI) eta Urrutiko eta Gaueko Batxilergoko irakaskuntzak**

| IKASTAROA | 90/91 | 91/92 | 91/93 | 93/94 | 94/95 | 95/96 | 96/97 | 97/98 | 98/99 | 99/00 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **H.H.I. Helduen hezkuntza eta sustapena** | | | | | | | | | | |
| **Ikasleak, guztira**<br>- Alfab. eta irak. berriak | 276 | 206 | 190 | 230 | 233 | 202 | 219 | 272 | | |
| - Z. ertaina, guztira | 201 | 190 | 175 | 144 | 159 | 164 | 145 | 176 | | |
| - Goiko z., guztira./ I/II | 1.501 | 1.572 | 1.604 | 1.596 | 1.342 | 1.403 | 1.197 | 1.072 | | |
| Oinarrizko heziketa, GUZTIRA | 1.978 | 1.968 | 1.969 | 1.970 | 1.734 | 1.769 | 1.561 | 1.520 | | |
| Gradu ondoko ikasketetan ari diren ikasleak | - | - | 295 | 522 | 672 | 809 | 933 | 966 | | |
| IKASLEAK, GUZTIRA | **1.978** | **1.968** | **2.264** | **2.492** | **2.406** | **2.578** | **2.494** | **2.486** | **2.548** | |
| HHIko IRAKASLEAK | **50** | **-** | **55** | **57** | **57** | **57** | **56** | **56** | | |
| | | | | | | | | | | |
| **CENAVEBAD (1)** | - | - | 80 | 125 | 53 | 66 | 41 | 54 | 46<br>64 libr. | |
| **INABAD** | 934 | 900 | 794 | 627 | 577 | 655 | 534 | 520 | 393 | 453 |
| **Gaueko Batxilergoa** | 1.007 | 902 | 886 | 872 | 762 | 697 | 650 | 546 | 441 | 443 |

*Nafarroako Urrutiko Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxea. Aurrekoetan sarturko datuak dira.*
*Geuk egindako koadroa da, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak emaniko datuak oinarri harturik.*

H.H.I.ko irakasleek berariazko bestelako jarduketak ere burutzen dituzte, esate baterako ondoko programetan laguntza eta arreta ematea:

- Gizakia Helburu (Iruña eta Lizarra)
- OASIS/TRANSEÚNTES/IBARRE MULTXOA (lehenbiziko biak Iruñean eta azkena Altsasun)
- ANTOX (Larraingoa)
- Udalek sustaturiko lantegi-eskolak:
  - Eraikuntza (Iruña).
  - Zaharberritze-lanak (Lizarra).
- Udalek sustaturiko lanbide-etxeak:
  - Fustiñana.

Espetxean egiten den lana oso ere da berezia, eta aurrekoez bestelakoa da espetxeak berekin dakarren guztiarengatik. Ingelesezko irakasle aditu bat, kirol jardueretarako gorputz hezkuntzako irakasle bat, irakasle orokor bat eta euskarazko irakasle bat (lanaldiaren erdia) ere aritu dira espetxeko programan.

Ekainaren bigarren astean hasi eta uztailaren 2ra bitartean, OASIS/TRANSEÚNTES/IBARRE MULTXOA izenekoan lanean ari zen irakaslea Altsasura joandako errefuxiatu kosovarrekin hasi zen lanean. Haurrekin aritu zen, bereziki.

Atal honetan aipaturiko araupetzea helduen araupeko irakaskuntzei dagokie soilik.

Arreta berezia jarri behar zaio bigarren hezkuntzaren baliokidea izanen den maila bat ezartzeari, irakaskuntza horietako zati batzuk ikastetxe batzuetan eta gainerakoak besteetan emateak sor ditzakeen koordinazio arazoak direla eta.

Komenigarria izanen litzateke azterketa sakona egitea pertsona heldu guztien hezkuntza premiei buruz, bai eta, Estatuko Eskola Kontseiluak gomendatzen duen bezala, Helduen Hezkuntza arautzeko Lege bat egitea ere, eta gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan diren helduentzako (etorkinak, langabetuak, gutxiengoak...) programa bereziak zabaltzea.

**Hezkuntza Berdintzailea.**

**Gutxiengo Kulturalak.**

97-98 ikasturtean 2.238 ziren gutxiengo etnikoetako ikasleak; haien % 75 ikastetxe publikoetan eskolaratuta zeuden. Azpimarratzekoa da, horri dagokionez, Nafarroa etorkin ugari biltzen diren lekua dela, eta etorkizunean etorkinen kolektiboak integratzeko neurriak hartu beharko direla.

Dauzkagun datuen arabera, hona gutxiengoetako ikasleen kopuruak:
Ijitoak. Oro har, kolektibo baztertu bat dira: degradazio soziokultural eta ekonomikoaren arazoak dituzte.
Atzerritarrak. Gaztelaniaz hitz egiten ez den herrietatik heldu direlako ikasteko zailtasun handiak dituztenak. Talde horretan sartu ditugu ere Hego Amerikatik heldu direnak; izan ere, gaztelaniaz badakiten arren, desabantaila-egoeran daude eta ez dute izaten behar den dokumentazioa
Portugesak. Gehienak bazterkeria edo pobrezia egoeran bizi dira. Aparteko talde bat kontsideratzen da kopuru handia direlako eta portugesa irakasteko programa berezi bat dagoelako.

Ondoko koadroan ikus daiteke horren azalpena, heziketa zikloen eta hezkuntza motaren arabera sailkaturik.

| | Haur Hezkuntza | | Lehen Hezkuntza | | DBH | | I. Publikoak, guztira | Itunpeko ikastetxeak, guztira. | Ikasleak, guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | C. Públ. | C. Conc. | C. Públ. | C. Conc. | C. Públ. | C. Conc. | | | |
| Ijitoak | 255 | 60 | 597 | 121 | 188 | 22 | 1.040 | 203 | 1.243 |
| Portugesak | 57 | 37 | 152 | 69 | 55 | 32 | 264 | 138 | 402 |
| Atzerritarrak. (portugesak ez) | 77 | 51 | 198 | 103 | 92 | 72 | 367 | 226 | 593 |
| **Guztira** | **389** | **148** | **947** | **293** | **335** | **126** | **1.671** | **567** | **2.238** |

*Kontuen Ganbarak "Eskolaratzeko baldintzak hobetzea" aurrekontu-programari buruz eginiko txostenetik hartutako datuak dira.*

Hona gutxiengo etnikoetako ikasleen banaketa ikastetxe publiko eta pribatuetan, ikasleen tarteak oinarri harturik:

| Ikasle kopurua | Itunpeko ikastetxeak | | Ikastetxe publikoak | |
|---|---|---|---|---|
| | Ikastetxe kopurua | Ikasle kopurua | Ikastetxe kopurua | Ikasle kopurua |
| 1etik 10era | 29 | 157 | 83 | 402 |
| 11tik 20ra | 8 | 125 | 29 | 403 |
| 21etik 30era | 2 | 48 | 15 | 373 |
| 30etik gora | 4 | 232 | 10 | 506 |
| **Guztira** | **43** | **562** | **137** | **1.684** |

*Kontuen Ganbarak "Eskolaratzeko baldintzak hobetzea" aurrekontu-programari buruz eginiko txostenetik hartutako datuak dira.*

Gutxiengo etnikoen kolektiboa osatzen duten pertsona gehienak ijitoak dira. Leku jakin ba-

tzuetan bizi dira; beraz, halako kontzentrazio bat gertatzen da bizi diren inguruetan.

Atal honetan, azpimarratzekoa da arazo klasikotzat jo ditzakegun horien ondoan, arazo berriak sortzen ari direla, Nafarroa etorkinen leku bihurtu baita; normalean maila ekonomiko eta kultural gutxiko pertsonak dira, askotan legezko agiririk gabekoak. Beste herri batzuetan etorkinekin izandako esperientzian oinarriturik, derrigorrezkoa da Nafarroako gizarteak etorkizuneko arazo hori planteatzea, hain zuzen ere neurriak hartzeko garaiz gaudela, eta behar diren plangintzak egin ahal izatea kolektibo hauek gure komunitateko hizkuntza ofizialak ikas ditzaten, integrazio erabatekoaren seinale baita hori.

**Gutxiengo kulturaletako pertsonei berariazko laguntza emateko irakasleak, ikastetxe publikoetan.**

| Ikastetxe kopurua, eskualdeen arabera. 1998/99 ikasturtean laguntzak irakasleak dituztenak | Laguntzako irakasleen kopurua | | | |
|---|---|---|---|---|
| | B betiko p. | Behi-behi-neko p. | Zerb. egink | L. K. |
| Iruñeko aldea............................................ 7 | 8 | | | 1 |
| Lizarrako aldea............................................... 4 | 2 | | 2 | 1/2 |
| Zangozako aldea ............................................... 1 | 1 | | | |
| Tafallako aldea .................................................. - | | | | |
| Marcilla-Azkoiengo aldea................................. 2 | | 1 | | 1 |
| Tuterako aldea.................................................. 2 | 1 | 1 | | |
| **IRAKASLEAK, GUZTIRA ............................. 18 eta erdi** | | | | |

Ikastetxe horietarako jarri ziren laguntzako irakasleak batez ere ijitoei laguntza emateko jarri ziren. Ikastetxeen egoera bereziak eta baldintzak ere baloratu ziren, bai eta defizit soziokultural nabarmenak zituzten ikasle etorkinik ba ote zegoen ere.

**Ikastetxe publiko eta itunpekoentzako laguntza ekonomikoak.**

Gutxiengo kulturaletako ikasleen eskasia ekonomikoei aurre egiteko eskolarako materialak eta ekipamenduak erosteko orduan, eta ikasle horiek irteera eta bisita kulturaletan eta ikasturte amaierako txangoetan parte har dezaten bultzatzeko, dirua bidali zen ikastetxe publikoetara. Ikastetxeek berek hartu zuten jasotako diru horiek beharren arabera banatzeko ardura.

Ikastetxeek bi modulu hauen arabera gauzatu zituzten beren eskaerak:
12.000 PTA/ikasle Haur Hezkuntzan/Lehen Hezkuntzan
15.000 PTA/ikasle DBHn

Ikastetxeei jakinarazi zitzaien aipatu modulu horiek ez zirela bide bakarrean aplikatu behar –laguntza-ikaslea–; aitzitik, laguntza berarekin ikasle bati baino gehiagori ematen ahal zaie laguntza bakoitzaren beharrizanak aztertu ondoren.

**Atzerriko ikasleak.**

Atzerriko ikasle asko gaztelaniaz hitz egiten ez den herrietatik heldu dira; horrek arazoak sorrarazi ditu ikasturtean zehar, gehiago Bigarren Hezkuntzako Institutuetan Haur Hezkuntzako

eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan baino.

Ez dago ikastetxe bakar bat ere horrelako ikasleen kopuru handia duenik; horrek errazago egiten du lehentasunezko helburu bat lortzea: hizkuntza ikas dezaten.

Halaber, aurreikus daiteke migrazioen joan-etorriak gero eta ugariagoak izanen direla; hori dela eta, plangintza arrazional bat egin beharko da ikasle horien beharrei behar bezala erantzuteko.

Helduen Hezkuntzako eta Hezkuntza Berdintzaileko Unitate Teknikoak gaztelania irakasteko materialak bidali dizkie haiek eskatu zituzten ikastetxeei; hain zuzen ere 20 ikastetxe publikotan eta itundutako ikastetxe batean banatu zen material hori:

"Pido la palabra" metodoko 18 ale
"El español es fácil" metodoko 19 CD-ROM.

**Portugesari eta Portugalgo Kulturari buruzko Programa.**

**Datu aipagarrienak.**

Portugesari eta Portugalgo Kulturari buruzko Programako jarduerak Iruñeko Ave María eta Sanduzelai ikastetxe publikoetan, Berriozarko Mendialdea ikastetxe publikoan eta Iruñeko Ntra. Sra. de la Compasión itunpeko ikastetxean burutu dira.

Irakasle portugesak: 3
Ikasle portugesak/portugesdunak: 106

**Jarduerak.**

Nafarroan, Euskadin, Galizian eta MEC lurraldean burutu diren jarduerak (azken horiek dira ugarienak eta kopuru handiena egiten dutenak) LALO proiektutik heldu dira: "Langile etorkin portugesen seme-alaben hezkuntza. Harrerako Hizkuntzaren eta Jatorrizko Hizkuntzaren irakaskuntza kultur aniztasunaren ikuspegitik". Sócrates-Comenius-Acción 2 Programaren barruan dago.

Hezkuntza Bereziko eta Aniztasunari Arreta Emateko Zuzendaritzaordea da proiektu hori koordinatzen duena.

Ikasturtearen bigarren hiruhilekoan eta hirugarren hiruhilekoaren hasieran LALO proiektuaren ondorioz argitaraturiko materialak jaso genituen. Berehala, lau ikastetxetan banatu ziren. Material horrek "AMIGOS" izenburu orokorra du eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloko 1. ikasmailari dagokio. Hiru hiruhilekotan banatuta dago. Hona haren edukiak:

Programazio orokorra
Orientazio didaktikoak
Ikaslearen liburua (ale bat programan ari den Lehen Hezkuntzako 1. ikasmailako ikasle bakoitzarentzat)

Azpimarratzekoa da gai honi buruzko X. Jardunaldi Pedagogikoetan ere parte hartu zela: "Ikastetxeen Antolamendua kultur aniztasunaren ikuspegitik". Santanderren izan ziren jardu-

naldi horiek, apirilaren 21, 22 eta 23an.

**Aldi baterako egonaldian dauden ikasleak.**

1999an zehar beste erkidego batzuetatik etorri eta Nafarroan aldi baterako dauden ikasleei buruzko datuek aurreko urtekoaren antzeko egoera islatzen dute.

**Gai aipagarrienak.**

- 5 irakasle kontratatu ziren, lanaldi osorako, Deikaztelu, Miranda de Arga (Vergalijo), Lizarrako "Remontival", Cadreita eta Villatuertako ikastetxe publikoetan. Kontratazio aldiak bi hilabete eta erdi hartu zuen.
- Halaber, aurreko ikasturtean bezala, ikasgela bat jarri zen Vergalijon frantses porruaren kanpainarako etorritako aldi baterako langileen seme-alabak Miranda de Argara eramatea ez zelako bidezkoa.

  Ikasgela jarri zen etxetzarrak baldintza egokiak zituen. Ohikoa ez den jarduketa hau positiboki baloratu beharrekoa da.
- Aldi baterako 252 ikasle joan dira klaseetara; horrek esan nahi du 1998ko udaberriko kanpainan baino 36 ikasle gehiago izan direla. Datu horiek hartzeko ikasturte bakoitzerako aukeran zeuden ikastetxeak hartu dira erreferentziatzat. Ehunekoei begiratuz gero, % 16,7ko igoera izan da.

Aldi baterako ikasle gehienak Jódar-tik (Jaén) heldu ziren: 184 ikasle ziren (guztien % 73,01). Jaén probintziako beste herri batzuetatik heldutako mutilak eta neskak batuz gero, 200 ikasle dira, guztira, hau da, % 79,37.

**Ospitaleratzeak.**

Ospitalean lanean ari den irakasleak aurreko ikasturteetako planteamendu berarekin jarraitu zuen, hau da, Gizarte Segurantzaren ospitale orokorrean ("Bideko Ama Birjina Ospitalea") aritu da goizez, eta etxez etxeko irakasle lanetan Iruñean eta Iruñerrian arratsaldez.

Eskualde geografiko batzuetan dagoen kontzentrazioak berekin ekartzen du, batzutan, zenbait ikastetxetako egoerak ez biderik emateko integraziorako: leku konfliktibo bihurtzeko joera dute, eta horrek, denborarekin, haiek desagertzea eragin dezake. Arazo hauentzako irtenbideak aztertu behar dira, eta behar diren neurriak jarri behar dira gutxiengo hauei laguntza ematen dieten ikastetxeen hezkuntza-lana garatzeko.

Inmigrazioaren ondorioz, atzerriko ikasleen kopuruak gora egin izanari buruz, berriz, lehen bait lehen aurreikuspen batzuk egin beharko dira ikastetxeetara ailegatzen ari diren ikasleei zuzen eta modu integralean lagundu ahal izateko.

Hezkuntza sisteman horrelako gutxiengoak izateak derrigorrezko egiten du curriculumetan eta eskoletako praktiketan zeharkako gaiak areagotzea; hain zuzen ere, kultur aniztasunaren aberastasunarekin loturiko alderdiak aztertzeko: gutxiengoen eskubideak errespetatzea eta abar.

(1. boto partikularra, HERRIKOArena; 2.a, CC.OOrena).

## *2.5. Ikasleak/Talde ratioak.*

**1990/91 ikasturtetik 1998/99 ikasturtera. Publikoa / Itunpeko pribatua.**

Haur Hezkuntzako 2. zikloko (3,4 eta 5 urte) unitate bakoitzeko “ratioa” pixkanaka jaisten joan da sektore publikoan: 1990/91 ikasturtean 18 izatetik 1998/99 ikasturtean 17 izatera pasatu da. Jaitsiera hori nabarmenagoa izan da itunpeko sektorean: 1990/91 ikasturtean 25 izatetik azken urtean 22 izatera pasatu da.

Estatu mailako “ratioa”, sektore publikoan, 1996/97 ikasturtean eta maila berean 19,77 ikaslekoa zen (Estatuko Eskola Kontseiluaren urteko txostenetik ateratako datuak; txosten horretan ez dira ageri sektore publikoa eta itunpeko sektorea bereizirik).

Ziklo horretan baimendurik dagoen gehieneko “ratioa” 25 ikasle/unitatekoa da; hala ere, sei unitate baino gehiagoko ikastetxe publikoek 20 ikasleren “ratioa” gainditzen dutenean, Haur hezkuntzako beste maisu-maistra bat ematen zaie.

6 eta 12 urte bitarteko derrigorrezko etapan, Lehen Hezkuntzan (1995era arte OHO eta 6 eta 14 urte bitarteko ikasleak), “ratioak”, lehengoak bezala, behera egin du sektore publikoan (20 ikasle 1990/91 ikasturtean eta 17 ikasle 1998/99 ikasturtean); sektore pribatuan 29 ikaslekoa zen 1990/91 ikasturtean eta 12koa izan da 1998/99 ikasturtean. Herrietako eskolek eta zenbait eskualde sozioekonomikoek batez besteko orokor horietan duten garrantzia oso nabarmena da. Lehen Hezkuntzako maila honetan, legezko gehienezko kopurua 25 ikaslekoa da. Estatuko batez bestekoa maila honetan 20,9 ikasle zen ikastetxe publikoetan, eta 26,7 ikasle ikastetxe pribatuetan (1996/97 ikasturteko datuak).

Egoera hori bera gertatzen da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, bai eta Lanbide Heziketan eta REM ikasketetan ere (azken plan hori desagertzen ari da; hezkuntza erreforma esperimentatzeko ezarri zen). Nafarroako “ratioak” Estatu mailakoez beheiti mantentzen dira: ikus daiteke 1996/97 ikasturterako estatu mailako “ratioa” DBHrako 25,4 ikaslekoa zen ikastetxe publikoetan eta 30 ikaslekoa ikastetxe pribatuetan. Batxilergoari dagokionez, Estatu mailan, ratioak, aipatu ikasturte horrexetarako, 33,6 ikaslekoa zen ikastetxe – publikoetan eta 31 ikaslekoa ikastetxe pribatuetan.

**Autonomi erkidegoetako ratioak eta M.E.C.-en lurraldeko ratioak 1996/97 ikasturtean.**

**Haur Hezkuntza.**
MEC-eko lurraldea, ikastetxe publikoak: 19,77

**Lehen Hezkuntza.**

| Lurraldea | Ikastetxe publikoak | Ikastetxe pribatuak | Ikastetxe guztiak |
|---|---|---|---|
| MEC-en lurraldea | 20,7 | 26,9 | 22,6 |
| Andaluzia | 22,8 | 29,1 | 24,1 |
| Kanariar Uh. | 21,2 | 26,9 | 22,3 |
| Kataluña | 20,6 | 26,2 | 22,8 |
| Galizia | 17,8 | 25,1 | 19,5 |
| ***Nafarroa*** | ***17,2*** | ***24,4*** | ***19,6*** |
| Euskadi | 16,0 | 23,2 | 19,3 |
| Valentzia | 21,9 | 26,5 | 23,3 |
| **Guztira** | **20,9** | **26,7** | **22,6** |

**Bigarren Hezkuntza.**

| | Lehen zikloa | | Bigarren zikloa | |
|---|---|---|---|---|
| Lurraldea | Publikoak | Pribatuak | Publikoak | Pribatuak |
| MEC-en lurraldea | 26,1 | 30,0 | 28,5 | 28,2 |
| Andaluzia | 25,7 | 33,1 | 28,5 | 31,1 |
| Kanariar Uh. | 23,6 | 27,8 | 28,2 | 28,3 |
| Kataluña | 27,1 | 30,6 | 27,8 | 30,9 |
| Galizia | 23,1 | 29,0 | 27,2 | 25,6 |
| ***Nafarroa*** | ***24,0*** | ***29,1*** | ***24,7*** | ***30,6*** |
| Euskadi | 22,1 | 27,3 | - | - |
| Valentzia | 24,7 | 29,6 | 27,2 | 26,2 |
| **Guztira** | **25,4** | **30,0** | **28,3** | **29,7** |

**Batxilergoa eta UBI.**

| Lurraldea | BBB eta UBI | | LOGSEren batx. | | Batx esperimentala | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoak | Pribatuak | Publikoak | Pribatuak | Publikoak | Pribatuak |
| MEC-en lurraldea | 34,4 | 31,0 | 27,5 | 28,3 | - | - |
| Andaluzia | 34,4 | 33,9 | 27,4 | 29,5 | - | - |
| Kanariar Uh. | - | - | - | - | - | - |
| Kataluña | 33,6 | 29,9 | 25,5 | 28,9 | - | - |
| Galizia | 33,5 | 29,8 | 21,4 | 14,5 | - | - |
| ***Nafarroa*** | ***28,0*** | ***31,3*** | - | - | - | - |
| Euskadi | 29,7 | 30,6 | 26,9 | 26,1 | 24,0 | 28,6 |
| Valentzia | 34,2 | 32,6 | 27,3 | 29,2 | - | - |
| **Guztira** | **33,6** | **31,0** | **26,9** | **28,1** | **24,0** | **28,6** |

**Lanbide Heziketa.**

| Lurraldea | LHI | | LHII | | Mod./Ziklo Ertainak | | Mod./Goi mailako Zikloak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoak | Pribatuak | Publikoak | Pribatuak | Publikoak | Pribatuak | Publikoak | Pribatuak |
| MEC lurr. | 29,8 | 31,0 | 28,5 | 32,5 | 19,1 | 21,8 | 24,4 | 23,4 |
| Andaluzia | 31,0 | 36,0 | 29,4 | 34,2 | 21,7 | 22,7 | 25,1 | 20,6 |
| Kanariarrak | 29,7 | 29,3 | 25,7 | 31,3 | 17,9 | - | 25,2 | - |
| Kataluña | 26,9 | 29,2 | 27,5 | 30,9 | 17,4 | 15,7 | 24,4 | 24,0 |
| Galizia | 29,1 | 32,0 | 26,9 | 41,4 | 18,0 | 19,0 | 24,7 | 29,0 |
| ***Nafarroa*** | ***26,0*** | ***33,6*** | ***27,9*** | ***31,3*** | ***17,3*** | ***23,7*** | ***23,1*** | ***26,0*** |
| Euskadi | 24,9 | 27,5 | 31,9 | 31,9 | 18,5 | 22,8 | 21,8 | 25,8 |
| Valentzia | 30,7 | 32,7 | 29,3 | 34,1 | 22,2 | 19,3 | 26,1 | 18,4 |
| **Guztira** | **29,4** | **31,12** | **28,3** | **32,1** | **19,5** | **20,8** | **24,5** | **23,7** |

**Ikaslea/taldea ratioen bilakaera**
**1990/91 eta 1998/99 ikasturteak**
**Publikoa/Itunpeko pribatua**

| | 1990/91 | 1991/92 | 1992/93 | 1993/94 | 1994/95 | 1995/96 | 1996/97 | 1997/98 | 1998/99 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Haur Hezkuntzako 2. zikloa** | | | | | | | | | |
| **Publikoa** | 18 | 18 | 18 | 18 | 18 | 18 | 17 | 17 | 17 |
| Itunpekoa | 25 | 24 | 24 | 24 | 24 | 23 | 23 | 22 | 22 |
| **Lehen Hezk./OHO** | | | | | | | | | |
| Publikoa | 20 | 19 | 19 | 19 | 18 | 18 | 17 | 17 | 17 |
| Itunpekoa | 29 | 28 | 27 | 27 | 26 | 25 | 24 | 24 | 24 |
| **Bigarren Hezkuntza** | | | | | | | | | |
| Publikoa | | | | | | 24 | 24 | 23 | 22 |
| Itunpekoa | | | | | | 30 | 30 | 29 | 28 |
| **Batxilergoa/ UBI** | | | | | | | | | |
| Publikoa | 35 | 31 | 32 | 30 | 30 | 29 | 28 | 28 | 26 |
| Itunpekoa | 35 | 35 | 35 | 34 | 33 | 32 | 31 | 31 | 31 |
| **LH** | | | | | | | | | |
| Publikoa | 27 | 20 | 11 | 27 | 27 | 27 | 25 | 24 | 23 |
| Itunpekoa | 34 | 33 | 38 | 33 | 32 | 31 | 30 | 28 | 28 |
| **REM** | | | | | | | | | |
| Publikoa | 24 | 25 | 23 | 27 | 24 | 23 | 20 | 19 | 19 |
| Itunpekoa | | 15 | | | | | | | |
| **Hezk. Berezia** | | | | | | | | | |
| Publikoa | 5 | 5 | 5 | 4 | 5 | 4 | 4 | 4 | 4 |
| Itunpekoa | 11 | 10 | 9 | 9 | 9 | 8 | 8 | 8 | 7 |

Badakigu jakin ratioak ez direla kalitatearen adierazle bakarra, ez eta, askotan, garrantzitsuena ere, emaitza akademikoei dagokienez; hala ere, ez da gutxiets daitekeen datu bat ere. Hori dela eta, azken urte hauetan ratioetan gertatzen ari den beherakada hori banakako irakaskuntza erraz dezakeen datu bat da, zalantzarik gabe.

Sektore publikoaren eta itunpeko sektorearen artean ratioetan dauden ezberdintasunak azaltzeko aski da herrietako eskolaratzeak eta hirietako inguruetakoak eta auzoetakoak daukaten garrantzia ikustea, familiek berek hala eskatuta.

### *2.6. Hezkuntza eta lanbide orientazioa.*

- Hezkuntza zerbitzu honen egoera Nafarroan gure lege-xedapenen bitartez arautu izan da orain gutxi arte:
  - 222/1990 Dekretua, abuztuaren 31koa, orientazio psikopedagogikoaren eta hezkuntza bereziaren arloko jarduketa organoak ezarri eta lanpostu horietara sartzeko era arautzen duena (1990ko irailaren 19 N.A.O.).
  - 76/1993 Dekretua, martxoaren 1ekoa, Hezkuntza Berezirako baliabideen zentroa sortzen duena (1993ko martxoaren 15eko N.A.O.).
  - 260/1993 Dekretua, irailaren 6koa, Dekretua, abuztuaren 31koa, orientazio psikopedagogikoaren eta hezkuntza bereziaren arloko jarduketa organoak ezarri eta lanpostu horietara sartzeko era arautzen duen 222/1990 Dekretua aldatzen duena (1993ko irailaren 17ko N.A.O.).

- Aurreko guztiari jarraituz, orientazio zerbitzua Eskola Orientazioaren Unitate Teknikoaren bitartez bideratu izan da; unitate horretan integratzen, ziren Eskualdeko Taldetan antolaturik, psikologoak eta pedagogoak. Unitate Teknikoaren buruan unitateburu bat, Orientaziorako Koordinatzaile bat eta Dokumentazioaren arduradun bat zeuden.
- Hona indarren banaketa azken ikasturteetan:

| ESKUALDEA | 95/96 ikasturtea | 96/97 ikasturtea | 97/98 ikasturtea | 98/99 ikasturtea |
|---|---|---|---|---|
| Iruña, Lehen Hezkuntza | 38 | 20 | 20 | 18 |
| Iruña, Bigarren Hezkuntza | | 22 | 21 | 21 |
| Tafalla | 11 | 10 | 13 | 13 |
| Lizarra | 11 | 11 | 12 | 12 |
| Tutera | 16 | 15 | 15 | 15 |
| Elizondo | 6 | 6 | 6 | 6 |
| Irurtzun | 7 | 7 | 7 | 7 |
| Irunberri | 5 | 4 | 4 | 4 |
| **Guztira** | **94** | **95** | **98** | **96** |

*Hezkuntza eta Kultura Departamentuak emaniko laukia eta datuak.*

Egoera hori arras aldatu da beste Dekretu bat onetsi denetik. Dekretu horrek aurrekoak ordeztu ditu: maiatzaren 10eko 153/1999 Foru Dekretua da, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan Hezkuntza Orientazioa arautzen duena. Nafarroako Eskola Kontseiluak hari buruzko irizpena eman zuen 1999ko apirilaren 29an.
Hona dekretu berri horren ezaugarri edo berritasunei buruzko puntuz puntuko laburpen bat:

7. artikuluan "Hezkuntzarako Laguntzako Unitatea" sortzen da, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeentzat: ikastetxeko orientatzaileak, Pedagogi Terapeutikoko profila duten irakasleek, Entzumen eta Hizkuntza irakasleek eta profil berezia duten irakasleek osatuko dute.

- Haren eginkizunen artean, "Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntzak eman behar dien erantzuna diseinatzea, garatzea eta ebaluatzea" azpimarratu nahi dugu; horrek esan nahi du irizpideak finkatu behar dituela curriculume egokitzapenak egiteko, eta ikasteko zailtasunak eduki ditzaketen ikasleak jarraitu eta antzeman behar dituela.
- Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetan, gainea, Laguntzako Unitatea dago, "Aurre-

tiko ebaluazio psikologiko eta pedagogikoa egitea, hori egitea aginduzkoa den orota".

- Unitate honetako koordinatzailea "ikastetxeko orientatzaile bat" izanen da, eta zuzendariak izendatuko du.

11. artikuluan "Orientazio Departamentua" sortzen da: ikastetxeko orientatzaileak, aniztasunari buruzko programetan ari diren alorreko irakasleek, terapeutikako irakasleek eta entzumen eta hizkuntzako irakasleek osatuko dute.

- Haren ekinkizunen artean, ondokoak azpimarratu nahi ditugu: "IPBa eta Urteko Plan Orokorra prestantzen eta aldatzen parte hartzea, Koordinazio Pedagogikoko Batzordeari aholkua ematea, Departamentuekin lan egitea curriculum egokitzapenak egiteko eta hezkuntza indartzeko neurriak hartzeko, arloetako irkasleen programazioak egitea, hezkuntza premia bereziei eman beharreko hezkuntza erantzuna garatu eta ebaluatzea.
- Orientazio Departamentuaren burua orientatzaile bat izanen da.
- Bigarren Hezkuntzako Institutuetan "Tutoretzak Koordinatzeko Departamentu" bat eratuko da: ikasketa buruak, orientatzaileak edo orientatzaileek, DBHko ziklo bakoitzako irakasle batek eta, halakorik badago, batxilergoko irakasle batek osatuko dute; LH1eko ikastetxeetako kasuan, Lanbide Jardueren Departamentuko buruak eta Lanbide Orientazioko Departamentuko buruak ere Departamentuan sartuko dira.
- Haren eskumenen artean ondokoak daude: Ikasketen eta Lanbide Orientazioko Plan bat egitea eta Orientazio Kontseilu bat eratzen parte hartzea, ikasleen ikasketen eta lanbideen etorkizunaz jarduteko.

- 16. artikuluan "Eskola Orientazioko Unitate Teknikoa" sortzen da. Ikastetxeez kanpoko erakunde bat izanen da, ikastetxeetako orientazio lana koordinatzeko eta laguntzeko balioko duena.
  - Unitateburu batek zuzenduko du.
  - Hona haren eginkizun nagusiak: Plan orokorrak eta oroit-idazkiak egitea, txosten, proposamen eta proiektu tekniko eta antolamenduzkoak egitea, laguntza ematea Ikuskapen Teknikorako eta Zerbitzuen Ikuskapenerako Zerbitzuari laguntza ematea, ikerketa proiektuak egitea, material psikopedagogikoak zabaltzea, Hezkuntza Bereziko Unitate Teknikoarekin lan egitea eta Heziketa Programen Unitatearekin lan egitea.
- 18. artikuluak ezartzen du BHIaren Orientazio Departamentuaren eta Laguntza Unitateen arteko koordinazioa.
- Oro har, orientazio lanetako langileak beste irakasle bat balitz bezala atxikitzen zaio kasuan kasuko ikastetxeari. Behar diren kudeaketak eginen dira eskola orientatzaile funtzionarioak Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan sartzeko, Psikologia eta Pedagogia arloan.

Azken ikasturte honetan arauetan izan diren aldaketak–Nafarroako Eskola Kontseiluak haien aldeko txostena eman zuen– ikusita, beharrezkoa da haien praktikari buruzko jarraipen berezia egitea.

Itunpeko ikastetxeei dagokienez, Eskola Orientazioko Zerbitzua soilik familiek finantzatzen bazuten existituko zen. 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera, Lehen Hezkuntzarako eta DBHrako eta 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera Batxilergorako, Haur Hezkuntzako 2. ziklorako eta erdi mailako eta goi mailako Heziketa Zikloetarako, hezkuntza itunen modulu ekonomikoak egokitu dira zerbitzu horren kostua ere finantzatu ahal izateko.

## 2.7. Ikasleen eskubideak eta betebeharrak. Ikasleen elkarteak.

Gure komunitatean, unibertsitatez besteko hezkuntza mailetako ikasleen eskubideen eta betebeharren araupetzea Estatuko lege organikoek ezarritako bera izanen da, baina aurrekoa osatu eta garatzeko gure araugintzazko ahalmenaz baliatuz sortutako legedi propioa ere badugu.

*Ikasleen eskubide eta betebehar komunak edo orokorrak edo oinarrizko arauen araberakoak:*

1978ko Espainiako Konstituzioa: 16, 27.3, eta 27.7 artikuluak.
Hezkuntzarako Eskubideari buruzko uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoa (LODE izenaz ezagutzen duguna): 6 eta 7 artikuluak.
Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoa (LOGSE izenaz ezagutzen duguna): bigarren xedapen gehigarria.
Ikastetxeetako Partehartze, Gobernu eta Ebaluazioari buruzko 9/1995 Legea (LOPEG izenaz ezagutzen duguna)(1995eko azaroaren 21eko EAO): hirugarren xedapen gehigarria eta azken xedapenetako lehenbizikoa, 4.1.

*Nafarroako Foru Komunitateko ikasleen eskubideak eta betebeharrak:*

Honi buruzko araugintzazko garapena azaroaren 14ko 417/1992 Foru Dekretuaren bitartez egin zen (1993ko urtarrilaren 15eko 7. N.A.O.); haren bitartez, unibertsitatez besteko mailetako ikasleen eskubideak eta betebeharrak ezarri ziren.

Beranduago, uztailaren 14ko 191/1997 Foru Dekretuaren bitartez (1997ko abuztuaren 1eko 92. N.A.O.n argitaratu zen), aurreko 417/1992 Foru Dekretuko 6, 14 eta 31. artikuluak aldatu ziren.

Otsailaren 10eko 25/1997 Foru Dekretuak –1997ko martxoaren 14ko 34. N.A.O.n argitaratua– Nafarroako Bigarren Hezkuntzako Institutuen Erregelamendu Organikoa onetsi zen; VI eta VII. tituluetan, Ikasleen Ordezkarien Batzarrak eta Ikasleen Elkarteek izanen dituzten eginkizunak eta eskumenak garatzen dira.

Horren antzekoak dira urtero argitaratzen diren Instrukzioak, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxeen (260/1998 Foru Agindua), Hizkuntza Eskolen (259/1998 Foru Agindua), Kontserbatorioen, Dantza Eskolen eta Helduentzako Ikastetxeen antolamendua eta funtzionamendua araupetzeko ematen direnak.

*Ikasleen elkarteak.*

Ikasleak elkarteetan biltzeko eskubidea Espainiako Konstituzioko 27. artikuluko 5 eta 7. idatz-zatietan bilduta dago. Haietan baieztatzen da ukitutako sektore guztiek, horien artean ikasleka, partehartze efektiboa eduki behar dutela, eta legeek ezarriko duten moduan parte hartu ahal izanen dutela.

Partehartze hori uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoan (LODE) biltzen eta garatzen da, bai eta azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoan ere (LOPEGCE).
Kataluña, Andaluzia, Valentzia, Kanariar Uharteak eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak ikasleen elkarteak araupetzeko dekretuak eman dituzte.

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak urtero Estatu mailako ikasleen konfederazio eta federazioentzako dirulaguntzen deialdiak egiten ditu. Ondokoak dira gaur arte Estatu mailan dauden ikasleen konfederazioak: CANAE, Confederación Autónoma Nacional de Asociaciones de Estudiantes, 1987an sortua; lau ordezkari ditu Estatuko Eskola Kontseiluan; SILES, Sindicato Independiente Libre de Estudiantes, 1989an sortua; bi ordezkari ditu Estatuko Eskola Kontseiluan; eta, azkenik, SE, Sindicato de Estudiantes, Estatuko Eskola Kontseiluan beste bi –ordezkari dituena. Aurreko konfederazioetako bakarrak ere ez du, orain arte, lekurik izan Nafarroan.

Foru Komunitatean, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak urtero Nafarroako Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleen federazio eta elkarteentzako dirulaguntzen deialdia egiten du. 1998an, Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiaren otsailaren 16ko 173/98 Ebazpenaren bitartez deitu zen; ebatzi, berriz, ekainaren 30eko 687/98 Ebazpenaren bitartez ebatzi zen: 493.525 PTA banatu ziren guztira. Hona 1997/98 ikasturterako esleipen-hartzaile gertatu ziren elkarteak:

| Elkartea | Ikastetxea | Herria | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| Labiaga Ikastola | Labiaga Ikastola | Bera | 53.750 PTA |
| Santiago 93 | Nª Sª del Puy ikast. | Lizarra | 97.525 PTA |
| Luis Amigó | Luis Amigó ikast. | Mutiloabeiti | 131.250 PTA |
| Salesiano | Salesiano LI | Iruña | 96.000 PTA |
| Los Fueros | Ega BHI | San Adrian | 115.000 PTA |

1999ko martxoaren 3an –otsailaren 5eko 120/99 Ebazpenaren bitartez, 27 zenbakiko N.A.O.n 1998/99 ikasturterako deialdia argitaratu zen. Hona eskatu ziren baldintzak: legez eratuta eta inskribatuta egotea ikasleen federazio edo/eta elkarte gisa, eskaria epearen barruan aurkeztea eta ikastetxeko zuzendaritzaren txostena izatea. Deialdian esleipenerako agertzen diren irizpideei dagokienez, ondokoak hartuko dira aintzat: - atxikitako elkarteen kopurua, Federazioen kasuan, eta afiliatuen kopurua, elkarteen kasuan; - ikastetxeetako populazioaren inguruabar sozial eta ekonomikoak; azkenik, - aurkeztutako proiektuaren kalitatea eta interesa..

Hezkuntza Zuzendari Nagusiaren ekainaren 30eko 647 Ebazpenaren bitartez, ondoko laguntzak esleitu ziren aipatzen ditugun ikasleen elkarteei:

| Elkartea | Ikastetxea | Herria | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| Toki Ona | Toki Ona BHI | Bera | 150.400 PTA |
| Labiaga Ik. | Labiaga Ikastola | Bera | 46.450 PTA |
| Santiago 93 | Nª Sª del Puy ikas. | Lizarra | 91.700 PTA |
| Luis Amigó | Luis Amigó ikas. | Mutiloabeiti | 115.250 PTA |
| Salestarrak | Salesiano LI | Iruña | 121.575 PTA |
| Los Fueros | San Adrián BHI | San Adrián | 76.275 PTA |

Gastu hori guztia ondoko aurrekontu lerroaren kargura egotzi izan da: "Gurasoen eta Ikasleen Elkarte eta Federazioetarako dirulaguntzak eta Eskola Kontseiluetako partaidetza sustatzea".

Ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko dekretua: Kontseilu honek agiri horri buruzko txosten bat eginen duela aurreikusi da. Garrantzi handiko gai bat dela uste dugu; izan ere, hezkuntza komunitatea osatzen duten pertsona guztien arteko errespetua bermatu behar baitu, eta ikasleari bere ahalmen guztiak erabat garatzeko bidea eta pizgarriak emanen dituen eskola-giroa gauzatzeko modua eman behar baitu.

Gure kezka adierazi behar dugu ikasleen elkarte-mugimenduen eskasiarengatik, eta erakundeetan daukaten partaidetza eskasarengatik. Sektore guztiak premiatu nahi ditugu ikasleen inplikazioa susta dezaten, beren heziketa-prozesuarentzat daukan garrantzia dela eta.

Ongi deigarria da Nafarroako Eskola Kontseilua abian jarri eta urte eta erdi iragan direnean, oraindik ere ez dela bete ikasleei dagozkien ordezkarien tokia.

(3. boto partikularra, STEE-EILASena).

## 2.8. Bekak. Nafarroako Gobernuaren Deialdia

Beken eta ikasteko laguntzen politika garatzea eskola populazioaren talde batzuen baldintza sozial eta ekonomikoak berdintzeko balio duen ekintza bat da. Horrela ezarrita dago LOGSE-ren Bosgarren Tituluan.

Nafarroako Gobernuak bere beken eta ikasteko laguntzen deialdi propioa egin izan du, baina, betiere, Estatuko deialdiaren osagarri:
194/1998 FORU AGINDUA, ekainaren 8koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, maila ertain eta unibertsitarioetan, 1998/99 ikasturteko beketarako deialdi orokorra onesten duena.
285/1998 FORU AGINDUA, uztailaren 22koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, 1998/99 ikasturterako Hezkuntza Bereziko Bekak eta Laguntzak emateko deia egiten duena.
178/1999 FORU AGINDUA, ekainaren 4koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, maila ertain eta unibertsitarioetan, 1999/2000 ikasturteko beketarako deialdi orokorra onesten duena.
275/1999 FORU AGINDUA, abuztuaren 11koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, 1999/2000 ikasturterako Hezkuntza Bereziko Bekak eta Laguntzak emateko deia egiten duena.
Horrek esan nahi du, Estatuko deialdiko baldintza akademiko eta ekonomiko guztiak betetzen dituzten Nafarroako herritar guztiek, derrigorrez, horretara ere aurkeztu behar direla. Nafarroako beken eta ikasteko laguntzen deialdiak, bere zabaltasunarengatik eta eskakizun akademiko eta ekonomiko gutxiago dituelako, Estatuko deialdia hobetzen du; Nafarroako deialdiaren balizko onuradunek Nafarroako Gobernuarengandik jasoko dute Estatuan emandakoaren eta Nafarroako deialdiaren ondorioz hartu beharko luketenaren arteko diferentzia. Badago ere jende multzo handi bat Nafarroako Gobernuaren laguntza baizik jasotzen ez duena: Estatuko eskakizun akademiko edo/eta ekonomikoetan tokirik ez baina Foru Komunitateko deialdiko eskakizunak bai betetzen dituztenak dira.

Hona 1999/00 ikasturterako Nafarroako Gobernuaren Beken Deialdi Orokorraren oinarrizko ezaugarrien laburpena:
Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzak deitutakoak konpentsatzeko balio dute.
Ondoko kontzeptuengatik eska daitezke laguntza horiek: irakaskuntza edo matrikula (salbu itunpeko ikastetxeen edo dirulaguntzarik jasotzen duten ikastetxeen kasuan), 5 kilometro baino gehiagoko distantzia, jantokia, egoitza eta, halakorik behar denean, aparteko laguntza.
Ez da dirulaguntzarik emanen ondoko mailetako ikastetxe publiko, itunpeko ikastetxe edo dirulaguntzarik jasotzen duten ikastetxeetan: Batxilergoa, Lanbide Heziketa, REM, Arte Aplikatuak, Unibertsitateko Hirugarren Zikloa, Erdi edo Goi mailako Heziketa Zikloak.
Hona baldintzak: Nafarroan erroldatuta egotea, PFEZaren zergapekoak izatea Nafarroa (eskatzaileak edo haren ahaideak) eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioko beka eskatu izana, horretarako baldintzak betetzen baditu.
Unibertsitateko ikasketen kasuan, ikasleak kredituen kopuru jakin bat gaindituta behar ditu, eta ez du errepikatu behar.
Baldintza ekonomikoak era askotakoak dira, baina, oro har, lau tarte ezarri dira: lehenbizikoa errenta familiako kideen artean zatitu eta 711.000 PTA gainditzen ez dutenentzat; bigarrena, 711.001 eta 928.000 PTA arteko errenta dutenentzat; hirugarrena 928.001 eta 1.108.000 PTA bitarteko per capita errenta dutenentzat; eta laugarrena, 1.108.001 eta 1.236.000 PTA bitarteko errenta dutenentzat

Lehenbiziko tartean, ikasketetarako laguntza matrikularen % 100 izanen da; bigarren kasuan, % 70; hirugarrenean, % 50.
Nafarroako Unibertsitateko ikasketen kasuan, lau tartetan aplika daitezkeen ehuneko berriak ezarri dira, zentro ofizialetako matrikula eta Unibertsitate horrek ezarritakoaren arteko diferentziaren araberakoak.
Halaber, garraio, jantoki eta egoitzetarako bekak ere ezarri dira, per capita errentako lehen hiru tarteetako ikasleentzat.
Aparteko dirulaguntza 352.000 PTAko per capita errenta duten familientzat ezarri da: langabezian daudelako, umezurtzen kasuetan eta familian beharrizan bereziak dauden bestelako kasuetarako.

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak emaniko ondoko laukian ikus daitekeenez, unibertsitatez besteko ikasmailetan, jaitsiera nabarmena gertatzen da parametro guzti-guztietan.

Jaitsiera horren azalpenak hiru ardatz ditu: alde batetik, eskola populazioaren jaitsiera, Nafarroako jaitsiera demografikoaren ondorioz (Espainiako eta Europako baxuenen artean dago); bestetik, derrigorrezko hezkuntzaren eta derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzaren zabaltzea: lehen baino ikastetxe gehiago dago herritarrei irakaskuntza ematen dietenak; azkenik, doakotasuna unibertsitatez besteko maila guztietara zabaldu da, baita Foru Komunitateko ikastetxe pribatuetan ere. Ikus itunen atala.

Nafarroako Gobernuaren beken eta laguntzen zenbateko osoaren jaitsiera nabarmenaren azalpen osagarri gisa, aipatu behar da ere Estatuko deialdietako eskarietarako zuzkidurak igo eta bekak eskatzeko baldintzak ere hobetu direla; hori dela eta, 1990/91 ikasturtean zeuden aldeak pixkanaka murrizten joan dira gaur arte.

## NAFARROAKO GOBERNUAREN BEKETARAKO DEIALDI OROKORRA, ERDI MAILAKO ETA GOI MAILAKO IKASKETETARAKO

| IKASTURTEA | 1990/91 | 1991/92 | 1992/93 | 1993/94 | 1994/95 | 1995/96 | 1996/97 | 1997/98 | 1998/99 (1) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1. ESKARIEN KOPURUA, GUZTIRA (IKASLEAK)** | **14.823** | **13.411** | **13.684** | **13.928** | **13.797** | **13.328** | **11.029** | **9.926** | **8.878** |
| **2. EMANDAKO BEKEN KOPURUA, GUZTIRA** | | | | | | | | | **5.913** |
| 2.1 Unibertsitatez besteko mailetan | 5.666 | 4.515 | 4.727 | 4.640 | 4.414 | 3.327 | 2.370 | 1.925 | 1.493 |
| 2.2 Unibertsitateko mailetan | 6.421 | 6.394 | 6.240 | 5.915 | 5.953 | 5.781 | 4.914 | 4.760 | 4.420 |
| **3. EMANDAKO ZENBATEKOAK, GUZTIRA** | **1.345.783.387** | **1.531.142.350** | **1.379.918.277** | **1.410.444.210** | **1.482.323.206** | **1.444.594.355** | **1.251.217.762** | **1.198.856.252** | **1.090.377.490** |
| 3.1 Unibertsitatez besteko mailetan | 333.999.021 | 365.145.251 | 314.144.105 | 323.210.060 | 324.363.195 | 288.810.488 | 220.225.923 | 188.451.042 | 163.670.536 |
| 3.2 Unibertsitateko mailetan | 1.011.784.366 | 1.165.997.099 | 1.065.774.172 | 1.087.234.150 | 1.157.960.011 | 1.155.783.867 | 1.030.991.839 | 1.010.405.210 | 926.706.954 |
| **4. ORDAINDUTAKO ZENBATEKOA, GUZTIRA** | **1.012.414.929** | **1.130.832.717** | **951.872.951** | **855.424.116** | **867.070.834** | **843.740.486** | **718.004.653** | **717.792.940** | **627.737.119** |
| 4.1 Unibertsitatez besteko mailetan | 252.419.087 | 268.263.656 | 202.421.886 | 193.733.232 | 202.308.621 | 175.477.817 | 129.838.492 | 109.244.627 | 84.290.826 |
| 4.2 Unibertsitateko mailetan | 758.995.842 | 862.569.061 | 749.451.065 | 661.690.884 | 664.762.213 | 668.262.669 | 588.166.161 | 608.548.313 | 543.446.293 |
| **5. UNIBERTSITATEZ BESTEKO MAILETAN EMANIKO BEKEN KOPURUA, KONTZEPTUKA** | | | | | | | | | |
| 5.1 **IRAKASKUNZA** | | | | | | | | | |
| Beken kopurua | 2.229 | 632 | 563 | 497 | 473 | 453 | 397 | 391 | 318 |
| Zenbatekoa | 84.667.787 | 56.694.759 | 49.084.121 | 46.286.000 | 43.220.000 | 40.435.000 | 38.239.500 | 38.738.415 | 32.642.600 |
| 5.2 **GARRAIOA** | | | | | | | | | |
| Beken kopurua | 2.862 | 2.928 | 3.100 | 2.987 | 2.775 | 1.760 | 1.374 | 1.093 | 801 |
| Zenbatekoa | 72.497.736 | 84.925.653 | 74.826.577 | 75.202.805 | 80.247.694 | 55.403.753 | 45.996.116 | 39.348.979 | 35.448.135 |
| 5.3 **JANTOKIA** | | | | | | | | | |
| Beken kopurua | 884 | 827 | 629 | 588 | 501 | 367 | 230 | 111 | 64 |
| Zenbatekoa | 37.760.800 | 38.553.000 | 28.768.500 | 26.485.500 | 23.527.000 | 17.996.000 | 11.063.500 | 5.394.550 | 3.196.650 |
| 5.4 **EGOITZA** | | | | | | | | | |
| Beken kopurua | 912 | 943 | 927 | 972 | 925 | 839 | 630 | 491 | 424 |
| Zenbatekoa | 166.070.000 | 192.032.500 | 174.371.100 | 183.684.400 | 176.325.800 | 166.426.000 | 131.530.400 | 108.937.333 | 93.964.800 |
| 5.5 **APARTEKOA** | | | | | | | | | |
| Beken kopurua | 53 | 35 | 43 | 59 | 65 | 71 | 65 | 45 | 40 |
| Zenbatekoa | 5.314.886 | 2.379.096 | 3.930.000 | 5.200.000 | 5.680.000 | 7.052.000 | 6.613.000 | 4.597.500 | 4.216.500 |
| 5.6 **ETEKINERAKO SARIA (*)** | | | | | | | | | |
| Beken kopurua | | | 154 | 206 | 257 | 290 | | | |
| Zenbatekoa | | | 7.700.000 | 10.300.000 | 12.850.000 | 14.500.000 | | | |
| **UNIBERTSITATEZ BESTEKO ZENBATEKOA, GUZTIRA (**)** | **366.311.209** | **374.585.008** | **338.680.298** | **347.158.705** | **341.850.494** | **301.812.753** | **233.442.516** | **197.016.777** | **169.468.685** |

| IKASTURTEA | 1990/91 | 1991/92 | 1992/93 | 1993/94 | 1994/95 | 1995/96 | 1996/97 | 1997/98 | 1998/99 (1) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **6. UNIBERTSITATEKO MAILETAKO BEKAK, GUZTIRA** | | | | | | | | | |
| 6.1 **IRAKASKUNTZA** | | | | | | | | | |
| Beken kopurua | 6.199 | 6.167 | 5.911 | 5.586 | 5.745 | 5.220 | 4.532 | 4.459 | 3.795 |
| Zenbatekoa | 567.950.468 | 642.973.163 | 669.538.639 | 689.355.915 | 731.084.764 | 721.008.091 | 648.936.684 | 655.661.062 | 592.779.543 |
| 6.2 **GARRAIOA** | | | | | | | | | |
| Beken kopurua | 509 | 618 | 634 | 631 | 577 | 495 | 495 | 518 | 758 |
| Zenbatekoa | 15.399.210 | 16.168.354 | 17.754.340 | 17.659.866 | 16.265.151 | 19.218.161 | 19.593.407 | 22.980.105 | 33.942.370 |
| 6.3 **JANTOKIA** | | | | | | | | | |
| Beken kopurua | 113 | 149 | 163 | 163 | 174 | 231 | 236 | 153 | 164 |
| Zenbatekoa | 4.610.000 | 6.713.500 | 7.366.000 | 6.974.000 | 7.679.000 | 10.814.000 | 11.139.500 | 7.402.500 | 8.306.100 |
| 6.4 **EGOITZA** | | | | | | | | | |
| Beken kopurua | 2.750 | 2.657 | 2.453 | 2.184 | 2.204 | 2.109 | 1.973 | 1.894 | 1.673 |
| Zenbatekoa | 495.830.000 | 535.200.000 | 487.420.000 | 441.185.000 | 461.129.000 | 456.592.000 | 423.483.000 | 402.270.000 | 363.313.000 |
| 6.5 **APARTEKOA** | | | | | | | | | |
| Beken kopurua | 38 | 23 | 30 | 33 | 47 | 63 | 70 | 75 | 83 |
| Zenbatekoa | 3.854.221 | 2.506.767 | 4.401.000 | 4.950.000 | 7.050.000 | 9.639.000 | 11.200.000 | 12.375.000 | 13.432.500 |
| 6.6 **ETEKINERAKO SARIA (*)** | | | | | | | | | |
| Beken kopurua | | | 403 | 455 | 544 | 628 | | | |
| Zenbatekoa | | | 10.470.000 | 12.180.000 | 15.650.000 | 19.943.000 | | | |
| **UNIBERTSITATEKO ZENBATEKOAK, GUZTIRA (**)** | **1.087.610.863** | **1.203.561.784** | **1.196.949.979** | **1.172.304.781** | **1.238.857.915** | **1.237.214.252** | **1.114.352.591** | **1.100.688.667** | **1.011.773.513** |

**Oharrak :**

**(*) 1990/91 ETA 1991/92 IKASTURTEETAN, BAZEGOEN ESKOLA ETEKINERAKO SARIA ERE, BAINA IRAKASKUNTZARAKO DIRULAGUNTZAN SARTZEN ZEN. 1996/97 IKASTURTETIK AURRERA SARI HORI DESAGERTU DA.**

**(**) KOPURU HAUEK 3. ATALEAN EMANDAKO GUZTIZKO ZENBATEKOA GAINDITZEN DUTE, ZERGATIK-ETA KASU BATZUETAN KONTZEPTUEN BATUKETA HONI % 65, % 60, % 80 EDO % 70 APLIKATZEN ZAIOLAKO, IKASKETA MAILAREN ARABERA ETA DEIALDIAREN ARABERA ERE, EMANDAKO ZENBATEKOA KALKULATZEKO.**

**(1) 99-06-11ko BEHIN-BEHINEKO DATUAK.**

*Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuak emaniko datuak.*

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak, joan diren azken hiru ikasturteetan, berariazko deialdia egin du eskola liburuak erosteko laguntzak emateko. Deialdi horrek epe laburragoak, betekizun errazagoak eta ikastetxeetako eskola kontseiluen partehartze zuzena eskatzen dituzte. Azken horiek izanen dira, gainera, Hezkuntza Administrazioan proposamena egingo dutenak.

Nafarroan, dirulaguntza horien ematea ondoko koadroaren arabera eginen da:

**Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak liburuak erosteko emaniko laguntzak**
**Lehen Hezkuntza eta DBH**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Laguntzaren zenbatekoa | 10.000 PTA | 10.000 PTA | 12.000 PTA |
| Ikasmaila | 1997/98 | 1998/99 | 1999/2000 (1) |
| Emandako laguntzen kopurua | 2.308 | 2.154 | 2.978 |
| Eskarien kopurua | 1.309 | 5.097 | 4.701 |
| Emandako laguntzen kopurua | 1.068<br>763 (Lehen Hezk.)<br>305 (DBHko 1.eta 2.a) | 2.154<br>1.434(Lehen Hezk.)<br>720 (DBHko 1, 2, eta 3.a) | 2.974<br>1.843 (Lehen Hezk.)<br>1.131 (DBHko 1, 2, 3 eta 4.a) |

*Kapitulu honetan faltan botatzen dugu testuliburuak eta eskola materiala erosteko laguntzen deialdi propioa egitea hemen. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren bekak baizik ez dago, baina nabarmenki eskasak dira, bai beren zuzkidurarengatik, bai eskatzen den errenta mailarengatik ere. Testuliburuen doakotasuna gauzatzeko neurriak hartzen ez diren bitartean (ezinbesteko pausoa da hori hezkuntzaren doakotasuna lortzeko), beharrezko ikusten dugu kontzeptu horrengatiko bekak ematea.*

*Nafarroako Eskola Kontseiluak uste du beketarako aurrekontuetan jasotako zenbatekoek gora egin beharko luketela; halaber, haiek eskuratu ahal izateko arreta-mugak ere igo egin beharko lirateke.*

*2000 urteko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak 150 milioi pezeta ditu testuliburuak edo eskola materiala erosteko laguntzetarako.*

## *2.9. Selektibitatea*

Azterketa hauek arautzen dituzten xedapenak oso gutxi aldatu dira azken urteetan; aipatzekoa da bai Nafarroan egin behar izan ziren egokitzapenak, hain zuzen ere REM ikasketetatik, batxilergo esperimentaletik, heldu ziren ikasleen beharrei erantzuteko. Bitarteko pauso bat da hori LOGSEk aurreikusitako batxilergo berria orokortzen den arte.

1999/2000 ikasturtean LOGSE batxilergo berria Nafarroa guztian osatzen denez, Unibertsitatera sartzeko azterketa aldi baterako eta modu esperimentalean araupetu da; izan ere, LOGSE batxilergoa egin duten ikasleek sartu ahal izateko, Espainiako Estatu osorako azterketa bakarra eta orokorra ezartzen den arte (2002 urtea). Hona hari buruzko datu aipagarrienak:

- Ikasle bakoitzak gehienez ere lau deialditan hartzeko aukera izanen du. “Ez aurkeztua” kasuak ez dira kontuan hartuko. Azterketa errepikatu ahal izanen da, behin bakarrik, lortutako emaitza hobetzeko, baina Unibertsitate berean eta hurrengo urteko ekaineko deialdian.
- Azterketak bi ariketa izanen ditu:
  - ***Lehen ariketak hiru atal izanen ditu:*** **Lehena,** gaztelaniazko edo, D eredurako, euskarazko testu baten testu-analisia: ordubeteko edo ordu eta erdiko iraupena izanen du. **Bigarrena,** lehen aukera bezala ikasitako hizkuntzaren testu-analisia: ordubeteko iraupena. **Hirugarrena,** batxilergoko 2. mailan ikasitako ikasgaiari buruzko testu historiko baten analisia: ordubeteko edo ortu eta erdiko iraupena izanen du.
  - ***Bigarren ariketak hiru atal izanen ditu,*** ikasleak bigarren ikasturtean ikasitako ikasgaienak, alde batera utzita derrigorrezko ikasgai gisa edo aukerako ikasgai gisa ikasi dituen; betiere, ikasleak derrigorrez egin beharko ditu Batxilergoari loturiko ondoko gaiei buruzko azterketak:

    Aukera zientifiko-teknikoa: Matematika eta Fisika
    Osasun zientzien aukera: Biologia eta Kimika
    Giza gaien aukera: Latinera II
    Gizarte Zientzien aukera: Gizarte Zientziei aplikaturiko Matematika.
    Arteen aukera: Marrazketa Artistikoa II eta Artearen Historia.

    Bigarren ariketa honetako beste ikasgaia edo ikasgaiak ikasleak berak hautatuko ditu, baina aldagai eta baldintza batzuk izanen dira aukeren arabera.

    Hiru azterketa horietako bakoitzaren iraupena ordu eta erdi bitartekoa izanen da; Marrazketa Artistikoaren kasuan hiru ordu bitartekoa izanen da.
- Behin betiko kalifikazioa azterketa kalifikazio orokorraren batez besteko aritmetikoa izanen da, eta ezin izanen da izan lau puntu baino gutxiago, eta espedienteko batez besteko emaitza baino gutxiago. Behin betiko emaitza ezin izanen da bost puntu baino gutxiago izan.
- Ariketa eta azterketa guztiei zero eta hamar bitarteko puntuazioa jarriko zaie.

Txosten hau prestatzen ari ginen bitartean, 1999ko urriaren 27ko Estatuko Aldizkari Ofizialean 1640/1999 Errege Dekretua argitaratu da. Haren bitartez, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak, Estatuko Eskola Kontseiluaren aldeko txosten aldez aurretik duela, unibertsitate ikasketetarako sarrera-azterketa araupetu du. Dekretu horrek aldaketa batzuk sartu ditu, nahikoa garrantzitsuak, baina oraindik ere ez dakigu arestian aipatu dugun Nafarroako xedapenetan eragina izanen duen. Hona Hezkuntza eta Kultura Ministeriotik iragarri dituzten aldaketei buruz azpimarragarrien iruditzen zaiguna:

- Sarrera frogako eta espedienteko emaitzetako ponderazioetan aldaketa batzuk egitea: espedientean % 60 izanen dira eta frogarako %% 40.
- Kalifikazioei garrantzi edo balorazio handiagoa emanen zaie aukeratu den espezialitatearekin edo karrerarekin lotura handiena dutenei: bigarren ariketako % 80 eginen dute; ikasleak

aukeratu duen hautazko ikasgaiaren kalifikazioak, berriz, % 20 baizik ez du eginen.

Nafarroan sarrera-froga horren aplikazioak izaniko emaitzak komentatuko ditugu ondoren; Nafarroako Unibertsitate Publikoak egiten du froga hori, ofiziala delako. 1997/98 eta 1998/99 ikasturteetako ekaineko eta iraileko emaitzak harturik, honako hau esan dezakegu:

- Bi ikasturte horietako ekaineko eta iraileko deialdietako emaitza positibo orokorrak harturik ia berdinak dira, ikastetxeen eta frogaren egokitasunari dagokienez.
- Ekaineko bi deialdietan Nafarroako emaitza positiboak Estatuko batez bestekoaren gainetik daude, pixka batean: Estatuan % 88,22 egiten duten bitartean, Nafarroan % 93,1 egiten dute. Irailean azterketa gainditu dutenen ehunekoa ia berdina da Nafarroan eta Estatuan.
- Emaitzarik onenak aukera "zientifiko-teknikoko" ikasleek lortu dituzte: hiru edo gehiago puntu dituzte gainerako aukeretako emaitzen gainetik.
- Aipatzekoa da espediente akademikoaren batez bestekoaren eta sarrera frogaren batez besteko emaitzaren arteko diferentzia, bi ikasturteetan mantentzen dena, aukera guztietan, bai ekainean eta bai irailean ere: BI puntu baino gehiago egiten du. Behera alderako zuzenketa txiki bat egin behar da, bi puntu baino gutxiagoko aldea, "gizarte zientzien" aukeran.
- Sarrera frogak "aukeren" arabera sailkatzeari dagokionez, batez besteko emaitzak ia uniformeak edo oso antzekoak dira: ez dago hamarren gutxi batzuen aldea baizik.
- Azterturiko bi ikasturteetan "bost puntu" baino gutxiagoko batez besteko emaitza mantentzen dituzten ikasgaiak Mundu Garaikidearen Historia, Latinera eta Geologia dira. Gainerako ikasgaiek aldaketa txikiagoak dituzte.

Erreferentziarako elementu gisa, Estatuko gainditutakoen datuak hartu ditugu, ehunekoak erabiliz hartu ere. Estatuko Eskola Kontseiluaren Hezkuntza Sistemari buruzko Urteko Oroit-idazkitik hartu ditugu.

**<u>Estatu mailan</u> gainditu duten ikasleen eta matrikulatu diren ikasleen bilakaera, ehunekoak erabiliz**

| Deialdiak | Urteak | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1991 | 1992 | 1993 | 1994 | 1995 | 1996 | 1997 |
| **Ekaina** | % 86,00 | % 87,70 | % 88,10 | % 87,70 | % 87,60 | % 88,60 | % 88,22 |
| **Iraila** | % 64,80 | % 66,20 | % 66,70 | % 67,50 | % 66,10 | % 67,80 | % 66,31 |
| **25 urtez goitikoak** | % 29,40 | % 30,70 | % 32,60 | % 34,20 | % 36,00 | % 35,90 | % 38,84 |
| **Guztira** | **% 71,40** | **% 72,80** | **% 74,80** | **% 75,80** | **% 71,10** | **% 78,20** | **% 77,93** |

## NUPeko Selektibitate Azterketak
## Emaitzei buruzko laburpena, aukeren araberakoa

### - 1998 urtea-

| | Ikasleak | | Ehunekoak | | Azterketak, batez bestekoa | | Espedientea, batez bestekoa | | Gainditutakoak, guztira | | Gaindituen ehunekoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Aukera** | **98ko eka.** | **98ko ira.** | **98ko eka.** | **98ko ira.** | **98ko eka.** | **98ko ira.** | **98ko eka.** | **98ko ira.** | **98ko eka.** | **98ko ira.** | **98ko eka.** | **98ko ira.** |
| A – Zientifikoa-Tteknologikoa | 826 | 152 | % 33,470 | % 27,340 | 5,750 | 4,390 | 7,200 | 6,380 | 769 | 102 | % 93,100 | %% 67,110 |
| B – Biosanitarioa | 549 | 125 | % 22,240 | % 22,480 | 5,540 | 4,330 | 7,160 | 6,360 | 496 | 88 | % 90,350 | % 70,400 |
| C – Gizarte Zientziak | 827 | 204 | % 33,510 | % 36,690 | 5,390 | 4,290 | 6,820 | 6,170 | 763 | 130 | % 92,260 | % 63,730 |
| D – Giza gaiak- Hizkuntza | 266 | 75 | % 10,780 | % 13,490 | 5,400 | 4,420 | 6,770 | 6,160 | 240 | 50 | % 90,230 | % 66,670 |
| **Guztira** | **2.468** | **556** | **100** | **100** | **5,544** | **4,344** | **7,019** | **6,269** | **2.268** | **370** | **% 91,485** | **% 66,978** |

*NUPek emaniko datuak*

### -1999 urtea-

| | Ikasleak | | Ehunekoak | | Azterketak, batez bestekoa | | Espedientea, batez bestekoa | | Gainditutakoak, guztira | | Gaindituen ehunekoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Aukera** | **99ko eka.** | **99ko ira.** | **99ko eka.** | **99ko ira.** | **99ko eka.** | **99ko ira.** | **99ko eka.** | **99ko ira.** | **99ko eka.** | **99ko ira.** | **99ko eka.** | **99ko ira.** |
| A – Zientifiko-Teknologikoa | 791 | 194 | % 31,880 | % 28,910 | 5,590 | 4,350 | 7,260 | 6,320 | 748 | 132 | % 94,560 | % 68,040 |
| B – Biosanitarioa | 610 | 167 | % 24,590 | % 24,890 | 5,360 | 4,300 | 7,170 | 6,370 | 553 | 105 | % 90,660 | % 62,870 |
| C – Gizarte Zientziak | 740 | 212 | % 29,830 | 31,580% | 5,390 | 4,280 | 6,820 | 6,170 | 676 | 141 | % 91,350 | % 66,510 |
| D – Giza gaiak- Hizkuntza | 340 | 98 | % 13,700 | 14,610% | 5,340 | 4,350 | 6,800 | 6,140 | 304 | 66 | % 89,410 | % 67,350 |
| **Guztira** | **2.481** | **671** | **% 100** | **% 100** | **5,441** | **4,314** | **7,041** | **6,258** | **2.281** | **444** | **% 91,495** | **% 66,193** |

*NUPek emaniko datuak*

## Emaitzei buruzko laburpena, ikasgaien arabera
## - 1998 urtea-

| | Aurkeztutako ikasleak | | Azterketetako batez bestekoa | | Gainditutakoak, guztira | | Gainditutakoak, ehunekoak erabiliz | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 98ko eka. | 98ko ira. | 98ko eka. | 98ko ira. | 98ko eka. | 98ko ira. | 98ko eka. | 98ko ira. |
| Testua | 2.468 | 556 | 5,743 | 5,482 | 1.863 | 379 | 75,49% | 68,17% |
| Ingelesa | 2.276 | 514 | 5,517 | 3,772 | 1.419 | 131 | 62,35% | 25,49% |
| Frantsesa | 192 | 42 | 5,940 | 5,518 | 165 | 29 | 85,94% | 69,05% |
| Gaztelania | 2.468 | 556 | 5,751 | 4,849 | 1.877 | 295 | 76,05% | 53,06% |
| Euskara | 338 | 74 | 6,645 | 5,245 | 304 | 44 | 89,94% | 59,46% |
| Filosofia | 2.468 | 556 | 6,054 | 5,604 | 1.967 | 402 | 79,70% | 72,30% |
| Matematika I | 1.369 | 276 | 5,569 | 3,810 | 835 | 75 | 60,99% | 27,17% |
| Kimika | 1.305 | 252 | 5,404 | 3,171 | 769 | 53 | 58,93% | 21,03% |
| Matematika II | 857 | 214 | 4,953 | 4,189 | 446 | 78 | 52,04% | 36,45% |
| Literatura | 1.075 | 275 | 4,889 | 3,832 | 532 | 67 | 49,49% | 24,36% |
| Fisika | 1.279 | 243 | 5,203 | 3,136 | 711 | 45 | 55,59% | 18,52% |
| Biologia | 824 | 188 | 5,441 | 4,665 | 538 | 80 | 65,29% | 42.55% |
| Historia Garaikidea | 1.093 | 279 | 4,978 | 3,123 | 608 | 54 | 55,63% | 19,35% |
| Geologia | 155 | 51 | 4,979 | 3,888 | 86 | 9 | 55,48% | 17,65% |
| Marrazketa Teknikoa | 568 | 98 | 5,952 | 4,909 | 373 | 39 | 65,67% | 39,80% |
| Latinera | 336 | 80 | 4,979 | 3,913 | 193 | 22 | 57,44% | 27,50% |
| Grekera | 59 | 19 | 5,517 | 4,147 | 36 | 9 | 61,02% | 47,37% |
| Artearen Historia | 952 | 249 | 5,618 | 3,988 | 643 | 82 | 67,54% | 32,93% |
| **Batez besteko orokorra** | **2.468** | **556** | **5,544** | **4,344** | | | | |
| **Espedientearen batez bestekoa** | **2.468** | **556** | **7,019** | **6,269** | | | | |
| **Selektibitateko behin betiko batez bestekoa** | **2.268** | **370** | **6,400** | **5,543** | | | | |

*NUPek emaniko datuak.*

## - 1999 urtea-

| | Aurkeztutako ikasleak | | Azterketetako batez bestekoa | | Gainditutakoak, guztira | | Gainditutakoak, ehunekoak erabiliz | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 99ko eka. | 99ko ira. | 99ko eka. | 99ko ira. | 99ko eka. | 99ko ira. | 99ko eka. | 99ko ira. |
| Testua | 2.481 | 671 | 5,529 | 4,962 | 1.711 | 374 | 69,96% | 55,74% |
| Ingelesa | 2.304 | 637 | 5,287 | 4,310 | 1.311 | 219 | 56,90% | 34,38% |
| Frantsesa | 177 | 34 | 5,756 | 4,919 | 136 | 19 | 76,84% | 55,88% |
| Gaztelania | 2.481 | 671 | 5,651 | 4,570 | 1.758 | 292 | 70,86% | 43,52% |
| Euskara | 352 | 91 | 5,310 | 5,412 | 212 | 55 | 60,23% | 60,44% |
| Filosofia | 2.481 | 671 | 6,107 | 5,133 | 1.994 | 407 | 80,37% | 60,66% |
| Matematika I | 1.392 | 354 | 4,503 | 3,419 | 582 | 89 | 41,81% | 25,14% |
| Kimika | 1.345 | 333 | 5,810 | 3,772 | 922 | 92 | 68,55% | 27,63% |
| Matematika II | 783 | 222 | 5,872 | 3,991 | 553 | 82 | 70,63% | 36,94% |
| Literatura | 1.064 | 307 | 5,093 | 3,727 | 606 | 67 | 56,95% | 21,82% |
| Fisika | 1.266 | 308 | 4,823 | 3,605 | 617 | 84 | 48,74% | 27,27% |
| Biologia | 856 | 236 | 5,750 | 4,919 | 615 | 129 | 71,85% | 54,66% |
| Historia Garaikidea | 1.080 | 310 | 4,864 | 3,760 | 581 | 101 | 53,80% | 32,58% |
| Geologia | 195 | 84 | 4,759 | 4,262 | 96 | 29 | 49,23% | 34,52% |
| Marrazketa Teknikoa | 550 | 129 | 6,051 | 4,411 | 445 | 60 | 80,91% | 46,51% |
| Latinera | 407 | 91 | 4,950 | 3,686 | 215 | 19 | 52,84% | 20,88% |
| Grekera | 72 | 35 | 4,778 | 4,294 | 42 | 15 | 58,30% | 42,86% |
| Artearen Historia | 914 | 275 | 5,330 | 3,936 | 576 | 74 | 63,02% | 26,91% |
| **Batez besteko orokorra** | **2.481** | **671** | **5,441** | **4,314** | | | | |
| **Espedientearen batez bestekoa** | **2.481** | **671** | **7,041** | **6,258** | | | | |
| **Selektibitateko behin betiko batez bestekoa** | **2.281** | **444** | **6,357** | **5,562** | | | | |

*NUPek emaniko datuak*

### 2.10. Bestelako hezkuntza programak: Osasuna, Ingurumena.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, Hezkuntzaren kontzeptu zabalari erantzunez, Nafarroako Gobernuaren gainerako departamentuekin batera eta Nafarroako Gobernuaz kanpoko bestelako erakundeekin egiten du lan era askotako hezkuntza programak prestatzeko. Programa horietatik gehienek ikasleekin zuzenean erabiliko diren material didaktikoak egitea dute helburu. Beste batzuk, ordea, irakasleak eta familiak ere prestatzeko egiten dira.

**Nafarroako Emakumearen Institutua.**

1999ko maiatzaren 24an sinaturiko Lankidetza Hitzarmenaren bitartez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, Nafarroako Emakumearen Institutuak (Gizarte Ongizate Departamentuaren menpekoa) eta Haurride Elkarteak "Osasun fisiko, psikologiko eta harremanetakoari buruzko programa orokorra" burutu dute.

Hona programa horren helburuak:

Gurasoak sentsibilizatzea famili ingurune hobea lor dezaten.
Emakumearen aukera-berdintasuna eta ez baztertzea sustatzea.
Etxeko bortxakeriari aurre egitea.

Aipatu programa gauzatzeko, programaren lau edizio egin dira: bi Lizarrako eskualderako, lau Lizarrako zentroetan eta beste lau inguruko herrietan; eta beste bi edizio Iruñerako: bat Txantrean eta betea beste eskualde bateko lau zentrotan.

Programa honek dakartzan gastuak honela banatuta daude: Hezkuntza eta Kultura Departamentuak 2.548.000 PTA jartzen ditu, eta Nafarroako Emakumearen Institutuak 4.879.404 PTA. Gainera, bi erakundeek teknikoki elkarrekin lan egiteko konpromisoa hartzen dute.

**Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua.**

1997an zehar, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ingurugiro hezkuntzan laguntzeko material didaktikoa egiteko enkargua egin zuen. Hezkuntza eta Kultura Departamentuarekin batera eta 1997/98 ikasturtean zehar, material horiek Komunitateko hainbat ikastetxetan probatu ziren.

1998/99 ikasturtean zehar, Nafarroako Gobernuaren aipatu bi departamentuek eta Nafarroako Aurrezki Kutxak elkarrekin lan egiteko xedapen ekonomiko eta administratiboak ezarri ziren, hain zuzen ere gaztelaniaz eta euskaraz argitaratzeko ingurugiroari buruzko hezkuntzako sei unitate didaktikoen materialak.

Programa honen kudeaketan, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren ardura izan da irakasleak prestatzea argitaratu beharreko materialetako edukiak irakasten ikas dezaten eta prestaturiko aleak ikastetxeetan dohainik banatzeko.

**Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua.**

Nafarroako Gobernuaren Departamentu honekin egindako lanak ondokoa izan du ardatz: Na-

farroan energia aurrezteari buruzko material didaktikoak egitea, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikasleei zuzenduak.

Horretarako, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak kontratuak egin ditu Fomento de Iniciativas Recreativas y Artísticas, S.L. sozietatearekin, material horiek presta ditzan.

**Nafarroako Aurrezki Kutxa.**

Nafarroako Aurrezki Kutxa, Hezkuntza eta Kultura Departamentuarekin lan eginez, lehiaketa bat egin izan du aurreko urteetan EUROari buruzko unitate didaktikoak egiteko; helburua da gai hori zeharka ikasi ahal izatea Lehen eta Bigarren hezkuntzako Gizarte Zientzien, Natur Zientzien eta Matematikaren alorrean.

1998/99 ikasturtean zehar, material horiek esperimentatu izan dira. Aurreikusita dago haiek argitara eman eta ikastetxeetan banatzea.

**Barne Departamentua eta Trafikoko Lurralde Zuzendaritza.**

Urte honi Bide Hezkuntzaren urtea deitu izan zaio. Alor honetan eginiko ekintzak Hezkuntza eta Kultura Departamentuak eta aipatu erakundeek eginiko zeharkako lanean oinarrituta daude. 1998/99 Lehen Hezkuntzarako Bide Hezkuntzari buruzko Gida Didaktikoak eta Bigarren hezkuntzarako Gida Didaktikoak aurkeztu dira.

Guztira, Lehen Hezkuntzako 38 ikastetxek eta Bigarren Hezkuntzako 24 ikastetxek hartu dute parte.

Material hori dohainik eman du Trafikoko Lurralde Zuzendaritzak, eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuak bere gain hartu ditu material hori osatzen zuten potentzien gastuak eta CD-ROMak kopiatzeko gastuak. Jarduera horren gastuek, guztira, 160.000 PTA egiten dute.

Bestalde, eta halaber Bide Hezkuntzarekin loturik, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak "Polo Parkearen Hezkuntza Plana" argitalpenaren kostuak hartu ditu bere gain: 800.000 PTA inguru egin zuen. Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloko irakasleei eta Bigarren Hezkuntzako 1. zikloko irakasleei dago zuzenduta: haiek izanen dira zabaldu berri den Landabengo Trafikoko Haur Parkearen jardueren hartzaile nagusiak.

Bide Hezkuntzarekin loturiko ekintza guztietan zeharkako alor honen helburuak erdietsi nahi dira. Beste erakunde batzuekin batera egin da lan Bide Hezkuntzaren urtea izenaz ezagutu den urte honetako jarduerak aurrera eramateko.

**Osasun Departamentua.**

Osasun Departamentuak eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuak 1994ko apirilean sinaturiko lankidetza hitzarmen-markoaren barrenean, Foru Komunitateko hiru ikastetxek "Osasuna Sustatzen duten Eskolen Europako Sarean" hartu dute parte.

Partehartze horren ondorioz, "Irubide-Padre Moret" BHIko eta "Eunate" BHIko ordezkariak 1998ko azaroan programa honen koordinazioari buruzko jardunaldi batzuetara joan ziren. Bidaia horren gastuak eta ikastetxe horietako familiekin prestakuntza-jarduerak egiteko gas-

tuak Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ordaindu ditu: 157.550 pezeta egin dute.

**Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua.**

1993 urtetik lankidetza hitzarmen bat dago Departamentu honen eta Hezkuntza Departamentuaren artean Kontsumorako Hezkuntza curriculum proiektuetan eta ikasgelako jardunean sustatzeko helburuarekin.

Horri dagokionez, urtero Foru Agindu baten bitartez helburu horretarako ikastetxeetan garaturiko hezkuntza esperientzietarako dirulaguntzen deialdia egiteko Foru Agindu bat ematen da. Kontsumo Departamentuak bere gain hartzen du finantziazio hori; Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, berriz, laguntza teknikoa ematen du.

1998/99 ikasturtean zehar, 3.000.000 PTA erabili dira bai sare publikoan bai itupeko sare pribatuan, hezkuntza etapa guztietan, eginiko 38 proiektu diruz laguntzeko.

**Drogamenpekotasunari buruzko Foru Plana.**

Alor honetan, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak bi jarduera burutzen laguntzen du:

1. Eskatzen duten ikastetxe guztietara “Baratzean, lagunekin” material didaktikoa bidaltzen zaie. Material horren helburua da drogamenpekotasunei, oro har, aurrea hartzea, eta ikasle gazteenei zuzenduta dago. Material horri buruzko ebaluazio bat egiten ari da egun, programak planteatzen dituen helburuak noraino bete diren neurtzeko.

Ikasturte honetan material hori gaztelaniaz 63 ikastetxetara eta euskaraz 35 ikastetxetara bidali da. Drogamenpekotasunei buruzko Foru Planak zati bat eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuak beste zati bat (800.000 PTA) finantzatzen dute

2. “Lehen Berriak” gazteentzako egunkaria dohainik banatzen da Foru Komunitateko ikastetxe guztietan (333 ikastetxe). Zati berdinetan finantzatzen dute hori bi erakundek. Azken inskripzioarengatik Hezkuntza eta Kultura Departamentuak 83.250 PTA ordaindu ditu.

Hona material horren helburuak: ikaslearen garapen integrala lantzeko jarduera batzuk egitea, baloreak lantzea egunkariak berak egiten dituen proposamenak eta film baten proiekzioarekin batera batzuetan banatzen diren GIDA DIDAKTIKOAK abiapuntu harturik.

**Nafarroako Merkataritza eta Turismo Ganbara.**

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak eta Nafarroako Merkataritza eta Turismo Ganbara Ofizialak 1999ko irailaren 2an sinaturiko lankidetza hitzarmenaren bitartez, bi erakunde horien elkarlanerako markoa ezarri zen, hain zuzen ere Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleak Nafarroak duela 100 urte bizi zuen egoerara hurbiltzeko zenbait hezkuntza jarduera antolatu ahal izateko.

Hitzarmen horren indarrez, aipatu Ganbara Ofizialak ondoko jarduerak burutzen zituen: gaien araberako 10 bloketan banaturiko erakusketa bat ezartzea; irakasleentzako gida didaktiko bat argitaratzea, ikastetxeetan Nafarroako Historiari buruzko jarduerak egiteko; erakusketa horretarako bisitak gidatzeko lau begirale; erakusketara joan aurreko jarduerak eta bisitari buruz ikasleak eginen duden sintesiko jarduerak.

Bere aldetik, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak 5.000.000 PTA ematen zituen erakusketa hori ezartzeko.

Horrelako programak positiboki baloratu behar dira, eta, ahal den neurrian, sustatu ere egin behar dira: baliagarri suertatzen dira eskola sistema ikaslearen inguruneak txertatzeko, eta, horrenbestez, ikasleak bere eskola jarduerari buruz duen “artifizialtasun” eta “testuingururik gabeko errealitate” irudi hori arintzeko.

# 3. Giza Baliabideak.

## *3.1. Ikastetxe publikoetako irakasleak.*

**a) Bilakaera.**

Erantsi dugun laukian, ahal den eta informazio zehatzena eman nahi dugu Nafarroako Foru Komunitatearen menpeko ikastetxe publikoetako irakasleen plantillek izandako bilakaerari buruz.

Hezkuntza etapen arabera bereizi ditugu; beraz, kontuan hartu beharko da Bigarren Hezkuntzan Bigarren Hezkuntzako Kidegoko irakasleak, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoko irakasleak eta DBHko Lehen Zikloko maisu-maistrak sartu ditugula.

| | 1996-97 | 1997-98 | 1998-99 |
|---|---|---|---|
| **ARAUBIDE OROKORREKO IRAKASKUNTZAK** | **4607** | **4648** | **4687** |
| **Haur eta Lehen Hezkuntza** | 2176 | 2192 | 2212 |
| **Bigarren Hezkuntza** | 2432 | 2456 | 2476 |
| **ERREGIMEN BEREZIKO IRAKASKUNTZAK** | **206** | **210** | **218** |
| | **4815** | **4858** | **4907** |

Ez ditugu sartu ez Erlijio irakasleak, ez Irakasleentzako Laguntza Zentroetako irakasleak, ez Foru Komunitateko Administrazioan ari diren irakasleak eta ez Hezkuntza Baliabideen Zentroetan lanean ari diren irakasleak ere.

| Ikasturtea | 1995/96 | 1996/97 | 1997/98 | 1998/99 |
|---|---|---|---|---|
| **Orientatzaileak** | **94** | **95** | **98** | **96** |

| Ikasturtea | 1990/91 | 1991/92 | 1992/93 | 1993/94 | 1994/95 | 1995/96 | 1996/97 | 1997/98 | 1998/99 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ikukatzaileak** | **19** | **18** | **18** | **18** | **16** | **19** | **14** | **16** | **16** |

### Espetxe erakundeak.

1999ko ekainaren 21ean Estatu Aldizkari Ofizialean uztailaren 9ko 1203/1999 Errege Dekretua argitaratu zen. Orain ari garenari dagokionez, Espetxeetako Oinarrizko hezkuntza Orokorreko irakasleen Kidegoko irakasleak Maisu-Maistren Kidegoan sartzea araupetzen du; bigarren xedapen gehigarrian aurreikusita dago langile horiek hezkuntza arloko eskumenak dituzten autonomi erkidegoetara eskualdatzea.

Nafarroako Foru Komunitatearen kasuan, hasita daude eskumen horiek eskualdatzeko prozesua izapidetzen: Nafarroako espetxeetan lanean ari diren bi maisu daude horren baitan.

**b) Irakasleen ordainsariak.**

Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateratua onetsi zuen abuztuaren 20eko 251/1993 Foru Dekretu Legegilearen 101. artikuluari jarraituz, Foru Komunitatearen Administrazioaren zerbitzuko unibertsitatez besteko funtzionario irakasleek soilik V. tituluan zehazten diren kontzeptuengatiko ordainsariak jasoko dituzte; betiere Foru Legez ezarriko diren zenbatekoak jasoko dituzte. V. titulu horri jarraituz, unibertsitatez besteko funtzionario irakasleen soldatak honako egitura izanen du:

Norberaren oinarrizko ordainsariak (102.a artikulua; horrek 40.2 artikulura bidaltzen du, eta harekin du lotura); hau da, mailari dagokion hasierako soldata, graduari dagokion ordainsaria eta antzinatasun saria.

Ordainsari osagarriak: 102.b artikuluaren arabera (103. artikulura bidaltzen du), irakasleen berariazko osagarria eta irakasle zuzendariaren lanpostuko osagarria dira.

Azkenik, 101. artikuluaren amaierako txertakinari eta 104. artikuluaren bigarren lerroaldeari jarraituz, ordainsari horien zenbateko Foru Legez ezarriko dira.

Ondoko laukian adierazi ditugu unibertsitatez besteko irakasle funtzionarioen ordainsariek izan duten bilakaera.

| | | | 1990 | 1991 | 1992 | 1993 | 1994 | 1995 | 1996 | 1997 | 1998 | 1999 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| BHIO eta | Katedradunak | Mailako soldata | 179.136 | 190.924 | 202.876 | 212.432 | 215.470 | 215.470 | 223.012 | 229.480 | 234.300 | 238.518 |
| | | Irakasleen Osagarri Bere. | | 38.185 | 48.183 | 58.419 | 67.334 | 75.415 | 78.054 | 80.318 | 82.005 | 83.481 |
| Araubide | | **Batura** | | **229.109** | **251.059** | **270.851** | **282.804** | **290.885** | **301.066** | **309.798** | **316.305** | **321.999** |
| Berezia | Bigaren H. Ir.. | Mailako soldata | 179.136 | 190.924 | 202.876 | 212.432 | 215.470 | 215.470 | 223.012 | 229.480 | 234.300 | 238.518 |
| | | Irakasleen Osagarri Bere. | | 15.274 | 25.867 | 37.176 | 47.942 | 58.177 | 60.213 | 61.960 | 63.261 | 64.000 |
| | | **Batura** | | **206.198** | **228.743** | **249.608** | **263.412** | **273.647** | **283.225** | **291.440** | **297.561** | **302.518** |
| LHLO | Mailako soldata | | 147.787 | 157.512 | 167.373 | 175.256 | 177.763 | 177.763 | 183.985 | 189.321 | 193.298 | 196.777 |
| | Irakasleen Osagarri Bere. | | | 26.777 | 35.985 | 45.567 | 54.218 | 62.217 | 64.395 | 66.262 | 67.654 | 68.872 |
| | **Batura** | | | **184.289** | **203.358** | **220.823** | **231.981** | **239.980** | **248.380** | **255.583** | **260.952** | **265.649** |
| MAISU-MAISTREN O. | Mailako soldata | | 147.787 | 157.512 | 167.373 | 175.256 | 177.763 | 177.763 | 183.985 | 189.321 | 193.298 | 196.777 |
| | Irakasleen Osagarri Bere. | | | 14.176 | 23.851 | 34.175 | 43.996 | 53.329 | 55.196 | 56.796 | 57.989 | 59.033 |
| | **Batura** | | **147.787** | **171.688** | **191.224** | **209.431** | **221.759** | **231.092** | **239.181** | **246.117** | **251.287** | **255.810** |

Ikus daitekeenez, 1992 eta 1995 urteetan igoera nabarmena izan zen soldatetan, hain zuzen ere irakasleen osagarri berezian, aurreko urteetako igoerekin alderatuz gero. Administrazioak eta erakunde sindikal batzuen ordezkariek 1992ko otsailaren 27an izenpeturiko hitzarmenari dagokio hori. Ondoko laukian aipatu osagarriak urte horietan izan zuen igoera adierazi dugu:

| Kidegoa | Osagarri Berezia 1991 | Osagarri Berezia 1992 | Osagarri Berezia 1993 | Osagarri Bere-zia 1994 | Osagarri Bere-zia 1995 |
|---|---|---|---|---|---|
| Katedradunak eta haiekin berdinduta-koak | % 20 | % 23.75 | % 27.50 | % 31.25 | % 35 |
| Bigarren Hezkuntza eta harekin berdindu-takoak | % 8 | % 12.75 | % 17.50 | % 22.25 | % 27 |
| LH irakasle teknikoak eta haiekin berdindu-takoak | % 17 | % 21.50 | % 26.00 | % 30.50 | % 35 |
| Maisu-maistrak eta haiekin berdinduta-koak | % 9 | % 14.25 | % 19.50 | % 24.75 | % 30 |

**c) 1998/1999 ikasturteko datuak.**

**c.1. Lanpostuak betetzea.**

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren (LOGSE) bederatzigarren xedapen gehigarriko laugarren idatz-zatiak ezarri zuen hezkuntza administrazio eskudunek nazio mailako leku-aldatze lehiaketak deitu eta funtzionario irakasle guztiek hartu ahal izanen dutela parte haietan, edozein dela eta zerbitzuan ari diren edo lanera sartu ziren hezkuntza administrazioa.

Aipatu xedapena garatzeko, urriaren 2ko 2111/1998 Errege Dekretuak 1. artikuluan ondokoa xedatu zuen: "hezkuntza administrazio eskudunek nazio mailako leku-aldatze lehiaketak deituko dituztela bi urtez behin irakasleen kidegoko lanpostuak betetzeko".

Nazio mailako azken lehiaketak 1996/97 ikasturtean egin ziren; beraz, 1998/99 ikasturtean haietarako deialdia egin behar da, arau horiek aginduta.

Urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuaren 5. artikuluak xedatutakoa betez, Hezkuntza eta Kultura Ministerioak, 1998ko urriaren 28ko aginduaren bitartez, 1998/99 ikasturtean zehar LOGSEk aipatzen dituen irakasleen kidegoetako funtzionarioentzat 1998/99 ikasturtean zehar egin beharreko nazio mailako leku-aldatze lehiaketetan aplikatu beharreko prozedurazko arauak onetsi zituen.

**c.1.1. Maisu-maistren Kidegoa.**

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren urriaren 29ko 396/1998 Foru Aginduaren bitartez, Nafarroako Foru Komunitateko maisu-maistren lanpostuak betetzeko deialdia onetsi zen (1998ko azaroaren 13ko 136. N.A.O. eta 1998ko azaroaren 11ko 270. EAO).

Hona deialdi horietan parte hartu zuten maisu-maistren kopurua:

| | |
|---|---|
| Bazter gelditu zirenak | -3 |
| Behin betikoak | 303 |
| Behin-behinekoak | 90 |
| **Parte hartu zutenak, guztira** | **393** |

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren ekainaren 25eko 225/1999 Foru Aginduaren bitartez (uztailaren 30eko 95. N.A.O.n argitaratu zen), maisu-maistren lekualdatze lehiaketen deialdiak behin betiko ebatzi ziren.

Hona ebazpen horri buruzko laburpena:

Nafarroan gelditzen dira .................................... 49
Nafarroatik kanpora irteten dira ......................... 10
Nafarroan sartzen dira ....................................... 45
Behin betiko destinoa lortu duten behin-behineko destinodunak10 (horietako 4 derrigortuta)

## c.1.2. Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen eta Erregimen Bereziko Irakaskuntzetako Irakasleen Kidegoak.

Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren azaroaren 4ko 404/1998 Foru Aginduaz, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen eta Arte eta Hizkuntzen Irakaskuntzetan ari diren Irakasleen Kidegoetako funtzionario irakasleen leku-aldatze lehiaketetarako deialdiak onetsi ziren (1998ko azaroaren 16ko 137. N.A.O. eta 1998ko azaroaren 13ko 272. EAO).

Hona deialdi horietan parte hartu zuten irakasleen kopuruak:

| | |
|---|---|
| Borondatez: | 147 |
| Derrigorrez: | 37 |
| Bazter gelditu direnak, guztira: | - 6 |
| **Parte hartu dutenak, GUZTIRA:** | **184** |

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren uztailaren 6ko 251/1999 Foru Aginduaz (abuztuaren 27ko 107. N.A.O.), behin betiko ebatzi ziren Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen eta Arte eta Hizkuntzen Irakaskuntzetan ari diren Irakasleen Kidegoetako funtzionario irakasleen leku-aldatze lehiaketetarako deialdiak.

Hona ebazpen horri buruzko laburpena:

Nafarroan gelditzen dira ..... 7 (Big. Hezk. 6 (1 behin-behikoa)- LHko irak. tek. 1 (behin-behikoa).
Nafarroatik kanpora irteten dira 6 (Big. Hezk. 5- LHko irak. tek. 1).
Nafarroan sartzen dira....... 75 (Big. Hezk. 68 - LHko irak. tek. 5 - 2 Musika Irak.).

## c.1.3. Ikuskatzaileen Kidegoa.

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren azaroaren 17ko 426/1998 Foru Aginduaren bitartez, Hezkuntza Administrazioaren eta Hezkuntza Ikuskatzaileen Kidegoaren zerbitzuko Ikuskatzaileen Kidegoko funtzionarioen lekualdatze lehiaketarako deia egin zen.

Deialdi hori izapidetzen ari zen aldi berean, irailaren 13ko 365/1999 Foru Dekretua ere izapidetzen ari zen. Haren bitartez, Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Hezkuntza Ikuskatzailetzaren antolamendua eta funtzionamendua arautu zen, eta Hezkuntza Ikuskatzaileen Kide-

goko lanpostuetan sartzeko eta lanpostu horiek betetzeko sistema ezarri zen, zertarako-eta Nafarroako Foru Komunitatearen Hezkuntza Ikuskatzailetzaren funtzionamendua ikastetxeen partehartze, ebaluazio eta gobernuari buruzkoa azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoak ezarritako beharkizunei egokitzeko.

Foru Dekretu horrek Hezkuntzako Ikuskatzaileen Kidegoko plantilla zehaztu behar zuen; horrenbestez, hezkuntza plangintzan aurreikusita zeuden lanpostu hutsak zehaztu behar zituen. Hori dela eta, ez zen bidezkoa Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren azaroaren 17ko 426/1998 Foru Aginduaz deitutako leku-aldatze lehiaketako betetzeko zeuden lanpostu hutsak zehaztea.

Bestalde, Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren otsailaren 9ko 172/1999 Ebazpenaren bitartez Hezkuntza Administrazioaren zerbitzuko ikuskatzaileen eta hezkuntza ikuskatzaileen lanpostuak betetzeko deialdian onartutako izangaien behin betiko zerrenda onetsi zen, deialdi horretan ez du izena eman funtzionario organiko eta funtzionalki administrazio deitzailearen menpeko dagoen funtzionariorik; beraz, ez da erresultarik geratuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren kudeaketa alorreko lehiaketa ebazteko garaian.

Horrenbestez, deialdiaren izapidearekin aurrera jarraitu ezinik, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren kudeaketaren alorrean betetzeko lanposturik egon ez dagoelako, ez eta erresultarik sor dezakeen parte-hartzailerik ere, 1999ko apirilaren 26ko 51. Nafarroako Aldizkari Ofizialean Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren martxoaren 18ko 78/1999 Foru Agindua argitaratu zen; haren bitartez, amaiera ematen zaio Hezkuntza Administrazioaren menpeko Ikuskatzaileen Kidegoko eta Hezkuntza Ikuskatzaileen Kidegoko Ikuskatzaileen Kidegoko funtzionario irakasleen leku-aldatze lehiaketari.

**c.1.4 Orientatzaileak.**

Txosten honetako 2.6 atalean azaldu dugun bezala, Nafarroako hezkuntza orientazioak aldaketa garrantzitsua izan du 1998/1999 ikasturtean; aldaketa horrek, langileei dagokienez, irakasleak berriz banatzeko prozedura bat aurrera eramatea eskatzen zen; hala egin ondoren, langile horiek ikastetxe bati geratuko ziren atxikirik, eta ez eskualde jakin bati, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetako hezkuntza orientazioa arautzen duen maiatzaren 10eko 153/1999 Foru Dekretua onetsi arte egiten zen bezala.

Langile horien banaketa berria Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren maiatzaren 27ko 166/1999 Foru Aginduaren bitartez gauzatu zen. Haren bitartez, Eskola Orientazioaren antolamendu berriaren ondoriozko lanpostu berrien atxikipena eta Eskola Orientatzaileen lanpostu berrien betetzea onetsi zen.

Deialdi hori, gainera, bitan banaturik zegoen: alde batetik, Eskola Orientazioaren antolamendu berriaren ondoriozko lanpostu berriak atxikitzeko deialdia –hartan, derrigorrez hartu behar zuten parte orientatzaile guztiek–, egun eskola orientatzaileek herri edo eskualde jakin batean zuten atxikipena aldatzea helburu zuena; haren bitartez, behin betiko destinoa emanen zitzaien ikastetxeetako lanpostuetan. Deialdi hori Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren uztailaren 2ko 245/1999 Foru Aginduaren bitartez ebatzi zen.

Beste aldetik, orientatzaileak berriz banatzeko eta lanpostuak betetzeko bigarren deialdia borondatez parte hartzekoa zen. Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren abuztuaren 24ko 296/1999 Foru Aginduaz ebatzi zen. Agindu horren bitartez, behin betiko ebatzi zen Eskola

Orientatzaileak berriz banatzeko eta horien lanpostuak betetzeko Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren maiatzaren 27ko 166/1999 Foru Aginduaz onetsitako deialdia.

Prozesu horren ondoren, hona orientatzaileen banaketa:

### Eskualdeen arabera:

| Eskualdea | Gaztelania | Euskara |
|---|---|---|
| Elizondo | 1 | 4 |
| Lizarra | 9 | - |
| Irurtzun | - | 5 |
| Irunberri | 4 | 1 |
| Iruña | 30 | 10 |
| Tafalla | 9 | - |
| Tutera | 11 | - |
| **Guztira** | **64** | **20** |

### Ikastetxeen araberako banaketa:

| Ikastetxea | Kopurua |
|---|---|
| DBHI | 8 |
| BHI | 38 |
| Haur eta Lehen Hezkuntzako I.P. | 38 |
| **Guztira** | **84** |

## c.2. Espezialitate berriak eskuratzea.

Ekainaren 4ko 850/1993 Errege Dekretuak, bere II. tituluan araupetzen du irakasle funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko prozedura, bakoitzak dagokion kidegoan betiere.

### c.2.1. Maisu-maistren Kidegoa.

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren maiatzaren 6ko 131/1998 Foru Aginduaren bitartez, deialdia egin zen Maisu-Maistren Kidegoko karrerako funtzionarioek espezialitate berriak eskuratu ahal izan ditzaten.

Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren abenduaren 14ko 1965/1998 Ebazpenaren bitartez, dei egin zitzaien izangaiei edukiei buruzko azterketak eta azterketa praktikoak egiteko, deialdian aurreikusi bezala. Azterketak 1999ko urtarrilaren 11n eta 17an egin ziren.

Azkenik, Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren otsailaren 11ko 24/1998 Foru Aginduaren bitartez, gai jo ziren Maisu-Maistren Kidegoko karrerako funtzionarioek kidego horretan espezialitate berriak eskuratzeko prozedurarako deialdian aurkeztu ziren izangaiak.

Hona deialdiaren emaitzak:

| ESPEZIALITATEA | IZANGAIAK | AURKEZTU ZIREN IZANGAIAK | GAI JOTAKO IZANGAIAK |
|---|---|---|---|
| Pedagogi Terapeutikoa (gaztelania) | 28 | 7 | 7 |
| Pedagogi Terapeutikoa (euskara) | 2 | 2 | 0 |
| Entzumena eta Hizkuntza (gaztelania) | 17 | 5 | 3 |
| Entzumena eta Hizkuntza (euskara) | 1 | 0 | 0 |
| Haur Hezkuntza (gaztelania) | 43 | 14 | 9 |
| Haur Hezkuntza (euskara) | 8 | 3 | 3 |
| Ingelesa (gaztelania) | 4 | 2 | 0 |
| Ingelesa (euskara) | 6 | 2 | 0 |
| Frantsesa | 1 | 1 | 1 |
| Gorputz Hezkuntza | 7 | 3 | 3 |
| Musika | 3 | 1 | 0 |

### c.2.2. Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoa.

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren maiatzaren 6ko 130/1998 Foru Aginduaren bitartez, deialdia egin zen Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko karrerako funtzionarioek kidego horretan espezialitate berriak eskuratzeko prozeduran parte hartzeko.

Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren otsailaren 2ko 151/1999 Ebazpenaren bitartez dei egin zitzaien izangaiei edukiei buruzko azterketak eta azterketa praktikoak egiteko, deialdian aurreikusi bezala.

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren ekainaren 11ko 200/1999 Foru Aginduaren bitartez, gai jo ziren Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko karrerako funtzionarioek kidego horretan espezialitate berriak eskuratzeko prozedurarako deialdian aurkeztu ziren izangaiak.

Hona deialdiaren emaitzak:

| ESPEZIALITATEA | IZANGAIAK | AURKEZTU ZIREN IZANGAIAK | GAI JOTAKO IZANGAIAK |
|---|---|---|---|
| Teknologia | 34 | 19 | 15 |
| Ekonomia | 24 | 14 | 6 |
| Lanbide Prestakuntza eta Orientazioa | 22 | 14 | 9 |

### d) Erretiroak.

Irakasle funtzionarioen erretirorako araubidea, printzipioz, funtzionario guztientzat Funtzio Publikoaren Erreformarako Neurriei buruzko Legearen 33. artikuluan ezarrita dagoena da; horren arabera, 65 urtetan ezarri da erretiratzeko adina. Hala eta guztiz ere, artikulu horrek berak aukera ematen du lan egiteko urteak gehienez ere 70 urtetaraino borondatez luzatu ahal izateko.

Bestalde, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren Bederatzigarren Aldi baterako Xedapenak aurreikusi zuen borondatezko erretiro baterako aukera izatea Legeak aipatzen dituen irakasleen kidegoetako funtzionarioentzat; betiere, ondoko baldintzak bete beharko dira horretarako: a) Jardunean egotea 1990eko urtarrilaren 1ean eta egoera horretan etengabe egotea ikastetxeetako kasuan kasuko plantilletako

lanpostuetan; b) Hirurogei urte beteta izatea; c) Estatuari hamabost urteko egiazko zerbitzuak kreditaturik izatea. Aurreko lerroaldean adinari eta ezaldiari begira ezarritako beharkizunak, erretiro pentsioa eskuratzeko egunean bete beharko dira, hain zuzen ere erretiro aurreratua eskatzen den urteko abuztuaren 31n.

Borondatezko erretiro horren aukera hautatu ahal izateko hasieran 1991etik 1996ra bitarteko epea, biak barne, izan bazen ere, geroago azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoak aukera hori zabaldu zuen guztientzat, LOGSEk ezarritako irakaskuntza guztietarako.

Erretiro aurreratua erretiroa nahi den urte naturaleko lehen bi hilabeteetan eskatu beharko da, eta abuztuaren 31n izanen du indarra. Egindako eskarian atzera egin ahal izanen da eskatzen den urteko apirilaren 30era bitartean, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren urtarrilaren 29ko 13/199 Foru Aginduari jarraituz (otsailaren 22ko 23. N.A.O.).

Guztira, 4 maisuk eta Bigarren Hezkuntzako 3 irakaslek eskatu dute erretiratzeko adina 70 urtetara bitarte borondatez luzatzeko.

Ondotik, irakasle funtzionarioen erretiroari buruzko 1998/1999 ikasturteko datuak adierazi ditugu, aintzat harturik zein kidegotakoak diren eta erretiratzeko izan duten arrazoia:

| 1998/99 ikasturtea | Derrigorrezko erretiroa * | LOGSE erretiroa | Ezintasuna | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| **Maisu-maistren kidegoa** | 5 | 33 | 3 | 41 |
| **Sek. G. eta Araubide Berezia** | 4 | 6 | 1 | 11 |
| **GUZTIRA** | 9 | 39 | 4 | 52 |

*Epigrafe honetan, 65 urterekin, borondatezko luzapena eskatu gabe, erretiratu diren irakasle guztiak daude, bai eta luzapen hori eskatu eta 65 eta 70 urte bitarte erretiratu direnak ere.

Azkenik, heriotzarengatiko baja izan dira Maisu-maistren kidegoko 2 irakasle eta Bigarren Hezkuntzako irakasle bat.

**e) Erantzukizun zibila.**

Hezkuntzaren alorreko erantzukizun zibila oro har Kode Zibileko 1903 eta 1904. artikuluetan ezarrita dagoena izanen da, urtarrilaren 7ko 1/1991 Legeak sarturiko aldaketen arabera.

Orokorrean esan daiteke erantzukizun zibilaren araubidea bat eta bera dela unibertsitatez besteko ikastetxe mota guztietarako, publikoak nahiz pribatuak izan; halaber, erantzukizuna zuzenean dagokio kasuan kasu ikastetxe pribatu bateko titularrari edo Administrazioari –ikastetxe publikoetan–. Horiek izanen dira behar diren antolamendu neurriak ezarri beharko dituztenak; hala ere, aldez aurretik ezarritako kasuetan (1.904 artikulua), titularrak irakasleei eskatu ahal izanen die ordaindutako zenbatekoa.

Nafarroako Foru Komunitatearen zerbitzuko langileei dagokienez, Nafarroako Gobernuak erantzukizun zibileko kontratu bat du izenpetua; haren bitartez, Nafarroako Foru Komunitatearen erantzukizun zibilak bermatuta daude, besteak beste, irakasleek beren lanbidearen jardunean egiten dituzten akats, ekintza edo hutsegiteen kasuetan.

Aseguruaren barruko kudeaketa Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Ondare Zerbitzuak eramaten du.

**f) Unibertsitatez besteko langile irakasleen Sektoreko Mahaia.**

Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuko Testu Bateratua onetsi zuen abuztuaren 30ko 251/1993 Foru Dekretu Legegilearen 83. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoa betez, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langile funtzionarioen Negoziazio Mahai Orokorraz gainera, Mahai Sektoriala eratuko da; haren eskumenak sektoreko berariazko gaiak ere hartzen ditu, baldin eta Mahai Orokorrak erabaki ez baditu. Mahai Sektorial horretan, Mahai Orokorrean dauden sindikatuez gainera, kasuan kasuko sektorean Ordezkarietarako eta Langileen Batzordeetarako hauteskundeetan ordezkarien % 10 edo gehiago lortu duten sindikatuak ere egonen dira.

1999ko maiatzaren 12an, hauteskunde sindikalak izan ziren Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren alorrean. Unibertsitatez besteko Langileen Batzordeari dagokionez, ondoren adierazi dugun bezala osaturik geratu zen:

| | |
|---|---|
| AFAPNA | 5 |
| ANPE | 0 |
| CC.OO. | 9 |
| CSIF | 7 |
| ELA | 3 |
| LAB | 6 |
| STEE-EILAS | 7 |
| UGT | 4 |

Ikasturte honetan, Unibertsitatez besteko Irakasleen Mahai Sektorialaren 18 bilkura izan dira guztira; ondoko gaiak aztertu dira bilkura horietan:

Orientaziorako Nafarroako Foru Komunitateak duen eredua.
ITEMeko irakasleen leku-aldatze lehiaketak.
Zuzendaritzan aritzeko behar den kreditazioa.
Ikuskatzailetza Teknikoko Zerbitzua araupetzeko Foru Dekretua.
Irakasleen enplegu eskaintza publikoa.
1999/2000 ikasturteko ikasketa-lizentziak.
Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoko eta Erregimen Bereziko Irakaskuntzen Kidegoko leku-aldatze lehiaketak.
Maisu-maistren Kidegoko leku-aldatze lehiaketak.
Hezkuntzako Ikuskatzaileen Kidegoko leku-aldatze lehiaketak
Langile irakasleak aldi baterako kontratatzeko zerrendak egiteko jarraibideak.
IGA deialdia.
Eskola Orientazioko lanpostuetara atxikitzeko eta Orientatzaile lanpostuak birbanatzeko eta betetzeko deialdiari buruzko azterketa.
1999/2000 ikasturterako behin-behineko destinoak eta zerbitzu eginkizuneko destinoak esleitzeko jarraibideak ematen dituen Foru Aginduaren zirriborroari buruzko aztertzea.
Hezkuntza eta Kultura Departamentuko irakasle espezialistak kontratatzeko eta izendatzeko araubideari buruzko Foru Dekretuaren zirriborroa.

**g) Lan Osasuna.**

**1. Unibertsitatez besteko langile irakasleen Segurtasun eta Osasun Komitea.**

Apirilaren 20ko 135/1998 Foru Dekretuaren bitartez, lan arriskuei aurrea hartzeko arauak Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoei egokitu zaie. Foru Dekretu horren xedea da Lan Arriskuei Aurrea Hartzeko azaroaren 8ko 31/1995 Legea eta Aurre-hartze Zerbitzuen Erregelamendua onesten duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua Nafarroako Foru Komunitatearen alorrari egokitzea.

Segurtasun eta Osasun Komiteak lan arriskuei aurrea hartzearen arloko partehartze eta kontsulta organo parekide eta kolegiatu gisa araupetzen dituen Foru Dekretuko 9. artikuluak xedatu zuen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Segurtasun eta Osasun Komitea eratuko dela; beste bat eratuko dela Hezkuntza eta Kultura Departamentuan; hirugarrena, berriz, Foru Komunitatearen gainerako Administraziorako eta haren erakunde autonomoetarako eratuko da.

Apirilaren 20ko 135/1998 Foru Dekretuak hala ezarrita, unibertsitatez besteko irakasleen Segurtasun eta Osasun Komitea alor horretarako izendatutako prebentzio ordezkariek osatuko dute; Hezkuntza eta Kultura kontseilariak izendatutako kideen kopuru bera eginen dute.

1995ean egindako hauteskunde sindikaletako erroldarekin bat, 9 prebentzioko ordezkari daude Komite horretan. Hori dela eta, Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren azaroaren 6ko 408/1998 Foru Aginduaren bitartez Foru Komunitateko Administrazioak unibertsitatez besteko irakasleen Segurtasun eta Osasun Komitean izanen dituen ordezkariak izendatu ziren.

Komitea 1998ko azaroaren 27ko bilkuran eratu zen; ondoko sindikatuek dute ordezkaririk hartan: AFAPNA (1), STEE-EILAS (2), FETE-UGT (1), CSI-CSIF (2), CC.OO. (2) y LAB (1).

Administrazioaren izenean, ondokoak izanen dira komitean: Giza Baliabideen Zerbitzuko burua, Idazkari Teknikoa, Inbertsio Zerbitzuko burua, Ikasketen Antolamendurako Zerbitzuko buruz, Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuko burua, Langileria Ataleko burua, Obra eta Ekipamenduen Ataleko burua, Departamentuko Ikastetxeen eta Egoitzen Mantenimendu Atala eta Ekipamendu Bulegoko burua.

Unibertsitatez besteko irakasleen Segurtasun eta Osasun Komiteak, 1999ko martxoaren 3an eginiko bilkuran, bertaraturiko kide guztien aldeko botoaz erabaki zituen bere funtzionamendurako arauak.

## 2. Lan Osasunari buruzko datuak.

Atal honetan, aldi baterako ezintasun prozesuekin lotura duten datu aipagarrienak azaldu nahi ditugu. Hezkuntza eta Kultura Departamentuko giza Baliabideen Zerbitzuko Lan Arriskuei Aurrea hartzeko Atalak eginiko “1998 urteko Aldi baterako Ezintasunen Azterketa” azterlanetik atera ditugu. Izenburuak berak adierazten duen bezala, kontuan hartu beharrekoa da azterlana urte naturalen arabera egina dagoela, ez ikasturteen arabera. Hori dela-eta, gogoan izan 1998 urteari dagozkiola ondoko datuak.

**Guztira, 1998an izaniko baja prozesu erregistratuak, lanpostuen arabera sailkaturik**

| Lanpostua | Lan Istripua | Lanbideko gaixotasuna | Lanez besteko istripua | Gaixotasun arrunta | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| **Maisu-maistrak** | 16 | - | 24 | 719 | 760 |
| **Bigarren Hezkuntza** | 11 | - | 19 | 597 | 627 |
| **Irakaskuntza bereziak** | - | - | 3 | 48 | 51 |
| **Parairakasleak** | 2 | - | 5 | 51 | 58 |
| **Administrazioa eta Zerbitzuak** | 9 | 2 | 10 | 372 | 392 |
| **Irakasle kualifikatuen kopurua** | - | - | 3 | 89 | 92 |
| **GUZTIRA** | 38 | 2 | 64 | 1876 | 1980 |

**Bajen prebalentzia***

| Hila | Urt. | Ots. | Mar | Api | Mai | Eka | Uzt | Abu | Ira | Urr | Aza | Abe |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Irakasleak** | 190 | 139 | 142 | 154 | 156 | 108 | 52 | 52 | 116 | 126 | 170 | 136 |
| **Guztizkoaren gaineko %** | 3.67 | 2.68 | 2.74 | 2.97 | 3.01 | 2.08 | 1.00 | 1.00 | 2.24 | 2.43 | 3.28 | 2.63 |
| **Ez irakasleak** | 58 | 37 | 38 | 33 | 30 | 34 | 22 | 22 | 40 | 44 | 42 | 36 |
| **Guztizkoaren gaineko %** | 4.83 | 3.08 | 3.17 | 2.75 | 2.50 | 2.83 | 1.83 | 1.83 | 3.33 | 3.67 | 3.50 | 3.00 |
| **GUZTIRA** | 248 | 176 | 180 | 187 | 186 | 142 | 74 | 74 | 156 | 170 | 212 | 172 |
| **Langile guztien gaineko %** | 3.89 | 2.76 | 2.82 | 2.93 | 2.92 | 2.23 | 1.16 | 1.16 | 2.45 | 2.66 | 3.32 | 2.70 |

*Bajen prebalentzia da denbora jakin batez bajan irauten duten kasuen kopurua.

**1998an izapidatutako baja eta alta prozesuak, diagnostiko multzoen arabera**

| DIAGNOSTIKOEN MULTZOAK | IZAPIDATUTAKO BAJAK | BAJEN BATEZ BESTEKO IRAUPENA (egunetan) |
|---|---|---|
| 1. multzoa: Kutxakorrak eta parasitarioak | 92 | 12.91 |
| 2. multzoa: Neoplasiak | 6 | 209.00 |
| 3. multzoa: Endokrinologikoak | 9 | 54.88 |
| 4. multzoa: Adimenekoak | 106 | 121.29 |
| 5. multzoa: Nerbioen Sistema | 41 | 30.42 |
| 6. multzoa: Bihotz-hodietakoa | 24 | 83.84 |
| 7. multzoa: Arnasketa | 524 | 11.78 |
| 8. multzoa: Liseriketa | 39 | 35.71 |
| 9. multzoa: Genitourinarioa | 22 | 31.24 |
| 10. multzoa: Obstretikoak | 88 | 53.15 |
| 11. multzoa: Dermatologikoak | 11 | 33.00 |
| 12. multzoa: Hezur-giharretakoak | 224 | 33.03 |
| 13. multzoa: Aztergai | 80 | 53.22 |
| 14. multzoa: Lesioak | 123 | 46.92 |
| I.Q.multzoa: Kirugia prozesuak | 171 | 60.63 |
| SC multzoa: Diagnostikoko koderik gabe | 380 | 12.25 |
| **Guztira** | **1940** | **33.09** |

### Gaixotasun arruntengatik galdutako lanaldiak

| | Irakasleak | Ez irakasleak | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| **Urtarrila** | 4.903 | 1.423 | 6.326 |
| **Otsaila** | 5.238 | 1.471 | 6.709 |
| **Martxoa** | 4.684 | 1.108 | 5.792 |
| **Apirila** | 3.880 | 864 | 4.744 |
| **Maiatza** | 4.731 | 930 | 5.661 |
| **Ekaina** | 4.640 | 870 | 5.510 |
| **Uztaila** | 2.140 | 684 | 2.824 |
| **Abuztua** | 1.531 | 621 | 2.152 |
| **Iraila** | 2.582 | 982 | 3.474 |
| **Urria** | 3.985 | 1.248 | 5.233 |
| **Azaroa** | 4.749 | 1.285 | 6.034 |
| **Abendua** | 4.959 | 1.306 | 6.265 |
| **GUZTIRA** | 48.022 | 12.702 | 60.724 |

### Izapidatutako baja prozesuen iraipena, tartetan adierazirik

| 10 egun baino gutxiago | | 10 eta 29 egun bitarte | | 30 eta 59 egun bitarte | | 60 eta 99 egun bitarte | | 100 egun baino gehiago | | GUZTIRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Arrun.** | **Lan.** | **Arrun.** | **Lan.** | **Arrun.** | **Lan.** | **Arrun.** | **Lan.** | **Arrun.** | **Lan.** | **Arrun.** | **Lan.** |
| 1.012 | 7 | 463 | 17 | 205 | 11 | 102 | 2 | 158 | 3 | 1.940 | 40 |

Txosten honek aztertzen dituen urteetan, LOGSEa ia erabat ezarri da; harekin batera, irakasleak birbanatzeko prozesu zailei egin behar izan zaie aurre. Prozesu horiek eragin berezia izan dute Maisu-maistren Kidegoan, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoan; hori guztia emendiozko zailtasun bat izan da, kontuan harturik LOGSEk berekin dakartzan aldaketekin batera, matrikulazioen kopuruak ere urtero-urtero behera egin duela, txosten honetan horri buruz azaldu ditugun tauletan ikusten den bezala.

Azpimarratzekoa da prozesu horiek guztiak aurrea eramateko Hezkuntza Administrazioak eta sindikatuek ahalegin handiak egin dituztela negoziazioetan, eta ahalegin horiek Hezkuntzako Mahai Sektorialeko kide gehienek sinatu dituzten erabaki edo hitzarmenetan islatu direla. Hitzarmen horiekin batera, gainera, irakasleak birbanatzeko prozesu ez-hauskorrak erabili dira, lanpostuak kentzeari edo derrigorrezko leku-aldatzeei dagokienez, baina baita ere kalitate adierazle batzuen hobetze nabarmenak, esate baterako ratioetan, tutoretzari eskainitako orduetan, zuzendaritza taldeetan, koordinazio lanetan, aniztasunari arreta emateko neurrietan, eta abarretan.

Lan osasunari buruzko atalari dagokionez, eta zehazki “Bajen prebalentzia” izeneko laukiari buruz ari garela, argi eta garbi dago uztail-abuztuetan, hau da, opor garaian, geratzen den beherakada. Kontuan hartzekoa den eta Departamentuko Lan Arriskuei Aurrea hartzeko Zerbitzuek eta unibertsitatez besteko irakasleen Segurtasun eta Osasun Komiteak aztertu beharreko gaia da.

Halaber, lan osasunari buruz ari garela, zenbait gai aztertu beharko lirateke gogo handiz; besteak beste, gaixotasun batzuen izaera profesionalaren deklarazioa eta lan osasuneko ordezkariek kontrol eraginkorra izatea ikastetxeetako lan baldintzen gainean.

Halaber, ikaslearen eskubideak begiratzeko, komenigarria izanen litzateke behar diren neurriak hartzea gertatzen diren bajak berehala bete ahal izateko.

Langileen behin-behinekotasun maila handia ikusirik, Kontseilu honen iritziz Administrazioak enplegu eskaintza publiko zabala egin beharko luke

Nafarroako Eskola Kontseiluak Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan 60 urterekin borondatezko erretiroa, LOGSE erretiroa, erdiets ezin dezaketen irakasleei eskubide hori aitor dakien, gainerako irakasleek bezala hartaz baliatu ahal izan daitezen.

(4. boto partikularra, STEE-EILASena).

## *3.2. Itunpeko ikastetxeetako irakasleak.*

**a) Bilakaera.**

Ondoko laukian ematen ditugun datuetan, argi bereizten da guztira behar diren lanaldien kopurua eta irakasleen gutxi gorabeherako kopurua, hain zuzen ere guztiak ez daudelako lanaldi osoko zerbitzuan ari diren ikastetxeek kontratatuta. Bestalde, irakasleak Irakasleen Kidegoetan egituratuta ez daudenez, ematen ditugun datuak haiek irakasten dituzten gaien arabera sailkatu ditugu. Ikasturtez ikasturte antzeman daitezkeen aldaketen arrazoia (itunpeko unitateen kopuruan gerta daitezkeen aldaketez gainera) LOGSEaren aplikazio-egutegiaren araberako ikasketen ezartzea da; Haur Hezkuntzaren kasuan, ordea, maila horretako itunak ikasmaila jakin batetik aurrerakoa izatea da arrazoia.

**Itunpeko Ikastetxeetako irakasleak**
**(Lanaldi osoak)**

| | 1990/91 | 1991/92 | 1992/93 | 1993/94 | 1994/95 | 1995/96 | 1996/97 | 1997/98 | 1998/99 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Haur Hezkuntza | | | | | | | | | 267 |
| Lehen Hezkuntza | 1.050 | 1.149 | 1.087 | 1.074 | 885 | 676 | 657 | 657 | 670 |
| D.B.H.ko 1. maila | | | | | | 237 | 246 | 254 | 259 |
| D.B.H.ko 2. maila | | | | | | | 116 | 227 | 267 |
| B.B.B./Batxilergoa | 26 | 28 | 30 | 261 | 220 | 216 | 149 | 75 | 77 |
| L.H. I. | 120 | 123 | 126 | 158 | 129 | 93 | 51 | 19 | |
| L.H. II. | 57 | 66 | 74 | 105 | 91 | 91 | 94 | 95 | 58 |
| Maila ertaineko Heziketa Zikloak | | | | | | | 5 | 10 | 22 |
| Goi mailako Heziketa Zikloak | | | | | | | 4 | 7 | 17 |
| Hezkuntza Berezia | 31 | 33 | 36 | 31 | 27 | 29 | 31 | 31 | 31 |
| **LANALDI OSOAK, GUZTIRA** | **1.284** | **1.399** | **1.353** | **1.629** | **1.352** | **1.342** | **1353** | **1375** | **1668** |
| **Irakasleen kopurua, gutxi gorabehera** | | | | | **1.625** | **1.625** | **1625** | **1650** | **1950** |

**b) Negoziazio kolektiboa.**

Itunpeko ikastetxe pribatuetan lanean ari diren irakasleen kolektiboak, beren ikastetxeetako titularrekiko harremanetan, Lan Zuzenbide orokorraren menpe eta alorrez alor sinatzen diren hitzarmen kolektiboen menpe daude.

Gaur egun, "Fondo publikoekin erabat edo zati batean mantentzen diren itunpeko irakaskuntza pribatuko enpresen III. Hitzarmen Kolektiboa" dago indarrean; 1997ko uztailaren 8an sinatu zen (urriaren 8ko 241. EAO), eta 1997ko urtarrilaren 1etik 1999ko abenduaren 31 bitarte izanen du indarra.

Hitzarmen horrek Estatu osoa hartzen du; hala ere, 1. artikuluaren bigarren lerroaldean dio hezkuntza arloko eskumen osoak dituzten autonomi erkidegoetan hitzarmen kolektiboak negoziatu ahal izanen direla kasuan kasuko lurralderako. Horri loturik, Nafarroan lansariei buruzko akordioak sinatzen joan dira, Estatuko hitzarmenean ezarritako lansariak hobetzeko; egun, "Nafarroako itunpeko irakaskuntza pribatuko irakasleen eta irakasle ez direnen lansariei

buruzko 1999 urterako akordioa" dago indarrean; urte horretako uztailaren 1ean sinatu eta abuztuaren 13ko 101. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Nafarroako Gobernuak ahalegin handiak egin ditu itunpeko ikastetxeetako irakasleen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordainsariak hobetzeko, ondoko laukian ikusten den bezala:

**Itunpeko Irakaskuntza Pribatuko soldatei buruzko taulak**

| | | **Haur Hezkuntzako irakasleak** | **OHO-Lehen Hezkuntza-DBHko irakasleak, Hezkuntza Berezia** | **BBB-DBHko 2. zikloa-Batxilergoko irakasleak** | **LH I-eko irakasleak** | LH II-ko irakasleak, Maila Ertaineko LH eta Goi Mailako LH | **LH-ko irakasle erantsia** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1991 | Soldata/hilabetea | | 153.364 | 170.530 | 166.551 | 168.541 | 148.381 |
| | Antzinatasuna | | 4.254 | 5.337 | 4.094 | 5.135 | 3.667 |
| 1992 | Soldata/hilabetea | | 178.205 | 199.615 | 196.615 | 199.615 | 177.392 |
| | Antzinatasuna | | 4.445 | 5.337 | 5.337 | 5.417 | |
| 1993 | Soldata/hilabetea | 179.298 | 185.663 | 207.968 | 207.968 | 207.968 | 184.808 |
| | Antzinatasuna | 4.470 | 4.735 | 5.969 | 5.337 | 5.742 | 5.337 |
| 1994 | Soldata/hilabetea | 188.448 | 188.448 | 215.247 | 215.247 | 215.247 | 191.276 |
| | Antzinatasuna | 4.538 | 4.807 | 6.031 | 5.337 | 5.802 | 5.337 |
| 1995 | Soldata/hilabetea | 195.044 | 195.044 | 222.781 | 222.781 | 222.781 | 197.971 |
| | Antzinatasuna | 4.975 | 4.975 | 6.242 | 5.337 | 6.005 | 5.337 |
| 1996 | Soldata/hilabetea | 202.650 | 202.650 | 231.469 | 231.469 | 231.469 | 205.691 |
| | Antzinatasuna | 5.169 | 5.169 | 6.485 | 5.545 | 6.239 | 5.545 |
| 1997 | Soldata/hilabetea | 209.945 | 209.945 | 239.802 | 239.802 | 239.802 | 213.096 |
| | Antzinatasuna | 5.169 | 5.169 | 6.485 | 5.545 | 6.239 | 5.545 |
| 1998 | Soldata/hilabetea | 216.453 | 216.453 | 247.236 | 247.236 | 247.236 | 219.702 |
| | Antzinatasuna | 5.329 | 5.329 | 6.686 | 5.717 | 6.432 | 5.717 |
| 1999 | Soldata/hilabetea | 224.678 | 224.678 | 256.631 | | 256.631 | 228.051 |
| | Antzinatasuna | 5.532 | 5.532 | 6.940 | | 6.676 | 6.150 |
| | Batxilergoko osagarria | | | 13.467 | | | |

Oharra: lansari gordinak dira

Zenbateko hauek Nafarroako Parlamentuak onesten ditu urtero Aurrekontu Orokorrekin batera, hezkuntza itunen atalean, langileen gastuei dagokion kontusailean.

**Itunpeko langileen eta Nafarroako langile funtzionarioen lansariak alderatzeko laukia:**

| Urtea | Estatuko K.P.I. | Nafarroako K.P.I. | Nafarroako funtziona-rioen lansariaren igo-era | Itunpeko irakasleen lansarietan izandako igoera | AZLek lansarietan izaniko igoera |
|---|---|---|---|---|---|
| 1994 | % 4,3 | % 4,7 | % 1,43 | % 1,5 maisu-maistrentzat<br>% 3,5 gainerakoentzat | % 4 |
| 1995 | % 4,3 | % 5,7 | % 0 | % 3,5 | % 3,5 |
| 1996 | % 3,2 | % 3,8 | % 3,5 | % 3,9 | % 3,9 |
| 1997 | % 2,0 | % 2,5 | % 2,9 | % 3,6 | % 3,6 |
| 1998 | % 1,4 | % 1,4 | % 2,1 | % 3,1 | % 2,1 |
| 1999 | | | % 1,8 | % 3,8 | % 3,8 |

Nafarroako Ikastolen Sektoreak hitzarmenen araubide propioa du, gainerako ikastetxeek daukatenaz bestelakoa; egun, "Nafarroako Ikastolen 1999rako Lan Hitzarmen Kolektiboa" dago indarrean. 1999ko ekainaren 30ean sinatu eta abuztuaren 9ko 99. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**c) Beste lanpostu bat ematea.**

Administrazioa, 1993 urtetik hona, hauxe sustatzen aritu da: berak eta Nafarroako itunpeko irakaskuntza pribatuko sindikatuek eta patronalak akordio batzuk sinatzea hezkuntza itunen sisteman bildutako unitateak murriztearen edo kentzearen eragina nozitu duten irakasleak birbanatzeko eta haiei beste lanpostu bat emateko neurri batzuk ezartzeko.

1998/1999 ikasturteari dagokionez, Akordioa 1998ko otsailaren 5ean sinatu zen. Urte bereko urriaren 16an egindako aktaren bitartez, aipatu akordioa sinatu zuten sindikatuek eta patronalek adierazi zuten akordio hartan aurreikusitako prozesuak gauzatuak zirela, eta hezkuntza itunen sistemaren aldaketaren eragina nozitu izan zuten irakasle guztiak birbanatuta zeudela edo, bestela, beste lanpostu bat eskuratuta zeudela.

**d) Nafarroako itunpeko Irakaskuntza Pribatuko enpresa-erakundeak.**

ANEG: Asociación Navarra de Educación y Gestión.
CECE: Confederación Española de Centros de Enseñanza.
NIE: Nafarroako Ikastolen Elkartea.
UECOE: Cuatro Vientos.

**e) Nafarroako itunpeko Irakaskuntza Pribatuko sindikatuak.**

1998/1999 ikasturtean itunpeko ikastetxe pribatuetan eginiko hauteskunde sindikalen ondorioz, honako ordezkaritza dute sindikatuek:

FSIE (SEPNA)......71 ordezkari (% 56,8)
UGT......................39 ordezkari (% 31,2)
ELA-STV.............12 ordezkari (% 9,6)
CC.OO. ................ ordezkari 1 (% 0,8)
LAB...................... ordezkari 1 (% 0,8)
USO...................... ordezkari 1 (% 0,8)

**f) Irakaslea/ikasgela ratioak handitzeko akordioak.**

Honako hauek dira Nafarroako itunpeko irakaskuntza pribatuko irakaslea/ikasgela ratioak, Administrazioak eta sektoreko enpresarien elkarteek eta sindikatuek sinaturiko akordioetan bildurik daudenak –1998ko otsailaren 5ean eta 1999ko ekainaren 16an:

Haur Hezkuntza..........1,12
Lehen Hezkuntza.........1,24
DBH, 1. zikloa...............1,56
DBH, 2. zikloa..................1,63
Batxilergoa....................1,52

Eskola Kontseilu honek bere kezka adierazi izan du itunpeko irakaskuntza pribatuko sektorearen enpleguak duen egoerarengatik; hori dela eta, Administrazioa premiatzen dugu itunpeko –ikastetxe pribatuetan behar diren irakasleak plantillan biltzeko akordio batere erdiets dadin; horrela lanpostuan irauteko aukera bermatuko du, bai eta itunak ez berritzearen eragina nozitzen duten irakasleen erroldan sarturiko irakaslegoko lanpostuak beteko direla ere.

Eskola Kontseiluak adierazi nahi du 9/1995 Lege Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, aurrera jarraitu beharko litzatekeela ikastetxeetako plantilletan ikasketaburuak ere sartzen zuzendaritza eginkizunetako laguntzaile gisa, bai eta itunpeko ikastetxe pribatuetan funtsezko alderdi pedagogikoak garatzeko lanetan ari diren departamentuburuak ere.

Eskola Kontseilu honek beharrezko ikusten du aurrerapen nabarmenak egitea itunpeko irakaskuntza pribatuko Mahaiaren alorreko elkarrizketan eta negoziazioetan, hain zuzen ere ahal den eta lasterren Foru Komunitatearen eremurako sektore horri eta haren langileei egonkortasuna emanen dion akordio bat erdiesteko.

Hezkuntza Administrazioak itunpeko ikastetxeetako langileen kontratazioen gaineko kontrola izanen duela bermatu behar du; horrela, indarrean dauden arauetan ezarritakoak hertsiki beteko direlakoan.

Bestalde, Nafarroako Eskola Kontseiluak Administrazioa premiatzen du neurri politikoak eta aurrekontukoak jartzen jarri dezan, itunpeko ikastetxe pribatuetako irakasleen ordainsariak eta funtzionario irakasleen ordainsariak antzekoak izan daitezen.

Laburbilduz, neurri politikoak eta aurrekontukoak hartzea eskatzen dugu itunpeko ikastetxe pribatuetako plantillak pixkanaka titulartasun publikoko ikastetxeetako plantillekin berdintzen joateko eta krisian dauden ikastetxeetan lanean ari eta bere lanpostua galdu duten langileei beste lanpostu bat emateko neurriak hartzea.

### *3.3. Administrazioko eta zerbitzuetako langileak.*

**Irakaskuntza Publikoa.**

| Maila | Lanpostua | Zenbat pertsona |
|---|---|---|
| **C maila** | *Administraria/Ofizial Administraria* | 51 |
| | *Besterik (1)* | 5 |
| | ***C maila, guztira*** | **56** |
| **D maila** | *Administrari laguntzailea* | 94 |
| | *Etxezaina* | 123 |
| | *Besterik (2)* | 15 |
| | ***D maila, guztira*** | **232** |
| **E maila** | *Gelazaina/Mandataria* | 23 |
| | *Zerbitzu orokorrak* | 45 |
| | *Garbitzaileak* | 117 |
| | *Besterik (3)* | 5 |
| | ***E maila, guztira*** | **190** |

*(1) Maisu-maistraren laguntzailea: 1; Igeriketako begirale bat: 1; Mantenimenduko arduraduna: 1; Gobernatzaile lanpostua: 1; Hezitako zaindari bat: 1.*
*(2) Zaindariak: 4; Sukaldariak: 4; Mantenimenduko langileak: 2; Peoiak: 2; Laguntzaileak: 1; Mantentzeko laguntzaileak: 1; 2. mailako behargina: 1.*
*(3) Sukaldari laguntzaileak: 2; Zerbitzariak: 2; 4. mailako behargìnak: 1.*

Langile hauek soilik Nafarroako Gobernuaren menpeko ikastetxe publikoen menpekoak dira. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen kasuan, zaintzako eta mantenimenduko langileak udalen menpekoak dira.

### 3.4. Irakasleak prestatzeko programak. Irakasleei Laguntzeko Zentroak.

Irakasleen prestakuntzak etengabeko egokitze eta birziklatzea dakartza berekin, hezkuntza egoera berriari egokitzeko; izan ere, egoera hori, neurri handi batean, etengabe aldatzen ari da hezkuntza ikerketaren arloan egiten diren aurrerapenen ondorioz, gure garaiko gizarte eta kultur egoeraren ondorioz eta, batez ere, gure herrialdean aplikatu den Hezkuntza Erreforma sakonaren ondorioz. Aurreko horri guztiari gehitu behar zaio irakasleen ikasketen eta lanbidearen prestakuntza egunean mantentzeko egon ohi den beharra. Nafarroako Hezkuntza Administrazioak ahalegin handiak egin ditu irakasleen prestakuntzarako; horren erakusgarri a da helburu horretarako dagoen aurrekontuari buruzko eta hori guztia aurrera eramateko giza baliabideei buruzko laukia.

Ondokoak dira irakasleen prestakuntza-ekintzen ardatzak:

- Irakasleen prestakuntzarako urteroko plana.
- Ikasketa lizentzietarako urteroko deialdia.
- Prestakuntza jardueretara joateko banakako laguntzen urteroko deialdia.
- Atzerriko hizkuntzetan prestatzeko urteko deialdia.
- Euskarazko irakasleen prestakuntzarako urteroko deialdia.

1998/1998 ikasturteari dagozkion programak aztertu ditugu, horixe baita Nafarroako Eskola Kontseiluaren lehenbiziko txosten honen helburua. Ezaguna da, hala ere, eta abian dago 1999/2000 ikasturterako programa zabal bat.

**Irakasleen prestakuntzarako urteroko plana.**

Aurrera jarraitu baino lehen, egoki iruditzen zaigu azken eskola urteetan Irakasleentzako Laguntza Zentroetan prestaturiko prestakuntza ikastaro eta ekintzen laburpen bat azaltzea.

**Irakasleen prestakuntzarako aurrekontuetan jasotako gastuaren bilakaera.**

| Urtea | Heziketa programa orokor. | Erreformaren programa | Hizkuntza modernoen programa | Euskara programa | Besterik Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| **1990** | 50.000.000 | - | - | 8.400.000 | - |
| **1991** | 80.000.000 | 11.530.000 | - | 8.904.000 | - |
| **1992** | 109.800.000 | 33.282.000 | - | 10.100.000 | - |
| **1993** | 113.000.000 | 25.000.000 | - | 14.500.000 | - |
| **1994** | 113.000.000 | 15.000.000 | 33.000.000 | 12.500.000 | - |
| **1995** | 71.400.000 | 16.700.000 | 16.400.000 | 12.000.000 | - |
| **1996** | 92.000.000 | 25.700.000 | 17.500.000 | 13.500.000 | - |
| **1997** | 127.000.000 | 27.000.000 | 26.500.000 | 13.716.000 | - |
| **1998** | 123.000.000 | 28.100.000 | 20.000.000 | 12.300.000 | - |
| **1999** | 110.000.000 | 22.100.000 | 20.000.000 | 12.300.000 | 5.000.000 |

**Jarduketa ildoak.**

1998/99 ikasturterako, planak ondokoak bildu ditu:

1. Gure komunitatean LOGSEaren ezarpena laguntzen jarraitzea:
   - Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapen finkapena erraztuz.
   - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan zailtasun handienak sortzen dituzten hezkuntza helburuak lor daitezen bultzatuz.
   - Batxilergo eta heziketa ziklo berriak sartzen lagunduz.
   - Ikasleen beharrak aintzat hartuz, LOGSEak ezarritakoen ikuspegietatik.
   - Aldaketak direla-eta eta eskatzen zaien lanbide gaitasuna dela-eta, irakasleek erantzun egokia emateko dauzkaten beharrak aintzat hartuz.
   - Hezkuntza Komunitatearen beharrak aintzat hartuz; Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan adierazita daude horiek.

2. Prestakuntza lan ingurunean kokatzea:
   - Ulertzea, prestakuntza lanaren eta irakasleen zati bat da, ikasgelako errealitatearekin lotuta dagoena; betiere, praktikari buruzko gogoetaren ondorioa izanen da.
   - Prestakuntza ikastetxeak berak bere prestakuntza planetan iradoki dituen erritmo eta ibilbideei egokitzea.
   - Prestakuntza ikastetxeetan ematea sustatuko duten prestakuntza modalitateak sustatzea.
   - Lehentasuna ematea lan kooperatiboa eta ekimen berritzaile partekatuak abian jartzea bideratuko duten irakasleen ekipoen prestakuntzari.
   - Prestakuntzan aintzat hartzea ikastetxeko giroa eta horrek irakasleen motibazioan duen eragina hobetzeko harreman-dinamiken garrantzia.
   - Ikastetxeek antolaturiko prestakuntza jarduêretarako ekimenak laguntzea, baldin eta ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

3. Prestakuntzaren bidetik, kalitateari buruzko gaiak sartzea, horiek hezkuntza munduan sartzen ari baitira.
   - Autoebaluazioa eta hobekuntza planak.
   - Hezkuntza kalitateari buruzko adierazleak.
   - Norberaren kalitatea eta autoeraginkortasuna.
   - Egungo kalitate ereduak.

4. Baloreen hezkuntza sartzea ikastetxeetako bizitzan, Hezkuntza Komunitateko kide guztiek parte hartuz eta adostasunetara bilduz.

5. Hezkuntza Departamentuko teknikarien prestakuntzan eragitea.

6. Teknologia berriak aplikatzea irakasleen lanean, haiek erabiltzea bidezkoa den alderdietan eta, bereziki, prestakuntzaren alorrean. Urruntasuna gainditzen eta ikastetxeetako langileen arteko komunikazioa errazten laguntzen duten modalitateak esperimentatuko dira.

7. Europako Erkidegoarekin kolaboratzeko eta trukeak egiteko ekimenetara zabaltzea, parte garen eremu komun hori sortzen lagunduz.

**Lehentasunezko programak.**

- Etapako eta Arloko curriculum proiektuak berraztertzeko prestakuntza.
- Batxilergoak eta Heziketa Zikloak antolatzen hasteko prestakuntza.
- Irakasleen ekipoak zuzendu eta koordinatuko dituzten ekipoentzako prestakuntza, ikastetxeak kalitatez kudea ditzaten.
- Arloetako irakasleak prestatzea, curriculum dibertsifikazioko programetarako.
- Zientziaren eta didaktikaren alorretan eguneratzea, hori baita irakasleen praktika hobetzeko oinarria.
- Zeharkako gaiak curriculumetan sartzeko prestakuntza.
- Aniztasunari arreta emateko prestakuntza. Tutoreen lana areagotzeko prestakuntza.

**Prestakuntza modalitateak.**

Hona 1998/99 ikasturterako daudenak:

- Ikastetxeentzako aholkularitza.
- Prestakuntza moduluak.
- Mintegiak.
- Lantaldeak.
- Eguneratze zientifiko eta didaktikoko ikastaroak.
- Bestelako modalitateak: informazio saioak. Jardunaldiak, tailerrak, ibilbideak eta mintza praktikako taldeak.

## Irakasleentzako prestakuntza planak.

| | 90/91, jarduera kopurua | | | | | | 91/92, jarduera kopurua | | | | | | 92/93, jarduera kopurua | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Lizarra | Lekaroz | Iruña | Tafalla | Tutera | GUZTIRA | Lizarra | Lekaroz | Iruña | Tafalla | Tutera | GUZTIRA | Lizarra | Lekaroz | Iruña | Tafalla | Tutera | GUZTIRA |
| Haur Hezkuntza | 0 | 2 | 10 | 3 | 3 | **18** | 1 | 4 | 4 | 4 | 2 | **15** | 7 | 7 | 20 | 8 | 8 | 50 |
| Lehen Hezkuntza | 6 | 17 | 36 | 5 | 19 | **83** | 13 | 1 | 32 | 13 | 13 | **72** | 18 | 27 | 57 | 15 | 26 | 143 |
| Bigarren Hezkuntza | 2 | 4 | 29 | 2 | 11 | **48** | 5 | 2 | 35 | 10 | 11 | **63** | 1 | 6 | 34 | 3 | 10 | 54 |
| Lanbide Heziketa | 1 | 0 | 4 | 1 | 2 | **8** | 0 | 1 | 15 | 2 | 2 | **20** | 0 | 0 | 14 | 0 | 0 | 14 |
| Maila artekoak | 0 | 0 | 3 | 2 | 2 | **7** | 0 | 0 | 5 | 0 | 1 | **6** | 0 | 0 | 17 | 0 | 0 | 17 |
| Helduen Hezkuntza | 0 | 0 | 3 | 0 | 0 | **3** | 0 | 0 | 2 | 0 | 0 | **2** | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Hezkuntza Berezia | 0 | 0 | 11 | 0 | 1 | **12** | 0 | 0 | 1 | 1 | 0 | **2** | 1 | 0 | 6 | 0 | 0 | 7 |
| Erregimen Bereziko irak. | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | **1** | 0 | 0 | 1 | 1 | 2 | **4** | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **Jarduerak, GUZTIRA** | **9** | **23** | **97** | **13** | **38** | **180** | **19** | **8** | **95** | **31** | **31** | **184** | **27** | **40** | **148** | **26** | **44** | **285** |
| **Heziketa orduak, guztira** | | | | | | **9820** | | | | | | **8336** | | | | | | **11659** |
| **Ziurtagirien kopurua (*)** | | | | | | | | | | | | **2063** | | | | | | **3959** |

| | 93/94, jarduera kopurua | | | | | | 94/95, jarduera kopurua | | | | | | 95/96, jarduera kopurua | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Haur Hezkuntza | 6 | 5 | 7 | 3 | 7 | 28 | 3 | 6 | 11 | 5 | 10 | 35 | 0 | 18 | 15 | 15 | 18 | 66 |
| Lehen Hezkuntza | 18 | 18 | 51 | 12 | 26 | 125 | 15 | 37 | 83 | 13 | 28 | 176 | 0 | 20 | 45 | 17 | 34 | 116 |
| Bigarren Hezkuntza | 10 | 7 | 93 | 6 | 19 | 135 | 13 | 10 | 78 | 11 | 28 | 140 | 0 | 11 | 68 | 12 | 21 | 112 |
| Lanbide Heziketa | 4 | 1 | 23 | 1 | 4 | 33 | 0 | 0 | 29 | 2 | 4 | 35 | 0 | 1 | 18 | 0 | 4 | 23 |
| Maila artekoak | 0 | 3 | 9 | 0 | 1 | 13 | 0 | 0 | 9 | 0 | 0 | 9 | 0 | 1 | 18 | 1 | 1 | 21 |
| Helduen Hezkuntza | 0 | 0 | 3 | 0 | 0 | 3 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 2 | 0 | 1 | 3 |
| Hezkuntza Berezia | 0 | 5 | 13 | 0 | 2 | 20 | 0 | 1 | 10 | 1 | 1 | 13 | 0 | 0 | 8 | 1 | 3 | 12 |
| Erregimen Bereziko irak. | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 3 | 0 | 2 | 5 | 0 | 0 | 9 | 0 | 6 | 15 |
| **Jarduerak, GUZTIRA** | **38** | **39** | **200** | **22** | **59** | **358** | **31** | **54** | **224** | **32** | **73** | **414** | **0** | **51** | **183** | **46** | **88** | **368** |
| **Heziketa orduak, guztira** | | | | | | **8069** | | | | | | **11040** | | | | | | **9439** |
| **Ziurtagirien kopurua (*)** | | | | | | **4673** | | | | | | **5374** | | | | | | **4570** |

| | 96/97, jarduera kopurua | | | | | | 97/98, jarduera kopurua | | | | | | 98/99, jarduera kopurua | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Haur Hezkuntza | 0 | 17 | 22 | 11 | 9 | 59 | 0 | 11 | 43 | 29 | 16 | 99 | 8 | 13 | 14 | 25 | 20 | 80 |
| Lehen Hezkuntza | 0 | 18 | 57 | 15 | 17 | 107 | 0 | 20 | 173 | 16 | 7 | 216 | 26 | 3 | 61 | 10 | 5 | 105 |
| Bigarren Hezkuntza | 0 | 5 | 80 | 8 | 17 | 110 | 0 | 3 | 88 | 7 | 32 | 130 | 3 | 2 | 53 | 11 | 26 | 95 |
| Lanbide Heziketa | 0 | 4 | 52 | 3 | 7 | 66 | 0 | 0 | 70 | 1 | 8 | 79 | 0 | 0 | 32 | 1 | 1 | 34 |
| Maila artekoak | 0 | 0 | 2 | 0 | 9 | 11 | 0 | 0 | 2 | 1 | 42 | 45 | 0 | 0 | 0 | 3 | 32 | 35 |
| Helduen Hezkuntza | 0 | 0 | 4 | 0 | 1 | 5 | 0 | 0 | 3 | 1 | 0 | 4 | 0 | 0 | 5 | 0 | 0 | 5 |
| Hezkuntza Berezia | 0 | 0 | 9 | 2 | 1 | 12 | 0 | 0 | 2 | 2 | 1 | 5 | 0 | 0 | 1 | 2 | 1 | 4 |
| Erregimen Bereziko irak. | 0 | 0 | 4 | 0 | 5 | 9 | 0 | 0 | 15 | 0 | 2 | 17 | 0 | 0 | 6 | 0 | 0 | 6 |
| **Jarduerak, GUZTIRA** | **0** | **44** | **230** | **39** | **66** | **379** | **0** | **34** | **396** | **57** | **108** | **595** | **37** | **18** | **172** | **52** | **85** | **364** |
| **Heziketa orduak, guztira** | | | | | | **9514** | | | | | | **13413** | | | | | | **6673** |
| **Ziurtagirien kopurua (*)** | | | | | | **4651** | | | | | | **8735** | | | | | | **3216** |

*(*) Parte hartzen duten irakasleak, beren prestakuntza bukatzen dutenak.*

Oharra: Lizarrako ILZri buruzko daturik ez dugu 95/96, 96/97 eta 97/98 ikasturteei buruz, ILZ horren datu basean izaneko matxura baten ondorioz.

98/99 ikasturteko jarduerak maiatzaren 30era bitartekoak dira.

## Haur Hezkuntzako prestakuntza jarduerak. 1998/99 ikasturtea.

| Modalitatea | Izenburua | Orduak |
|---|---|---|
| **Mintegia** | *Hezkuntzako psikomotrizitate praktika* | *35* |
| | *Matematikak ikastea* | *35* |
| | *Dramatizazioa* | *20* |
| | *Irakurtzen eta idazten ikastea: curriculumaren garapenerako orienta-bideak* | *35* |
| | *Arte Hezkuntza* | *20* |
| | *Arte Hezkuntza* | *35* |
| | *Matematikak ikastea* | *35* |
| | *Haur Hezkuntzan irakurtzen eta idazten ikastea azalpeneko testua erabiliz* | *35* |
| | *Musika, Maistra!* | *20* |
| | *Ingelesa lehen urteetan nola irakatsi.* | *30* |
| **Modulua** | *Irakurtzen ta idazten ikastea* | *10* |
| | *Aniztasunaren trataera: antolamendurako estrategiak.* | *10* |
| | *Zehar gaiak: curriculumean integratzeko estrategiak eta materialak.* | *10* |
| **Ikastaroak** | *Haur Hezkuntzako haurren bilakaera jostetaren bidez.* | *10* |
| | *Talde dinamika eta talde lanerako estrategiak.* | *10* |
| | *Artea ulertzea* | *12* |
| | *Musika, Maistra!* | *10* |
| | *Ingelesa Haur Hezkuntzan nola irakatsi.* | *30* |
| | *Ikusentzunezko grabazio bat egiteko prestakuntza oinarrizkoa* | *10* |
| | *Ikusentzunezko materiala baliabide didaktiko* | *10* |
| | *ILZko ikusentzunezko edizio material digitala nola erabili* | *10* |
| | *ILZko ikusentzunezko edizio analogikorako materiala nola erabili* | *10* |
| | *Informatika hastapenak* | *30* |
| | *Word 97 testu prozesatzailea* | *20* |
| | *Telematika – Internet* | *12* |
| | *Excel 97en atarian* | *20* |
| | *Arloetarako aplikazio informatikoak* | *10* |
| | *Formatos grafikoak, multimedia eta Clic* | *20* |
| | *Informatika curriculumari nola erantsi* | *30* |

## Lehen Hezkuntzako Prestakuntza Jarduerak.

| | Gai orokorrak | |
|---|---|---|
| **Moduluak** | *Aniztasunean hezi* | *12* |
| | *Zehar gaiak curriculumean* | *12* |
| **Ikastaroak** | *Ikusentzunezko grabazio bat egiteko prestakuntza oinarrizkoa* | *10* |
| | *Ikusentzunezko materiala irakaskuntzan nola erabili* | *10* |
| | *ILZko ikusentzunezko edizio ekipo digitala nola erabili* | *10* |
| | *ILZko ikusentzunezko edizio ekipo analogikoa nola erabili* | *10* |
| | *Informatikaren hastapenak* | *30* |
| | *Word 97 testu prozesatzailea* | *20* |
| | *Telematika – Internet* | *12* |
| | *Excel 97ren atarian* | *20* |
| | *Arloetarako aplikazio informatikoak* | *10* |
| | *Formatos grafikoak, multimedia eta Clic* | *20* |
| | *Informatika curriculumari nola erantsi* | *30* |
| | **Ingurunearen Ezagutza** | |
| **Mintegiak** | *Ingurunearen Ezagutza arlorako sekuentzia didaktikoak nola diseinatu* | *35* |
| **Moduluak** | *Ingurunearen Ezagupena* | *12* |
| | *Ingurunearen ezagupena* | *12* |
| | *Natur lantegia. Izaki bizidunen gaineko ikerketa jarduerak.* | *10* |
| | *Natur lantegia. Ingurune fisikoaren gaineko ikerketa jarduerak* | *10* |
| | *Historia lantegia. Denbora historikoaren gaineko ikerketa jarduerak* | *10* |

| | | |
|---|---|---|
| | *Ingurunea jarduera teknologikoaren bidez ezagutzea* | *15* |
| | *Ingurunea jarduera teknologikoaren bidez ezagutzea* | *15* |
| **Ikastaroak** | *Iruñeko lorategiak. Ondare eta baliabide didaktiko* | *10* |
| | *Astronomia Lehen Hezkuntzan* | *20* |
| | **Arte Hezkuntza** | |
| **Mintegiak** | *Lehen Hezkuntzako Musika hezkuntzaren programazioa errebisatzea* | |
| | *Hezkuntza Plastikoa* | *35* |
| | *Hezkuntza Plastikoa* | *35* |
| | *Adierazten irakatsi, begiratzen ikasi* | *40* |
| **Moduluak** | *Hezkuntza Plastikoaren argi-itzalak* | *12* |
| **Ikastaroak** | *Musika gelan nola aurkeztu* | *9* |
| | *Kantu tradizionala eta Herri-musikatresnak ikasgelarako* | *22* |
| | *Herri jostaketak eta kantuak* | *22* |
| | *Koro Zuzendaritzaren ataria* | *20* |
| | *Material didaktikoak nola itxuratu* | *30* |
| | **Gorputz Hezkuntza** | |
| **Mintegiak** | *Gorputz adierazpena Lehen Hezkuntzan* | |
| **Moduluak** | *Orientazio kirola eskoletako Gorputz Hezkuntzan* | *14* |
| **Ikastaroak** | *Gorputz Hezkuntza Lehen Hezkuntzan: ibilbide bat Gorputz hezkuntza espezialitatea duten maisu-maistren lanbide garapenean* | *15* |
| | *Lehen Laguntzak eta lesioen galarazpena Gorputz Hezkuntza klaseetan* | *18* |
| | **Gaztelania eta Literatura – Euskara eta Literatura** | |
| **Mintegiak** | *Irakurtzen eta idazten ikastea: curriculum diseinurako orientazioak* | *35* |
| | *Irakurtzen eta idazten azalpenezko testuaren bidez ikastea: hitzezko azalpena* | *50* |
| | *Irakurtzen eta idazten argudiozko testuaren bidez ikastea* | *35* |
| **Moduluak** | *Irakurriaren ulermena eta testuen sorketa* | *10* |
| | *Lehen Hezkuntzan irakurtzen eta idazten ikastea: proiektuen bidezko metodologia (Haur Hezkuntzakoaren jarraipena)* | *10* |
| | *Lehen Hezkuntzan irakurtzen eta idazten ikastea: proiektuen bidezko metodologia (Haur Hezkuntzakoaren jarraipena)* | *10* |
| **Ikastaroak** | *Haur Literaturaren didaktikal* | *10* |
| | **Atzerriko Hizkuntzak** | |
| **Ikastaroak** | *Ingelesa eta frantsesa Lehen Hezkuntzan irakasteko proposamen metodologikoak* | |
| | *Languaje improvement through Story-Telling – 1. ikastaroa* | *40* |
| | *Languaje improvement through Story-Telling – 2. ikastaroa* | *40* |
| | *Solving problems in classroom: From discussion to action – 1. ikastaroa* | *40* |
| | *Solving problems in classroom: From discussion to action – 2. ikastaroa* | *40* |
| | *Ingeles ikastaroa* | *30* |
| | *Frantsesezko hizkuntza gaikuntza* | *45* |
| **Mintza praktikako taldeak eta tailerrak** | *Mintzapraktika taldeak (ingelesa eta frantsesa)* | |
| | *Lantegiak (ingelesa eta frantsesa)* | *3* |
| **Bekak** | *Udako ikastaro-egonaldiak (ingelesa, frantsesa eta alemana)* | |
| | *Lingua* | |
| | **Matematika** | |
| **Mintegiak** | *Kalkulua derrigorrezko etapan* | *40* |
| | *Matematikak Lehen Hezkuntzarako. Valentziako Cero taldearen proposamena* | *35* |
| **Moduluak** | *Zenbakiak eta buruketak egitea. Hastapenak* | *10* |
| | *Zenbakiak eta buruketak egitea. Sakontzen* | *10* |
| | *Geometria Lehen Hezkuntzan* | *10* |
| **Ikastaroak** | *Matematikak eta errealitatea* | *15* |
| **Informazio saioak** | *Valentziako Cero taldearen proposamena matematikak arloarentzat* | *3* |
| | *Kalkuladorea nola erabili* | *3* |
| | *Euskarazko proposamen bat* | *3* |
| | **Erlijio Hezkuntza eta Moral Katolikoa** | |
| **Cursos** | *Biblia ezagutzea gelan irakasteko* | *16* |

## Bigarren Hezkuntzako prestakuntza jarduerak.

| | Gai orokorrak | |
|---|---|---|
| **Aholkularitza** | *Irakaslea, gelako gatazka konpontzearen eragile* | |
| | *Hezkuntza erantzuna hobetzeko elkarlanerako estrategiak* | |
| **Ikastaroak** | *ILZko Ikusentzunezko edizio ekipoa erabiltzea* | *10* |
| | *Ikusentzunezko grabazio bat egiteko oinarrizko prestakuntza* | *10* |
| | *Ikusentzunezko materiala didaktikan nola erabili* | *10* |
| | *ILLLZko ikusentzunezko edizio analogikorako ekipoa nola erabili* | *10* |
| | *Garapenerako hezkuntza* | *14* |
| | *Informatikako hastapenak* | *30* |
| | *Word 97 testu prozesatzailea* | *20* |
| | *Telematika – Internet* | *12* |
| | *Excel 97 kalkulu orria* | *20* |
| **Jardunaldiak** | *Gelako programazioen gaineko jardunaldiak* | *10* |
| | **Natur Zientziak** | |
| **Mintegiak** | *Interactive Physics laboratorio birtualaren erabilera praktikoa* | *35* |
| | *Fisika eta Kimikako lan praktikoetan izandako esperientzia trukatzeko jardunaldiak* | *35* |
| **Ikastaroak** | *Fisika eta Kimikako buruketak konpontzea* | *40* |
| | *Laboratorio birtualaren erabilera didaktikoa. Interactive physic simuladorea.* | *30* |
| | *Ordenardorez lagundutako esperimentazioa)* | *10* |
| | *Nafarroako Geologiaa* | *20* |
| | *Mikrobiologiaren alderdi oinarrizkoek eta Bioteknologiak dituzten aplikazioak* | *24* |
| | *Biologia, Geologia eta Lur eta ingurugiro zientzien proposamenak batxilergo berrietan* | *21* |
| | **Gizarte Zientziak** | |
| **Ikastaroak** | *Geografia eta Historiako Irakasgaiak LOGSE batxilergoan. Proposamen didaktikoak.* | *24* |
| | *Gizarte Zientziak Interneten* | *12* |

| | Gorputz Hezkuntza. | |
|---|---|---|
| **Mintegiak** | *Gorputz adierazpena Bigarren Hezkuntzan* | |
| **Moduluak** | *Eskalada eta trepa Bigarren Hezkuntzako Gorputz Hezkuntzan* | *16* |
| | *Orientazio kirola Eskolako Gorputz Hezkuntzan* | *14* |
| **Ikastaroak** | *Saloiko dantzak Bigarren Hezkuntzan: Gorputz Adierazpena eta Dantza Gorputz Hezkuntzan Tratatezko Proposamen bat* | *14* |
| | *Lehen laguntzak, eta lesioak nola galarazi gorputz hezkuntzako eskoletan* | *18* |
| **Informazio saioa** | *Batxilergoko Gorputz Hezkuntza arlorako proposamen bat* | *8* |
| | **Plastikaren eta ikusmenaren hezkuntza** | |
| **Mintegiak** | *Esperientziak trukatu* | *40* |
| **Ikastaroak** | *Proportzioa naturan eta arteetan* | *30* |
| | *AutoCAD 14* | *40* |
| | *Photoshop eta Quarxpress* | *40* |
| | *CorelDraw eta Photoshop* | *40* |
| | **Gaztelania eta Literatura – Euskara eta Literatura** | |
| **Mintegiak** | *Literatura Unibertsala* | *30* |
| **Moduluak** | *Gelan testuak idaztea: Idazketa proiektuak* | *10* |
| | *Gramatikaren gaineko gogoeta* | *10* |
| **Ikastaroa/Mintegia** | *Gelan irakurtzen nola irakatsi: irakurriaren ulermena* | *35* |
| | *Gelan azalpen testuak idatzi eta irakurtzea: ahozko azalpen testua* | *50* |
| | *Prestakuntzaren ebaluazioa idatz prozesuan; intrigazko kontaera* | *35* |
| **Ikastaroak** | *Testu iruzkina batxilergoan: Komunikazio trataera bat* | *10* |
| | *DBHn literatura nola tratatu: gazteentzako literatura* | *12* |

| | | |
|---|---|---|
| | **Atzerriko HizkuntzaK** | |
| **Mintegiak** | *Atzerriko hizkuntzen mintegi etengabea* | |
| **Ikastaroak** | *Ingeles ikastaroa* | *30* |
| | *Frantsesezko hizkuntza gaikuntza* | *45* |
| | *Hitzezko komunikazioa helburuka eta mailaka: nola ebaluatu (frantsesa).* | *10* |
| | *Bakarkako irakaskuntza. Hitzezko komunikazioa (alemana).* | *10* |
| | *Multimedia hizkuntzak irakaskuntzan nola erabili. Hastapenak* | *12* |
| | *L.O.G.S.E. batxilergoa: ingelesa* | *10* |
| | *Languaje improvement through Story-Telling – 1. ikastaroa* | *40* |
| | *Languaje improvement through Story-Telling – 2. ikastaroa* | *40* |
| | *Solving problems in classroom: From discussion to action – 1. ikastaroa* | *40* |
| | *Solving problems in classroom: From discussion to action – 2. ikastaroa* | *40* |
| **Mintza praktikako taldeak eta lantegiak** | *Mintzapraktika taldeak (ingelesa eta frantsesa)* | *4 meses* |
| | *Lantegiak (ingelesa eta frantsesa)* | *3 h.* |
| **Bekak** | *Udako ikastaro-egonaldiak (ingelesa, frantsesa eta alemana)* | |
| | *Lingua* | |
| | **Matematikak** | |
| **Mintegiak** | *Matematika arlorako informatika programak: Cabri II y Derive* | *25* |
| | *Kalkulua derrigorrezko etapan* | *40* |
| **Moduluak** | *Buruketak egitea* | *10* |
| **Ikastaroak** | *Lan proposamenak matematiken arlorako* | *12* |
| | *Matematika lantegia DBHko lehen zikloan* | *15* |
| | *Estatistika eta probabilitatea batxilergoan* | *10* |
| | *Matematika gelan gutxitan izaten diren jarduera eta edukiak* | *10* |
| | *Grafos* | *12* |
| | *Derive programa irakas tresna gisa matematika gelan* | *12* |
| **Informazio saioak** | *Matematiken curriculuma batxilergoan* | *3* |
| | **Musika** | |
| **Mintegiak** | *Bigarren Hezkuntzako Musika hezkuntzaren programazioa errebisatzea* | |
| **Ikastaroak** | *Musika gelan nola aurkeztu* | *9* |
| | *Kantu tradizionala eta herri musika tresnak gelan* | *22* |
| | *Perkusioa irakas tresna* | *15* |
| | *Koro zuzendaritzaren atarian* | *20* |
| | **Teknologia** | |
| **Mintegiak** | *Asmakuntzen lantegia* | |
| | *Teknologia DBHn* | |
| | *Teknologia Industriala Ierako material didaktikoak* | |
| | *Material didaktikoak teknologiako batxilergoan* | |
| | *Ekonomia eta enpresen antolamendua* | |
| **Moduluak** | *Harridromo baten eraikuntza* | *12* |
| **Ikastaroak** | *Ordenadoreen arkitektura* | *30* |
| | *Material eta aplikazio teknika berriak Teknologiaren arloan* | *20* |
| | *Enpresaren simulazioa* | *20* |
| | *TB estudio bat nola montatu eta erabili* | *30* |
| | *Teknologia Ikastaro integratua* | *98* |
| **Ibilbideak** | *Ibilbide industriala II/III* | *1 día* |
| | *Artisautza ibilbidea I* | *1 día* |
| | **Aukerako ikasgaiak** | |
| **Ikastaroak** | *Datu baseak kudeatzeko sistemak* | *30* |
| | *Excel kalkulu orria eta haren erabilera zientifikoa* | *15* |
| | *Programazio lengoaiak: Osotarako ikuspegia* | *15* |
| | *Ordenadoreen arkitektura* | *30* |
| | **Erlijio Hezkuntza eta Moral Katolikoa** | |
| **Ikastaroak** | *Biblia ezagutzea gelan irakasteko* | *16* |

## Erregimen Bereziko Irakaskuntzetako prestakuntza jarduerak

| | Kontserbatorioa, Musika Eskolak eta Dantza Eskola | |
|---|---|---|
| **Ikastaroak** | *Dantza klasikoa nola irakatsi maila elementaletan* | *20* |
| | *Errenazimendu eta Barrokoko dantzak* | *20* |
| | *Analisi Musikala II* | *44* |
| | *Erlajazioa eta beldur eszenikoaren kontrola* | *14* |
| | *Perkusioa baliabide didaktiko* | *15* |
| | *Koro zuzendaritzaren hastapenak* | *20* |
| | **Hizkuntza Eskola Ofizilak** | |
| **Ikastaroak** | *Hizkuntzen irakaskuntzan multimedia nola erabili, hastapenak* | *12* |
| | *Hitzezko komunikazioa helburuka eta mailaka: nola ebaluatu (frantsesa)* | *10* |
| | *Bakarkako irakaskuntza. Hitzezko komunikazioa. Alemana* | *10* |
| **Bekak** | *Udako ikastaro egonaldiak (ingelesa, frantsesa eta alemana)* | |
| | *Lingua* | |

| Berariazko programetako prestakuntza programak | | |
|---|---|---|
| **Ikastaroak** | *Ikastetxearen zuzendaritza lana* | *70* |
| | *Zuzendaritza taldeak eta hezkuntza kalitatea* | *40* |

| Hezkuntza Berezia | | |
|---|---|---|
| **Mintegia** | *Autoebaluazioa eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeen irakaskuntzaren hobekuntza.* | *24* |
| | *Logopedia eta hezkuntza erantzuna* | *50* |
| | *Informatika eta Hezkuntza Premia Bereziko ikasleak* | *20* |
| | *Lanbide Hatapenerako Programak (LHP)* | *15* |
| | *H.p.b.ko ikasleen curriculum egokitzapenak* | *50* |

| Curriculum Dibertsifikazioa | | |
|---|---|---|
| **Ikastaroak** | *Aniztasunaren trataerarako hezkuntza estrategiak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan* | *50* |

| Helduentzako Hezkuntza | | |
|---|---|---|
| **Mintegia** | *Helduentzako hezkuntza duten ikastetxe eta eremuetan modulu didaktikoak nola itxuratu* | *60* |
| **Modulua** | *Buruketak egitea matematiken ikas prozesuan Helduentzako Hezkuntzan* | *15* |
| **Ikastaroa** | *Hasierako prestakuntza Helduentzako Hezkuntzan* | *8* |
| | *Internet hastapenak* | *30* |
| | *Hizkuntza eta Literatura ikuspuntu komunikatibo batetik* | *16* |
| | *Lan praktikoak Fisika eta Kimikan* | *20* |
| **Jardunaldiak** | *Helduentzako Hezkuntza Programaren jardunaldiak* | *8* |

| Eskola Orientazioa | | |
|---|---|---|
| **Mintegia** | *Ahozko Hizkuntzan disfuntzio larriak dituzten haurrak nola tratatu.* | *20* |
| | *Harreman problemak dituzten adoleszenteak nola tratatu.* | *20* |
| **Ikastaroa** | *Ebaluazio psikopedagogikoa (Lehen Hezkuntza)* | *10* |
| | *Ebaluazio psikopedagogikoa (Bigarren Hezkuntza))* | *10* |
| | *Ahozko Hizkuntzaren disfuntzio larriak* | *10* |
| | *Lan taldeak nola dinamizatu, erabakiak adostasunez hartzeko eta talde lanaren dinamika hobetzeko..* | *9* |
| | *Adoleszentziako harreman problemak nola konpondu.* | *9* |
| | *Aniztasuna ikasgelan tratatzeko estrategiak (Lehen Hezkuntza)* | *12* |
| | *Aniztasuna ikasgelan tratatzeko estrategiak (Bigarren Hezkuntza)* | *12* |

| Europako Programak | |
|---|---|
| **Comenius: 1 ekintza** | *Europa mailako hezkuntza proiektuak garatzeko Europako herrien ikastetxe elkarteak.* |
| **Comenius: 2 ekintza** | *Mugaz gaindiko proiektuak.* |
| **Comenius: 3 ekintza** | *Etengabeko prestakuntza: hezkuntza langileen gaitasuna eguneratu eta hobetzea.* |
| **Arión** | *Gai monografikoen gaineko mintegiak.* |
| **Europako Kontseiluaren Bekak** | *Iraupen laburreko ikastaro monografikoak EBeko edozein herritan* |
| **Leonardo I.1.1.** | *Mugaz gaindiko proiektu pilotoak.* |
| **Leonardo: I.1.2.c** | *Prestatzaileak trukatu* |
| **Leonardo III.1.a** | *Mugaz gaindiko proiektu pilotoak.* |
| **Leonardo III.1.b** | *Irakasleak trukatu.* |

| Lan osasuna: Arriskuen Galarazpena | | |
|---|---|---|
| **Ikastaroak** | *Ahotsaren inpostazioa* | *20* |
| | *Gatazkak konpontzea eta estresa galaraztea* | *20* |

**Irakasleak euskalduntzea.**

**a) Euskalduntze jarduerak.**

1. **Lanetik erabat liberatuta egiteko ikastaro trinkoak.**
   Deialdia: 120/1998 Foru Agindua, apirilaren 27koa (1998-05-04ko N.A.O.).
2. **Taldekako Ikastaro Trinkoak, Ikastetxeak berak antolatuak.**
   Deialdia: 120/1998 Foru Agindua, apirilaren 27koa (1998-05-04ko N.A.O.).
3. **Ayudas individuales para el aprendizaje del Euskera.**
   Deialdia: 120/1998 Foru Agindua, apirilaren 27koa (1998-05-04ko N.A.O.).

**b) Cursos de Perfeccionamiento Lingüístico.**

| Modalitatea | Izenburua | Orduak |
|---|---|---|
| **B modalitatea** | *Euskaraz irakasteko moduko hizkuntza gaitasuna bereganatzeko ikastaroak* | *690/1090* |
| **C modalitatea** | *Euskaraz irakasteko gaitasuna sendotzeko ikastaroak* | *540* |
| **Oinarrizkoak** | *IGA prestatzeko.* | *39/45* |
| | *EGA prestatzeko.* | *39/45* |
| | *SOLASTEN: jariotasunaren bila.* | *39/45* |
| **Hobekuntza** | *SAKONTZEN A eta B.* | *39/45* |
| | *GAURKOTZE GRAMATIKALA.* | *39/45* |
| | *ITZULPEGINTZA I, II eta III.* | *39/45* |
| **Berariazkoak** | *HAUR HIZKERA.* | *39/45* |
| | *MINTZALARITZA* | *39/45* |
| | *ZUBIA* | *39/45* |
| | *NAFARROAKO EUSKALKIAK* | *39/45* |
| | *EUSKAL LITERATURA: NARRATZAILEAK.* | *39/45* |
| | *EUSKAL LITERATURA: POETAK* | *39/45* |

**Lanbide Heziketa.**

1998/99 ikasturterako irakasleentzako prestakuntza planean garrantzi berezia du lanbide heziketa berriari zuzendutako eskaintza: heziketa zikloak eta lanbidean hasteko programak. Horiei buruzko ondoko prestakuntza modalitateak daude:

Mintegi Etengabeak.

Enpresetako egonaldiak.

Eguneratze zientifiko-teknikoko ikastaroak.

- Bestelako prestakuntza entitateekin itundutakoak.
- Hezkuntza eta Kultura Departamentuak berak antolatutakoak.

Jardunaldi eta saio monografikoak.

Bestelakoak.

Hona eskaintzari buruzko laburpen bat:

| Lanbide familia | Izenburua | Orduak |
|---|---|---|
| **Nekazaritza Jarduerak** | *Kalitatea kudeatzen elkarlanerako* | *21* |
| **Gorputz eta Kirol Jarduerak** | *Kalitatea kudeatzen elkarlanerako* | *21* |
| **Administrazioa** | *Kalitatea kudeatzen elkarlanerako* | *21* |
| | *Giza baliabideak* | *21* |
| | *Bezeroari kasu egitea* | *21* |
| **Arte Grafikoak** | *Kalitatea kudeatzen elkarlanerako* | *21* |
| **Merkataritza eta Marketinga** | *Kalitatea kudeatzen elkarlanerako* | *21* |
| | *Bezeroari kasu egitea* | *21* |
| **Elektrizitatea eta Elektronika** | *Kalitatea kudeatzen elkarlanerako* | *21* |
| | *Aurreratua. Siemens automata programagarriak* | *35* |
| | *Automata programagarrien sare lokala: Profibus* | *35* |
| | *Motor elektrikoen abiada aldatzaileak* | *25* |
| | *Tentsio ertaineko eraldaketa linea eta zentroak* | *24* |
| | *Kalitatea prestakuntza zikloetan* | *30* |
| | *Sare lokalen kudeaketa eta instalazio fisikoa* | *30* |
| **Fabrikazio Mekanikoa** | *Kalitatea kudeatzen elkarlanerako* | *21* |
| | *Metrologia* | *25* |
| | *Smarcam* | *30* |
| | *Aurreratua. Siemens automata programagarriak* | *35* |
| | *Soldatze prozesuak* | *25* |
| | *Kalitatea Heziketa Zikloetan* | *30* |
| **Ostalaritza eta Turismoa** | *Kalitatea kudeatzen elkarlanerako* | *21* |
| **Irudi Pertsonala** | *Kalitatea kudeatzen elkarlanerako* | *21* |
| | *Manikura naturala eta azkazal eskulturatuak* | *40* |
| | *Gizonentzako estilismoa* | *20* |
| **Elikagaien Industriak** | *Kalitatea kudeatzen elkarlanerako* | *21* |
| **Informatika** | *Kalitatea kudeatzen elkarlanerako* | *21* |
| | *Intraneten Diseinua* | *30* |
| | *Sare lokalen kudeaketa eta instalazio fisikoa* | *30* |
| **Zurgintza eta Altzarigintza** | *Kalitatea kudeatzen elkarlanerako* | *21* |
| **Ibilgailu Autopropultsatuen Mantenimendua** | *Kalitatea kudeatzen elkarlanerako* | *21* |
| | *Manupeko Diesel Injekzioa* | *30* |
| | *Hidraulika eta elektrohidraulika automoziorako* | *25* |
| **Produkziorako Mantenimendu eta Zerbitzuak** | *Kalitatea kudeatzen elkarlanerako* | *21* |
| | *Aurreratua. Siemens automata programagarriak* | *35* |
| | *Automata programagarrien sare lokala: Profibus* | *35* |
| | *Motor elektrikoen abiada aldatzaileak* | *25* |
| | *Soldatze prozesuak* | *25* |
| | *Kalitatea Heziketa Zikloetan* | *30* |
| | *Sistema automatizatuen mantenimendua* | *40* |
| **Kimika** | *Kalitatea kudeatzen elkarlanerako* | *21* |
| | *Materialen entsegu fisikoak* | *40* |
| **Osasungintza** | *Kalitatea kudeatzen elkarlanerako* | *21* |
| **Zerbitzu Soziokulturalak eta Komunitatearentzakoak** | *Kalitatea kudeatzen elkarlanerako* | *21* |
| **Arte Plastikoak eta Diseinua** | *Kalitatea kudeatzen elkarlanerako* | *21* |
| | *Soldatze prozesuak* | *25* |
| | *Argazkiak Adobe Photoshop 4.0 bidezko autoedizioan* | *40* |
| **L.P.O. Irakasletza** | *Kalitatea kudeatzen elkarlanerako* | *21* |
| | *L.P.O.ko irakasleentzako ikastaro modularra.* | |

| | | |
|---|---|---|
| **Eguneratze zientifiko-teknikoa** | *Kalitatea kudeatzen elkarlanerako* | *21* |
| | *Soldatze prozesuak* | *25* |
| | *Manikura naturala eta azkazal eskulturatuak* | *40* |
| | *Gizonentzako estilismoa* | *20* |
| | *Manupeko Diesel Injekzioa* | *30* |

**Ikasketak egiteko lizentzien urteroko deialdia.**

Otsailaren 25eko 44/1999 Foru Aginduaren bitartez –martxoaren 10eko N.A.O.–, argitara eman zen ZORTZI lizentzia emateko urteroko deialdia, SEI A) modalitatean; horietatik lau unibertsitate karreretako azken ikasmailak bukatzeko dira, bi doktore tesiak egiteko, BAT eskatzaileak lan egiten duen alorreko ikasketa berezituak egiteko eta beste BAT B) modalitaterako, alegia, Unibertsitateak abalaturiko ikerketa proiektuak egiteko, hezkuntzaren alorrean. Deialdia egiten duen Foru Aginduak aukera ematen du lizentzien modalitateak elkarrekin trukatzeko, betiere zortziko muga gainditu gabe.
Uztailaren 16ko 717/1999 Ebazpenaren bitartez –abuztuaren 2ko N.A.O.– deialdi hori ebatzi zen: BI lizentzia eman ziren unibertsitate ikasketak bukatzeko, HIRU doktore tesiak egiteko, BAT ikasketa berezituak egiteko eta BI ikerketa proiektuak egiteko.
Esleipena egiterakoan modalitateetan egin diren aldaketak egiteko baimena deialdiak ematen zuen, multzoren batean esleitu gabeko lizentziarik gelditzen baziren.

**c) Prestakuntza jardueretara joateko banakako laguntzen urteroko deialdia.**

Laguntza hauek Prestakuntza Planak Nafarroako Foru Komunitateko Unibertsitatez besteko Irakaskuntzako irakasleei eskaintzen dien prestakuntza osatzen dute; izan ere, finantzaketa bide bat eskaintzen diete beste erakundeek antolaturiko jardueretara joateko, baldin eta beren lanbide jarduera hobetzeko interesgarri badira.
1998 urtean, laguntza hauen deialdia Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren urriaren 23ko 392/1998 Foru Aginduaren bitartez egin zen, eta azaroaren 27ko N.A.O.n argitaratu zen. Haren bitartez, baimena ematen zen 1999 urterako gehienez ere 3.900.000 PTAko gastua egiteko. Haren helburua da beste erakunde batzuek antolaturiko jardueretara joateak dakartzan gastuak ordaintzea, osorik nahiz zati batean.
Deialdia hiru adjudikazio ezberdinetan ebatzi zen. Lehenbizikoa irailaren 1ean hasi eta abenduaren 31n bukatzen diren jarduerei dagokie; bigarrena urtarrilaren 1ean hasi eta apirilaren 30era bitartekoei dagokie; azkenik, hirugarrena maiatzaren 1ean hasi eta abuztuaren 31n bukatzen diren jardueretarako da. 1998/99 ikasturterako bai datu ekonomikoak eta bai eskaerei buruzkoak ondoko laukian laburtu ditugu:

**1998/99 ikasturtea. Banakako dirulaguntzak, guztira.**

| Eskariak | Zenbat | Eskatutakoa, guztira | Emandakoa, guztira |
|---|---|---|---|
| Emandakoak | 50 | 3.128.785 | 2.280.103 |
| Behin-behinekoz emandakoak | 3 | 80.000 | 80.000 |
| Ukatutakoak | 9 | 927.297 | 0 |
| Behin-behinekoz ukatutakoak | 7 | 307.171 | 0 |
| **Esleitutakoa, guztira** | **69** | **4.443.253** | **2.360.103** |

Guztira eskatutakoa eskatzaileak eskatutako aurrekontuari dagokio. Horrek ez du zertan bat etorri benetako gastuarekin; horixe da ordaindu dena, fakturak aurkeztuta.

**d) Atzerriko hizkuntzetan prestatzeko ikastaroen urteroko deialdia**

Otsailaren 5eko 129/1999 Ebazpenak –martxoaren 8ko N.A.O.n argitaratua– argitara ematen du 1998/99 ikasturterako Nafarroako ikastetxe publiko eta itunpekoetako atzerriko hizkuntzen irakasleek uztaila eta abuztuan prestakuntza ikastaroak egiteko dirulaguntzen deialdia. Laguntza horiek **225.000 PTAkoak dira bi asteko ikastaroetarako eta 265 PTAkoak 3 asteko ikastaroetarako.** Horien helburua da hizkuntza irakasleen hizkuntza gaitasuna eta gaitasun metodologikoa hobetzea.

Ekainaren 15eko 602/1999 Ebazpenaren bitartez –uztailaren 23ko N.A.O.–, udako barnetegiak egiteko hautatu diren irakasleen zerrenda onetsi zen: **28 laguntza eman ziren 2 asteko ikastaroetarako eta 11 laguntza 3 asteko ikastaroetarako.** Laguntzen zenbatekoak, guztira, **9.750.000 PTA** egiten du.

Bestalde, Iruñeko ILZk, atzerriko hizkuntzei buruzko bere aholkulariaren bitartez, Leitzan bildu zen ekainaren 25etik uztailaren 8ra bitartean Nafarroako Foru Komunitateko haur hezkuntzako, lehen hezkuntzako ea bigarren hezkuntzako 25 irakasleekin **ingelesean murgiltzeko ikastaro bat egiteko**. Ikastaro hori 3 irakaslek eman zuten, eta helburu zuen hizkuntza gaitasuna eta gaitasun metodologikoa hobetzea, eta herrialde ingelesdunetako gizarte eta kultur alderdiak lantzea.

**e) Euskara ikasteko irakasleentzako urteroko deialdia.**

Haren azalpena txosten honetako 5. atalean bildu da.

Irakasleentzako prestakuntza eskaintza, azken urte hauetan zehar, oso zabala izan da, bai prestakuntza modalitateei dagokionez, bai edukiei dagokienez ere; horren ondorioz, aurrekontuan nahikoa diru jarri behar izan da horretarako.

Hala eta guztiz ere, antzeman dugu jasotzen den prestakuntza hori, askotan, ez dela iristen eguneroko praktikara, hau da, ikasgelan garatzen diren ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetara.

Bestalde, aintzat hartzen badugu, LOGSEk eta LOPEGCEk jasotzen duten bezala, ebaluazioa dela hezkuntza sistemaren kalitatearen hobekuntzan eragiten duten faktoreetako bat, eta gure ikastetxeetan ez direla egin izan ebaluazio sistematikoko prozesuak, uste izatekoa da, logikoa denez, epe motzean prestakuntzaren ildo nagusietako bat izan beharko duela ikastetxeetako barne ebaluazioko prozesuak garatzeko –eta horrekin batera, ikastetxeak hobetzeko planak egiteko– behar diren edukiak ematea.

Aurrekoa gorabehera, Eskola Kontseilu honek honako aholkua eman nahi du: irakasleen prestakuntza jarraiko planek ahalegin berezia egin behar dute irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko ebaluazioaren kultura garatzen. Halaber, prestakuntza programari buruzko eta egun duen egiturari buruzko ebaluazioa egitea.

Eskola Kontseilu honentzat, funtsezkoa da tratamendu berezia ematea tutoreen lanari. Hori dela eta, Administrazioari aholkatu nahi diogu prestakuntza berezia eman diezaien alor honetako irakasleei.

Nafarroako Eskola Kontseiluak gomendatzen du Administrazioak ikastetxeetako prestakuntza proiektuak susta dezan; izan ere, bidea ematen die irakasleei beren hezkuntza praktikari buruzko gogoeta zuzenagoa egiteko. Gure ustez, ikastetxeetako prestakuntzak dagokion kreditua eduki beharko luke ordutegian.

Ikasketetarako lizentziei eta banakako laguntzei dagokienez, Kontseilu honen iritziz zenbatekoa handitu eta emaitzak kontrolatu beharko lirateke, betiere hezkuntza sistemaren beharrak zein diren kontuan harturik.

(5. boto partikularra, STEE-EILASena).

# 4. Ikastetxeak.

## *4.1. Ikastetxeen kopuruaren bilakaera.*

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen kopuruak behera egin du nabarmen jaitsiera demografikoaren ondorioz; horrek berekin ekarri du ikastetxe batzuk itxi behar izatea, bai sektore publikoan eta bai itunpeko pribatuan ere.

Hala eta guztiz ere, Bigarren Hezkuntzan igoera txiki bat gertatu da, eskola mapa berria garatzearen ondorioz, LOGSEk aurreikusi bezala eskolaratzea hamasei urtera bitarte luzatu delako. Horrek ikastetxe berriak sortzea ekarri du, batez ere herrietan, zenbait eskualdetako eskakizunei erantzun egokia eman ahal izateko. Bestalde, antzinako LHko ikastetxeak eta BBBko ikastetxeak batu egin dira, batzutan, antolamendua errazteko eta eskaintza hobetzeko.

REM izeneko ikasketak ematen zituzten ikastetxeak desagertzen joan dira, eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe arruntetan sartu dira.

Bereziki garrantzitsua da Udal Musika Kontserbatorioetan gertatu den birmoldaketa; horietako gehienak Musika Eskola izatera pasa dira, halakoek leku, oinarrizko tresna eta irakasle gutxiago behar baitituzte.

Dantza, Arte eta Hizkuntza Eskolei dagokienez, berrikuntza bakarra Urrutiko Hizkuntza Eskolaren sorrera izan da; gora ari diren eskakizunei erantzun ahal izateko eta egoera normalizatzeko baliagarria izan da, eta ikastetxe arruntetako baliabideak hobeki aprobetxatzeko bidea eman du.

Nafarroak duen egoera demografikoak, epe laburrean, ikastetxeen kopurua murriztea ekarriko du. Hala ere, egoera egonkortzen bada, uste izatekoa den bezala, ez du aparteko garrantzirik izango.

## Ikastetxeen kopuruaren bilakaera.

| | 1990/91 ikasturtea | | 1991/92 ikasturtea | | 1992/93 ikasturtea | | 1993/94 ikasturtea | | 1994/95 ikasturtea | | 1995/96 ikasturtea | | 1996/97 ikasturtea | | 1997/98 ikasturtea | | 1998/99 ikasturtea | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoa | Pribatua | Publikoa | Pribatua | Publikoa | Pribatua | Publikoa | Pribatua | Publikoa | Pribatua | Publikoa | Pribatua | Publikoa | Pribatua | Publikoa | Pribatua | Publikoa | Pribatua |
| **Haur Hezkuntzako 2. zikloa eta Lehen Hezkuntza** | 197 | 94 | 196 | 83 | 188 | 83 | 184 | 78 | 183 | 72 | 181 | 63 | 178 | 60 | 176 | 56 | 175 | 64 |
| **D.B.H.** | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| **DBH, BBB, UBI, LH (Irakas. ertainak)** | | | | | | | | | | | 52(1) | 42 (1) | 47 | 58 | 48 (2) | 57 | 49 (3) | 45 |
| **BBB, UBI eta REM** | 19 | 22 | 17 | 23 | 17 | 23 | 17 | 22 | 17 | 22 | | | | | | | | |
| **L.H. (edo REM)** | 19 | 18 | 19 | 18 | 19 | 14 | 19 | 15 | 19 | 13 | | | | | | | | |
| **Hezkuntza Berezia** | 3 | 6 | 3 | 6 | 3 | 6 | 2 | 5 | 2 | 3 | 2 | 3 | 2 | 3 | 7 (4) | 4 | 7 (4) | 3 |
| **Erregimen Bereziko ikastetxeak** | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Oinarrizko kontserbatorioak | 37 | 1 | 44 | 1 | 41 | 1 | 39 | 1 | 38 | 1 | 37 | 2 | | | | | | |
| Oinarrizko eta Erdiko konts. | | | | | | | | | | | | | 1 | | 1 | | 1 | |
| Oinarrizko, Erdiko eta Goi mailako kontserbatorioa. | 1 | | 1 | | 1 | | 1 | | 1 | | 1 | | | | | | | |
| Musika Eskolak | | | | | | | | | | | | | 38 | 2 | 38 | 2 | 38 | 2 |
| Dantza Eskolak | 1 | | 1 | | 1 | | 1 | | 1 | | 1 | | 1 | | 1 | | 1 | |
| Arte Eskolak | 2 | | 2 | | 2 | | 2 | | 2 | | 2 | | 2 | | 2 | | 2 | |
| Hizkuntza Eskolak | 2 | | 2 | | 2 | | 3 | | 3 | | 3 | | 3 | | 3 | | 3 | |
| Helduen ikastetxeak (Oinar. Hez.) | | | | | | | | | | | | | | | | | 3 | 1 |
| Gaueko Batxilergoa | 3 | | 3 | | 3 | | 3 | | 3 | | 3 | | 3 | | 3 | | 3 | |
| Urrutiko Batxilergoa | 1 | | 1 | | 1 | | 1 | | 1 | | 1 | | 1 | | 1 | | 1 | |
| Oinarrizko Hezkuntza | 1 | | 1 | | 1 | | 1 | | 1 | | 1 | | 1 | | 1 | | 1 | |

(1) Gainera, 15 ikastetxe publikok eta 8 pribatuk DBHko 1. zikloa ematen dute
(2) Gainera, 12 ikastetxe publikok DBHko 1. zikloa ematen dute
(3) Gainera, 11 ikastetxe publikok DBHko 1. zikloa ematen dute
(4) Hezkuntza Bereziko ordezko 5 unitate ere sartu behar dira
*Nafarroako Hezkuntza Estatistika-tik hartutako datuak, 1990-91 eta 1998-99 ikasturte bitartekoak*

Foru Komunitatean dauden ikastetxeen kopurua nahikoa egokia dirudi epe ertainean beharko denerako. Ikastetxe berriak egitea saihestu beharko litzateke, salbu nabarmen hazten ari diren eskualdeen kasuan. Inbertsio berriak egin baino lehen ere, aztertu beharko litzateke ez ote daitezkeen erabil inguruan diren instalazioak, eta kasuan kasuko komunitatearekin aztertu beharko litzateke eraikitzea komeni den ala ez den komeni, kontuan harturik erabaki horrek eskola garraioan, eskolaz kanpoko jarduеretan eta abarretan izanen duen eragina.

Eskatzen denari erantzun egokia ematen zaien eskualdeetan ikastetxe berriak egiten badira, aztertu beharko da ez ituntzeko eta ez diruz laguntzeko aukera.

Gure proposamena da, halaber, sektore publikoan ere ikastetxe integratu osoak sortzea, Haur Hezkuntzatik hasi eta Bigarren Hezkuntzara bitartean, biak barne, zuzendaritza eta Eskola Kontseilu bakarrarekin. Ideia horrekin zenbait herritan eta leku nahikoa duen hiri ikastetxeren batean hastea iradoki nahi dugu.

### *4.2. Unitateen kopuruaren bilakaera.*

Nafarroan oro har gertatu den jaitsiera demografikoak ere eragina izan du unitateen kopurua; Izan ere, egia bada ere ikastetxe asko mantendu direla, matrikulak ikastetxe guztietan jaitsi dira. Horrek, berez, doikuntza bat dakar ikasleak biltzen ditugunean; hori, ordea, ratioak jaistearekin partzialki konpentsatu da.

Ohar aipagarri gisa, azpimarratu behar dugu Haur Hezkuntzako 2. zikloko unitateek pixka batean egin dutela gora, 1994/95 eta 1995/96 ikasturteetan minimo historikoetara iritsi ondoren. Lehen Hezkuntzako ikastetxeei dagokienez, unitateen jaitsiera azaltzeko jaiotza tasaren beherakadari ezezik bi ikasturte galdu izanari ere begiratu behar zaio, hain zuzen ere garai bateko OHOko 7. eta 8. mailak; bi horiek, ordea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapa berriari erantsi behar zaizkio. Antzeko egoera gertatzen da Batxilergoko unitateetan: izan ere, BI ikasmaila galdu dituzte, garai bateko BBBko 1. eta 2. mailak, nahiz eta ikasturte horiek Derrigorrezko Hezkuntzako 3. eta 4. mailan aurkituko ditugun. Horrek guztiak Lanbide Heziketako unitateetan duen eragina are handiagoa da; hain zuzen ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak eta Derrigorrezkoaren Ondokoak hartzen dute osorik; hori dela eta, pixkanaka jaisten joan da, eta hein berean, Lanbide Heziketa berriko unitateak –Lanbide Hastapena / Gizarte Bermea, Lanbide Heziketako Maila Erdiko Zikloak eta Lanbide Heziketako Goi Mailako Zikloak– agertzen hasi dira. Gure ustez, azken prozesu horrek hurrengo urteetan ere jarraituko du.

Testuinguru horretan, REM unitateak desagertuko dira, esperimentalak izaki, Nafarroan araupeko irakaskuntzak erabat eta orokorki ezartzeko prozesua bukatzen denean.

Hezkuntza Bereziko unitateek beren horretan diraute, nahiz eta behera egin duen, halaber, haietarako matrikulak; horrek bidea eman du ratioa era positiboan egokitzeko egungo egoerari, eta hori herritar horiek behar duten hezkuntzaren kalitatearen guztiz aldekoa da.

**Unitateen kopuruaren bilakaera**
**Ikastetxe Publikoak**

| | 1990/91 | 1991/92 | 1992/93 | 1993/94 | 1994/95 | 1995/96 | 1996/97 | 1997/98 | 1998/99 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Haur Hezk. 2. zikloa** | 440 | 450 | 443 | 431 | 440 | 453 | 471 | 478 | 494 |
| **Lehen Hezkuntza** | 1.549 | 1.560 | 1.511 | 1.444 | 1.419 | 1.038 | 1.015 | 1.018 | 1.026 |
| **Bigarren Hezkuntza** | | | | | | 278 | 446 | 583 | 592 |
| **Batxilergoa/UBI** | 345 | 342 | 326 | 332 | 325 | 327 | 256 | 175 | 221 |
| **LH** | 273 | 339 | 616 | 235 | 244 | 275 | 257 | 237 | 222 |
| **REM** | 116 | 148 | 199 | 184 | 209 | 184 | 129 | 75 | 36 |
| **Hezkuntza Berezia** | 30 | 27 | 25 | 22 | 20 | 22 | 18 | 24 | 23 |
| **GUZTIRA** | **2.753** | **2.866** | **3.120** | **2.648** | **2.657** | **2.577** | **2.592** | **2.590** | **2.614** |

**Itunpeko Ikastetxeak**

| | 1990/91 | 1991/92 | 1992/93 | 1993/94 | 1994/95 | 1995/96 | 1996/97 | 1997/98 | 1998/99 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Haur Hezk. 2. zikloa** | 284 | 263 | 268 | 263 | 259 | 251 | 249 | 251 | 253 |
| **Lehen Hezkuntza** | 867 | 834 | 826 | 798 | 770 | 543 | 520 | 512 | 500 |
| **Bigarren Hezkuntza** | | | | | | 171 | 265 | 351 | 348 |
| **Batxilergoa/UBI** | 203 | 209 | 207 | 209 | 210 | 208 | 152 | 97 | 95 |
| **LH** | 132 | 137 | 116 | 138 | 142 | 145 | 118 | 93 | 79 |
| **REM** | | 1 | | | | | | | |
| **Hezkuntza Berezia** | 26 | 27 | 25 | 23 | 21 | 21 | 20 | 21 | 20 |
| **GUZTIRA** | **1.512** | **1.471** | **1.442** | **1.431** | **1.402** | **1.339** | **1.324** | **1.325** | **1.295** |

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Pub+Itunp, GUZTIRA** | **4.265** | **4.337** | **4.562** | **4.079** | **4.059** | **3.916** | **3.916** | **3.915** | **3.909** |

*“Nafarroako Hezkuntza Estatistika”tik hartutako datuak, 1990/91 eta 1998/99 bitarteko ikasturteak.*

Egoerak, salbuespen gutxi batzuekin, bidea eman du ratioak maila onargarrietara jaisteko. Uste dugu beharrezkoa dela kasu guztietan aplikatzekoak izanen diren irizpide orokor batzuk ituntzea unitateak bikoizteko, nahiz eta arrazoi sozial eta kultural bereziak existitzen jarraitu beharko duten haiek malgutzeko. Balizko malgutze horretarako, talde edo ponentzia berariazkoren bat sortu beharko litzateke kasu guztiak banan-banan aztertzeko: ikastetxearen kokapena, hezkuntza proiektua eta abar; talde edo ponentzia horren erabakiak alde guztiek derrigorrez bete beharrekoa beharko luke izan.

### *4.3. Ikastetxeen antolamendua eta funtzionamendua.*

Lehen txosten honetako beste atal batzuetan egin dugun bezala, atal honetan aplikatzekoak diren arau guztien aipamena bildu dugu; hain zuzen ere, ondoko gaiei buruzko aipamenak:
ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxeen funtzionamendua.
ikasleak onartzeko arauak.
eskola egutegia.

**Ikastetxeetako funtzionamenduari buruzko arau orokorrak.**
*Oinarrizko arauak:*
Hezkuntzarako Eskubideari buruzko uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoa (LODE izenaz ezagutzen duguna)(1985eko uztailaren 4ko E.A.O.): 10. artikulutik 20. artikulura eta bigarren xedapen gehigarria.
Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoa (LOGSE izenaz ezagutzen duguna)(1991ko ekainaren 26ko E.A.O.).
Unibertsitatez besteko erregimen orokorreko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeek gutxienez bete behar dituzten baldintzak ezartzen dituen uztailaren 14ko 1004/1991 Errege Dekretua (1991ko ekainaren 26ko E.A.O.)
Ikastetxeetako Partehartze, Gobernu eta Ebaluazioari buruzko 9/1995 Legea (LOPEG izenaz ezagutzen duguna)(1995eko azaroaren 21eko EAO): 5. eta 6. artikulua, 8. artikulutik 26 artikulura eta aldi baterako bigarren eta hirugarren xedapenak.

*Nafarroako Foru Komunitateko arauak: ikastetxe publikoak:*
24/1997 FORU DEKRETUA, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Haur Hezkuntzako eskola publikoen, Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen eta Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen Erregelamendu Organikoa onesten duena.
25/1997 FORU DEKRETUA, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Bigarren Hezkuntzako Institutuen Erregelamendu Organikoa onesten duena.
225/1998 FORU DEKRETUA, uztailaren 6koa, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Lanbide Hastapenerako Programak irakasten dituzten ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia erregulatzen dituena.
257/1998 FORU AGINDUA, uztailaren 16koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, Haur Hezkuntzako eskola publikoen, Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen eta Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen Erregelamendu Organikoa garatzen duena.
258/1998 FORU AGINDUA, uztailaren 16koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, Bigarren Hezkuntzako Institutuen Erregelamendu Organikoa garatzen duena.
Uztailaren 16ko 259/1998 Foru Agindua, uztailaren 16koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, Iruña eta Tuterako Hizkuntz Eskola Ofizialen antolaketa eta jarduna 1998-99 ikasturtean arautzeko jarraibideak onesten dituena, Orden Foral 209/1999 Foru Agindua, ekainaren 17koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, Iruña eta Tuterako Hizkuntz Eskola Ofizialen antolaketa eta jarduna 1999-2000 ikasturtean arautzeko jarraibideak onesten dituena eta 226/1999 Foru Agindua, ekainaren 25ekoa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, 1999-2000 ikasturtean Nafarroako Urrutiko Hizkuntz Eskola Ofizialaren antolaketa eta jarduna arautzeko jarraibideak onesten dituena.
260/1998 Foru Agindua, uztailaren 16koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloa, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa, Lanbide Hastapenerako Programak eta LOGSE aurreko hezkuntza sistemari dagozkion araubide orokorreko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe publikoen

antolaketa eta jarduna 1998-99 ikasturtean arautuko dituzten jarraibideak onesten dituena.
Uztailaren 6ko 250/1992 Foru Agindua, unibertsitatez besteko ikastetxeetako funtzionamenduko dirusarrera eta gastuen araubidea arautzen duena.
Urriaren 15eko 449/1992 Foru Agindua, unibertsitatez besteko ikastetxeetako funtzionamenduko dirusarrera eta gastuen araubidea arautzen duen 250/1992 Foru Dekretuko zenbait jarraibide aldatzen dituena.
Maiatzaren 18ko 196/1993 Foru Agindua, (1993ko ekainaren 4ko 69. N.A.O.), unibertsitatez besteko ikastetxeetako funtzionamenduko dirusarrera eta gastuen araubidea arautzen duen 250/1992 Foru Dekretuko zenbait jarraibide garatzen dituena.

*Nafarroako Foru Komunitateko arauak: itunpeko ikastetxeak:*
Uztailaren 6ko 251/1992 Foru Dekretua, Nafarroan unibertsitate besteko araubide orokorreko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe pribatuentzako baimena emateko prozedura ezartzen duena.
Abenduaren 14ko 416/1992 Foru Dekretua, Nafarroako Hezkuntza Itunen Arauen Erregelamendua onesten duena.
Uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea, Batxilergoa, Gradu Ertaineko Heziketa Zikloak eta Gizarte Garantiako Programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duena.
208/1998 Foru Agindua, ekainaren 15ekoa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, aipatzen diren gizarte ekimeneko ikastetxeetako Haur Hezkuntzako bigarren ziklorako hezkuntza itun berezi partzialak izenpetzea ebazten duena.
290/1998 Foru Agindua, uztailaren 28koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, Batxilergoko itunen araubidea 1998-99 ikasturtetik aurrera aplikatzeko arauak ematen dituena.
96/1999 Foru Agindua, martxoaren 30ekoa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, hezkuntza itunen araubidea 1999/2000 ikasturtetik aitzina Lehen Hezkuntzan, Hezkuntza Berezian, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan aplikatzeko arauak ematen dituena.
99/1999 Foru Agindua, apirilaren 6koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, Batxilergoan eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloan indarra duten hezkuntzako itun bereziak 1999/2000 ikasturterako aldatu eta luzatzeko arauak ematen dituena.

**Ikasleak onartzeari buruz.**

Otsailaren 28ko 56/1994 Foru Dekretua (1994ko martxoaren 16ko N.A.O.) aldatzen duen martxoaren 4ko 130/1996 Foru Dekretua (1996-3-20ko N.A.O.) Haren bitartez, fondo publikoen kargura diharduten irakaskuntza ez-unibertsitarioetako ikastetxeetan ikasleak sartzeko irizpideak arautzen dira.
Martxoaren 16ko 75/1998 Foru Agindua, ikasleak hartzeko prozedura arautzen duena.
21/1999 Foru Agindua, otsailaren 9koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, fondo publikoen kargura diharduten irakaskuntza ez-unibertsitarioetako ikastetxeetan ikasleak sartzeko, ikastetxeen irizpide osagarriak onesteko prozedura garatzen duena.
65/1999 Foru Agindua, martxoaren 11koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, diru publikoaren kargura diharduten irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetan ikasleak onartzeko prozedura arautzen duena.

**Eskola egutegia.**

418/1999 Ebazpena, maiatzaren 4koa, Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Hezkuntza zuzendari nagusiak emana, 1999-2000 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitateko Haur, Le-

hen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo, Lanbide Heziketa, Arte Aplikatu eta Lanbide Artistiko eta Arte Plastiko eta Diseinuko ikasketek izanen duten eskola egutegia egiteko arauak onesten dituena.

Nafarroako Eskola Kontseiluak agiri horri buruzko irizpena eman zuen. Ez du aldaketarik ekartzen aurreko urteekin alderatuta. 176 eskola egun ezarri ditu, gutxienez, Haur Hezkuntzarako eta Lehen Hezkuntzarako (baita Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzarekin batera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen duten ikastetxeetarako ere); Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen duten institutuetarako, berriz, gutxienez 165 eskola egun ezarri dira; Batxilergo, Lanbide Heziketa, Arte Aplikatuak eta Lanbide Artistikoak eta Arte Plastiko eta Diseinuko ikastetxeetarako, azkenik, ikasturte bakoitzeko 160 eskola egun ezarri dira, gutxienez.

Funtzionamenduari buruzko arau orokorrei dagokienez, oso positiboa da, gure ustez, Foru Dekretu mailako arau iraunkorrak egotea.

Gure iritziz, ikastetxeen autonomia gero eta handiagoa eta gero eta beharrezkoagoa hezkuntza proiektuetan islatu behar da; arrazoizkoaren mugetan, halako askatasun behar dute ikastetxeek baliabideak antolatzeko, barne funtzionamendurako, lanaldia ezartzeko eta abar. Betiere, horri buruzko ebaluazioa eta barne eta kanpo kontrolak gauzatu beharko dira.

Garrantzi berezia hartzen ari da ikasleak onartzeari buruzko gaia; izan ere, familiek beren seme-alabentzat nahi duten ikastetxea hautatzeko eskubidea dute, baina horrek kalte egin dio zenbait ikastetxetako bizitzari, gizartearen eta kulturaren alorretan baliabide eskasak dituzten inguruetako ikasleak pilatu egiten direlako, eta horrek hezkuntza eskaintza integratzaile eta hobea egitea galarazten edo zailtzen du.

Gure proposamena da bi egoera horiek politika handinahi batez uztartzea; esate baterako, ikastetxe edo/eta unitate bakoitzean ikasle mota horien kopurua murriztea, baliabide ekonomiko eta giza baliabide gehiago ematea ikastetxe horiei, ratio txikiagoak jartzea, gizarte ekipoak, kaleko eta laguntza ekipoak jartzea eta abar.

Ikasleak onartzeari dagokionez, Nafarroako arauek ikastetxe bakoitzaren irizpidean uzten du Estatuaren gainerako tokietan baino puntu kopuru handiagoa jartzea, baina ez da argi gelditzen irizpide horiek zein marko errespetatu behar duten. Horrek ikasleak hautatzeko arriskua dakar berekin.

Eskola egutegiaren ikuspuntutik, derrigorrezko hezkuntzan iraileko azterketak kentzeko balizko aukera dela eta, beharrezkoa da Europako ereduetara hurbilduko gaituzten aldaketa batzuk egitea. Presakoa da hori argitzea eta horri buruzko arauak ematea.

(6. boto partikularra, STEE-EILASena).

### *4.4. Azpiegitura eta Ekipamenduak.*

**a) Azpiegiturak**

Atal honetan egindako obra eta birmoldaketa arrunt guztiak bildu ditugu, bai eta ikastetxeetako antzinako instalazioen egokitzea eta LOGSEaren eta haren ikasketa berrien eta eskola mapa berriaren garapenak derrigortuta egin diren obra eta eraikuntza berriak ere.

Obren atalean, hiru jarduketa edo programa mota egin ditugu. Hona:
- Udalen ikastetxeetan egindako obrak (normalean, dirulaguntzak ematen zaizkie udalei).
- Gizarte ekimeneko ikastetxeentzako (ikastetxe pribatuak) dirulaguntzak.
- Ikastetxe berriak eraikitzea eta LOGSEari egokitzeko obrak egitea.

**Udalen ikastetxeetan egindako lanak.**

Udalek zaindu eta mantendu behar dituzten Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxetako obrak dira. Horietarako, Nafarroako Gobernuak dirulaguntzetarako aurrekontu-lerro bat erabiltzen du, Departamentuak garrantzitsu edo lehentasunezko jotzen dituen kasuetarako. Argi utzi behar da, bestelako mantenimendu eta kontserbazio lan asko egiten direla, udalek ordainduta, Nafarroako Gobernuak horretarako dirurik jarri gabe, hala behar baitu.

Ikastetxeetan udalek egindako obretarako dirulaguntzen ehunekoa ez da uniformea izan azken hamar urte hauetan; hala eta guztiz ere, aldaketak gutxienez % 60koak izan dira eta gehienez % 100ekoak (oso gutxitan). Normalean, batez beste, % 70aren ingurukoak izaten dira.

**Nafarroako Gobernuaren laguntzek hartzen dituzten udal eta ikastetxeak, eta haien zenbateko osoa, aurrekontu-urteen arabera sailkaturik. (*)**

| URTEA | HERRI KOPURUA | IKASTETXE KOPURUA | BETETAKO ZENBATEKOA, GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| 1991 | 51 | 56 | 315.866.153 |
| 1992 | 35 | 36 | 99.408.521 |
| 1993 | 54 | 56 | 320.052.672 |
| 1994 | 51 | 51 | 210.437.328 |
| 1995 | 44 | 47 | 154.107.509 |
| 1996 | 44 | 49 | 127.536.486 |
| 1997 | 35 | 35 | 145.888.400 |
| 1998 | 32 | 36 | 170.672.131 |
| 1999 | 41 | 43 | 258.096.849 |

(*) Zenbateko orokor hauetan aurreko nahiz atzeko aurrekontu urteei dagozkien zenbatekoak daude, nolabaiteko garrantzia duten eraikuntza guztiak urte anitzekoak izaten direlako.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak udaletan 1999rako diruz lagunduko dituen obrei buruzko plana erantsi dugu.

## Udal Dirulaguntzei buruzko laukia, 1999

| HERRIA | DIRULAGUNTZAREN XEDE DEN LANA | AURREKON-TUA | % | DIRULA-GUNTZA |
|---|---|---|---|---|
| ABARTZUZA | Informatikarako gela eta erabilera anitzeko gelan bereizketak egitea. | 516.828 | 65 | 335.938 |
| AIBAR | Sarbideko eta patioko zoruak egokitzea. | 7.957.310 | 65 | 5.172.252 |
| ARBIZU | Biltegia jostetarako leku gisa egokitzea. | 3.158.680 | 65 | 2.053.142 |
| AZAGRA | Zenbait konponketa. | 4.000.000 | 65 | 2.600.000 |
| BARAÑAIN | Patioa bereizteko hesia. | 786.717 | 65 | 511.366 |
| BARAÑAIN | Kirol pista estaltzea. | 32.016.000 | 50 | 16.008.000 |
| ARRAIOZ | Teilatua konpontzea. | 3.635.345 | 65 | 2.362.974 |
| ELIZONDO | Berokuntzaren instalazioa berritzea. | 9.723.599 | 65 | 6.320.339 |
| BERA | Pilotalekuko teilatua konpontzea. | 1.032.400 | 65 | 671.060 |
| BERIAIN | Pilotalekua konpontzea. | 13.847.742 | 65 | 9.001.032 |
| BERRIOZAR | Kanpoko pintura.. | 6.610.579 | 65 | 4.296.876 |
| BERRIOZAR | Eskolako patioa egokitzea.. | 5.384.410 | 65 | 3.499.867 |
| BUÑUEL | Ikastetxe publikoaren sarbideko ataria eta Haur Hezkuntzako ikasgelak. | 2.525.395 | 65 | 1.641.507 |
| CADREITA | Igogailua jartzea. | 4.800.613 | 65 | 3.120.398 |
| CARCAR | Eskailera, liburutegiko itoginak, sotoko zorua jartzea. | 5.337.239 | 65 | 3.469.205 |
| CINTRUENIGO | Elektrizitatea, ikasgeletan zeramika jartzea, patioko zorua. | 3.674.880 | 65 | 2.388.672 |
| DEIKAZTELU | Hezetasun guneak kentzea. | 11.190.325 | 65 | 7.273.711 |
| DONEZTEBE | Kiroldegia eraikitzeao. | 80.000.000 | 25 | 20.000.000 |
| AURIZBERRI | Birmoldaketaren 2. fasea. | 12.642.925 | 65 | 8.217.901 |
| ZUBIRI | Teilatua konpontzea. | 3.771.393 | 65 | 2.451.405 |
| EZKAROZE | Zoruko zurak aldatzea, teilatuko hegala eta margotzea. | 2.379.689 | 65 | 1.546.798 |
| FALCES | Erdiko teilatua, ataria eta eskailerak berritzea. | 1.984.796 | 65 | 1.290.117 |
| FITERO | Pilotalekua zabaltzea. | 38.743.512 | 11 | 4.371.756 |
| FONTELLAS | Patioko zorua jartzea. | 2.001.283 | 65 | 1.300.834 |
| IRURTZUN | Teilatua ordeztea. | 17.919.510 | 65 | 11.647.682 |
| LARRAGA | Leku bat egokitzea H.H. patioa izan dadin. | 5.446.342 | 65 | 3.540.122 |
| LEITZA | Kanpoko aldea margotzea, soinketa lekua, hesiak, jangela, pertsianak, teilatua. | 9.369.985 | 65 | 6.090.490 |
| IRUNBERRI | Motoredun bi pertsiana jartzea. | 362.906 | 65 | 235.889 |
| MARCILLA | Patio estalia, 1. fasea (igerilekua deuseztatzea). | 10.032.784 | 65 | 6.521.310 |
| MENDAVIA | Pilotalekuko teilatua. | 24.000.000 | 25 | 6.000.000 |
| MENDAVIA | Zenbati egoitza margotzea. | 898.971 | 65 | 584.331 |
| MILAGRO | Aurreteknologiako Ikasgela birmoldatzea. | 1.776.546 | 65 | 1.154.755 |
| MURILLO EL FRUTO | Eskolako patioa zuzentza. | 7.984.604 | 65 | 5.189.993 |
| ERRIBERRI | Komunak eta hustubideak konpontzea, leihoetako hesiak eta margotzea. | 2.359.379 | 65 | 1.533.596 |
| IRUÑA | Beheko solairua eta sarbideak berritzea. | 8.076.923 | 65 | 5.250.000 |
| IRUÑA | Kanpoko itxitura berritzea eta barrutik margotzea. | 15.000.000 | 65 | 9.750.000 |
| PITILLAS | Konponketa lanen 2. fasea. | 4.360.488 | 65 | 2.834.317 |
| GARES | Pilotalekuko teilatua, babesak, zutoin elektrikoak, ikasgeletako piletak, itxitura. | 4.741.574 | 65 | 3.082.023 |
| SAN ADRIAN | Jolastokiak hesi batez bereiztea. | 1.031.250 | 65 | 670.313 |
| ZANGOZA | Berokuntzaren instalazioa berritzea. | 7.431.313 | 65 | 4.830.353 |
| TAFALLA | Soinketa lekua egitea. | 18.730.000 | 65 | 12.174.500 |
| TUTERA | Patioko zorua jartzea eta lorategiak egitea. | 9.777.521 | 65 | 6.355.389 |
| TUTERA | Kanpoko itxitura, 1. eta 3. faseak. | 8.067.220 | 65 | 5.243.693 |
| NOAIN | BHIrako eta IPrako sarbideak. | 7.690.510 | 50 | 3.845.255 |
| VILLAFRANCA | IParen eraikin zaharreko instalazio elektrikoa berritzea. | 1.361.045 | 65 | 884.679 |
| VILLAFRANCA | Patioko ateak berritzea, zorua jartzea, saskibaloiko pista eta patioa. | 8.022.789 | 65 | 5.214.813 |
| ATARRABIA | Psikomotrizitateko Ikasgelako sabaiko akatsak konpontzea. | 858.760 | 65 | 558.194 |
| ATARRABIA | I. Publikoaren kiroldegia egiteko dirulaguntza, 1999 urtea. | | | 45.000.000 |
| | **GUZTIRA** | **433.022.080** | | **258.096.847** |

**Itunpeko ikastetxe pribatuetan obrak egiteko dirulaguntzak**.

Nafarroako Aurrekontu Orokorretako kontusail hau entitate pribatuek sustaturiko birmoldaketa, zabaltze eta hobekuntza obrak eta eraikuntza berrien obrak zati batean diruz laguntzeko erabiltzen da.

Ondokoak izan dira horretarako aurrekontuetan jasotako zenbatekoak, bete diren zenbatekoak eta dirulaguntzak jaso dituzten ikastetxeak:

| Urtea | Aurrekontua | Betetakoa | Ukitutako ikastetxeen kopurua |
|---|---|---|---|
| 1990 | 175.000.000 | | |
| 1991 | 200.000.000 | 219.808.000 | 25 |
| 1992 | 200.000.000 | 214.556.235 | 11 |
| 1993 | 0 | | |
| 1994 | 0 | | |
| 1995 | 201.000.000 | 200.000.000 | 1 |
| 1996 | 1.000.000 | | |
| 1997 | 1.000.000 | | |
| 1998 | 300.000.000 | 300.000.000 | 2 |
| 1999 | 413.472.000 | | |

- 1992an Paz de Ziganda Ikastolak 132.690.250 PTA jaso zituen.
- 1995ean, Paz de Ziganda Ikastola izan zen laguntza hori jaso zuen ikastetxe bakarra.
- 1998an, “Francisco Jaso” Ikastola (187.000.000 PTA) eta “Paz de Ziganda” Ikastola (113.000.000 PTA) izan ziren dirulaguntzarik jaso zuten ikastetxe bakarrak.

**Ikastetxe berriak eraikitzea eta LOGSEari egokitzeko obrak egitea.**

Atal hau Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren eraikuntza-lan eta obren ardatza da; hartan, ikastetxe publiko propioetako mantenimendu arrunten lanak, birmoldaketa lanak, hobekuntza-lanak eta egokitze-lanak sartzen dira, bereziki Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetakoak, bai eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako lan garrantzitsuak ere, eskolaratze behar berrien ondoriozkoak. Tamainarengatik edo izaerarengatik udalen eskumenetatik kanpo gelditzen diren ikastetxe berriak eraikitzeko lanak edo zabalpen lan handiak ere atal honetakoak dira.

Nafarroako aurrekontu orokorrek ondoko zenbatekoak jaso dituzte horretarako azken HAMAR urteetan:

| Urtea | Aurrekontuetan jasotakoa. Obretarako batuketa osoa (*) | Departamentuak betetakoa | Ukitutako ikastetxeak | Udalek betetakoa | Ukitutako ikastetxeak |
|---|---|---|---|---|---|
| 1990 | 965.000.000 | | | | |
| 1991 | 853.503.000 | 518.000.000 | 33 | 315.866.153 | 56 |
| 1992 | 960.000.000 | 850.000.000 | | 99.408.521 | 36 |
| 1993 | 880.504.000 | 503.170.000 | 40 | 320.052.672 | 56 |
| 1994 | 1.469.751.000 | 1.071.000.000 | 22 | 210.437.328 | 51 |
| 1995 | 1.891.486.000 | 1.686.986.000 | 44 | 154.107.509 | 47 |
| 1996 | 1.870.114.000 | 1.691.614.000 | 50 | 127.536.486 | 49 |
| 1997 | 1.625.838.000 | 1.411.000.000 | 48 | 145.888.400 | 35 |
| 1998 | 1.591.100.000 | 1.364.000.000 | 43 | 170.672.131 | 36 |
| 1999 | 1.632.400.000 | 1.328.300.000 | 24 | 258.096.849 | 43 |

**(*)** Zenbateko hauek ikastetxe publiko propioetarako eta haur eta lehen hezkuntzako udal ikastetxe publikoetarako ezarrita daudenekin lotuta daude.

**b) Ekipamendua**

Programa honek, halaber, eragin eta garapen handiak izan ditu azken urte hauetan, LOGSEk ezarritakoak garatzeko beharraren ondorioz. Urtero gastatu diren zenbatekoek ongi agertzen dute programa honen garrantzia.

## Egindako ekipamenduak

| IKASTETXEA | KONTZEPTUA | ALTZARIAK | INFORMATIKA/ IKUS-ENTZUNEZKOA | MATERIAL DIDAKTIKOA | IRAKASKUNTZA BEREZIAK (MUSIKA,., KIROLAK) L.H.rako MAKINA BERRIAK. | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **1991 EKITALDIA** | | | | | | |
| **Haur eta Lehen Hezkuntza** | | 48.000.000 | 74.000.000 | 55.000.000 | 3.000.000 | 180.000.000 |
| **Bigarren Hezkuntzako I.** | | 27.000.000 | 7.500.000 | 14.200.000 | 1.250.000 | 49.950.000 |
| **Lanbide Heziketa** | | 20.500.000 | 40.000.000 | 86.500.000 | 29.349.000 | 176.349.000 |
| **GUZTIRA** | | **95.500.000** | **121.500.000** | **155.700.000** | **33.599.000** | **406.299.000** |
| **1992 EKITALDIA** | | | | | | |
| **Haur eta Lehen Hezkuntza** | | 30.000.000 | 32.000.000 | 75.000.000 | 35.000.000 | 172.000.000 |
| **Bigarren Hezkuntza I.** | | 5.720.000 | 12.750.000 | 3.250.000 | 7.758.500 | 29.478.500 |
| **Lanbide Heziketa** | | 4.835.000 | 23.775.000 | 32.340.000 | 7.758.500 | 68.708.500 |
| **GUZTIRA** | | **40.555.000** | **68.525.000** | **110.590.000** | **50.517.000** | **270.187.000** |
| **1993 EKITALDIA** | | | | | | |
| **Haur eta Lehen Hezkuntza** | | 14.800.000 | 37.150.000 | 8.607.000 | 4.825.000 | 65.382.000 |
| **Bigarren Hezkuntza I.** | | 2.905.000 | 16.450.000 | 3.625.000 | 40.828.000 | 63.808.000 |
| **Lanbide Heziketa** | | 2.785.000 | 18.925.000 | 51.115.000 | 40.828.000 | 113.653.000 |
| **GUZTIRA** | | **20.490.000** | **72.525.000** | **63.347.000** | **86.481.000** | **242.843.000** |
| **1994 EKITALDIA** | | | | | | |
| **Haur eta Lehen Hezkuntza** | | 34.500.000 | 48.640.000 | 18.000.000 | 14.000.000 | 115.140.000 |
| **Bigarren Hezkuntza I.** | | 12.750.000 | 49.560.000 | 5.200.000 | 69.291.500 | 136.801.500 |
| **Lanbide Heziketa** | | 22.600.000 | 25.200.000 | 72.850.000 | 69.291.500 | 189.941.500 |
| **GUZTIRA** | | **69.850.000** | **123.400.000** | **96.050.000** | **152.583.000** | **441.883.000** |
| **1995 EKITALDIA** | | | | | | |
| **Haur eta Lehen Hezkuntza** | | 9.900.000 | 32.500.000 | 3.150.000 | 1.355.000 | 46.905.000 |
| **Bigarren Hezkuntza I.** | | 17.576.000 | 6.275.000 | 12.475.000 | 7.523.500 | 43.849.500 |
| **Lanbide Heziketa** | | 1.030.000 | 14.510.000 | 7.275.000 | 7.523.500 | 30.338.500 |
| **D.B.H.** | | 110.030.000 | 23.675.000 | 55.700.000 | 71.385.000 | 260.790.000 |
| **GUZTIRA** | | **138.536.000** | **76.960.000** | **78.600.000** | **87.787.000** | **381.883.000** |
| **1996 EKITALDIA** | | | | | | |
| **Haur eta Lehen Hezkuntza** | | 17.175.000 | 34.800.000 | 5.000.000 | 1.800.000 | 58.775.000 |
| **Bigarren Hezkuntza I.** | | 67.625.000 | 19.050.000 | 19.300.000 | 31.947.500 | 137.922.500 |
| **Lanbide Heziketa** | | 4.755.000 | 71.240.000 | 92.500.000 | 31.947.500 | 200.442.500 |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **D.B.H.** | 13.600.000 | 0 | 4.000.000 | 30.000.000 | 47.600.000 |
| **GUZTIRA** | **103.155.000** | **125.090.000** | **120.800.000** | **95.695.000** | **444.740.000** |
| **1997 EKITALDIA** | | | | | |
| **Haur eta Lehen Hezkuntza** | 18.582.000 | 68.943.000 | 700.000 | 25.418.667 | 113.643.667 |
| **Bigarren Hezkuntza I.** | 49.485.000 | 31.020.000 | 69.760.000 | 25.418.666 | 175.683.666 |
| **Lanbide Heziketa** | 8.475.000 | 54.575.000 | 270.950.000 | 25.418.667 | 359.418.666 |
| **GUZTIRA** | **76.542.000** | **154.538.000** | **341.410.000** | **76.256.000** | **648.746.000** |
| **1998 EKITALDIA** | | | | | |
| **Haur eta Lehen Hezkuntza** | 20.428.000 | 43.312.000 | 13.678.000 | 7.545.000 | 84.963.000 |
| **Bigarren Hezkuntza I.** | 29.115.000 | 14.685.000 | 28.075.000 | 22.076.000 | 93.951.000 |
| **Lanbide Heziketa** | 21.780.000 | 65.100.000 | 276.455.000 | 22.076.000 | 385.411.000 |
| **Batxilergo Teknologikoa** | 9.565.000 | 36.171.000 | 0 | 45.385.000 | 91.121.000 |
| **Eduges** | 976.000 | 14.978.000 | 0 | 0 | 15.954.000 |
| **GUZTIRA** | **81.864.000** | **174.246.000** | **318.208.000** | **97.082.000** | **671.400.000** |
| **1999 EKITALDIA** | | | | | |
| **Haur eta Lehen Hezkuntza** | 11.032.094 | 70.241.517 | 14.757.707 | 7.201.107 | 103.232.425 |
| **Bigarren Hezkuntza I.** | 24.081.693 | 88.153.397 | 23.224.465 | 18.400.197 | 153.959.752 |
| **Lanbide Heziketa** | 34.615.206 | 55.368.332 | 271.275.272 | 0 | 361.258.810 |
| **Arte Eskola** | 1.000.000 | 10.200.000 | 35.763.486 | 0 | 46.963.486 |
| **INABAD, Dantza Eskola** | | | | | 12.486.130 |
| **Biltegia (Ikastetxeetako altzariak)** | 32.670.935 | | | | 32.670.935 |
| **GUZTIRA** | **103.399.928** | **223.963.246** | **345.020.930** | **25.601.303** | **710.471.538** |

Alor honetan azken urte hauetan egindako ahalegin handiak maila onean jarri gaitu, eta ez da aipatzeko moduko kexu edo arazorik izan. Gure gomendioa da, hala ere, alor honetarako inbertsioen plan zuzentzaile bat ezarri eta hari jarraitzea, berariazko jarduketak bideratzeko erreferentzia gisa, ikastetxeetako zuzkidurak homologazio, kalitate eta tratu berdintasunaren beharkizunetara egokitzeko.

Gure proposamena da zenbait obra eta ekipamendu ikastetxeei berei lagatzea partzialki, eta legezko ahalmen nahikoa ematea haiei, behar diren fondoak haiei emanez eta baliabide publiko ororekin behar den kontrola eginez.

Gure ustez, itunpeko ikastetxe pribatuetako obra eta ekipamenduetarako ematen diren dirulaguntzen kasuan halako arau edo lege konturen bat egon beharko luke; izan ere, haien jabegoa, baldintzarik eta mugarik gabe, entitate pribatuen eskuetara pasatzen baitira zuzenean.

Eskola Kontseiluak Hezkuntza Departamentuari obretarako urteko edo/eta urte anitzeko plana emateko eskatzen dio.

Aipagarria da 1992tik aurrerako itunpeko ikastetxeetarako dirulaguntza guztiak ikastetxe bakarrari edo biri eman izana; gainerako ikastetxeei ez zaie aukera eman baliabide horiek eskuratzeko lehian aritzeko. Are nabarmenagoa da hori kontuan hartzen bada haien instalazio batzuek zenbat urte dituzten.

Eskola Kontseilu honek ongi ezagutzen ditu egokitze-obra edo eraikuntza berrien obra guztiak udan egiteko dauden zailtasunak; hala eta guztiz ere, hain zuzen ere aurrekoa dela eta, obrak plan partzialen bitartez gauzatzeko gomendioa egin nahi dugu (obra luzeen kasuan); betiere, obrak egiteko erritmoaren gaineko kontrol handia egin beharko da, obrek eskola garaietan eraginik izan ez dezaten.

### 4.5. Gobernu Organoak.

Unibertsitatez besteko ikastetxeetako gobernu organoak gure hezkuntza sistemaren lege organikoetan agertzen dira: LODE (8/1985), LOGSE (1/1990) eta LOPEGCE (9/1995).

Foru Komunitatean, haien garapena ikastetxeetako erregelamendu organikoetan jaso dira. Hona haien aipamena:

**a) Organo kolegiatuak:**

- Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetarako, 24/1997 Foru Dekretua (1997ko martxoaren 14ko 32. N.A.O.). II. tituluaren II. kapituluaren arabera, Ikastetxeko Eskola Kontseilua eta Irakasleen Klaustroa izanen dira.
- Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetarako, 25/1997 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa (1997ko martxoaren 14ko 32. N.A.O.). II. tituluaren I. eta II. kapituluen arabera, halaber, Eskola Kontseilua (aldagarria da, ikasleen kopuruaren araberakoa) eta Irakasleen Klaustroa izanen dira.

**Eskola Kontseiluetarako hauteskundeak. 1998 urtea.**

| | Ikastetxe Publikoak | | | Ikastetxe Pribatuak | | | Guztira | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Errolda | Partehartzea | % | Errolda | Partehartzea | % | Errolda | Partehartzea | % |
| **Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeak** | | **170** | | | **38** | | | **208** | |
| Irakasleak | 2.139 | 1.946 | % 91 | 684 | 609 | 89% | 2.823 | 2.555 | % 91 |
| Ikasleak | 1.158 | 994 | % 86 | 765 | 715 | 93% | 1.923 | 1.709 | % 89 |
| Gurasoak | 33.334 | 9.220 | % 28 | 14.886 | 2.393 | 16% | 48.280 | 11.613 | % 24 |
| AZL | 33 | 30 | % 91 | 31 | 28 | 90% | 64 | 58 | % 91 |
| **DBHko eta Batxilergoko Ikastetxeak** | | **26** | | | **41** | | | **67** | |
| Irakasleak | 1.580 | 1.364 | % 86 | 1.296 | 960 | 74% | 2.876 | 2.324 | % 81 |
| Ikasleak | 12.161 | 8.150 | % 67 | 13.353 | 10.050 | 75% | 25.514 | 18.200 | % 71 |
| Gurasoak | 23.997 | 1.414 | % 6 | 31.795 | 2.545 | 8% | 55.792 | 3.959 | % 7 |
| AZL | 44 | 38 | % 86 | 85 | 71 | 84% | 129 | 109 | % 84 |
| **Hizkuntza Eskola Ofizialak** | | **2** | | | | | | | |
| Irakasleak | 61 | 58 | % 95 | | | | | | |
| Ikasleak | 3.938 | 485 | % 12 | | | | | | |
| Gurasoak | No votan | | | | | | | | |
| AZL | 12 | 11 | % 92 | | | | | | |

**Laburpena.**

| | Errolda | Partehartzea | % |
|---|---|---|---|
| Ikastetxeak | 342 | 277 | 81% |
| Irakasleak | 5.760 | 4.937 | 86% |
| Ikasleak | 31.375 | 20.394 | 65% |
| Gurasoak | 104.072 | 15.572 | 15% |
| AZL | 205 | 178 | 87% |

**b) Pertsona bakarreko organoak:**

- Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetarako, 24/1997 Foru Dekretua (1997ko martxoaren 14ko 32. N.A.O.). II. tituluko III. kapituluari jarraituz, honakoak izanen dira bederatzi edo unitate gehiagoko ikastetxeetan: zuzendaria, ikasketaburua eta idazkaria.
  Sei eta bederatzi unitate bitarteko ikastetxetan: zuzendaria eta idazkaria. Ikasketaburuaren eginkizunak zuzendariak hartuko ditu bere gain.
  Sei unitate baino gutxiagoko ikastetxeetan, zuzendaria baizik ez da izanen. Zuzendariak ikasketaburuaren eta idazkariaren eginkizunak hartuko ditu bere gain.

- Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetarako, 25/1997 Foru Dekretua (1997ko martxoaren 14ko 32. N.A.O.). II. tituluko III. kapituluari jarraituz, honakoak izanen dira pertsona bakarreko organoak: zuzendaria, ikasketaburua eta idazkaria, eta, hala behar denean, zuzendariordea eta administratzailea. Kasu batzuetan, gainera, ikasketaburu bat izendatu ahal izanen da gaueko ikasketetarako eta ikasketaburuaren laguntzaileak unitate ugari badaude, unitate horiek sakabanaturik edo eraikin ezberdinetan badaude eta abar

Ikastetxe publikoetan zuzendari kargua betetzeko moduari dagokionez, oso adierazgarria da 1999 urtean gertatutakoa:

| | **Zuzendaritza aldatu behar izan zuten ikastetxeak** | **Zuzendaritza lanpostuak betetzeko era** |
|---|---|---|
| **Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak** | 20 leku-aldaketaren bidez<br>12 agintaldia bukatu zaielako<br>2 dimisioa<br>34 GUZTIRA | 32 Administrazioak izendatuta.<br>2 Eskola Kontseiluak hautatuta |
| **Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak** | 11 agintaldia bukatu zaielako<br>3 dimisioa<br>14 GUZTIRA | 10 Administrazioak izendatuta.<br>4 Eskola Kontseiluak hautatuta<br>14 GUZTIRA |

**c) Koordinazio Organoak:**

- Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetarako, 24/1997 Foru Dekretua (1997ko martxoaren 14ko 32. N.A.O.). II. tituluko I, II, II, eta IV. kapituluei jarraituz, honakoak izanen dira
  - Tutoreak, ikasle talde bakoitzeko bat,
  - Zikloko ekipoak, zikloko koordinatzaile batekin, eta
  - Koordinazio Pedagogikorako Batzordea.
  - Hezkuntza Laguntzarako unitateak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta DBHIetan.
- Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetarako, 25/1997 Foru Dekretua (1997ko martxoaren 14ko 32. N.A.O.). II. tituluko I, II, II, IV, V, VI eta VII. kapituluei jarraituz, honakoak izanen dituzte:
  - Departamentu didaktikoak
  - Orientazio Departamentuak
  - Tutoretza Lana Koordinatzeko Departamentua (1999ko maiatzaren 3ko 68. N.A.O.) (153/1999 Foru Dekretua).
  - Kanpoko Lanbide Jardueretarako Departamentua, halakorik behar denean.
  - Tutorea edo tutoreak, bat ikaste talde bakoitzeko.
  - Taldeko irakaskuntza ekipoa
  - Koordinazio Pedagogikorako Batzordea.

- Heziketa Zikloko koordinatzailea, halakorik behar denean.

Kontseilu honek kezka handiz egiaztatu ahal izan du ikasleen gurasoek gutxi hartzen dutela parte ikastetxeetako eskola kontseiluetarako hauteskundeetan, bai irakaskuntza publikoan, bai itunpeko irakaskuntza pribatuan ere; joera hori nabarmenagoa da hezkuntza mailetan aurrera egin ahala.

Eskola Kontseiluak uste du ikastetxeetako autonomia indartu eta sektore guztiek beren gobernu organoetan hartzen diren erabakien garrantzi erreala egiaztatzen ez duten bitartean, ez dugula ikusi ahal izanen parte hartze handiko prozesu bat. Nafarroako Eskola Kontseilu honek "Autonomia eta Partehartzea" atalean egiten duen proposamena giltzarri izan daiteke gure eskola sistema aldatzeko.

Eskola Kontseiluak, ikusirik zer interes gutxi duten irakasleek zuzendaritza karguetan sartzeko, eztabaida zabaldu eta ikastetxeetako zuzendaritzaren errealitateari buruzko txosten bat egitea proposatzen du, bai ikastetxe publikoetan, bai itunpeko ikastetxe pribatuetan ere; hortik, gero, proposamen berriak eginen dira. Urte asko dira gai hau mahai gainean dagoela, eta gainerako herrialdeetan ere ez zaio irtenbide onik eman; gainera, zalantza handiak sortzen ditu eredu bat proposatzen diren bakoitzean. Hala eta guztiz ere, ez genuke ezinezkoa balitz bezala aparkatu behar; arriskatu ere egin beharko genuke, proposamen berritzaileen bitartez.

Koordinazio organoei dagokienez, Eskola Kontseiluak uste du eraginkortasun gutxi duela Departamentuetako buruak urtero izendatzea edo txandaka izendatzea. Departamentuetako buruak egonkortasun handiagoa izan beharko luke (bi edo hiru ikasturte), eta behin betiko destinoa duen edozein irakaslek izan beharko luke aukera.

Positibotzat jotzen dugu Tutoretzarako Orientazio eta Koordinazio departamentu berriak sortu izana, eta beharrezko jotzen dugu ikastetxe txikietan, Bigarren Hezkuntza baizik ematen ez duten ikastetxeetan, itunpeko ikastetxeetan eta abarretan jarduera eremu orokorren araberako departamentuak sortzeko ideian sakontzea.

(7. boto partikularra, STEE-EILASena; 8.a, HERRIKOArena).

### *4.6. Ikasleen gurasoen elkarteak.*

Unibertsitatez besteko irakaskuntzetan ikasleen elkarteak, federazioak eta konfederazioak egotea ikastetxeetako partehartze, demokratizazio eta autonomia prozesuetarako berme bat da. Haiek egotea eta parte hartzea indarrean dauden hezkuntza legeek bermatuta dago.
Foru Komunitatean, legez eraturik, ondoko federazioak daude –horietako batzuk estatu mailako erakundeetan konfederaturik daude:

HERRIKOA Federazioa, CEAPA erakundean konfederaturik dagoena. Hizkuntza eredu guztietako ikastetxe publikoetan ezarpen handiena duena da.
Federación Católica de Padres de Alumnos y Padres de Familia, CONCAPA-Navarra, CONCAPA erakundean konfederatua. Hizkuntza eredu guztietako itunpeko ikastetxe pribatuetan ezarpen handiena duena da.
SORTZEN Federazioa, ikastetxe publikoetako "D" lerroan –euskarazko irakaskuntza– ezarpen handiena duena.

Federazio horiek, 1999ko ekainean, ondokoak biltzen dituzte:

| Federazioa | Biltzen dituen elkarteak | Bazkideak, guztira |
|---|---|---|
| HERRIKOA | 67 | 20.990 |
| CONCAPA | 32 | 19.870 |
| SORTZEN | 8 | 2.438 |
| - | 49 (federatu gabe) | 13.618 |
| **GUZTIRA** | **156** | **56.916** |

***Azalpen oharrak:***

1 Nafarroako Ikastolen Federazioa, legez, euskarazko irakaskuntza eredurako irakaskuntza-patronala da. Patronala izateaz gainera, ikastetxe horietako gurasoen kooperatiba bat da.
2 Hala eta guztiz ere, laukian ageri diren datuei buruz, argi utzi behar da federazioek beren funtzionamenduan elkarte gehiago ere biltzen dituztela.

Erakunde hauek daukaten garrantzia ezaguturik, Nafarroako Gobernuak, hezkuntza arloko eskumenak eskuratu baino are lehenagotik, dirulaguntzak ematen dizkie gurasoen elkarteei eta haien federazioei.

**Urteroko deialdi baten bitartez, Nafarroako elkarte eta federazioei emateko aurrekontuetan jasotako dirua eta emandako dirua.**

| UR-TEA | Aurrekontuetan jasotakoa, guztira | Emandakoa, guztira | Ikastetxeko elkarteak | HERRIKOA | CONCAPA | ELKAR | SORTZEN |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1990 | 20.000.000 | | | | | | |
| 1991 | 25.000.000 | | | | | | |
| 1992 | 30.000.000 | 28.854.662 | 21.540.662 | 3.000.000 | 3.000.000 | 1.314.000 | - |
| 1993 | 20.000.000 | 19.351.398 | 14.951.398 | 1.950.000 | 1.950.000 | 500.000 | - |
| 1994 | 15.000.000 | 14.400.000 | 10.634.901 | 1.882.500 | 1.882.599 | - | - |
| 1995 | 15.000.000 | 14.450.000 | 10.685.000 | 1.882.500 | 1.882.500 | - | - |
| 1996 | 15.000.000 | 13.825.000 | 10.494.000 | 1.925.000 | 1.406.000 | | - |
| 1997 | 29.000.000 | 24.967.825 | 19.844.400 | 2.588.575 | 1.982.500 | | 552.350 |
| 1998 | 29.900.000 | 26.589.100 | 21.089.100 | 2.715.720 | 2.184.000 | | 600.280 |
| 1999 | 29.990.000 | 26.995.900 | 21.156.900 | 2.847.000 | 2.205.000 | | 787.000 |

Aurrekontuetan bildutako zenbatekoaren eta emandako zenbatekoaren artean dagoen aldea ustekabean sor daitezkeen beharrei erantzuteko Departamentuak eduki behar duen erreserba

edo gerakinari dagokio, urteroko deialdiak berak adierazten duen bezala.

Dirulaguntza horien emateko urtero egiten da deialdia –otsailaren 5eko 121/1999 Ebazpena (1999ko martxoaren 1eko 26 N.A.O.). Hartara aurkez daitezke legez eratu, behar den erroldan izena emanda egon eta Nafarroako Gobernuaren Elkarteen Erregistroan ere izena emanda dauden elkarte eta federazio guztiak. Ezinbesteko baldintza da aurreko urtean jasotako dirulaguntzen erabilera behar den bezala eta behar den garaian justifikatu izatea..

Hona dirulaguntzaren diru zenbatekoak esleitzeko erabiltzen diren irizpideak:
Federazio bakoitzari atxikitako elkarteen kopurua edo/eta elkarte eskatzaileetan afiliaturiko pertsonen kopurua.
Kasuan kasuko ikastetxeetako eskola populazioaren inguruabar sozial eta ekonomikoak.
Aurkeztutako proiektuaren kalitatea eta interesa.

Ebazpena emateko ardura duen batzordea ondokoek osatuta dago: lehendakari bat –Ikasketak eta Ikastetxeak Antolatzeko Zerbitzuko burua– eta mahaikideak –Ikastetxeen Ataleko burua, Guraso eta Ikasleentzako Argibide eta Aholku Bulegoko burua, Eskolaz Kanpoko Jardueren Ataleko burua, Gurasoen Elkarteetako Federazioen ordezkari bat eta Ikasleen Gurasoen Elkarteetako ordezkari bat.

Ekainaren 30eko 645/1999 Ebazpenaren bitartez, dirulaguntzak eman zitzaizkien gurasoen 219 elkarteri eta Elkarteen 3 Federaziori. Erantsi dugun laukian ageri diren zenbatekoak eman zitzaizkien.

Gurasoen Elkarteetako Federazioek beren legezko egoera eta administrazio egoera erregularizatu dute, Nafarroako Eskola Kontseilurako mahaikideak izendatzeko garaian ordezkatzen dutena kreditatzea beharrezkoa zutelako. Hemendik premiatu nahi ditugu egoera hori etorkizunean ere manten dezaten.

1997an, D lerroa –euskaraz soilik– duten Ikastetxeetako Gurasoen Elkarteetako beste Federazio bat sortu da. Horrek are gehiago zatikatu du orain arte zegoen egoera. Eskola Kontseiluak uste du hori emendiozko zailtasun bat dela, uste baitu interesak eta beharrizanak jarrera orokorren eta ez-zatituen bitartez defendatzen ahal direla eta defendatu behar direla.

Hona Nafarroako Gobernuari egiten diogun proposamena: lokal bat ematea federazioei beren aurrekontuetatik zenbateko handi bat arintzeko eta jasotzen duten diru gehien-gehiena jarduerak egiteko erabil ahal izan dezaten, edo, bestela, azpiegitura gastuetarako eta jarduerak egiteko gastuetarako diruak bereiz eman ditzan. Bide horretan, uste dugu familientzako prestakuntza programak egin beharko liratekeela, bai eta partehartzea sustatzeko neurriak aurrera eraman behar direla ere, gurasoek beren lan bizitza eta beren gain hartzen dituzten ordezkaritza lanak uztartu ahal izan ditzaten.

(9. boto partikularra, STEE-EILASena).

## 4.7. Eskolaz kanpoko jarduerak.

Gure Foru Komunitatearen hezkuntza garapenaren adierazle aipagarrienetako bat ikastetxeek eta haien gurasoen elkarteek antolatzen dituzten eskolaz kanpoko jardueren bolumena eta garrantzia da. Eskola jarduera horiek hezkuntza proiektu propioa identifikatzen dute, lagungarriak dira ikastetxea komunitatean txertatzeko eta lagungarriak dira ere ikasleen kultur prestakuntza hobetzeko.

Bide guztietatik bereziki zaindu eta sustatu den alorra da hau, baita 1990ean Nafarroak hezkuntza eskumenak eskuratu baino lehenagotik ere. Nafarroko Gobernuaren aurrekontu guztietan zenbateko garrantzitsuak ageri dira helburu horretarako; urtero ematen dira zenbateko horiek deialdi publiko baten bitartez.

**Eskolaz kanpoko jarduerak**

| | Ikastetxe Publikoak | | Itunpeko ikastetxeak | | Dirua jasotako ikastetxeak | | Ikasle kopurua | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| UR-TEA | Aurrekontuan jasotakoa | Esleitutakoa | Aurrekontuan jasotakoa | Esleitutakoa | Publikoak | Itunpe-koak. | Publikoak | Itupe-koak |
| 1990 | 49.000.000 (1) | | | | | | | |
| 1991 | 38.319.000 | 59.527.623 (2) | 30.000.000 | | 256 (2) | | | |
| 1992 | 35.000.000 | 49.343.400(2) | 30.000.000 | | 287 (2) | | | |
| 1993 | 30.000.000 | 25.168.980 | 20.000.000 | 16.852.800 | 282 (2) | | | |
| 1994 | 25.000.000 | 23.700.000 | 5.000.000 | 4.205.000 | 210 | 61 | 60.122 | 30.009 |
| 1995 | 25.000.000 | 22.055.000 | 5.000.000 | 4.295.000 | 198 | 70 | 54.064 | 34.202 |
| 1996 | 33.000.000 | 30.155.000 | 14.000.000 | 11.335.000 | 204 | 57 | 51.048 | 25.485 |
| 1997 | 33.000.000 | 31.525.000 | 14.000.000 | 12.658.000 | 217 | 72 | 51.193 | 30.939 |
| 1998 | 34.700.000 | 33.900.000 | 12.600.000 | 12.000.000 | 198 | 62 | 48.518 | 25.757 |
| 1999 | 34.700.000 | 33.802.000 | 12.600.000 | 12.285.000 | 197 | 64 | 46.347 | 24.037 |

(1) Zenbatekoa bat da ikastetxe publikoetarako eta itunpeko ikastetxeetarako: 14.000.000 OHOko ikastetxeetarako eta 35.000.000 Irakaskuntza Ertaineko ikastetxeetarako.

(2) Zenbatekoa bat da ikastetxe publikoetarako eta itunpeko ikastetxeetarako.

- Hona programa hauek araupetzen dituzten xedapenak:
  - Azaroaren 23ko 1112/98 Ebazpena (1999ko abenduaren 14ko 149. N.A.O.). Haren bitartez 1999 urterako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta Bigarren Hezkuntzako Institutuetan eskolaz kanpoko jarduerak egiteko laguntzen deialdia onetsi zen.
  - Eskaria Ikastetxeko Eskola Kontseiluak onetsi beharko du, eta ikastetxeko zuzendariak ziurtatu beharko du. Proposatzen diren jarduera guztien deskribapena egin beharko du, eta jarduera horiek, gainera, Ikastetxeko Urteko Programazio Orokorrean sartuta behar dute izan.
  - Laguntzaren zenbateko zehazteko, ondoko irizpideak erabiltzen dira:
    - Ikastetxeko ikasleen kopurua.
    - Aurkeztutako proiektuen interesa.
    - Ikastetxearen baldintza geografikoak eta sozio-ekonomikoak.

Laguntzen esleipena ondokoek osaturiko Batzorde batek gauzatuko du: Berrikuntza Pedagogikorako Zerbitzuko zuzendaria –lehendakaria izanen da–, Hezkuntza Sustapen eta Hedapenaren Ataleko burua, Eskolaz Kanpoko Jardueren Bulegoko burua, Guraso eta Ikasleentzako Argibide eta Aholku Bulegoko burua, Departamentuko teknikari bat eta ikastetxeen edo Ikasleen Gurasoen Elkarteetako Federazioen ordezkari bat.

- 1999an, Nafarroako 195 ikastetxe publikok eta 58 ikastetxe pribatuk jaso dute laguntza hau (7. N.A.O., 437/1999 eta 436/1999 ebazpenak).

- Gure Komunitatean garrantzi handia izan dute eta dute atzerriko hizkuntzak ikastearekin loturiko jarduerek, Nafarroako ikastetxeetako ikasleak beste herrialdeetako ikastetxeetako ikasleekin trukatzeak eta Nafarroako ikasleek atzerriko hizkuntzak ikasteko laguntza programek ere. Programa horiek bi modutakoak izaten direla esan dezakegu: banakakoak eta kolektiboak (trukeak).

  Atzerriko hizkuntzak ikasteko banakako errefuertzoari dagokionez, urtero deialdi bat egiten da azken bi urteetako ikasketa espediente onena duten ikasleei bereziki zuzendua. Lehen BBBko 3. maila eta UBI edo L.H.ko 4. eta 5. mailak hartzen ziren kontuan; egun, ordea, LOGSE Batxilergoko 1. eta 2. mailak hartzen dira.

- Atzerriko hizkuntzak eta kultura ikasteko programa kolektiboei (trukeak) dagokienez, gure ikastetxeek parte har dezaketen Europako Komunitateko programez gainera, Foru Komunitateak bere deialdi propioa egiten du. Otsailaren 2ko 115/1999 Ebazpenaren bitartez, Nafarroako ikastetxeetako ikasleen eta Europako Komunitateko kide diren estatuetako ikasleen arteko eskola-trukeak egiteko deialdia onetsi zen.

Jarduera hauen garrantzia ongi islaturik ageri da ondoko laukian:

**Aurrekontuan jasotako zenbatekoak, oro har, irakaskuntza ertainetako ikasle onenek hizkuntzak hobeki ikasteko, eskola trukeak egiteko eta eskola bidaiarietan parte har dezaten**

| URTEA | Aurrekontuan jasotako zenbatekoa |
|---|---|
| 1990 | 15.000.000 |
| 1991 | 25.000.000 |
| 1992 | 24.000.000 |
| 1993 | 45.000.000 |
| 1994- | 39.500.000 |
| 1995 | 35.000.000 |
| 1996 | 40.000.000 |
| 1997 | 40.000.000 |
| 1998 | 34.400.000 |
| 1999 | 34.400.000 |

Hona kontusail horren banaketa:

**Irakaskuntza Ertainetako ikasle onenentzako dirulaguntzak, hizkuntzak hobetu ditzaten**

| URTEA | Aurrekontua | Emandako laguntzak | Laguntza bakoitzaren zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| 1990 | | | |
| 1991 | 7.500.000 | 30 | Ikastaroko prezioa ordaintzea |
| 1992 | 7.500.000 | 30 | Ikastaroko prezioa ordaintzea |
| 1993 | 7.000.000 | 30 | Ikastaroko prezioa ordaintzea |
| 1994 | 9.000.000 | 40 | Ikastaroko prezioa ordaintzea |
| 1995 | 8.000.000 | 40 | 200.000 |
| 1996 | 20.000.000 | 100 | 200.000 |
| 1997 | 21.000.000 | 140 | 150.000 |
| 1998 | 15.000.000 | 100 | 150.000 |
| 1999 | 15.000.000 | 100 | 150.000 |

**Eskolen arteko trukaketak egiteko laguntzak.**

| UR-TEA | Aurrekontua | Ikastetxe Publikoak | | Itunpeko Ikastetxeak | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Zenbate-koa | Ikastetxe kopurua | Zenbatekoa | Ikastetxe kopurua |
| 1990 | | | | | |
| 1991 | 9.506.840 | 4.504.140 | 8 | 5.002.700 | 6 |
| 1992 | 9.947.000 | 7.770.000 | 15 | 2.177.000 | 5 |
| 1993 | 13.539.000 | 8.429.000 | 16 | 5.110.000 | 6 |
| 1994 | 12.000.000 | 7.280.000 | 15 | 4.720.000 | 7 |
| 1995 | 10.400.000 | 6.530.000 | 15 | 3.870.000 | 7 |
| 1996 | 11.287.000 | 6.037.000 | 12 | 5.250.000 | 7 |
| 1997 | 12.300.000 | 8.095.000 | 14 | 4.205.000 | 7 |
| 1998 | 12.315.000 | 7.900.000 | 13 | 4.415.000 | 6 |
| 1999 | 12.150.000 | 6.755.000 | 14 | 5.395.000 | 5 |

**Eskola bidaiariak.**

Programa honek autonomi erkidegoetako ikasle taldeen arteko trukeak garatzen ditu, ikasleek gure herrialdeko hizkuntzak eta kulturak errespetatzeari buruzko prestakuntzan laguntzeko.

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioarekin eta autonomi erkidegoekin koordinaturik egiten da programa hau. Haren batez besteko kostuak urteko 6.000.000 PTA egin ohi du, eta Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako 15 ikasleko 11 bat talde hartu ohi ditu. Deialdi publikoa egiten da urtero.

Atal hau gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da ikastetxeetako bizitzan; izan ere, nortasun elementuen artean hauxe bereziki estimatzen dute familiek. Egoera hau dela eta, Eskola Kontseiluak honakoa proposatzen du:

Ikastetxe baten eskolaz kanpoko jarduera guztiek bat etorri behar dute beren hezkuntza proiektuarekin, Eskola Kontseiluaren zaindaritzapean egon behar dute, eta Eskola Kontseilu horrek kontrolatu eta ebaluatu beharko ditu.
Ikastetxeetan ez dira onartu behar beste entitate batzuek, Eskola Kontseiluak haietarako baldintzak jarri gabe eta haiek onetsi gabe, baimendutako eskolaz kanpoko jarduerak.

(10. boto partikularra, HERRIKOAk aurkeztutakoa).

## 5. Euskara Nafarroako hezkuntza sisteman.

Euskarari buruzko 18/1987 Foru Legea onetsi zenetik, euskararen irakaskuntza eta euskarazko irakaskuntza, gure hezkuntza sistemaren lege organiko berrien garapenarekin batera, gertatu den berrikuntzarik handiena izan da.

Unibertsitatez besteko irakaskuntzan euskararen sarrera eta erabilpena arautzen dituen 159/88 Foru Dekretuan aurreikusitako hizkuntza ereduak, eskualde euskalduneko ikastetxeetako maila guztietan ezarri dira, eta eskualde mistoko eta ez euskalduneko ikastetxe askotara ere zabaldu da, legeek eta gizartearen eskariek egituratu dituzten errealitate berriei jarraituz.

Ezarpen horrekin batera, hezkuntza sistemaren antolamendu berriak arauturiko aldaketak ere etorri dira, hain zuzen ere etapa eta curriculumei dagokienez eta baita ikastetxeen egitura eta funtzionamenduari dagokienez ere.

Ikastetxe elebidunek aldi berean erantzun behar izan diete bi prozesu horiei, alde batera utzi gabe hezkuntzaren praktikari buruzko gogoeta egin beharra, eta hura hobetu beharra ere, hain zuzen ere ikastetxe guztietarako diseinaturiko hezkuntza helburuak iristeko eta eredu elebidunen hizkuntza-gaikuntzaren helburuak erdiesteko ere.

Baldintza hauetan, euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren onarpen sozialari buruzko azterketak eta haren proiekzioak, alde batetik, derrigorrezkoa egin dute hezkuntza sistemari kalitate eta eraginkortasun irizpideekin erantzuteko gauza izanen diren ikastetxeen sare bat eratzea; bestaldetik, beharrezko egin dute ikastetxe horietako curriculumak antolatzea, haien ikasketen bizitzarekin eta Komunitateko ikastetxe guztietarako planteaturiko hezkuntza proiektuarekin bat etorriz. Horrela, bada, sistemaren nortasuna mantendu da.

Irakaskuntza horiek era normalizatuan antolatzeko eta haiei kalitatez erantzuteko proiektuaren barruan, kontuan hartu behar da eginkizun horietan aritzen diren irakasleen kopuruak gora egin duela. Ikastetxe publikoetan hirukoiztu egin da; haien birziklapena lortzeko, hizkuntzan sakontzeko eta lan didaktikoa aztertzeko prestakuntza jarduerak ere areagotu egin dira.

Planteaturiko diseinuak, hizkuntza helburuen artean, beste edozein hizkuntza modernorekin gertatzen den bezala, hizkuntzaren erregistro ezberdinak menperatu beharra biltzen du. Horretarako, esperientzia eremu urrienak indartu eta garrantzia eman zaio ikasleei eredu ezberdinak erakutsiko zaizkiela bermatuko duten jarduerak antolatzeari, bai arlo zientifikoan, bai arlo kultural eta kolokialetan ere. Bestalde, ahaleginak egin dira komunikazio egoera ezberdinak ezagutu daitezen sustatzeko, bai eta haietan ikasitako erregistroak erabil daitezen ere.

Nafarroako hezkuntza sistemaren zati bat den euskarari buruzko azterketa honetako azken atala helduei zuzendutako euskararen irakaskuntzaren bilakaerari buruzkoa da.

### *5.1.- Euskararen eta euskarazko ikastetxeen, irakasleen eta matrikularen bilakaera.*

#### 5.1.1. Matrikula eta irakasleak.

Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren onarpen sozialaren maila argi gelditzen da hizkuntza eredu ezberdinetako ikasleen matrikularen bilakaerari begiratzearekin:

| | 90-91 | 91-92 | 92-93 | 93-94 | 94-95 | 95-96 | 96-97 | 97-98 | 98-99 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A eredua | 6035 | 6635 | 8030 | 8099 | 8135 | 8713 | 9792 | 11375 | 12136 |
| D eredua | 13480 | 12383 | 12672 | 13581 | 13598 | 13701 | 14303 | 14919 | 15306 |
| Guztira | 103737 | 100768 | 98269 | 95577 | 92964 | 89908 | 87326 | 84836 | 82962 |
| | | | | | | | | | |
| A eredua | 5,8 | 6,6 | 8,2 | 8,5 | 8,8 | 9,7 | 11,2 | 13,4 | 14,6 |
| D erdua (B) | 13,0 | 12,3 | 12,9 | 14,2 | 14,6 | 15,2 | 16,4 | 17,6 | 18,4 |
| G eredua | 81,2 | 81,1 | 78,9 | 77,3 | 76,6 | 75,1 | 72,4 | 69,0 | 66,9 |




Halaber, hezkuntza erantzuna irakaskuntza hauetan ari diren irakasleen kopuruaren hazkundean ere islaturik dago.

Irakasle elebidunak. Ikastetxe Publikoak




Irakasle elebidunak. Itunpeko ikastetxeak




| 91-2 | 92-3 | 93-4 | 94-5 | 95-6 | 96-7 | 97-8 | 98-9 | 91-2 | 92-3 | 93-4 | 94-5 | 95-6 | 96-7 | 97-8 | 98-9 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 345 | 661 | 705 | 702 | 828 | 1087 | 1095 | 1174 | 194 | 254 | 251 | 236 | 290 | 325 | 331 | 356 |

Datu hauek, garrantzitsuak izanda ere ez dira aski, eskarien bilakaera lineak baten irudia ematen dute. Beharrezkoa da bestelako azterketa bat egitea, joerak etapen eta eskualdeen arabera aztertuz, errealitate ezberdinetan iradokitzen ahal diren esku-hartzeak oinarritzeko.

## 5.1.2. Haur eta Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza.

Lehenbiziko aldea lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako matrikulen bilakaeran aurkituko dugu. 1995/96 ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloaren ezarpena eta OHOtik Lehen Hezkuntzara pasatzean matrikuletan gertatu den jaitsiera datuetan bildurik daude, baina grafikoek horien eragina iluntzen dute ehunekoak erabiltzen direlako.

| **Haur eta Lehen Hezkuntza** | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **90-91** | **91-92** | **92-93** | **93-94** | **94-95** | **95-96** | **96-97** | **97-98** | **98-99** |
| A eredua | 5148 | 5524 | 6471 | 6570 | 6932 | 6582 | 7638 | 8858 | 9753 |
| D eredua (B) | 12298 | 10510 | 10632 | 11372 | 11078 | 9507 | 9569 | 9875 | 10146 |
| Guztira | 71089 | 67745 | 64953 | 62400 | 59917 | 45712 | 44117 | 43531 | 43146 |
| | | | | | | | | | |
| A eredua | 7,2 | 8,2 | 10,0 | 10,5 | 11,6 | 14,4 | 17,3 | 20,3 | 22,6 |
| D eredua (B) | 17,3 | 15,5 | 16,4 | 18,2 | 18,5 | 20,8 | 21,7 | 22,7 | 23,5 |
| G eredua | 75,5 | 76,3 | 73,7 | 71,2 | 69,9 | 64,8 | 61,0 | 57,0 | 53,9 |



| Bigarren Hezkuntza, BBB, REM eta Ubi | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **90-91** | **91-92** | **92-93** | **93-94** | **94-95** | **95-96** | **96-97** | **97-98** | **98-99** |
| | | | | | | | | | |
| A eredua | 639 | 622 | 605 | 576 | 525 | 1707 | 1870 | 2380 | 2312 |
| D eredua (B) | 1376 | 1575 | 1693 | 1828 | 1957 | 3976 | 4535 | 4841 | 5065 |
| Guztira | 21109 | 21902 | 22118 | 22196 | 21936 | 32983 | 33200 | 33052 | 32432 |
| | | | | | | | | | |
| A eredua | 3,0 | 2,8 | 2,7 | 2,6 | 2,4 | 5,2 | 5,6 | 7,2 | 7,1 |
| D eredua (B) | 6,5 | 7,2 | 7,7 | 8,2 | 8,9 | 12,1 | 13,7 | 14,6 | 15,6 |
| G eredua | 90,5 | 90,0 | 89,6 | 89,2 | 88,7 | 82,8 | 80,7 | 78,2 | 77,3 |




Kontuan hartu beharko da lehen hezkuntzako matrikulen bilakaera eta haietan bigarren hezkuntzarako aurreikus daiteken bilakaera, hain zuzen ere hezkuntza erantzuna eskariei egokitu ahal izateko, eskualde bakoitzaren egoera zehatza abiaburu harturik.

## 5.1.3. Hizkuntza eskualdeak eta ikastetxeak.

Gizartearen eskarien ondorioz eratu diren errealitate ezberdinen arabera, ezarritako hizkuntza eskualdeetan emandako hezkuntza erantzuna aztertzen ahal da. Horretarako haur eta lehen hezkuntzako matrikularen bilakaera aztertu dugu, eredu elebidunak garatzen dituzten ikastetxeen kopuruaren bilakaerarekin alderaturik.

### 5.1.3.1. Eskualde Euskalduna.

| Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza. Eskualde euskalduna. | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **90-91** | **91-92** | **92-93** | **93-94** | **94-95** | **95-96** | **96-97** | **97-98** | **98-99** |
| | | | | | | | | | |
| A eredua | 2837 | 2623 | 2293 | 1971 | 1991 | 1041 | 888 | 784 | 720 |
| D eredua (B) | 4102 | 4237 | 4278 | 4273 | 5473 | 3560 | 3505 | 3623 | 3491 |
| Guztira | 7326 | 6987 | 6674 | 6311 | 7494 | 4603 | 4394 | 4407 | 4211 |
| | | | | | | | | | |
| A eredua | 38,7 | 37,5 | 34,4 | 31,2 | 26,6 | 22,6 | 20,2 | 17,8 | 17,1 |
| D eredua (B) | 56,0 | 60,6 | 64,1 | 67,7 | 73,0 | 77,3 | 79,8 | 82,2 | 82,9 |
| G eredua | 5,3 | 1,8 | 1,5 | 1,1 | 0,4 | 0,0 | 0,0 | 0 | 0 |




"D" eredua da jende gehienak hautatzen duena, eta etorkizunean ere aurreikus daiteke joera hori mantenduko duela. Matrikulako zenbatekoek egonkortasuna adierazten dute.

"B" eredua eskualde euskalduneko bost herritan mantentzen da: 175 ikasle daude eredu horretan 1998/99 ikasturtean. Izen berarekin, egitura ezberdinak ageri dira: gaztelaniaz ematen diren ez orduen kopuruak, ez ikasgaia, ez ikasgaiak ere ez dira berak. Eredu horrek homogeneotasunik ez duelako –herri bakoitzean bat da, egoeraren arabera–,garrantzi eskasa duelako eta hizkuntza helburuetan "D" ereduarekin guztiz bat datorrelako, azken horren barruan aztertu dugu.

"A" ereduak behera egin du nabarmen jendearen lehentasunetan; mantentzeko joera du, eta ikasle gehienak eskualdeetako hiriburuetan ageri dira. Eredu horren barrenean, euskara ikasi behar ez duten ikasleak ere sartzen dira; beraz, "G" eredurik ez dago.

**Eskualde euskalduna. Ikastetxeen bilakaera**

| | Lehen Hezkuntza | | | | Bigarren Hezkuntza | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 91/92 | 95/96 | 98/99 | | 91/92 | 95/96 | 98/99 |
| Modelo "D"(B) | 38 | 37 | 37 | Modelo "D"(B) | 0 | 1 | 1 |
| Modelo "A" | 6 | 3 | 3 | Modelo "A" | 4 | 2 | 0 |
| "D"+"A" | 19 | 18 | 18 | "D"+"A" | 4 | 7 | 7 |







Lehen Hezkuntzako ikastetxeen bilakaerari begiratuta, egonkortasuna iritsi dela esan dezakegu. Eskualde honetako populazioaren banaketak ikastetxe asko izatea justifikatzen du. Eskaintza mistoa, “D” eta “A” ereduak, egiten duten ikastetxeek eskualdeko hiri handienetan daude, eta “A” eredua eskatzen duten guztiak hartzen dituzte, zenbat ikasle matrikulatzen diren alde batea utzita. Populazio banatuagoetan edo eredu minoritarioetan ikasle gutxi egoteak zenbait ikasmaila batera jartzera bultzatzen du; horixe izan daiteke eskualdeko egitura-ezaugarrietako bat.

Bigarren Hezkuntzan ikastetxe guztiak mantentzen direla dirudi; hala ere, ikastetxe ezberdinak dira. Hezkuntza sistema berriaren antolamenduak, 1995/96 ikasturtean, batxilergoko eta lanbide heziketa institutuak batera jartzea bideratu zuen, eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako hiru ikastetxe berri sortu ziren.

Ikastetxe publiko horiek beren barrutiko populazio guztia hartu behar dute, alde batera utzita zein ereduren alde egin duen, eta “D” eta “A” ereduak eskaini behar dituzte, nahiz eta antolamenduaren aldetik arazorik egon –gainera, desoreka nabarmena dagoela ikus daiteke eredu horiek aztertuz gero.

#### 5.1.3.2. Eskualde mistoa.

Haur eta lehen hezkuntza aztertuz gero, hona finkaturik agertzen diren joerak:

- “D” ereduan matrikulaturiko ikasleen ehunekoak igotzen jarraitzen du.
- Gero eta ikasle gehiago matrikulatzen da “A” ereduan; hori nabarmenagoa izan da azken urteetan, aurreko ereduaren antzeko baloreak agertzeraino.
- “G” ereduak matrikula guztien % 50a gainditzen du, ikastetxe publikoak eta itunpeko ikastetxe pribatuak harturik. Behera egiten jarraitzen du, nabarmenago 1995etik.

Pentsatzekoa da joera hauek indartu eginen direla; izan ere, haur hezkuntzako ikasmailetan gora egiten ari da eredu elebidunetan matrikulaturiko ikasleen kopurua.

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| G eredua | 81,2 | 78,8 | 76,6 | 75,0 | 72,9 | 67,1 | 63,1 | 59,1 | 55,5 |




Ikastetxe elebidunen bilakaera bat dator matrikularen bilakaerarekin:

- Beren eskaintzan “A” eredua sartu duten ikastetxeak gero eta gehiago dira lehen eta bigarren hezkuntzan; “D” eredua baizik eskaintzen ez dutenak, berriz, finkaturik ageri dira, eta beren kopurua mantentzen dute, eskola mapan zehaztutakoaren arabera.

- “A” edo “G” ereduekin batera lehen hezkuntzan “D” eredua ere eskaintzen duten ikastetxeak, ikastetxe publiko bakarra duten eskualde mistoko udaletan mantentzen dira. Haien kopurua areagotzen ari da Iruñean, halakorik aurreikusita ez zuten ikastetxeetan “D” ereduko lerro berriak sortu ahala. Horietan, matrikularen joerak eta ikastetxeen antolamendua bilakaeraren araberakoak dira, eta ez dute gainerako ikastetxeek daukaten egonkortasun maila bera.

Bigarren Hezkuntzan, 1995ean “D” eredurako sortutako institutuek beren hezkuntza eskaintza osatu dute eta bizi akademikoa ere normalizatu dute; beste edozein institutuk lorturiko egonkortasun bera iritsi dute. Eskualde honetan hiru DBHI sortzeak gezurrezko irudia ematen du ereduen eskaintza mistoa egiten duten bigarren hezkuntzako ikastetxeen kopurua mantentzeari dagokionean. Ikastetxe horiek, batez ere, ikastetxe bakarra duten udaletan aurkituko ditugu.

| Eskualde mistoa. A eta D ereduak eskaintzen dituzten ikastetxeak, | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Lehen Hezkuntza | | | | | Bigarren Hezkuntza | | |
| | 91/92 | 95/96 | 98/99 | | | 91/92 | 95/96 | 98/99 |
| D eredua | 7 | 10 | 10 | | D eredua | 1 | 9 | 9 |
| A eredua | 16 | 17 | 21 | | A eredua | 0 | 7 | 10 |
| Eskaintza misto | 12 | 13 | 15 | | Eskaintza misto | 7 | 6 | 6 |







### 5.1.3.3. Eskualde ez euskalduna.

| Haur eta Lehen Hezkuntza. Eskualde ez euskalduna. | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 90-91 | 91-92 | 92-93 | 93-94 | 94-95 | 95-96 | 96-97 | 97-98 | 98-99 |
| A eredua | 726 | 966 | 1448 | 1917 | 2343 | 2732 | 3201 | 3713 | 4205 |
| D eredua | 406 | 469 | 524 | 567 | 575 | 590 | 601 | 637 | 645 |
| Guztira | 22534 | 21835 | 21380 | 20656 | 19707 | 15192 | 14828 | 14553 | 14117 |
| A eredua | 3,2 | 4,4 | 6,8 | 9,3 | 11,9 | 18,0 | 21,6 | 25,5 | 29,8 |
| D eredua | 1,8 | 2,1 | 2,5 | 2,7 | 2,9 | 3,9 | 4,1 | 4,4 | 4,6 |
| G eredua | 95,0 | 93,4 | 90,8 | 88,0 | 85,2 | 78,1 | 74,4 | 70,1 | 65,6 |




Eskualde honetan, gero eta gehiago eskatzen ari da “A” eredua, bai ehunekoetan, bai zenbaki errealetan ere. Joera hori indartu eginen da, ikusirik beheko mailetan matrikulaturiko “A” ereduko ikasleen ehuneko handiagoa. Lehen Hezkuntzako ikastetxeek beren eskaintza zabaldu dute, eta aurreikus daiteke joera bera gertatuko dela bigarren hezkuntzako ikastetxeetan ere.

“D” ereduak igoera arina baina etengabea du eskualde honetan. Itunpeko ikastetxe pribatue-

tara doazen ikasleak dira. Hona eskualde honetan legeztaturiko ikastolei buruzko datuak:

**Eskualde ez euskalduna. A eta D eredua eskaintzen dituzten ikastetxeak**

| | 91/92 | 95/96 | 98/99 |
|---|---|---|---|
| Lehen Hez. A | 17 | 45 | 58 |
| Bigarren H. A | 0 | 4 | 11 |
| D eredua | 2 | 2 | 2 |




Euskarari buruzko 18/1987 Foru Legea onetsi zenetik, euskararen irakaskuntza eta euskarazko irakaskuntza, gure hezkuntza sistemaren lege organiko berrien garapenarekin batera, gertatu den berrikuntzarik handiena izan da.

Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren onarpen sozialaren maila argi gelditzen da ematen diren datuak irakurtze hutsarekin.

1990/91 ikasturtean, euskarazko irakaskuntzetan ari ziren ikasleek, sektore publikokoak eta itunpekokoak batuta, 13.480 ikasle egiten zuten (B eta D ereduak).

1998/1999 ikasturtean 15.306 ikasle dira, hau da, % 13,54ko igoera gertatu da. Zenbateko horiek maila horietako ikasle guztiekin alderatuz gero, ikusten da 1990/91 ikasturtean, B eta D ereduko ikasleak, hau da, guztiz edo partzialki euskaraz ikasten zutenak, guztien % 12,74 zirela; 1998/99 ikasturtean, berriz, % 18,39 egiten dute.

Euskara irakasteko, A eredua, eskariaren gorakada are handiagoa da. 1990/91 ikasturtean, 6.062 ikasle ari ziren eredu horretan; 1998/91 ikasturtean, berriz, 12.136 ikasle ari dira. Beraz, % 100eko hazkundea izan da. Datu horiek ikasle guztien datuekin alderaturik, ikus daiteke 1990/91 ikasturtean A ereduko ikasleak % 5,72 zirela; 1998/91 ikasturtean, berriz, % 14,58 dira.

“B” ereduak –hau da, ikasgai batzuk euskaraz eta gainerakoak gaztelaniaz jasotzea– leku testimoniala betetzen du.

## 5.1.4. Garraiorako eta jantokirako laguntzak.

Edozein hizkuntza eredu hautatzeko eskubidea bermatzeko, eskaintzen diren ikastetxeen sareak eskaerei guztiz erantzuteko aski ez izatearen kasuetarako, 1989/90 ikasturtean deialdi bat egin zen hautatutako hizkuntza aukeratik 5 Km baino distantzia handiagoan bizi diren ikasleen garraio eta jantoki gastuak edo egoitza gastuak ordaintzeko.

Euskara Zerbitzua da deialdi hori kudeatzen duena, “Euskara sustatzeko laguntzak” aurrekontu-lerroaren kargura kudeatu ere. Kontzeptu hori dela eta eginiko gastuak honako bilaka-

era izan du azken urteetan:

| Ikasturtea | Onartutako eskariak | Kostua |
|---|---|---|
| 1991-92 | 185 | 12.000.000 PTA |
| 1994-95 | 313 | 16.921.404 PTA |
| 1998-99 | 310 | 25.166.785 PTA |

## Ikastetxeak. Euskararen eta euskarazko matrikula eta irakasleak

| | 1990/91 ikasturtea | | 19991/92 ikasturtea | | 1992/93 ikasturtea | | 1993/94 ikasturtea | | 1994/95 ikasturtea | | 1995/96 ikasturtea | | 1996/97 ikasturtea | | 1997/98 ikasturtea | | 1998/99 ikasturtea | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Publikoa** | **Pribatua** | **Publikoa** | **Pribatua** | **Publikoa** | **Pribatua** | **Publikoa** | **Pribatua** | **Publikoa** | **Pribatua** | **Publikoa** | **Pribatua** | **Publikoa** | **Pribatua** | **Publikoa** | **Pribatua** | **Publikoa** | **Pribatua** |
| **Eskolaurrea eta Haur Hez. 2.. zikloa** | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| **(1) Ikastetxe kopurua** A ered | | | 31 | 5 | | | | | | | 61 | 6 | | | 72 | 11 | 73 | 12 |
| D ered. | | | 70 | 12 | | | | | | | 71 | 12 | | | 68 | 11 | 68 | 12 |
| **Matrikula** A ered | 1038 | 290 | 1283 | 265 | 1597 | 367 | 1688 | 400 | 1758 | 366 | 2111 | 355 | 2467 | 597 | 2.853 | 742 | 3100 | 789 |
| B ered. | 37 | 36 | 32 | 48 | 41 | 25 | 41 | 27 | 33 | 24 | 29 | 22 | 26 | 25 | 14 | 25 | 12 | 23 |
| D ered. | 1734 | 1372 | 1784 | 1112 | 1827 | 1139 | 1872 | 1193 | 1980 | 1202 | 2125 | 1135 | 2294 | 1083 | 2.483 | 1.071 | 2.660 | 1057 |
| **OHO/ Lehen Hezkuntza** | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| **(1) Ikastetxe kopurua** A ered | | | 31 | 5 | | | | | | | 61 | 6 | | | 72 | 11 | 73 | 12 |
| D ered. | | | 70 | 12 | | | | | | | 71 | 12 | | | 68 | 11 | 68 | 12 |
| **Matrikula** A ered | 3211 | 609 | 3282 | 693 | 3551 | 956 | 3475 | 1007 | 3756 | 1052 | 3325 | 791 | 3789 | 785 | 4.301 | 962 | 4800 | 1064 |
| B ered. | 85 | 26 | 104 | 24 | 114 | 34 | 130 | 45 | 95 | 55 | 92 | 64 | 77 | 64 | 69 | 61 | 54 | 55 |
| D ered. | 5752 | 3256 | 4218 | 3188 | 4364 | 3088 | 4914 | 3150 | 4619 | 3070 | 3643 | 2397 | 3678 | 2322 | 3.823 | 2.329 | 3983 | 2302 |
| **(1) irakasleak** | | | 345 | 194 | 460 | 222 | 490 | 220 | 479 | 205 | 522 | 202 | | | | | | |
| **Bigarren Hezkuntza** | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| **(1) Ikastetxe kopurua** A ered | | | | | | | | | | | 10 | 3 | | | 18 | 4 | 19 | 4 |
| D ered. | | | | | | | | | | | 23 | 5 | | | 22 | 7 | 22 | 6 |
| **Matrikula** A ered | | | | | | | | | | | 846 | 167 | 1063 | 387 | 1.587 | 449 | 1.582 | 306 |
| B ered. | | | | | | | | | | | | | 2 | | 23 | | 31 | |
| D ered. | | | | | | | | | | | 1037 | 636 | 1786 | 1076 | 2.321 | 1.406 | 2.408 | 1.412 |
| **(1) irakasleak** | | | | | 201 (2) | 32 (2) | 215 (2) | 31(2) | 223(2) | 31(2) | 306(2) | 88(2) | 1087(3) | 325(3) | 1095(3) | 331(3) | 1174(3) | 356(3) |
| **Batxilergoa / UBI** | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| **(1) Ikastetxe kopurua** A ered | | | | | | | | | | | 3 | | | | 3 | | 1 | |
| D ered. | | | 8 | 1 | | | | | | | 8 | 1 | | | 8 | 1 | 8 | 1 |
| **Matrikula** A ered | 639 | | 622 | | 605 | | 576 | | 525 | | 392 | | 257 | 19 | 135 | 135 | 303 | 93 |
| B ered. | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| D ered. | 1056 | 320 | 1235 | 340 | 1331 | 362 | 1450 | 378 | 1557 | 400 | 1506 | 447 | 1127 | 325 | 766 | 225 | 961 | 196 |
| **REM** | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| **Matrikula** A ered | | | | | | | | | | | 302 | | 144 | | 74 | | 28 | |
| B ered. | | | | | | | | | | | 28 | | 19 | | | | | |
| D ered. | | | | | | | | | | | 322 | | 200 | | 100 | | 57 | |
| **Lanbide heziketa eta REM** | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| **Ikastetxe kopurua:** A ered. | | | 2 | 2 | | | | | | | 3 | 2 | | | 3 | 5 | 1 | 3 |
| D ered. | | | 5 | | | | | | | | 5 | | | | 3 | 7 | 6 | 7 |
| **Matrícula** A ered. | 275 | 156 | 883 | 129 | 798 | 156 | 797 | 156 | 678 | 133 | 302 | 122 | 210 | 74 | 191 | | 67 | |
| D ered. | 126 | | 308 | | 347 | | 381 | | 430 | | 218 | | 199 | | 211 | | 95 | |
| **Hezkuntza Berezia** | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| **IKASLEAK, GUZTIRA** | | | | | | | | | | | | | | | | | | |

| | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A eredua | 5.163 | 1055 | 6.070 | 1087 | 6551 | 1479 | 6536 | 1563 | 6717 | 1551 | 7278 | 1435 | 7930 | 1862 | 9141 | 2288 | 9.880 | 2.252 |
| B eredua | 122 | 62 | 136 | 72 | 155 | 59 | 171 | 72 | 128 | 79 | 149 | 86 | 124 | 89 | 106 | 86 | 97 | 78 |
| D eredua | 8.668 | 4948 | 7545 | 4640 | 7869 | 4589 | 8617 | 4721 | 8586 | 4.672 | 8851 | 4615 | 9284 | 4806 | 9704 | 5031 | 10.164 | 4.967 |
| **GUZTIRA** | **13.953** | **6.065** | **13.751** | **5.799** | **14.575** | **6.127** | **15.324** | **6.356** | **15.431** | **6.302** | **16.278** | **6.136** | **17.338** | **6.757** | **18.951** | **7.405** | **20.141** | **7.297** |

*(1) Kopurua bat da Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntza/OHOko ikastetxe guztientzat.*
*(2) Kopurua bat da Bigarren Hezkuntza/Batxilergoko ikastetxe guztientzat.*
*(3) Kopurua bat da Haur/Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntza/Batxilergoko ikastetxe guztientzat.*

Ikusten da gizarte eskaerari eta ukitutako populazioaren zati handi baten banaketari doituriko ikastetxeen sare bat dagoela, behin-behinekotasunik gabea eta bere hezkuntza eskaintza sendotzeko eta bizi akademikoa normalizatzeko prozesu aurreratuan dagoena.

Irakasle elebidunen hazkunde azkarrak ezegonkortasun handia sorrarazi du plantilletan; hori, batez ere “A” ereduko irakaskuntzak ematen dituzten herrietako bigarren hezkuntzako ikastetxeetan gertatu da. Oposizioak, lehiaketak eta birziklapen jarduerak egin beharko dira ikastetxe horietan behar diren behin betiko irakasleen kopurua lortu arte.

Eredu elebidunen hazkundeak eta onarpenak zera eskatzen digute: eskaintza hobetzea eta hari ematea gizarteak eskatzen duen kalitatea eta garrantzia. Ereduen definizioaren eguneratzeari –egungo hezkuntza sistemaren egitura berriari egokituz– ekin baino lehen, ikasleek eredu ezberdinen bitartez lortzen dituzten hizkuntza gaitasunen ebaluazioa egin beharko litzateke.

"B" eredua, Nafarroako antolamenduan, murgiltze ereduaren aldaki bat da, gaztelaniaz lehen hezkuntzan ikasgai bat eta bigarren hezkuntzan bi ikasgai baizik ematen ez dituena. Aurreko ebaluazioaren arian, eredu honen inguruan dagoen nahasmendua –beste erkidego batzuetan bestelakoa baita– dela eta, geure buruari itaundu nahi diogun ea indarrean dagoen formulazioa zuzena den..

“A” ereduaren zabalpen azkarrak premiazko bihurtu du haren garapenean eta baldintzetan sakondu beharra; finkapena eta jarraipena eman behar zaio ikasturte ezberdinetan zehar planteaturiko curriculumari. Erdietsi nahi diren helburuak ez dira inolaz ere izanen beste edozein hizkuntza moderno ikastearekin lortzen direnak baino gutxiago. Homologazio ahalegin horretan urrutiko hezkuntzaren baliabideei ere etekina ateratzen ahalko zaie, beste kasu batzuetan egiten den bezala.

Proposatzen duguna da “G” eta “A” ereduak irakasten diren eskola unitateetan antzeman izan ditugun desorekak aztertzea eta haiei konponbidea ematea.

Gure gomendioa da Administrazioak esku hartzea irakaskuntza hauetan testuetan, material didaktikoetan, adibideetan eta abarretan dagoen eskasiari aurre egin ahal izateko.

(11. boto partikularra, STEE-EILASena; 12.a, CC.OO.rena; 13.a, HERRIKOArena).

## 5.2. *Irakasleek euskara ikasteko jarduerak:* birziklapen*a eta beste.*

**Sarrera.**

Irakasleek euskara ikasteko jarduerak bi eratakoak izaten dira: oinarrizko prestakuntzako ikastaroak eta hizkuntzan sakontzeko ikastaroak.

### 5.2.1. Oinarrizko prestakuntzako ikastaroak.

Oinarrizko prestakuntza ikastaroen bitartez irakasleak gaitu nahi dira euskaraz irakasteko moduan egon daitezen. Lanetik erabat liberatuta egiteko ikastaro trinkoak eskaintzen dira, alde batetik; bestetik, ikastaro estentsiboak ere egoten dira, lanetik liberatu gabe. Banakako dirulaguntzak ere ematen dira euskara ikasteko zentro pribatuetan matrikulatzen diren irakasleentzat.

#### 5.2.1.1. Birziklapena (A, B eta C modalitateak).

Irakasle lanetatik guztiz liberaturik egiteko diren ikastaroen artean (“birziklapena”), bi modalitate bereizten ditugu: B eta C.

**B modalitateak** irakasleei euskaraz irakatsi ahal izateko behar duten gaitasuna eman nahi die. Hasierako maila bat eskatzen du (6. urratsa edo Hizkuntza Eskolako 3. maila). Modalitate horretara sar daitezke era guztietako ikastetxeetako langileak. Urtebeteko ikastaroak izaten dira (pertsona edo talde batzuekin 16 hilabetetara ere zabaldu izan da): barnetegi batekin hasten dira (abuztuan) eskualde euskalduneko herri batean (gaur egun Leitzan egiten da).

**C modalitateak** gaitasun hori finkatu eta EGA titulua (euskaraz irakasteko beharrezkoa den titulazioa) lortzeko prestakuntza eman nahi die behin-behineko kreditazio (IGA) bat baizik ez duten irakasleei. 5 hilabeteko ikastaroak izaten dira, eta horregatik bi txandatan antolatu ohi dira ikasturte bakoitzean (irailetik urtarrilera lehenbizikoa eta otsailetik ekainera bigarrena).

1997/98 ikasturtera bitartean, hori barne, **A modalitatea** ere bazegoen. “Atalase Maila” esaten zitzaion, eta oinarrizko komunikazio ahalmen bat edo “atalase maila” eskuratzeko balio zuen, euskaraz hitz egiten ikasteko ikastetxe barreneko harremanetan. Haren hartzaileak ikastetxe elebidunetan (B edo D ereduak) behin betiko destinoa zuten irakasleak izaten ziren. Urtebeteko ikastaroak ziren. Modalitate honetan parte hartzen zuten irakasleak gero euskara ikasteko prozesua bukatzen behartzen ahalko ziren, haien zerbitzuak behar baziren. Birziklapenean jarraitzea ere eskatzen ahal zuten, hain zuzen ere B modalitatearen bitartez.

B eta C modalitateetako ikastaroetan parte hartzen duten langileek konpromisoa hartzen dute gutxienez bost urtez elebidun bezala definituriko ikastetxe edo lanpostuetan lan egiteko.

Ikastaro hauek Irakasleendako Birziklapen Ikastegian (I.B.I.) ematen dira.

#### 5.2.1.2. Talde estentsiboak: ikastetxeetako taldeak eta banakako laguntzak.

**“Taldeko ikastaro estentsiboak”** ikastetxean bertan egin daitezke –edo, bestela, inguruko ikastetxeetako maila bereko irakasleak bilduz–, baldin eta hasierako antzeko maila duten 5 eta

15 pertsona bitarteko talde bat osatzen bada. Hasiera batean, irakaskuntza gastuak diruz laguntzen ziren; azken bi ikasturte hauetan, Irakasleendako Birziklapen Ikastegiaren (I.B.I.) menpeko irakasleek ematen dituzte eskola horiek.

**Dirulaguntzak** ere eskaintzen dira euskara irakasteko entitateek (euskaltegiak) antolaturiko euskara ikasteko ikastaro estentsiboetan parte hartzen dutenentzat.

Bi modalitate hauen bitartez irakasleak "birziklapen" ikastaroetan sartzea erraztu nahi dute, edo, bestela, hizkuntza horretan irakasleek duten prestakuntza hobetu.

### 5.2.2. Hizkuntzan Trebatzeko Ikastaroak eta Etengabeko Prestakuntza.

Irakasleen trebatze ikastaroak era ez-sistematikoan eman ziren 1980/81 ikasturtetik aurrera, kanpoko adituek emaniko trebatze pedagogikoko ikastaroen bitartez. 1988/89 ikasturtean modu erregularrean hasi zen Euskarazko I. Jardunaldi Pedagogikoak eta 7 trebakuntza ikastaro antolatzearekin.
1989/90 plan zabalago bat egin zen, II. Jardunaldi Pedagogikoak antolatzearekin batera, eta trebakuntza plan bat egin zen: hizkuntza jarduerak eta eguneratze eta prestakuntza pedagogikoko jarduerak bereizi ziren.

#### 5.2.2.1.- Hizkuntzan Trebatzeko Ikastaroak.-

1989/90 ikasturtean EGA prestatzeko ikastaroak eta Sakontze ikastaroak hasi ziren. 1990/91 ikasturtean, gainera, Itzulpen eta Hobekuntza ikastaroak eskaini ziren. 1991/92 ikasturtean, tokian tokiko hizketari aplikaturiko dialektologia ikastaroak (Zubia) eta ahozko praktikako ikastaroak (Mintza) erantsi ziren. 1993/94 ikasturtean, ikastetxeetan, Literatura, Poesia eta Egungo Narratzaileak ikastaroak sortu ziren, bai eta eguneratze gramatikaleko ikastaroak sortu ziren. 1994/95 ikasturtean, IGA prestatzeko ikastaroak eta Hitano ikastaroak hasi ziren. 1996/97 ikasturtean Haur Hizkerako ikastaroak eman ziren. 1998/99 ikasturtean Ipuin Kontaketako ikastaroak hasi ziren.
Hona 1998/99 ikasturterako egin zen eskaintza:

* Oinarrizko ikastaroak: EGA ziurtagiria eta IGA ziurtagiria lortzeko prestakuntza ikastaroak.
* Trebakuntza ikastaroak: Sakontze Gramatikala, Eguneratze Gramatikala eta Itzulpena.
* Berariazko ikastaroak: Tokian Tokiko Euskara, Euskal Dialektologia Nafarroan eta Hitanoa.
* Ikastaro berriak: Haur Hizkera eta Oratoria.

1998-99 ikasturtean zehar, 280 irakaslek hartu dute parte hizkuntza trebakuntzako ikastaroetan; horietatik 229 ziurtagiria lortu zuten. 32 taldetan banatu ziren (40 ordu inguru bakoitzean). Birziklapen Ikastegiko irakasleek eman zituzten ikastaroak.

### 5.2.2.2.- Trebakuntza Pedagogikoko Ikastaroak.-

Zerbitzuko teknikariek edo gonbidatutako adituek ematen dituzte. Tipologia zabala izan dute azken urte hauetan.
**Moduluak**: Nola landu hitzezko komunikazioa ikasgelan. Irakurriaren ulermena. Testugintza. Hizkuntza bat nola irakatsi eta nola ikasi proiektuen bitartez.
**Ikastaroak**: Haurrak irakurtzen zaletu. Murgiltze programetako programaziorako proposamenak. Psikomotrizitatea eta musika.
**Lantegiak**: Dramatizazioa euskararen irakaskuntzan. Euskara lantzeko proiektuak.

1998-99 ikasturtean zehar, 90 irakaslek hartu dute parte trebakuntza didaktikoko ikastaroetan, iraupen ezberdineko 5 jardueretan (12 eta 30 ordu bitarte, ikastaroaren arabera).

Zenbakizko laburpena:

| **Intensivos** | **83/84** | **84/85** | **85/86** | **86/87** | **87/88** | **88/89** | **89/90** | **90/91** | **91/92** | **92/93** | **93/94** | **94/95** | **95/96** | **96/97** | **97/98** | **98/99** | **99/00** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | | | | | | | | | 15 | 17 | 15 | 8 | 14 | 19 | 7 | - | - | 95 |
| B | 49 | 36 | 18 | 41 | 46 | 36 | 24 | 13 | 34 | 33 | 17 | 25 | 14 | 19 | 18 | 15 | 15 | 453 |
| C | | | | | | | | | | | | | | | 14 | 24 | 21 | 59 |
| **Guztira:** | **49** | **36** | **18** | **41** | **46** | **36** | **24** | **13** | **49** | **50** | **32** | **33** | **28** | **38** | **39** | **39** | **36** | **607** |

| | | | | **86/87** | **87/88** | **88/89** | **89/90** | **90/91** | **91/92** | **92/93** | **93/94** | **94/95** | **95/96** | **96/97** | **97/98** | **98/99** | **99/00** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| grupos | | | | 148 | 153 | 197 | 86 | 123 | 71 | 66 | 43 | 36 | 0 | 0 | 20 | 35 | | |
| Individuales | | | | 39 | 53 | 46 | 45 | 34 | 48 | 48 | 21 | 22 | 17 | 15 | 46 | 32 | | |
| | | | | **187** | **206** | **243** | **131** | **157** | **119** | **114** | **64** | **58** | **17** | **15** | **66** | **67** | | |

Irakasleak trebatzeko programa garrantzitsu honek normalizazio maila altua erdietsi duela dirudi. Hasitako bidean jarraitzeko gonbitea egiten dugu, bai eta birziklapen bide berriak aztertzeko ere, hain zuzen ere hizkuntzaren eguneratzean antzeman diren beharrei erantzuna eman ahal izateko, bereziki lanean ari diren irakasle elebidunentzat, bai eta berriki “A” eredua ezarri duten ikastetxeetan destinoa duten irakasleen euskarazko oinarrizko prestakuntza izan dezaten ere, matrikularen bilakaerari jarraituz plantillan antzeman daitezkeen beharren plangintzari loturik.

Eskola Kontseilu honek hauxe proposatzen du: lanetik guztiz liberaturik birziklapenean ari diren irakasleen ahaleginari etekina ateratzeko, behin prestakuntza aldia bukatu ondoren, euskaraz irakasteko betebeharra 10 urtetara zabaltzea.

### 5.3.- Euskararen eta euskarazko irakaskuntza bultzatzeko jarduerak.

Helburu gisa hizkuntzaren erregistro ezberdinen ezagupena eta erabilera aberastea duten jarduera multzo bat da; horren bitartez, hizkuntzaren ikastea eta erabilera finkatu nahi da, ikaslearen komunikazio-ahalmena sendotuz, hain zuzen ere komunikaziorako tresna pertsonalizatua eta funtzionala izan dadin.

Eskuhartzeen plangintzak eskasenak diren esperientzia eremuak indartu nahi dira, eta garrantzia eman zaio ikasleak eredu anitzetarako gai izanen dela bermatuko duten jarduerak antolatzeari, zientifikoak eta kulturalak nahiz kolokialak. Halaber, komunikazio-egoera ezberdinak ezagutzea eta haietan eskuraturiko erregistro ezberdinak erabiltzea bultzatu nahi dira.

Jarduera hauek osagarriak eta eskolaz kanpokoak dira, eta eskola ordutegian nahiz ordutegiz kanpo egiten dira. Halaber, Euskara Zerbitzuak laguntza ematen du eta dei egiten du hainbat lehiaketatarako, euskara kultura transmititzeko hizkuntza izan dadin sustatu eta bultzatzeko.

Hona jarduketa hauei aplikatu behar zaizkien arauak:
- Abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea, euskarari buruzkoa.
- Maiatzaren 19ko 159/1988 Foru Dekretua, euskara unibertsitatez besteko irakaskuntzan sartu eta erabiltzea arautzen duena.
- Apirilaren 13ko 85/1989 Foru Dekretua, euskararen irakaskuntza sustatu eta garatzeko dirulaguntzak ematea arautzen duena.

Jarduera hauek ondoko aurrekontu lerroen bitartez finantzatzen dira:

| | 1991-92 | 1992-93 | 1993-94 | 1994-95 | 1995-96 | 1996-97 | 1997-98 | 1998-99 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Euskara sustatzea (1) | 60.000.000 | 62.000.000 | 56.000.000 | 17.000.000 | 16.400.000 | 26.882.000 | 26.800.000 | 27.400.000 |
| Euskara sustatzeko dirulaguntzak (2) | | | | 39.000.000 | 42.125.000 | 42.125.000 | 30.000.000 | 30.600.000 |
| Ikastetxeentzako dirulaguntzak euskara eskolak antolatzeko | 15.150.000 | 13.000.000 | 13.000.000 | 10.000.000 | 22.500.000 | 22.860.000 | | |
| Euskararen erabilera sustatzeko heziketa jarduerak (egonaldiak). | | | | | | | 20.600.000 | 21.000.000 |

Halaber, atal honi dagokionez, Euskara Zerbitzuak bestelako jarduketa-lerro batzuk ditu.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Euskarazko eskola materiala sustatzea eta erostea (3) | | 10.000.000 | 10.000.000 | 10.000.000 | 10.000.000 | 10.160.000 | 9.100.000 | 9.100.000 |
| Eskolentzako dirulaguntzak, eskola materiala erosteko (4). | 37.730.000 | 21.500.000 | 10.000.000 | 7.000.000 | 10.000.000 | 10.360.000 | 15.100.000 | 15.100.000 |

(1) Jarduera propioak dira.

(2) Jarduerak egiteko hirugarrenei ematen zaizkien dirulaguntzak dira. Lerro honetan, hizkuntza aukera dela eta lekuz aldatu behar diren ikasleentzako bekak ere sartzen dira; haien zenbatekoa arestian aipatu dugu.

(3) 1991n, programa honetan sistematizatu egin ziren euskarazko material didaktikoa sortu, itzuli eta argitaratzeko irakasleen taldeei eta argitaletxeei ematen zitzaizkien laguntza puntualak. Helburua zen euskarazko irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko behar diren materialak sortu edo/eta eskuratzea; izan ere, merkatuko arrazoiengatik, zenbait arlo eta jardueratan ez baitaude euskarazko irakaskuntzarako behar diren materialak.

(4) Ikastetxeetan euskarazko lerro berriak jartzeko laguntzak. Euskararen edo euskarazko ereduren batean hasten diren ikastetxeei behar diren hezkuntza materialak emateko laguntzak dira. Guztira, 1 14.985.000 PTA eman zitzaien DBH eta LDBHko irakaskuntzen erreforma aplikatzen dituzten ikastetxeei; gainerakoa, euskararen edo euskarazko irakaskuntza lehen aldiz ezartzen duten Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeentzat izan zen. Guztira, 67 ikastetxek jaso zuten laguntzarik.

## 5.3.1. Jarduera osagarriak:

### 5.3.1.1. Hizkuntza aniztasuna sustatzea:

1996/97 ikasturtean programa honek ordutegi osagarriko eskolaz kanpoko euskarazko klaseei buruzko programa ordeztu zuen.

Ordutegi osagarriko eskolaz kanpoko euskarazko klaseei buruzko programa 1985/86 ikasturtean hasi zen, ikastetxe publiko eta pribatuetan eskolaz kanpoko orduetan antolatzen ziren klaseen eskakizunari erantzuna emateko. Ikastetxeei eta ikasleen gurasoen elkarteei dirulaguntzak ematen zitzaizkien eskola orduez kanpoko euskarazko klaseak ordaintzeko, bai ikastetxeak "A" eredua ezartzea aztertzen ari zelako, bai "A" eredua jartzeko adina ikasle ez zegoelako. 1986an Euskarari buruzko Legea eta hura garatzeko 1988ko foru dekretuak onestearekin, uste izan zen berme nahikoak zeudela euskara eskola orduetan sartzeko; hori dela eta, aldi baterako epe bat jarri zen, 1995/96 ikasturtera arte.

Euskararen Erabilera sustatzeko Prestakuntza Jardueren Programak, aurrekoaren ordez ezarri dena, euskararen erabilera du helburu; horretarako, astebeteko egonaldiak antolatzen dira Nafarroako eskualde euskalduneko aterpetxe batean. Batez ere giro erdaldunean bizi diren ikasleei zuzenduta dago, hain zuzen ere hizkuntzaren erabilera ez-formala bermatzeko testuinguru sozialik ez dutelako. Jarduera antolatzeko, zerbitzuen kontratu bat egiten da enpresa batekin –enpresak begiraleak jartzen ditu eta bere lan plangintza aurkeztu behar du–. Bi aldi bereizten dira: batak ikasturtea hartzen du –talde-ikasgela bat bere tutorearekin joaten da egonaldi horretara–; bestea udako ikastaro bat da –izen ematea bakoitzak egiten du; "A" ereduko ikasleei zuzenduta dago. 1996/97 ikasturtean Uitzin antolatu ziren egonaldi horiek. Hurrengo bi ikasturteetan, berriz, Arantzan.

1998-99 ikasturtean, 27 talde pasatu dira ikasturteko egonaldietatik; guztira, 721 ikasle izan dira. Udako egonaldietan, berriz, 9 txanda izan dira (euskara ikasgai gisa duten ikasleentzako udalekuak); 450 ikasle izan dira horietan. Programa, beraz, 1.171 ikasle hartu ditu guztira.

Hona jarduera hauetan egindako gastua:

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ikastetxeentzako dirulaguntzak euskara eskolak antolatzeko | 15.150.000 | 13.000.000 | 13.000.000 | 10.000.000 | 22.500.000 | 22.860.000 | | |
| Euskararen erabilera sustatzeko heziketa jarduerak (egonaldiak). | | | | | | | 20.600.000 | 21.000.000 |

### 5.3.1.2. Hitzaldi zientifikoak.

1996-97 ikasturtean, Zerbitzuak lankidetza hitzarmen bat sinatu zuen Elhuyar Fundazioarekin bigarren hezkuntzako ikastetxeetan hitzaldi zientifiko-teknikoak emateko. Helburu bikoitza zuen horrek: alde batetik, kultur zientifikoa hedatzea ikasleen artean, gaurkotasun zientifikoko gaiak euskaraz aztertuz –era horretara, gainera, euskararen erabilera teknikoa balioesten zen–; bestetik, irakasleak eguneraturik egoteko ere baliagarriak ziren hitzaldiak.
1996/97 ikasturtean 45 hitzaldi eman ziren.
1997/98 ikasturtean 55 hitzaldi eman ziren.
1998/99 ikasturtean 50 hitzaldi eman ziren.

#### 5.3.1.3. Idazleak eskolan.

Halaber, "idazleak eskolan" izeneko programa ere egiten da; haren bitartez,, egungo idazle batzuk ikastetxeetara etorri eta esperientzien trukea egiten dute idazleekin. Beren obrak, teknikak, bizipenak eta abar azaldu eta lan batzuk proposatzen dizkiete ikasleei. Aldez aurretik, ikasleek irakasleak zuzendutako lan bat egin dute idazleari buruz, eta idazleak hautatu duen testuaren gaineko kritika bat prestatu dute. 1998/99 ikasturtean 25 ikastetxek hartu dute parte programa honetan.

#### 5.3.1.4. Ahozko hizkuntza sustatzea - bertsolaritza.

Euskararen ahozko hizkuntza propio eta jatorrizko hau sustatzeko jarduerak, hainbat ekitaldiren bitartez. Horietako nagusiena da bertsolari bat kontratatzea (3.400.000 PTA), irakasleak prestatzeko modalitate honen irakaskuntzan, eta jarduketa koordinatuak egin ditzaten ikasleekin bertsolaritza ezagutzera emateko eta erabiltzen ikasteko.

### 5.3.2. Eskolaz kanpoko jarduerak:

#### 5.3.2.1. "Euskara Eskolan"

"Euskara Eskolan" kanpainak hizkuntzaren arloko eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen ditu ikastetxeetan, batez ere "A" eredukoetan. antzerkia, txotxongiloak, animazio jarduerak, musika komentatua, bertako kirola... Horren helburua da euskararen erabilera sustatzea eskolaren eremuan. Azken kanpainan, guztira, 113 jarduera egin ziren.

Kanpaina honen barruan, ikasleen adinari didaktikoki egokituriko jarduerak antolatzen dira. Helburua dute, ikasgelako lanaren luzapena baitira, euskararen erabilerarako testuingurua areagotzea. Hona jarraitzen den prozesua: jarduerarekin lanean ari den taldea harremanetan jartzen da irakasleekin eta egin behar den jarduerarekin zerikusia duen material didaktikoa bidaltzen dio; horrela, ardura hori hartu duen irakasleak hura garatu baino lehen lanean hasteko aukera izanen du.

Euskara Zerbitzuak talde bakoitzari eta bere jarduerari buruzko fitxa bat du. Hartan, ondoko datuak azaltzen dira:
1) jarduera mota,
2) nori zuzenduta dagoen,
3) taldeak elkarrizketa bat sortzen ote duen ikasleekin eta
4) jarduera egin eta gero elkarreraginik ote dagoen taldearen eta ikasleen artean.

Irakasle arduradunak txosten bat bidaliko dio Euskara Zerbitzuari jardueraren garapenari buruz, eta ikasleen arreta harrapatu duen eta ikasleentzako egokia izan den azaldu beharko du.

Haur eta lehen hezkuntzako ikasleekin gehien egiten diren jarduerak txotxongiloak, pailazoak, magoak, haurrentzako antzerkia eta beste izaten dira.

Eskolaz kanpoko beste jardueren artean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleekin, honako hauek egin dira:
a) "Irratia ikasgelan ", bereziki praktikoa.
b) "Kultura eta kirola ", kirol metodo tradizionalak erakusteko
c) "Kontu kontari lantegia ": Hitzezko komunikazioa eta pentsamendu logikoa lantzeko.

d) Antzerkia, ikasleen adinaren araberako antzerki-lanak eginez.
e) Ikus-entzunezkoen proiekzioak, kultur edo zientzia gaiei buruzkoak.
f) Zaborra birziklatzeari buruzko birziklapen lantegiak.
g) Zinema eskolan.
h) Musika eta erritmoa Garirekin. Rock taldeei buruzko bideo proiekzioa eta kantaldia. Musikaren munduaren garrantziari buruzko azalpenak (maketak, disko etxeak, kontzertuak eta abar) eta kontzertu txiki bat.
i) Nafarroako natura. Diapositibak eta azalpena.
j) Zinema irudiak-Irudi biziak. Baloreen hezkuntzari buruzkoak.

Batxilergoko ikasleentzako jarduerak antzerki lanak izan dira.

#### 5.3.2.2. "Bertso-Eskola"

"Bertso-Eskoletarako" dirulaguntzen deialdia. Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleei zuzenduta daude. Eskolaz kanpoko orduetan ematen dira, eta modalitate hori praktikan jartzea dute helburu. Azken deialdietan, 8 ikastetxek hartu dute parte.

### <u>5.3.3. Lehiaketak:</u>

#### 5.3.3.1. Literatura, Antzerkia, Dialektologia eta Etnologia.

Literatura Lehiaketak (narrazioa, ipuin eta poesia modalitateak), Antzerkia (antzerki gidoiak eta dramatizazioa) eta Dialektologia eta Etnologia, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako mailetan. Literatura lehiaketetan 721 ikaslek aurkeztu zituzten beren lanak; horietatik 9 dialektologia eta etnologia lanak izan ziren; 23 taldek hartu zuten parte antzerki jardueretan.

Literatura modalitate ezberdinetan saritutako lanak eta antzerki gidoiak liburu batean argitaratzen dira. Aurten bilduma-liburu horren hirugarren alea, "Lenarriak 3", argitaratu da. Bertan, bi ikasturtetan saritutako lanak biltzen dira.
Antzerki taldeen kasuan, antzerkirako azpiegituretarako dirulaguntzak ematen dira. Gainera, antzerki lan guztiak grabatu dira, gero ikastetxeetan banatzeko.

#### 5.3.3.2. Irakurketa eta Deklamazioa.

"Pedro Diez de Ulzurrun" Euskarazko Irakurketa eta Deklamazio lehiaketa, Lehen Hezkuntzako 3. zikloko eta DBHko 1. zikloko ikasleei zuzenduta. 8 taldek edo gelak hartu dute parte.

#### 5.3.3.3. Bertsolaritza

Ikasturtearen bukaeran, Nafarroako Bertsolarien Elkartearen laguntzarekin, bertsolaritza lehiaketa bat egiten da "Bertso Eskola" programan parte hartu duten ikasleekin. Lehiaketa hori, lehenbizi, eskualdeka egiten da; azkenik, final batean, Lehen Hezkuntzako 3. zikloko ikasleek, DBHko ikasleek eta LDBHko ikasleek hartuko dute parte. Urteko 2.200.000 pezetako kostua du.

#### 5.3.3.4. Euskara kantuan.

Haur Kantu Txapelketa erakundearekin batera, euskarazko kantu txapelketak egin dira.

600.000 pezetako dirulaguntza eman da horretarako.

**JARDUKETA AIPAGARRIENEI BURUZKO TAULAK:**
**JARDUERA OSAGARRIAK**

| Aurrekontua | 1991-92 | 1992-93 | 1993-94 | 1994-95 | 1995-96 | 1996-97 | 1997-98 | 1998-99 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Euskal idazleak eskoletan | 5700000 | 400.000 | 630.000 | 630.000 | 450.000 | | 1050000 | 1500000 |
| Bertsolaritza | | 5850000 | 2000000 | | 3400000 | 3400000 | 3400000 | 3400000 |

**ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK**

| Aurrekontua | 1991-92 | 1992-93 | 1993-94 | 1994-95 | 1995-96 | 1996-97 | 1997-98 | 1998-99 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Eskolan jarduerak antolatzeko laguntzak | | 2200000 | 11312938 | 11312938 | 11000000 | 13500000 | 11000000 | 11200000 |
| Bertso eskolaka | | | 1284000 | 1284000 | 1284000 | 1284000 | 1284000 | 1500000 |

LEHIAKETAK:

| Aurrekontua | 1991-92 | 1992-93 | 1993-94 | 1994-95 | 1995-96 | 1996-97 | 1997-98 | 1998-99 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Kili Kili lehiaketa (partehartzaileak eta aurrekontua) | 3.900<br>2.300.000 | 3.900<br>2.300.000 | 3.500<br>2.295.168 | 3.500<br>2.295.168 | | | | |
| Oporretan koadernoak (partehartzaileak eta aurrekontua) | 1.400<br>800.000 | 1.400<br>700.000 | 1.634<br>235.000 | 1.634<br>235.000 | | | | |
| Literatura (aurkeztutako lanak) | 200 | 611 | 711 | 711 | 553 | 700 | 700 | 721 |
| Antzerkia (atzerki lanak.) | | | | | | | | |
| Dialektologia eta Etnologia (lanak) | 7 | 7 | 7 | 7 | 10 | 18 | 18 | 23 |
| Irakurmena eta Deklamazioa (grabaketak) | | | | | 18 | 10 | 10 | 12 |
| | | | | | 7 | 10 | 8 | 12 |
| Lehiaketen aurrekontua, guztira | 1.100.000 | 3.645.000 | 3.770.000 | 3.770.000 | 4925000 | 5575000 | 5575000 | 4325000 |

Banaketa handia antzeman daiteke jardueretan, bai plangintzan eta bai kudeaketan ere.

Eskola Kontseilu honek uste du aldez aurretik zehaztutako hezkuntza helburuak lortzeko bidean jarduera gehiago kontzentratzeko, euskara sustatzeko eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak ikastetxeetako Urteko Programazio Orokorrean sartu beharko liratekeela.

Nafarroako Eskola Kontseiluak hauxe proposatzen du: jarduera osagarri eta eskolaz kanpoko jarduera hauek Nafarroako ikastetxe guztientzat egun indarra duen marko orokorraren barruan egitea. Aurrekontuetan horretarako jarritako zenbatekoak kontusail orokorreko zuzkidurari gehitu beharko zaizkio.

### *5.4. Helduentzako euskara irakaskuntzaren bilakaera.*

Hezkuntza Departamentuko Euskara Zerbitzuak Miluze Euskaltegia kudeatzen du. Ikastegi hori helduei euskara irakasteko lanetan aritzen da. 23 irakasle finko ari dira horretan, eta horiez gainera aldi baterako 8 irakasle daude.

Ikasturtea bitan banatuta dago: lehenbiziko aldia urritik otsailera bitartekoa da eta bigarrena otsailetik ekainera bitartekoa. Miluze Euskaltegiko matrikulak ondoko bilakaera izan du 1991-92 ikasturtetik hona, arestian aipaturiko bi aldietan zatiturik.

| **91-92** | | **92-93** | | **93-94** | | **94-95** | | **95-96** | | **96-97** | | **97-98** | | **98-99** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **I.a** | **II.a** | **I.a** | **II.a** | **I.a** | **II.a** | **I.a** | **II.a** | **I.a** | **II.a** | **I.a** | **II.a** | **I.a** | **II.a** | **I.a** | **II.a** |
| **500** | **425** | **576** | **562** | **705** | **721** | **749** | **753** | **866** | **856** | **850** | **839** | **960** | **824** | **833** | **741** |

Euskara Zerbitzuak, gainera, Nafarroako helduentzako euskaltegientzako dirulaguntzak ere kudeatzen ditu. Hona azken urteetan dirulaguntza horiek izan duten bilakaera:

| **URTEA** | **AURREKONTUA** |
|---|---|
| 1995 | 64.700.000 |
| 1996 | 79.700.000 |
| 1997 | 97.700.000 |
| 1998 | 107.700.000 |

Entitate horiek ondoko matrikulak izan dituzte, kontuan harturik ikasturte hasierako matrikulazio datuak:

| 91-92 | 92-93 | 93-94 | 94-95 | 95-96 | 96-97 | 97-98 | 98-99 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **3200** | **3113** | **3366** | **3806** | **3607** | **3703** | **3931** | **3560** |

Euskara Zerbitzuak EGA titulua ere izapidetu du 1985 urtetik hona. Titulu hori lortzeko azterketak prestatu eta zuzentzeko lanak 1998-99 ikasturtera arte Nafarroako Hizkuntza Eskolaren esku izan dira. Ordutik hona, EGA tituluarekin zerikusia duten gai guztiak Hezkuntza Departamentuaren Euskara Zerbitzuaren eskumen esklusiboa izatera pasatu dira.

**Aldi horretan emaniko EGA tituluak:**

| 1990 | 1991 | 1992 | 1993 | 1994 | 1995 | 1996 | 1997 | 1998 | 1999 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **68** | **70** | **101** | **81** | **54** | **43** | **78** | **69** | **95** | **196** |

Zenbateko horien barrenean daude euskaraz ikasi duten maisu-maistrei ematen zaizkien tituluak. Karrera bukatzerakoan jasotzen dute ziurtagiri hori.

# 6. Hezkuntza Administrazioa.

## *6.1. Egitura orokorra.*

Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren egitura organikoa Foru Dekretu bidez zehazten da. Dekretu horren bitartez atalen maila organikora bitarteko egitura ezartzen da; gero, bulego mailara bitarte garatzen da Foru Agindu bidez. Hain zuzen ere, foru aginduen bitartez, Hezkuntza eta Kultura Departamentuko bulegoen eta unitate teknikoen atxikipena eta eginkizunak finkatuko dira.

1999ko irailera arte, Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoa irailaren 26ko 394/1996 Foru Aginduan eta abenduaren 12ko 507/1996 Foru Aginduan ezarrita zegoen. Hala eta guztiz ere, arau horiek eman eta gero, hainbat aldaketa zehatz egin zitzaizkion.

Gobernu aldaketaren ondoren, 1999ko ekainaren 13ko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeen ondorioz, irailaren 13ko 364/199 Foru Dekretua eman da. Haren bitartez, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren egitura organikoa ezarri da. Hona egitura hori:

**HEZKUNTZA ETA KULTURA DEPARTAMENTUA.** ♦ **Idazkaritza Teknikoa.**

Araubide Administratiboaren Atala.
- Administrazio Aferetarako Bulegoa.
- Erregistro Bulegoa.
- Argibide eta Agiri Bulegoa.

Aurrekontu eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala.
- Aurrekontu eta Kontabilitate Bulegoa.
- Kudeaketa Ekonomikoaren Bulegoa.

Araubide Juridikoaren Atala.
- Kudeaketa Juridiko Administratiboaren Bulegoa.

♦ **Giza Baliabideen Zerbitzua.**
- Kontrol Administratiboaren Bulegoa.
- Langileriaren Plantilla eta Aurrekontuen Kontrolerako Bulegoa.

Langileri Atala.
- Haur eta Lehen Hezkuntzako Irakasleen Bulegoa.
- Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Bulegoa.
- Lan-kontratudun eta Administrarien Bulegoa.
- Araubide Juridikoaren Bulegoa.

Nomina eta Gizarte Aseguruen Atala.
- Irakasle Funtzionarioen Nomina Bulegoa.
- Lan-kontratudun eta Administrarien Nomina Bulegoa.
- Gizarte Aseguruen Bulegoa.
- Itunpeko eta Diruz Lagundutako Ikastetxeen Nomina Bulegoa.

Laneko Arriskuei Aurrea hartzeko Atala.

- **Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia.**

♦ **Inbertsio Zerbitzua.**

Obra eta Ekipamendu Atala.
- Eraikuntza Bulegoa.
- Ekipamendu Bulegoa.

- Kontratazio Bulegoa.
- Erosketa Bulegoa.

Departamentuko Egoitzen eta Ikasketen Mantentze Lanetarako Atala.

♦ **Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzua.**

Ikasketetarako Laguntzen Atala.
- Zerbitzu Osagarrien Bulegoa.
- Beka Bulegoa.
- Hezkuntza Hedapenaren Bulegoa.

Ikastetxeen eta haien Finantzaketaren Atala.
- Ikastetxeak Baimendu eta Erregistratzeko Bulegoa.
- Hezkuntza Itunen Bulegoa.
- Ikastetxe Publikoak Finantzatzeko Bulegoa.

♦ **Ikasketen Antolamendu eta Lanbide Heziketaren Zerbitzua.**

Ikasketak Antolatzeko Atala.
- Antolamendu Bulegoa.
- Titulu, Ikasketa eta Baliozkotze Bulegoa.

Lanbide Heziketa eta Enpresaren Atala.
- Prestakuntza Lantokietan Bideratzeko Unitate Teknikoa.
- Lanbide Heziketako Irakasleen Prestakuntzaren Unitate Teknikoa.
- Europako Batasuneko Lanbide Heziketako Programen Unitate Teknikoa.

Lanbide Heziketa Berriztatu eta Garatzeko Atala.
- Lanbide Hastapenerako Programen Unitate Teknikoa.
- Lanbide Heziketako Heziketa Zikloen Unitate Teknikoa.
- Lanbide Heziketa Berriztatzeko Unitate Teknikoa.

♦ **Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua.**
- Kontrol Administratibo eta Agiritegiaren Bulegoa.
- Guraso eta Ikasleentzako Argibide eta Aholku Bulegoa.

♦ **Euskara Zerbitzua.**
- Administrazio Unitatea.
- Itzulpen Unitatea.

Euskararen Didaktika eta Sustapenaren Atala.
- Glotodidaktika Bulegoa.
- Helduak Euskalduntzeko Bulegoa.
- Euskara Sustatzeko Unitatea.

♦ **Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzua.**

Hezkuntzaren Berriztapen Atala.
- Curriculum Diseinu eta Garapenerako Unitate Teknikoa.
- Ikasliburu eta Materialen Unitate Teknikoa.
- Eskola Orientazioaren Unitate Teknikoa.
- Hezkuntza Bereziaren Unitate Teknikoa.
- Helduen Hezkuntzaren eta Osabidezkoaren Unitate Teknikoa.

Irakasleen Hobekuntzako Atala.
- Irakasleentzako Laguntza Zentroen Unitate Teknikoa.
- Prestakuntza Programetarako Unitate Teknikoa.

♦ **Araubide Bereziko Irakaskuntzaren eta Teknologia Berrien Zerbitzua.**

Araubide Bereziko Irakaskuntzaren eta Atzerriko Hizkuntzen Atala.
- Musika Ikasketen Unitate Teknikoa.
- Atzerriko Hizkuntzak Sustatzeko Unitate Teknikoa.
- Atzerriko Hizkuntzak Sustatzeko Unitate Teknikoa.

Informatika Atala.

• Informazioa Kudeatzeko Unitate Teknikoa.
• Estatistikako Unitate Teknikoa.
• Hezkuntzari Aplikatutako Teknologia Berrien Unitate Teknikoa.

Ondotik, lauki batez adierazi ditugu Hezkuntza eta Kultura Departamentuko unitate organikoen kopuruan egindako aldaketak adierazi ditugu, kontuan harturik egungo egituran izan diren aldaketak ez dira soilik unitate berriak sortzea; zenbait unitatek izena edo/eta atxikipena ere aldatu dute..

| **ZZ.NN.** | | **Zerbitzuak** | | | **Atalak** | | **Bulegoak** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1996** | **1999** | | **1996[1]** | **1999** | **1996** | **1999** | **1996** | **1999** |
| 3 | 3 | Idazkaritza Teknikoa | 1 | 1 | 3 | 3 | 7 | 6 |
| | | Giza Baliabideak | 1 | 1 | 3 | 3 | 9 | 10 |
| | | Inbertsioak | 1 | 1 | 2 | 2 | 4 | 4 |
| | | Ikastetxeak eta ikasteko laguntzak | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 | 5 |
| | | Ikasketen Antolamendua eta LH | 1 | 1 | 4 | 3 | 9 | 8 |
| | | Ikuskatzailetza | 1 | 1 | - | - | 1 | 2 |
| | | Euskara | 1 | 1 | - | 1 | 5 | 5 |
| | | Berrikuntza | 1 | 1 | 3 | 2 | 10 | 6 |
| | | Araubide Berezia eta TT.NN. | - | 1 | - | 2 | - | 6 |
| **3** | **3** | **GUZTIRA** | **8** | **9** | **17** | **18** | **48** | **52** |

1 Se hace referencia en esta columna a las unidades orgánicas definidas por la Orden Foral 394/1996 y Orden Foral 507/1996, así como a las que derivan de modificaciones posteriores hasta la actual estructura aprobada por Orden Foral 507/1999, de 13 de septiembre.

### 6.2. Hezkuntza ikuskatzailetza.

Hezkuntza Sistema Orokorra Antolatzeari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren 61. artikuluak ezarri zuen hezkuntza administrazioek

Hezkuntza Sistema Antolatzeko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren 61. artikuluak ezarri zuen hezkuntza administrazioek ikuskatzailetza eginkizuna izanen dutela, legeak betetzen direla bermatzeko eta hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzeko; horretarako eginkizun orokor batzuk emanen zaizkie.

Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, ikuskatzailetza eginkizun hori Ikuskapen Teknikorako eta Zerbitzuen Ikuskatzeko Zerbitzuari esleitu zaio; zerbitzu horren antolamendua eta funtzionamendua ekainaren 8ko 210/1992 Foru Dekretuan ezarri zen (ekainaren 22ko 75. N.A.O.).

Ikastetxeetako Partehartze, Gobernu eta Ebaluazioari buruzko azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoa –haren IV. titulua Hezkuntza Ikuskaritzari buruzkoa da– eta hura garatzeko arauak onestearekin, atzeraturik gelditu dira ikuskaritza araupetzen zituzten foru arauak; hori dela eta, beharrezkoa izan da arau berriak ematea Estatu mailako arestiko arauetara egokitu ahal izateko. Hona arau horiek sarturiko eginkizun nagusiak: Hezkuntza Ikuskaritzako eginkizunak definitzea, Hezkuntzako Ikuskatzaileen Kidegoa sortzea eta kidego horri eginkizun horiek ematea. Kidego horretara sartzeko modua ere araupetu zen, bai eta ikuskatzaileek eduki beharko duten prestakuntza ere.

Horrela, bada, egun Nafarroako Foru Komunitatearen arloko Hezkuntza Ikuskatzailetza irailaren 13ko 365/1999 Foru Dekretuak arautzen du; haren bitartez Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren Hezkuntza Ikuskatzailetzaren antolamendua eta funtzionamendua arautzen dira, eta Hezkuntza Ikuskatzaileen Kidegoko lanpostuetara sartu eta lanpostu horiek betetzeko sistema ezartzen da. Berariaz indargabeturik gelditzen da 210/1992 Foru Dekretua.

Foru Dekretuaren berrikuntza nagusiak Ikuskapen Teknikorako eta Zerbitzuak Ikuskatzeko Zerbitzuaren egituran eta lanpostuetara sartu eta lanpostuak betetzeko sisteman ageri dira.

Ikuskapen Teknikorako eta Zerbitzuak Ikuskatzeko Zerbitzuaren egiturari dagokionez, Zerbitzuaren Zuzendaritza, ikuskatzailetza barrutiak eta curriculum arloak eta lan arlo berariazkoak edukiko ditu.

Antolamendu honi jarraituz, ikuskatzaile bakoitzak atxikipen hirukoitza dauka: lehenbizi, "Ikuskapen Barrutiari". Eskualde geografiko jakin batzuk dira, funtzionaltasuna eta eskola-errealitateari egokitzea eta eskola maparen lurralde antolamendua irizpide dituztenak. Eskualde horietako bakoitzari Ikuskatzaile Koordinatzaile batek koordinatuko dituen ikuskatzaileen ekipo bat atxikiko zaio; horietako bakoitza ondokoez arduratuko da: aholkularitzaren erantzukizun zuzena, eta esleitzen zaizkion ikastetxe, programa, jarduera eta zerbitzuen ebaluazio eta kontrol lanak. Atxikipen hori, oro har, 3 eta 5 urte bitarteko eperako egiten da.

Bigarrenik, ikuskatzaileak "Curriculum arlo" bati atxikirik daude. Horiek ikuskatzaile bakoitzaren jarduketa eremu berezitua izanen dira; ondokoak edukiko ditugu: Haur eta Lehen Hezkuntza, Hezkuntza Berezia eta Eskola Orientazioa, Humanitateak eta Gizarte Zientziak; Zientziak; Filologia; eta Teknologia.

Ikuskatzaile baten hirugarren atxikipena "Lan arlo berariazko" bati dagokiona izanen da. Ondokoak ezarriko dira: ebaluazioa, legedia eta administrazio kontrola; eskola antolamendua eta baliabideen plangintza; eta eskolaratzea. Arlo hauen jatorria da Ikuskapen Teknikorako eta Zerbitzuak Ikuskatzeko Zerbitzuak bere gain hartzen duela Nafarroako Foru Komunitateak Kalitatearen eta Ebaluazioaren Nazio Institutuan parte hartzea, eta, bestaldetik, Nafarroan Estatuko Ikuskatzailetza bat ez dagoela, beste autonomi erkidegoetan dagoen bezala, hain zuzen ere Hezkuntza Ikuskatzailetzan lan egiten duten guztiei laguntza teknikoa emateko.

Bai curriculum arloetan, bai lan arlo berariazkoetan, jarduketa eremua Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde osoa da.

Irailaren 13ko 365/1999 Foru Dekretuak sartu zuen beste alderdietako bat da Ikuskatzaileen Kidegoan sartzeko eta lanpostu horiek betetzeko sistema arautzearena da. Bi alderdi horien oinarriak Ikastetxeetako Partehartze, Gobernu eta Ebaluazioari buruzko azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoak eta lege hori garatzeko xedapenek arautu zituzten. Beraz, Nafarroako derrigorrez bete beharrekoak dira, eta horren ondorioz Foru Dekretu berriak Estatuko arauek bideratzen dituzten puntuak zehaztu baizik ez du egiten.

Lanpostu horietara sartzeari dagokionez, 10 urtez goitiko esperientzia duten Irakasleen Kidegoetako funtzionarioak baizik ezin dira sartu, baldin eta doktore, lizentziatu, ingeniari edo arkitekto titulua badute. Hautapen sistema oposizio-lehiaketa da, eta ondotik praktika-aldi bat egin beharko dute.

| **Ikastaroa** | **1990/1991** | **1991/1992** | **1992/1993** | **1993/1994** | **1994/1995** | **1995/1996** | **1996/1997** | **1997/1998** | **1998/1999** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Lanpostuak | 20 | 20 | 20 | 20 | 20 | 20 | 20 | 20 | 20 |
| Betetakoak | 19 | 18 | 18 | 18 | 16 | 19 | 14 | 16 | 16 |

### *6.3. Eskola zerbitzuak.*

Espainiako Konstituzioaren 27.4 artikulua aurreikusitakoak bermatzeko –haren bitartez, oinarrizko hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa da, eta hori bai Hezkuntzarako Eskubideari buruzko uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoak eta bai Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak ere garatu zuten–, hezkuntza administrazioek doakotasun hori bermatzeko behar diren zerbitzu osagarriak eman beharko dituzte.

Zerbitzu osagarri horiek, batez ere, ikasleak ikastetxeetara joateko familiek dituzten gastuak eta garraio, jantoki eta egoitza gastuak konpentsatu beharko dituzte.

Kontuan hartu behar da Administrazioak zerbitzu horiek zuzenean edo zeharka ematen baditu ere, batzutan, gainera, LOGSEren V. tituluan xedatutakoa betez –hezkuntzako ezberdintasunak konpentsatzeari buruzkoa da hori–, dirulaguntzak ematen dizkiela ikasle batzuei zerbitzu osagarri horiek ordaindu ahal izateko.

**a) Eskoletako jantokiak.**

Nafarroako derrigorrezko hezkuntzako ikastetxe publikoetako eskoletako jantokiak zabaltzeari eta funtzionatzeari buruzko arauak uztailaren 24ko 246/1991 Foru Dekretuan (abuztuaren 21eko 104. N.A.O.) bilduta daude. Dekretu hori maiatzaren 11ko 186/1993 Foru Aginduak (maiatzaren 21ko 67. N.A.O.) garatu zuen gero.

Jantokiak eskualde batekoak nahiz arruntak izan daitezke. Lehenbizikoak dira Hezkuntza eta Kultura Departamentuak halakotzat jotakoak, hain zuzen ere eskoletara joan ahal izateko Departamentuak berak antolaturiko eskola garraioa erabili behar dituzten ikasleen beharrei erantzuteko. Horretarako, gainera, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak berak aldez aurretiko homologazioa eman beharko die jantoki horiei, baldin eta guztiz edo gehien batean ondoko ikasleak hartzen badituzte: inguruko ikastetxeetan onartu ez diren ikasleak, hautatutako hizkuntza ereduaren kariaz lekuz aldatutako ikasleak, gutxiengo etnikoetako ikasleak eta desabantailan diren sektore sozio-ekonomikoetako ikasleak. Gainerako jantokiak arruntak izanen dira.

Jantoki horien funtzionamendurako araubidea bi eratakoa izan daiteke: kudeaketa zuzena –jantokiak Administrazioak kontrataturiko sukaldeko langileak dituenean, eta ikastetxeak berak elikagaiak erosi eta jantokiaren funtzionamendua kudeatzen duenean– eta hirugarrenekin kontrataturikoa. Gaur egun, eskualdeko jantoki guztiak, eta, noski, arrunt guztiak, etxez etxeko janariak ematen dituzten enpresekin (“catering”) kontrataturikoak dira.

Oro har, eskualdeko jantokien finantzaketa ikastetxearen kargu gelditzen da, nahiz eta Administrazioak bere ekarpenak egin eta jaten gelditzen direnek ere kuota bat ordaintzen duten. Ikastetxe arruntak Gurasoen Elkarteak finantzatzen dituzte, eta jaten gelditzen direnen ekarpenekin, gurasoen elkarteen ekarpenekin eta Administrazioaren ekarpenekin finantzatuko dira.

Aipatu arauak aplikatzerakoan, Administrazioak urtero, Foru Agindu bidez, baimendutako jantokien zerrenda ezarriko du, eta ikasturte bakoitzerako tarifak eta kuotak onetsiko ditu. 1998/99 ikasturtean, Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren uztailaren 22ko 284/1998 Foru Aginduaz egin da hori. Haren bitartez, baimendutako jantokien zerrenda argitaratu eta

1998/99 ikasturterako tarifak eta kuotak onesten dira (1998ko irailaren 4ko 106. N.A.O.).

Eskualdeko jantokietan jaten gelditzen direnek egunero ordaindu beharrekoei buruz Hezkuntza Administrazioak gehienezko zenbateko bat ezarriko du; zerbitzu hori erabat doakoa izateak familiari ekarriko liokeen aurrezkia konpentsatzen saiatzen da horretan. Ondokoak izan dira gehienezko horiek:

| EGUNEKO BAIMENDUTAKO KUOTA GEHIENEZKOAK, PEZETATAN | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ikastaroa** | **91/92** | **92/93** | **93/94** | **94/95** | **95/96** | **96/97** | **97/98** | **98/99** |
| **Kuota** | 85/195 | 125 | 135 | 143 | 175 | 200 | 205 | 205 |

Zenbatekoaren gainerakoa, dena egin arte, Hezkuntza Administrazioak ordaintzen du.

| JANTOKIA DUTEN IKASTETXEAK | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ikasturtea** | **90/91** | **91/92** | **92/93** | **93/94** | **94/95** | **95/96** | **96/97** | **97/98** | **98/99** | **Bazkaltiar, dirulaguntzak** |
| **Eskualdekoak** | * | * | 38 | 39 | 39 | 44 | 50 | 45 | 43 | 3.705 |
| **Aurruntak** | * | * | 14 | 14 | 15 | 12 | 20 | 27 | 29 | 807 |
| **Banakako dirulaguntzekin** | * | * | 17 | 18 | 18 | 24 | 20 | 16 | 18 | 132 |
| **Guztira** | 64 | 69 | 69 | 71 | 72 | 80 | 90 | 88 | 90 | 4.644 |

Ikastetxeetan, Eskola Kontseiluek izan beharko lukete erabakiak hartzeko organo gorenak, Administrazioaren gainbegiradarekin eta Gurasoen Elkarteek txostena emanda. Eskola Kontseiluek hezkuntza proiektuetan eta urteko programazio orokorretan bilduko diren orientazioak bildu beharko dituzte.

Eskola garraioari dagokionez, Eskola Kontseiluak uste du komenigarria dela zerbitzu horretarako eskubidea derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzako ikasleei ere zabaltzea, eta zerbitzu horretan jartzea behar diren zaindariak; hori guztia, toki entitateen, ikastetxeen eta erabiltzaileen laguntzarekin, kontuan harturik eskualdeko ikastetxeetarako orduen koordinazioa.

(14. boto partikularra, HERRIKOArena).

| GASTUAK, PEZETATAN | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ikasturtea** | **90/91** | **91/92** | **92/93** | **93/94** | **94/95** | **95/96** | **96/97** | **97/98** | **98/99** |
| **Eskualdekoak** | * | * | 139.787.094 | 171.654.970 | 153.938.858 | 165.952.482 | 170.904288 | 165.079.487 | 169.456.182 |
| **Aurruntak** | * | * | 24.830.428 | 30.994.855 | 29.076.830 | 24.302.526 | 29.459.856 | 38.442.982 | 40.688.699 |
| **Banakako dirulaguntzekin** | * | * | 4.756.383 | 6.587.280 | 6.268.743 | 10.417.468 | 7.318.398 | 6.554.000 | 7.055.720 |
| **Guztira** | 176.140.990 | 226.889.479 | 169.373.905 | 209.228.105 | 189.284.431 | 200.672.476 | 207.682.542 | 210.076.469 | 217.200.601 |

**b) Eskola garraioa.**

Eskola garraioa Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren Foru Agindu baten bitartez arautzen da. Besteak beste, ondokoak jasoko dira: onura hori izanen duten ikasleak, zein ikaskuntzetan ari diren eta zein ikastetxetan kontuan harturik; garraio modalitateak –Hezkuntza eta Kultura Departamentuak antolatu, kudeatu eta finantzatutakoa nahiz banakako dirulaguntzen bitartezkoa izan daiteke–; dirulaguntza horien ematea; garraioari buruzko baterako plangintza egitea udalekin eta gurasoen elkarteekin; hutsik dauden postuak betetzea, hau da, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak kontratatzen eta guztiz finantzatzen dituen ibilgailuetan doazen eta doako garraioa izateko eskubidea duten ikasleek betetzen ez dituzten postuak doako garraiorako eskubiderik ez dutenek betetzea; eta eskola garraioa kudeatu eta gainbegiratzea.

1998/1999 ikasturtean, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak maiatzaren 28ko 166/1998 Foru Agindua (ekainaren 22ko 74. N.A.O.) eman zuen. Haren bidez, zenbait jarraibide onetsi ziren 1998/99 ikasturteko eskola garraioaren zerbitzuaren antolamendurako eta funtzionamendurako.

Ondotik, 1990etik hona eskola garraioaren kostuak izaniko bilakaerari buruzko datuak eskaintzen ditugu, bai eta urte horretan garraiaturiko ikasleen bilakaerari buruzko datuak ere, matrikulatuta dauden ikasketen arabera sailkaturik.

## GARRAIOA

| | 1990/91 ikasturtea | | 1991/92 ikasturtea | | 1992/93 ikasturtea | | 1993/94 ikasturtea | | 1994/95 ikasturtea | | 1995/96 ikasturtea | | 1996/97 ikasturtea | | 1997/98 ikasturtea | | 1998/99 ikasturtea | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kopurua, guztira | Kostuak | Kopurua, guztira | Kostuak | Kopurua, guztira | Kostuak | Kopurua, guztira | Kostuak | Kopurua, guztira | Kostuak | Kopurua, guztira | Kostuak | Kopu-rua, guztira | Kostuak | Kopu-rua, guztira | Kostuak | Kopu-rua, guztira | Kostuak |
| Ibilbideen kopurua | | | 114 | | 189 | | 198 | | 205 | | 229 | | 251 | | 287 | | 274 | |
| Kontratatu有 autobusen kopurua | | | 134 | | 200 | | 187 | | 203 | | 203 | | 280 | | 283 | | 268 | |
| Kontrataturiko taxien kopurua | | | 19 | | 15 | | 17 | | 19 | | 19 | | 21 | | 27 | | 39 | |
| Bestelako zerbitzu partikularren kopurua | | | 3 | | 2 | | | | | | | | | | | 987.740.854 | | |
| KOSTUA, GUZTIRA | | 447.072.600 | | 504.255.682 | | 559.579.282 | | 587.446.262 | | 653.931.444 | | 843.675.218 | | 984.450.065 | | | | 989.258.597 |

## GARRAIATUTAKO IKASLEEN KOPURUAK

| Ikasturtea | 90/91 | 91/92 | 92/93 | 93/94 | 94/95 | 95/96 | 96/97 | 97/98 | 98/99 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HH eta OHO/LH/HBko ikasleen kopuruak, guztira | - | 4..915 | 4.615 | 4.570 | - | - | - | - | - |
| HHko ikasleen kopurua, guztira | - | - | - | - | 787 | - | - | - | - |
| LHko ikasleen kopurua, guztira | - | - | - | - | 3.128 | - | - | - | - |
| OHOko ikasleen kopurua, guztira | - | - | - | - | 937 | - | - | - | - |
| HH/LHko ikasleak, guztira | - | - | - | - | - | 3.235 | - | - | - |
| HH/LH/HB/DBHko ikasleak, guztira | - | - | - | - | - | - | 8.981 | 9.607 | 9.268 |
| DBH/LH 1/REM 1/BBB 1-2ko ikaslek, guz-tira | - | - | - | - | - | 6.615 | - | - | - |
| LH 1 eta REMeko ikasleak, guztira | - | 2.066 | 2.159 | 3971 | 2.299 | - | - | - | - |
| LH II/BBB/UBIko ikasleak, guztira | - | 1.266 | 693 | - | - | - | - | - | - |
| Integrazioko ikasleak, guztira | - | 9 | 5 | - | - | - | - | - | - |
| Gutxiengo etnikoetako ikasleak, guztira | - | - | - | 25 | - | - | - | - | - |
| HIIko ikasleak, guztira. Lantegiak | - | 117 | 22 | 85 | - | - | - | | - |
| Mugiarazitako euskara ikasleak, guztira | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Beste ikastetxetara mugiarazitako ikasleak, guztira | - | - | - | 20 | - | - | - | - | - |
| Derrigorrezkoak ez diren irakaskuntzetan ari diren ikasleak, guztira | - | - | - | - | 1.910 | 1.770 | 4.497 | 2.717 | 1.998 |
| GARRAIATUTAKO IKASLEAK, GUZTIRA | - | 8.373 | 7.494 | 8.671 | 9.061 | 11.620 | 13.478 | 12.324 | 11.266 |

### c) Eskoletako egoitzak.

Zerbitzu osagarri hau, aurreko biak bezala, hasiera batean, derrigorrezko hezkuntzen doakotasuna bermatzeko ezarri zen; hala eta guztiz ere, garraiobideetan izaniko hobekuntza eta eskola garraioaren orokortzea direla eta, pixkanaka joan da murrizten, eta Lanbide Heziketako derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzak ematen dituzten zenbait ikastetxeetarako zerbitzu osagarri gisa gelditu da.

Eskola-egoitza guztiak Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpekoak badira ere –salbu eta Azkoiengoa, atxikita dagoen ikastetxean destinoa duten langile funtzionarioek kudeatzen baitute–, gainerako egoitzak (Uharte, Irunberri, Bera) erlijio entitateekin eginiko itunen bitartez kudeatzen dira. Eunate Egoitza, ikasle gor eta hipoakustikoentzakoa dena, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak kudeatzen du zuzenean.

Zerbitzu hau erabiltzaileen ekarpenekin finantzatzen da. Gehienezko prezioa Nafarroako Gobernuak ezarten du urtero (1998/99 ikasturterako, ekainaren 22ko 205/1998 Foru Dekretuan ezarri zen; uztailaren 22ko 87. N.A.O.). Horri erantsi behar zaizkio egoitzek eduki ohi dituzten bestelako dirusarrerak eta Hezkuntza eta Kulturaren diru-ekarpena. Departamentuak zerbitzuaren kostu errealaren eta ofizialki finkatutako prezioaren arteko aldea finantzatuko du.

**Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiaren menpeko egoitzak**

| IKASTURTEA | 91/92 | 92/93 | 93/94 | 94/95 | 95/96 | 96/97 | 97/98 | 98/99 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Egoitza kopurua** | | | 6 | 6 | 6 | 6 | 5 | 5 |
| **Erabiltzaileen kopurua** | | | 238 | 212 | 214 | 148 | 93 | 91 |
| **Batez besteko famili ekarpena (URTEKO TASA OFIZIALAK)** | * | * | * | * | * | 171.000 | 200.000 | 230.000 |

(*) Egoitza zerbitzuaren prezioa urte hauetan: Uharte, Leitza eta Irunberri 135.000 PTA, Bera eta Azkoien 152.000 PTA, eta Eunate Egoitza 107.000 PTA

# 7. Hezkuntzarako aurrekontuak.

## *7.1. Aurrekontuen bilakaera.*

Gure Foru Komunitateak unibertsitatez besteko irakaskuntzetan eta derrigorrezko eta derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzetan egiten duen gastua eta inbertsioa aztertu eta Nafarroako Barne Produktu Gordinarekin alderatzea baliagarri suertatu zaigu gizarte zerbitzu garrantzitsu honi buruzko ikuspegi hobea eta zabalagoa izateko.

Azterketa honetan, beste aurrerapauso bat eman daiteke: gastuaren eraginkortasuna ebaluatzea, hau da, aztertzea gastatzen dena ongi gastatzen den, eraginkortasunez eta hezkuntzarako aplikatzen diren giza baliabideei eta diru baliabideei etekin handiena atereaz gastatzen ote den. Argi dago Eskola Kontseiluak ezin diola une honetan fase horri ekin, konplexuegia delako, baina ongi dago horren garrantzia jasotzea hurrengo urteetan horretan saiatu eta gure hezkuntza komunitatea eta gure gizartea horren egokitasunari buruz sentsibilizatzeko.

1991tik hona –Nafarroako hezkuntza arloko eskumen osoak izan zituen lehenbiziko urtea, 1990eko irailaren 1ean eskuratu baitzituen–, unibertsitatez besteko ikaskuntzetako gastua 33.861.714.000 PTAkoa izatetik 49.465.851.000 PTAkoa izatera pasa da; hau da, hamar urtetan % 46,08ko hazkundea izan du.

Gastua kapitulu ekonomikoka azalduz gero, 1991tik 1999ra ondokoa gertatu dela ikus dezakegu:

- Langileen kopuruak % 74,19 egin du gora.
- Gastu arruntek (funtzionamendua) % 74,8 egin dute gora.
- Transferentziek (dirulaguntzak) % 44,6 egin dute gora.
- Inbertsio errealek (obrak eta ekipamendua) % 138,42 egin dute gora.
- Kapital transferentziak (entitate pribatuen inbertsioak) asko aldatu dira. 1991 eta 1999 urteak alderatuz gero, 817 milioitik 671 milioira pasa da. Beraz, % 17,9ko jaitsiera izan da, eta 1997 urtea izan da jaitsierarik handiena izan zuena (180 milioi baizik ez).

Aurreko ehunekoei, KPIaren zuzenketa aplikatzen ahal zaie, haren balioa aurreko indizeei kenduz gero, 1992 eta 1998 bitarteko KPIaren batuketak ondokoa eginen luke: 1992ko % 5,2 gehi 1993ko % 6 gehi 1994ko % 4,7 gehi 1995eko % 5,7 gehi 1996ko % 3,8 gehi 1997ko % 2,5 gehi 1998ko 1,4. Horrek guztiak % 29,3ko metatzea ekarri du.

Gastu programen araberako azterketa konplexuagoa da; izan ere, 1997 urtean langileen gastuak programaz aldatu ziren, eta horrek ekarri du 1997 urtea eta 1999 urtea baizik alderatu ahal ez izatea. Hori eginik, egiaztatu ahal izan dugu gastuen ehunekoak hamarren batzuk baizik ez direla aldatu.

Barne Produktu Gordinari buruzko datuak eta urteen araberako populazioaren datuak Estatistika Institutu Nazionalaren Datu Bankutik atera ditugu.

| Urtea | BPG | Biztanleen kopurua | BPG, Nafarroa |
|---|---|---|---|
| 1991 | 908.571.000.000 | 520.217 | 1.750.000 |
| 1992 | 972.028.000.000 | 521.673 | 1.860.000 |
| 1993 | 986.791.000.000 | 522.828 | 1.890.000 |
| 1994 | 1.048.439.000.000 | 523.992 | 2.000.000 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1995 | 1.139.501.000.000 | 525.327 | 2.170.000 |
| 1996 | 1.222.955.000.000 | 526.633 | 2.320.000 |
| 1997 | 1.323.886.000.000 | 527.830 | 2.510.000 |

Nafarroako guztizko hezkuntza gastua zein den jakiteko, une honetan egiterik ez dugun kalkulu konplexua egin behar da; izan ere, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzarako ezarritako aurrekontuez gainera, ukitutako sektore publiko guztietako unibertsitate gastuak ere hartu behar dira kontuan, bai eta udalen gastua, Industri eta Lan Departamentuetako gastuak eta hezkuntzarako familiek egiten duten gastuak ere.

Hala eta guztiz ere, bai egin dezakegu halako hurbilketa bat, eskura dauzkagun datuekin (pezetak, milioitan):

| Urtea | BPG | Unibertsitatez besteko gastua. Nafarroako Gobernuaren Aurrekontua | % | Unibertsitateko gastua. Nafarroako Gobernua. | % |
|---|---|---|---|---|---|
| 1991 | 908.571 | 33.861 | 3,73 | + 2.621<br>36.482 | 4,02 |
| 1992 | 972.028 | 37.619 | 3,87 | + 3.256<br>40.875 | 4,21 |
| 1993 | 986.791 | 38.317 | 3,88 | + 3.189<br>41.506 | 4,21 |
| 1994 | 1.048.439 | 37.937 | 3,61 | + 3.458<br>41.395 | 3,95 |
| 1995 | 1.139.501 | 39.306 | 3,44 | + 4.076<br>43.382 | 3,61 |
| 1996 | 1.200.379 | 42.908 | 3,57 | + 3.824<br>46.732 | 3,89 |
| 1997 | 1.323.886 | 45.219 | 3,41 | + 5.111<br>50.330 | 3,80 |

Europako Batasuneko herrialdeetako administrazioek hezkuntzaren arloan batez beste egiten duten gastua % 5 eta % 6 bitartekoa da. Hori da “estimatu” den baina alderatzerik izan ez dugun zenbatekoa. Hezkuntza Departamentuaren aurrekontuetako bilakaera aztertuko dugu ondoren:

## Unibertsitatez besteko irakaskuntzak.

**(pezetak, milakotan))**

| Kapitulu Ekonomikoak | 1991 | 1992 | 1993 | 1994 | 1995 | 1996 | 1997 | 1998 | 1999 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Langileri gastuak. | 17.376.517<br>% 58,48 | 19.622.440<br>% 59,01 | 21.470.719<br>% 61,11 | 22.017.316<br>% 60,18 | 23.087.952<br>% 59,82 | 26.019.995<br>% 61,36 | 27.795.321<br>% 62,19 | 28.943.376<br>% 62,28 | 30.268.719<br>% 61,89 |
| 2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak. | 2.032.233<br>% 6,83 | 2.475.499<br>% 7,45 | 2.485.326<br>% 7,08 | 2.419.651<br>% 6,62 | 2.670.124<br>% 6,92 | 3.043.254<br>% 7,18 | 3.425.168<br>% 7,67 | 3.543.690<br>% 7,62 | 3.553.590<br>% 7,27 |
| 4. Transferentziak. | 8.564.527<br>% 28,83 | 9.430.915<br>% 28,35 | 9.959.542<br>% 28,35 | 10.174.418<br>% 27,81 | 10.391.710<br>% 26,93 | 10.501.071<br>% 24,76 | 11.237.680<br>% 25,14 | 11.511.550<br>% 24,75 | 12.388.370<br>% 25,33 |
| 6. Inbertsio errealak. | 924.299<br>% 3,11 | 1.089.153<br>% 3,27 | 746.013<br>% 2,12 | 1.578.883<br>% 4,31 | 2.068.869<br>% 5,35 | 2.136.354<br>% 5,03 | 2.059.740<br>% 4,60 | 2.035.400<br>% 4,37 | 2.027.700<br>% 4,14 |
| 7. Kapital Transferentziak. | 817.138<br>% 2,75 | 640.000<br>% 1,92 | 473.751<br>% 1,34 | 398.751<br>% 1,08 | 381.000<br>% 0,98 | 711.000<br>% 1,67 | 180.238<br>% 0,40 | 482.100<br>% 1,03 | 671.572<br>% 1,37 |
| **Unibertsitatez besteko Hezkuntza, GUZTIRA** | **29.705.714** | **33.258.007** | **35.135.351** | **36.589.019** | **38.599.655** | **42.411.674** | **44.698.147** | **46.516.116** | **48.809.951** |

| Gastu Programak | 1991 | 1992 | 1993 | 1994 | 1995 | 1996 | 1997 | 1998 | 1999 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 0. Hezkuntza eta Kulturako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak. | 4.533.326<br>% 13,44 | 4.938.235<br>% 13,13 | 4.268.994<br>% 11,14 | 3.287.836<br>% 8,67 | 2.636.005<br>% 6,71 | 4.689.550<br>% 10,93 | 626.783(*)<br>% 1,39 | 643.608<br>% 1,37 | 705.631<br>% 1,43 |
| 1. Irakaskuntza maila guztietako eskolaratze baldintzak hobetzea. | 15.432.802<br>% 45,56<br>[1]UPNA:3.75<br>0 | 16.983.054<br>% 45,15<br>[1]UPNA:3.64<br>3 | 15.811.241<br>% 41,26<br>[1]UPNA:2.15<br>% 9 | 14.933.895<br>% 39,37<br>[1]UPNA:1.17<br>% 1 | 15.339.149<br>% 39,02<br>[1]UPNA: 670 | 15.856.077<br>% 36,97<br>[1]UPNA:1.02<br>% 4 | 16.238.205<br>% 35,91<br>[1]UPNA: 475 | 16.886.974<br>% 35,90<br>[1]UPNA: 480 | 18.028.913<br>% 36,45<br>[1]UPNA: |
| 2. Unibertsitatez besteko irakaskuntzetan, hezkuntza programak garatzea. | 13.627.621<br>% 40,22 | 15.417.885<br>% 40,98 | 17.964.145<br>% 46,89 | 19.463.241<br>% 51,30 | 21.071.074<br>% 53,61 | 22.107.232<br>% 51,52 | 28.079.112(*)<br>% 62,10 | 29.226.754<br>% 62,14 | 30.444.594<br>% 61,55 |
| 3. Euskararen irakaskuntza sustatu eta garatzea. | 267.965<br>% 0,78 | 279.833<br>% 0,74 | 272.971<br>% 0,71 | 252.047<br>% 0,66 | 260.427<br>% 0,66 | 247.815<br>% 0,58 | 275.047<br>% 0,60 | 278.480<br>% 0,59 | 286.713<br>% 0,57 |
| **Programak, GUZTIRA.** | **33.861.714** | **37.619.007** | **38.317.351** | **37.937.019** | **39.306.655** | **42.908.674** | **45.219.147** | **47.035.818** | **49.465.851** |

(*) Aldi baterako langileen gastuak eta haien Gizarte Segurantza PROGRAMAZ aldatu dira.

[1] NUPeko inbertsio gastuak guztizkoan eta ehunekoaren kalkuluan sartu ditugu.

### a) Hezkuntza itunak. Eskola unitateen aurrekontua.

| | 1990 | 1991 | 1992 | 1993 | 1994 | 1995 | 1996 | 1997 | 1998 | 1999 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Haur Hezkuntzako 2. zikloa:** | **2.594.828**(1) | **3.531.693** | **3.531.693** | **3.814.228** | **4.119.366** | **4.263.544** | **4.465.455** | **4.575.456** | **5.508.294** | **5.762.901** |
| Lansariak. | **3.300.648**(2) | | | | | | | | | % 74,81 |
| Gastu aldakorrak. | | | | | | | | | | % 9,74 |
| Bestelako gastuak. | | | | | | | | | | % 15,45 |
| **Lehen Hezkuntza (OHO):** | **3.798.703** | **4.064.612** | **4.480.955** | **4.724.089** | **4.836.212** | **5.044.329** | **5.297.574**(6) | **5.494.903** | **5.600.338** | **6.974.807** |
| Lansariak. | | | | % 72,95 | % 72,33 | % 71,34 | % 70,58 | % 70,49 | % 71,31 | % 73,70 |
| Gastu aldakorrak. | | | | % 16,09 | % 16,34 | % 16,49 | % 16,37 | % 16,32 | % 12,24 | % 12,70 |
| Bestelako gastuak. | | | | % 10,96 | % 11,33 | % 12,17 | % 13,05 | % 13,19 | % 16,45 | % 13,60 |
| **Bigarren Hezkuntzako 1. zikloa:** | | | | | **5.564.464** | **6.267.781** | **6.561.655** | **6.824.645** | **6.896.546** | **8.409.090** |
| Lansariak. | | | | | % 74,18 | % 71,77 | % 71,23 | % 70,95 | % 72,39 | % 74,93 |
| Gastu aldakorrak. | | | | | % 14,20 | % 15,99 | % 15,92 | % 15,77 | % 11,58 | % 11,53 |
| Bestelako gastuak. | | | | | % 11,62 | % 12,24 | % 12,85 | % 13,28 | % 16,04 | % 13,54 |
| **Bigarren Hezkuntzako 2. zikloa:** | | | | | | | **8.070.200** | **8.327.882** | **8.435.854** | **9.859.515** |
| Lansariak. | | | | | | | % 71,79 | % 72,25 | % 73,54 | % 76,36 |
| Gastu aldakorrak. | | | | | | | % 14,67 | % 14,60 | % 14,81 | % 10,58 |
| Bestelako gastuak. | | | | | | | % 13,36 | % 13,15 | % 11,64 | % 13,06 |
| **Batxilergoa eta UBI:** | **4.668.861**(5) | **5.911.178**(5) | **6.906.996**(5) | **7.269.369** | **7.490.478** | **7.515.693** | **7.869.341**(7) | **8.298.773**(3) | **8.410.484**(3) | **8.635.895** |
| Lansariak. | | | | % 70,10 | % 70,41 | % 72,19 | **8.067.400(8)** | % 72,51 | % 73,76 | % 74,57 |
| Gastu aldakorrak. | | | | % 14,70 | % 14,84 | % 15,11 | % 71,82 | % 14,65 | % 14,86 | % 10,52 |
| Bestelako gastuak. | | | | % 15,20 | % 14,75 | % 12,70 | % 14,86 | % 12,84 | % 11,38 | % 14,91 |
| | | | | | | | % 13,32 | | | |
| **LH I:** | **6.713.281** | **7.931.754** | **7.931.754** | **8.348.820** | **8.613.828** | **8.856.068** | **9.252.448** | **9.529.350** | **9.769.411**(4) | **10.463.202**(4) |
| Lansariak. | | | | % 72,13 | % 72,36 | % 71,82 | % 72,01 | % 72,43 | % 72,84 | % 76,03 |
| Gastu aldakorrak. | | | | % 16,24 | % 16,37 | % 14,86 | % 16,73 | % 16,75 | % 16,77 | % 11,67 |
| Bestelako gastuak. | | | | % 11,63 | % 11,27 | % 13.32 | % 11,26 | % 10,82 | % 10,39 | % 12,31 |
| **LH II:** | **5.820.297** | **6.989.259** | **7.824.308** | **8.237.483** | **8.498.115** | **8.533.990** | **8.926.498** | **9.224.199** | **9.376.592** | **9.793.992** |
| Lansariak. | | | | % 67,48 | % 67,70 | % 69,36 | % 68,89 | % 69,07 | % 70,06 | % 69,62 |
| Gastu aldakorrak. | | | | % 20,05 | % 20,21 | % 19,80 | % 19,73 | % 19,68 | % 19,88 | % 10,80 |
| Bestelako gastuak. | | | | % 12,47 | % 12,08 | % 18,84 | % 11,38 | % 11,25 | % 10,07 | % 19,58 |

| | **1990** | **1991** | **1992** | **1993** | **1994** | **1995** | **1996** | **1997** | **1998** | **1999** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Hezkuntza Berezia:** | | | | | | | | | | |
| *I) Oinarrizko eta Lehen Hezkuntza:* | Psikikoak | | Psikikoak | | | | | | | |
| I.1. Psikikoak: | **4.940.034** | **5.040.000** | **5.589.478** | **6.302.955** | **7.440.288** | **7.860.221** | **8.288.235** | **8.604.555** | **8.846.321** | **9.177.866** |
| Lansariak: | | | | % 54,68 | % 47,02 | % 45,78 | % 45,11 | % 45,02 | % 45,15 | % 45,17 |
| Bestelako gastuak: | Fisikoak | Fisikoak: | Fisikoak | | % 10,62 | % 10.58 | % 10,46 | % 10,42 | % 10,41 | % 10,33 |
| Langile osagarriak: | **7.637.268** | **7.637.300** | **8.643.094** | % 37,11 | % 35,40 | % 37,14 | % 37,61 | % 37,70 | % 38,13 | % 38,47 |
| Gastu aldakorrak: | | | | % 8,21 | % 6,96 | % 6,50 | % 6,82 | % 6,86 | % 6,31 | % 6,03 |
| | Sentsorialak | | Sentsorialak | | | | | | | |
| I.II Autistak: | **4.722.967** | **5.375.400** | **6.761.848** | **6.696.408** | **6.926.679** | **7.255.124** | **7.643.527** | **7.932.678** | **8.148.169** | **8.447.537** |
| Lansariak: | | | | % 51,47 | % 50,50 | % 49,60 | % 48,92 | % 48,83 | % 49,01 | % 49,07 |
| Bestelako gastuak: | | | | | % 11,41 | % 11,46 | % 11,34 | % 11,30 | % 11,31 | % 11,23 |
| Langile osagarriak: | | | | % 40,80 | % 30,61 | % 31,90 | % 32,34 | % 32,43 | % 32,83 | % 33,15 |
| Gastu aldakorrak: | | | | % 7,73 | % 7,47 | % 7,04 | % 7,40 | % 7,44 | % 6,85 | % 6,55 |
| *II) Lanbide Heziketa:* Lanak: | | Psikikoak: | Psikikoak: | **12.066.571** | **13.464.122** | **13.565.690** | **14.293.010** | **14.822.044** | **15.289.670** | **15.947.166** |
| Lansariak: | | **8.848.400** | **9.379.304** | % 60,35 | % 52,35 | % 53,45 | % 52,71 | % 52,66 | % 52,63 | % 52,38 |
| Bestelako gastuak: | | Fisikoak: | Fisikoak: | | % 10,47 | % 8,37 | % 8,28 | % 8,20 | % 8,17 | % 8,07 |
| Langile osagarriak: | | **9.825.800** | **10.415.348** | % 33,20 | % 31,40 | % 31,39 | % 31,81 | % 31,93 | % 32,18 | % 32,30 |
| Gastu aldakorrak: | | | | % 6,45 | % 5,78 | % 6,79 | % 7,19 | % 7,21 | % 7,01 | % 7,25 |

(1) 3 urte.
(2) 4-5 urte.
(3) BBBko 3.a eta UBI, antzinako atal filialetatik heldutakoa.
(4) Lehen Graduko Lanbide heziketako titulua lortzeko prestaketa-ikasturtea.
(5) BBBko 1, 2 eta 3. mailak.
(6) Lehen Hezkuntza eta OHOko 7. eta 8. maila
(7) Urtarrilaren 1etik abuztuaren 31ra.
(8) Irailaren 1etik abenduaren 31ra.

### b) Hezkuntza itunak

| Urteak | Obrak, materialak eta jarduerak. | Hezkuntza Berezia eta Haur Hezkuntza. | OHO- Lehen Hezkuntza. | L.H. | BBB eta UBI | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **1990** | 175.000.000<br>24.000.000 | 3 urte: 192.940.000<br>4-5 urte: 680.755.000<br>21.000.000 | 758.798.000 | 214.297.000<br>Salestarrak: 94.000.000<br>Oronoz: 13.446.000 | BBB: 699.433.000<br>UBI: 19.300.000 | |
| | **Guztira: 194.000.000** | **Guztira: 894.695.000** | **Guztira: 758.798.000** | **Guztira: 321.743.000** | **Guztira: 718.733.000** | **Guztira: 2.887.969.000** |
| **1991** | 200.000.000<br>13.000.000<br>(ent) 30.000.000 | 22.260.000<br>3 urte: 247.219.000<br>4-5 urte: 663.958.000<br>H.B.: 173.343.000 | 3.736.867.000 | LHI: 633.325.000<br>LHII: 319.849.000<br>Oronoz: 14.253.000<br>Salestarrak: 99.640.000 | BBB: 951.775.000<br>UBI: 45.373.000 | |
| | **Guztira: 243.000.000** | **Guztira: 1.106.780.000** | **Guztira: 3.736.867** | **Guztira: 1.067.067.000** | **Guztira: 997.148.000** | **Guztira: 7.150.862.000** |
| **1992** | 280.000.000<br>25.000.000 | 22.260.000<br>911.000.000<br>H.B.: 161.000.000 | 4.305.054.000 | LHI: 609.000.000<br>LHII: 396.000.000<br>Oronoz: 14.253.000<br>Salestarrak: 99.640.000 | 1.162.000.000<br>27.434.000 | |
| | **Guztira: 305.000.000** | **Guztira: 1.094.260.000** | **Guztira: 4.305.054.000** | **Guztira: 1.118.893.000** | **Guztira: 1.189.434.000** | **Guztira: 8.012.641.000** |
| **1993** | | 1.045.924.000<br>H.B.: 204.504.000 | 4.465.956.000 | LHI: 656.322.000<br>LHII: 421.994.000<br>Salestarrak: 70.640.000 | 1.261.516.000 | |
| | | **Guztira: 1.250.428.000** | **Guztira: 4.465.956.000** | **Guztira: 1.148.956.000** | **Guztira: 1.261.516.000** | **Guztira: 8.126.856.000** |
| **1994** | | Haur Hezkuntza: 1.133.446.000<br>H.B.: 186.111.000 | 4.627.927.000 | LHI: 651.736.000<br>LHII: 541.909.000<br>Salestarrak: 35.000.000 | 1.271.658.000 | |
| | | **Guztira: 1.319.557.000** | **Guztira: 4.627.927.000** | **Guztira: 1.228.645.000** | **Guztira: 1.271.658.000** | **Guztira: 8.447.787.000** |

| Urteak | Obrak, materialak eta jarduerak. | Hezkuntza Berezia eta Haur Hezkuntza. | OHO- Lehen Hezkuntza. | L.H. | BBB eta UBI | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **1995** | 200.000.000<br>1.000.000<br>5.000.000 | 1.163.354.000<br>H.B.: 185.385.000 | 4.792.762.000 | LHI: 672.268.000<br>LHII: 540.287.000<br>Salestarrak: 35.000.000 | 1.284.000.000 | |
| | **Guztira: 206.000.000** | **Guztira: 1.348.739.000** | **Guztira: 4.792.762.000** | **Guztira: 1.247.555.000** | **Guztira: 1.284.000.000** | **Guztira: 8.879.056.000** |
| **1996** | 1.000.000<br>14.000.000 | 953.453.000<br>H.B.: 222.240.000 | 3.692.557.000 | LHI: 563.899.000<br>LHII: 571.296.000<br>Salestarrak: 35.000.000 | 1º Ciclo ESO:<br>1.282.590.000<br>2º Ciclo ESO y BBB:<br>1.420.251.000 | |
| | **Guztira: 15.000.000** | **Guztira: 1.175.693.000** | **Guztira: 3.692.557.000** | **Guztira: 1.170.195.000** | **Guztira: 2.702.841.000** | **Guztira: 8.756.286.000** |
| **1997** | 1.000.000 | 1.201.976.000<br>H.B.: 227.478.000 | 3.694.987.000 | LHI, CFGM,PGS:<br>484.881.000<br>LHII, CFGS:<br>630.818.000<br>Salestarrak: 35.000.000<br>Salestarrak: 17.000.000 | DBHko 1. zikloa:<br>1.316.308.000<br>DBHko 2. zikloa eta BBB:<br>1.833.925.000 | |
| | **Guztira: 1.000.000** | **Guztira: 1.429.454.000** | **Guztira: 3.694.987.000** | **Guztira: 1.167.699.000** | **Guztira: 3.150.233.000** | **Guztira: 9.452.373.000** |
| **1998** | 300.000.000 | 1.249.700.000<br>H.B.: 236.200.000 | 3.813.800.000 | I.S.: 15.000.000<br>LHI eta ZE: 370.800.000<br>LHII eta GZ.: 665.300.000<br>Salestarrak: 35.000.000<br>Salestarrak: 17.350.000 | DBHko 1. zikloa:<br>1.314.000.000<br>DBHko 2. zikloa eta BBB:<br>2.050.600.000 | |
| | **Guztira: 300.000.000** | **Guztira: 1.485.900.000** | **Guztira: 3.813.800** | **Guztira: 1.103.450.000** | **Guztira: 3.364.600.000** | **Guztira: 10.067.750.000** |
| **1999** | 313.472.000<br>100.000.000 | 1.325.451.000<br>H.B.: 250.600.000 | 4.107.044.000 | G.S. eta ZE: 369.290.000<br>LHII eta GZ.: 562.071.000<br>Salestarrak:<br>35.700.000<br>Salestarrak:<br>17.700.000<br>Deseskol.: 25.220.000 | DBHko 1. zikloa:<br>1.502.842.000<br>DBHko 2. zikloa:<br>1.788.784.000<br>Batxilergoa: 652.013.000 | |
| | **Guztira: 313.472.000** | **Guztira: 1.576.051.000** | **Guztira: 4.107.044.000** | **Guztira:1.009.981.000** | **Guztira: 3.943.639.000** | **Guztira: 11.050.187.000** |

*Nafarroako Foru Komunitatea da ikastetxe pribatuen ia % 100 itundu duen bakarra, derrigorrezko etapetan ezezik, ondokoetan ere: Haur Hezkuntzako 2. zikloa (3-6 urte), Batxilergoa, Berariazko Lanbide Heziketa eta Goi Mailako eta Maila Ertaineko Heziketa Zikloak (azken horiek guztiak derrigorrezkoak ez diren irakaskuntzak dira).*

*Derrigorrezko irakaskuntzaren doakotasunak testuliburuak ere bildu beharko luke; egun, ezinbesteko materiala dira, ikasleei derrigorrez eskatzen zaiena, nahiz eta arau batzuk eta haien gaineko kontrola dagoen.*

(15. boto partikularra, HERRIKOArena).

(STEE-EILAS eta NAFARROAKO IKASTOLEN FEDERAZIOAK txosten osoari buruz aurkezturiko boto partikularra).

## Boto partikularrak.

### 1. boto partikularra, HERRIKOArena, eta 2. boto partikularra, CC.OOrena.

**HERRIKOA eta LANGILEEN KOMISIOAK** txosteneko 2.4 ataleko balorazio zatiari buruz aurkeztutako boto partikularra:

*Gutxiengo kulturaletako ikasleen, gizarte bazterketako prozesuak jasotzen dituzten taldeen eta inmigraziotik heldu diren ikasleen eskolaratzeak, gizartean dauzkaten ondorio larriengatik, hurrengo urteetan konpondu beharreko gai giltzarrietako bat da.*

*Ikasle horien eskolaratzean aurrerapauso handiak eman badira re, badaude kezka berezia eragiten duten bi gai:*

*1º Etorkinen etortze etengabekoa dela eta, uste denez, gora egingo duela ikusirik, beharrezkoa da integrazio prozesuak eta hizkuntza ikasteko prozesuak hobeki betetzeko gaiei ekitea, esate baterako irakasle gehiago hartzea. Hori arazo bihurtzen ari da gure komunitateko zenbait ikastetxetan, eta berehalako erantzuna eman behar dio Hezkuntza Administrazioak.*

*2º Hezkuntza sisteman horrelako gutxiengoak izateak derrigorrezko egiten du curriculumetan eta eskoletako praktiketan zeharkako gaiak areagotzea; hain zuzen ere, kultur aniztasunaren aberastasunarekin loturiko alderdiak aztertzeko: gutxiengoen eskubideak errespetatzea eta abar.*

*Bestalde, bereziki garrantzitsua da azpimarratzea ikastetxe publikoek gutxiengo kulturaletako ikasleen % 75 eskolaratzen dituztela; ez dago daturik ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxeetan eskolaraturik egon eta gizarte bazterketako prozesuetan dauden ikasleei edo inmigraziotik heldu diren ikasleei buruz.*

*Desoreka garrantzitsu horrek kezka sortu du eskola komunitateko zenbait sektoretan, eta horrek eragina izan du egunkarietan, Nafarroako Parlamentua, Kontuen Ganbararen txostenetan eta abarretan.*

*Desorekak ezegonkortasun, artegatasun eta hika-miken iturri da bi sare horien artean; izan ere, gizarteratzea erraztu ez eta etorkizunean arazoak sortzea eta, are gehiago, zenbait ikastetxe desagertzea ekar dezaketen arazoak sor daitezkeelako.*

*Hezkuntza Administrazioak kontrol lanak eta arauen erreformak areagotu behar ditu desoreka larri hori zuzentzen joateko.*

3. boto partikularra, STEE-EILAS-ena.

- ***STEE-EILAS***ek aurkeztutako boto partikularra. Hartan biltzen du ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko balorazioan Kontseiluak sartu nahi izan ez zuen testua. **Azken aurreko lerroaldean**: *"Garrantzi handiko gai bat dela uste dugu; izan ere, hezkuntza komunitatea osatzen duten pertsona guztien arteko errespetua bermatu behar baitu, eta ikasleari bere ahalmen guztiak erabat garatzeko bidea eta pizgarriak emanen dituen eskola-giroa gauzatzeko modua eman behar baitu".*
***" Garrantzi handiko gai bat dela uste dugu; izan ere, hezkuntza komunitatea osatzen duten pertsona guztien arteko errespetua bermatu behar baitu, eta ikasleari bere ahalmen guztiak erabat garatzeko bidea eta pizgarriak emanen dituen eskola-giroa gauzatzeko modua eman behar baitu, hain zuzen ere pertsonen arteko errespetu giro bat bideratzeko, horretarako egokia izan behar duen eskola ingurune batean ".***
***Azalpena:***
STEE-EILASekook uste dugu ikasleen eskubideak eta betebeharrak arautzearen arrazoia ez dela, berez, pertsonen arteko errespetua bermatzea, baizik eta pertsona horien prestakuntza integrala erraztea, elkarri errespetua izateko gauza izan daitezen.

************

- ***STEE-EILAS***en boto partikularra, Kontseiluak ez zuelako lerroalde berri hau sartu nahi izan ikasleen elkarteei buruzko balorazioan**:**

***"Txostenean emandako datuetan egiaztatu daiteke Foru Komunitateak Estatuko gainerako lurraldeetan gertatzen denaz bestelako egoera du. Nafarroako elkarteen mugimenduak aipatu 6 ikastetxeetako ikasleen elkarteak baizik ez ditu biltzen, eta horik, agian, dirulaguntza batzuetarako deialdi batean parte hartzeko eratuko ziren. Estatuaren gainerako lekuetan, elkarteak gorpuzten ari dira ikastetxeen inguru partikularra gainditzen duten erakundeen bitartez, eta konfederazio gisa aritzen dira. Eskola Kontseilu honek badaki segurtasun osoz Nafarroan ikastetxe baten markoa gainditzen duten erakundeak egon badaudela, eta dei egiten die beren jarduera indarreko arauetara egokitu dezaten, Kontseilu honetan parte hartzeko moduan egon daitezen".***

***Balorazioa***

Uste dugu Nafarroako Eskola Kontseiluak ezin dituela begiak itxi errealitate honen aurrean. Errealitateak argi adierazten digu egon badaudela ikasleen erakundeak, ikastetxe baten jarduera eremua baino eremu zabalagoa hartzen dutenak, eta, horren ondorioz, eragin askoz ere handiagoa dutenak. Praktikan jarri den irtenbide honekin, gutxienez deigarri egiten zaigun egoera baten aurrean gaude: bi pertsona ikastetxeko lau elkartetakoak baizik ez direnak (4). Errealitateak beste alde bat ere badu, eta ezin dugu bestaldera begiratu; Kontseiluak erraz asko egin zezakeen dei bat ikasleen elkarteek –egon badaude– beren egoera indarreko arauei egokitzeko, lekua izan dezaten aurreikusita dauden ordezkaritza organoetan.

## 4. boto partikularra, STEE-EILASena.

- ***STEE-EILAS***ek aurkeztutako boto partikularra, Kontseiluak ez zuelako onartu ondoko **lerroalde berria sartzea 3.1 puntuari buruzko balorazioan, hain zuzen ere ikastetxe publikoetako irakasleei buruzkoan, bigarren lerroaldea eta gero:**

***"Hala eta guztiz ere, Nafarroako Eskola Kontseilu honek Hezkuntza Departamentuari helarazi nahi dio unibertsitatez besteko Irakaskuntza Publikoko Hezkuntzarako mahai sektorialak, oro har, erakutsi duen negoziazio ahalmen eskasarengatik sentitzen duen kezka. Ikusirik mahai sektorialak horretan azterturiko gaiak, ikus daiteke ez dagoela marko orokor bat hezkuntzako langileen lan baldintzak eztabaidatu eta negoziatu ahal izateko, prestakuntza programak orokorrean negoziatzeko bidea emateko, lan osasunaren arloko alderdiak negoziatzea bideratzeko... Orain aipatzen dugun zerrenda horrek oso gai puntualak eta administrazio kontu hutsak direnak biltzen ditu (10 inguru, aipatzen diren 14 horietatik). Hori da, bestalde, unibertsitatez besteko Irakaskuntza Publikoko sindikatu guztiek eskatzen aritu garena: negoziaziorako maniobra tarte bat izatea mahai sektorialean.***

***Balorazioa***
Ezinezkoa da negoziatzea, gai batzuei buruz hitz egitea ere, lan baldintzei buruz, esate baterako, ordutegiak, ratioak, prestakuntza, enplegu banaketa, lizentziak, baimenak, lansariak... lan osasuna, aparteko orduak, era orokorrean, hori guztia unibertsitatez besteko irakaskuntza osorako akordio batean islatu gabe; praktikan, ukatzen ari da sindikatuen funtsa bera, hau da, negoziazio kolektiboa.

************

- ***STEE-EILAS***ek aurkeztutako boto partikularra; izan ere, Kontseiluak ez zuen onartu ondoko esaldia sartzea **ikastetxe publikoetako irakasleei buruzko 3.1. puntuaren balorazioan:**

***"Eskola Kontseiluak Administrazioari gomendatzen dio kontuan har dezan ikastetxeen sarearen berezitasunak, eta, horrenbestez, ikastetxeko lan osasunaren arloko arduradunaren figura aurreikus dezan, Segurtasun eta Osasun Komiteko pertsonekiko eta Departamentuko Prebentzio zerbitzuekiko lotura lanak egin ditzan. Hala izanez gero, dagokion ordu-kreditua eduki beharko du."***

***Balorazioa***

Komitea abian jartzearekin batera, oso modu eskasean erregulatuta dagoen eta giza eta gauza baliabide gehiago eskatzen duen gai batean langileek parte hartzea errazteko neurriak eman behar dira. Osasuna ez da gaixotasunik ez izatea, baizik eta ongizate orokorra, ikuspegi fisiko, psikiko eta psikosozialetik.

************

- ***STEE-EILAS***ek aurkeztutako boto partikularra, Kontseiluak ez zuelako ondoko **lerroalde berria sartu nahi izan ikastetxe publikoetako irakasleei buruzko 3.1. puntuan:**

"***Eskola Kontseilu honek Hezkuntza Administrazioa premiatzen du DBHko lehen zikloan lan egiten duten maisu-maistren ordainsariei eta lan alderdiei konponbidea eman diezaien, ez lan arloan ez lanbidean ezberdintasunik sor ez dadin Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako irakasleen artean. Gainera, Eskola Kontseilu honek uste du ordainsari horiek eta lan alderdi horiek***

***maisu-maistren kidego osoari zabaldu behar zaizkiela, eta, horrenbestez, irakasle guztiak sartu behar direla, alde batera utzita zein hezkuntza maila dagokion, funtzionarioen talde bakar batean".***

***Balorazioa***

STEE-EILASek uste du Bigarren Hezkuntzako Lehen Zikloan eskolak ematen dituzten maisu-maistren Kidegoko irakasleek Bigarren Hezkuntzako gainerako irakasleen lan baldintza berdinak –osagarriak, ordezkaritza eta koordinazio didaktikoko organoetan parte hartzea– eduki behar dituztela. Uste du, gainera, gomendio hauek maisu-maistren kidego osoari zuzendu behar zaizkiola, kidego bakarra izateraino; hain zuzen ere gizarteak eta Administrazioak irakasteko lanaren balorazio bera egiten dute.

************

## 5. boto partikularra, STEE-EILASena.

**-** STEE-EILASek aurkeztutako boto partikularra Kontseiluak **irakasleen prestakuntzari buruzko 3.4. puntuan ez zuelako sartu nahi izan hurrengo ekarpen berrian:**

***"Kontseilu honek uste du Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan ari diren irakasle guztiei beren lanpostuetara sartzeko unibertsitate lizentziatura bakarra eskatu behar zaiela hasierako prestakuntza gisa. Gure ustez, kaltegarria da irakasleen egungo estratifikazioa; hain zuzen ere, askotan irakaskuntzara heltzen dira behar den prestakuntza pedagogikoa eduki gabe. Ez litzateke berdin baloratu behar Haur Hezkuntzan aritzea edo Batxilergoko azken mailan aritzea, espezialitate eta hezkuntza-tarte ezberdinak baitira."***

***Balorazioa***
Uste dugu aurreikusitako ikasketa ezberdinak eta geroko kidego eta mailek, eta hezkuntza sistemako maila eta etapa ezberdinetan lan egiten duten irakasleen balorazio ezberdinak ez dutela bidea errazten egiten duten lana ongi aitor dakien.

## 6. boto partikularra, STEE-EILASena.

- STEE-EILASek aurkeztutako boto partikularra, **ikastetxeen antolamendu eta funtzionamenduari buruzko 4.3. puntuari buruzko balorazioan azkeneko esaldia jartzearen alde.**
***" Hala ere, uste dugu ekimen propioak falta direla formula berriak aplikatzeko, Foru Komunitateak arauak emateko daukan ahalmenean oinarriturik."***

***Balorazioa***

Argi eta garbi dago hezkuntza arloko eskumen osoa duen autonomi erkidego batek askoz ere gehiago egin behar duela arauak egiteko bere ahalmena garatzeko. Ikusten ahal dugu, nahi genukeena baino maizago, Madrilen egiten diren legeen kopia, jarraipen hutsa egiten dela Nafarroan.

7. boto partikularra, STEE-EILASena, eta 8. boto partikularra, HERRIKOArena.

**-** STEE-EILASek eta "HERRIKOA" gurasoen elkarteen federazioak aurkeztutako boto partikularra, **beste lerroalde bat gehitzeko gobernu organoei buruzko 4.5 atalari buruzko balorazioan, bigarren lerroaldearen ondoren:**

***"Gure hezkuntza komunitatean ohitura demokratiko horrek, oraindik ere, ez ditu erdietsi nahi genukeen maila. Hori dela eta, gure ustez, Hezkuntza Departamentuak zabalkunde kanpainak egiteko plangintza bat egin beharko luke, hain zuzen ere partehartze organoen funtzionamendua ezagutzera emateko, bai eta gizarte eta hezkuntza agenteen –ikasleak, familiak, irakasleak eta abar– prestakuntza demokratikoa ere ezagutzera emateko. Horri dagokionez, Nafarroako Eskola Kontseiluak zenbait aldaketa egin nahi lituzke arauetan, ikastetxeko Eskola Kontseiluetan parez pareko ordezkaritza egon dadin. Gure ustez, neurri hori beharrezkoa da parte hartzeko eskubide bera emateko Konstituzioak maila berean ikastetxeen kudeaketa eta kontrola zaintzeko izendatzen dituen hiru sektoreei; horrela, gainera, ordezkaritza horretan dagoen bazterkeria kenduko litzateke. Horrek guztiak ez du ezertan kentzen bakoitzak berez dauzkan eginkizun tekniko eta pedagogikoak, besteak beste, tutoreei, irakasleen taldeei eta ikastetxeko klaustroari dagozkion horiek."***

***Balorazioa***
STEE-EILASek behin baino gehiago azaldu du Kontseilu honetan nola proposamena egiten duen. Azkenekoz joan den urtarrilaren 17an, hain zuzen ere ikastetxeetako partehartzeari eta autonomiari buruzko irizpena onetsi zen egunean.

9. boto partikularra, STEE-EILASena.

**-** STEE-EILASek aurkeztutako boto partikularra Kontseiluak ez zuelako onartu **ondoko esaldi erastea ikastetxeetako gobernu organoei buruzko 4.5. puntuari buruzko balorazioan**:

***"...baina horrek ez du esan nahi egungo oinarrizko araua, LOPEGCE izenaz ezagutzen den legea, aldatu behar denik, izan ere lagungarri gertatu baita arazoari konponbidea emateko"***

***Balorazioa***
Demokratikoki hautaturiko zuzendaritzen jaitsiera nabarmena, hautagai-zerrenden eskasia eta aipatu legearen aurka bere denboran izan zen erantzuna aintzat harturik, beharrezkoa da hartan aldaketa sakona egitea.

## 10. boto partikularra, HERRIKOArena.

**Herrikoak**, Nafarroako Ikasleen Gurasoen Federazioak eta **Langileen Komisioak** Sindikatuak (CCOO) "Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko txostena" dela eta aurkezturiko boto partikularra, hain zuzen ere "Gobernu Organoak" izeneko 4.5 atalari zenbait iruzkin eransteko.

"Ikasleen gurasoak Ikastetxeetako Eskola Kontseiluetarako hauteskundeetan parte hartzeari dagokionez, Administrazioak laguntza neurriak hartzea –publizitate kanpainak, esate baterako, ikastetxe guztietan hauteskundeak egun berean izatea, Eskola Kontseiluetan parez pareko ordezkaritza ezartzea, irizpide guztiak kontuan hartzeko aukera errealak egon daitezen– lagungarria izan daiteke gurasoak beren esku-hartzeak daukan garrantziaz ohar daitezen".

************

**Herrikoak**, Nafarroako Ikasleen Gurasoen Federazioak, "Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko txostena" dela eta aurkezturiko boto partikularra, hain zuzen ere "Eskolaz kanpoko Jarduerak" izenburua duen 4.7. atalari iruzkin bat eransteko.

"Bigarren Hezkuntzako zenbait ikastetxetan goizeko eskolaldia baimentzeak –Departamentuak bere arauen aurka egin du horretan– izugarri zaildu du eskolaz kanpoko jarduerak eta kirol jarduerak egiteko aukera; egoera hori are larriagoa da herrietako ikastetxeetan edo kanpotik etorritako ikasleak dituzten ikastetxeetan; hori guztia, gainera, aisialdiko jardueren eta kirol jardueren eskaintza bereziki garrantzitsua den etapa batean. Halako jarduerak prebentzio neurri egokiak dira, eta oso baliagarri suertatzen dira ikasleen hezkuntza integrala erdiesteko. Beharrezkoa eta presakoa da neurriak hartzea bide horretan".

**-** STEE-EILASek aurkeztutako boto partikularra, Kontseiluak ez baitzuen nahi izan kendu Gurasoen elkarteei buruzko 4.6 ataleko balorazioaren bigarren lerroaldea. Hona zer dioen:

"1997an, D lerroa –euskaraz soilik– duten Ikastetxeetako Gurasoen Elkarteetako beste Federazio bat sortu da. Horrek are gehiago zatikatu du orain arte zegoen egoera. Eskola Kontseiluak uste du hori emendiozko zailtasun bat dela, uste baitu interesak eta beharrizanak jarrera orokorren eta ez-zatituen bitartez defendatzen ahal direla eta defendatu behar direla".

***Balorazioa***

Eskola Kontseiluak ezin du baloratu hezkuntza komunitatearen sektoreetako batek parte hartzeko duen modua; izan ere, arrazoi bera –"interesak eta beharrizanak jarrera orokorren eta ez-zatituen bitartez defendatzen ahal direla eta defendatu behar dira"– aplikatzen ahal baitzaie Komunitateko beste sektore batzuei. Gainera, ez zaigu zuzena iruditzen juizio bat egitea elkarte bat eratu izanaren onuraz nahiz onura-ezaz, bereziki Kontseilu honetan ez dagoelako.

11. boto partikularra, STEE-EILASek aurkeztutakoa.

- STEE-EILASek aurkeztutako boto partikularra, Kontseiluak ez zuelako ondoko lerroaldea erantsi nahi izan “Euskara Nafarroako hizkuntza sisteman” izeneko 5. atalari buruzko balorazioan:

***"Presakoa da Euskararen Legeak ezarritako zonifikazioak sortzen duen egoera argi eta garbi bitxiari; horretarako, azkar ekin behar zaio legea aldatzeari, Foru Komunitate osoan euskarazko eta euskararen irakaskuntzaren eskaintza publikoa egiteko modua egon dadin; euskarari ofizialtasun estatusa eman behar zaio Nafarroa osoan".***

***Balorazioa***

Egun, ezin da euskarazko irakaskuntzarik eskaini eskualde ez euskaldunean, eta horrek egoera absurduak sorrarazi ditu, eskualde bateko ikastola pribatuetan ikasten ari diren ikasleak ez aitortzeraino. Administrazioarentzat ikasleen kopuru jakin bat estatistikoki ez existitzea arazo bat ez existitzea da. Joko absurduegia iruditzen zaigu. Hala ere, legea aldatzeak bidea erraztuko lieke euskarazko irakaskuntza publikoa nahi dutenei. Konponbidea ez da A ereduaren kalitatea areagotzea, eta hori logikoa da, edozein arlo hobetu nahi duen ekimen guztiak bezala, baizik eta aintzat hartzea euskara gure kulturaren zati bat dela, eta LOGSEk gomendatzen duen bezala, curriculumaren zati bat izan daitekeela, autonomi erkidegoek beren hizkuntza propioa arautzeko daukaten ahalmenean oinarriturik.

12. boto partikularra, CC.OOrena, eta 13.a, HERRIKOArena.

- **HERRIKOA**k eta **LANGILEEN KOMISIOEK** txosteneko 5.1. balorazioari buruz aurkeztutako boto partikularra

*"Euskarak hezkuntza sisteman duen tokia normalizatzeko prozesuari amaiera emateko, legez baimendu beharko litzateke D eredua Nafarroako ikastetxe guztietan ematea; izan ere, une honetan, ikastetxe pribatuek baizik ez dute eskaintzen eredu hau Nafarroako eskualde askotan.*

*Azken hogei urte hauetan, ikusi ahal izan dugu Hezkuntza Administrazioak eskola mapa antolatzerakoan herri batzuei ikastetxeko hizkuntza eredu bat eman diela. Aztertu beharko litzateke banaketa horrek gizartean izan ditzakeen ondorioak ikastetxe elebidunak egoteari edo desagertzen joateari dagokienez. Beraz, gure ustez, G, A eta D ereduetako hizkuntza helburuak erdietsiko direla bermatuko duten baldintzak eta giza eta gauza baliabideak bermatu beharko lirateke.".*

## 14. boto partikularra, HERRIKOAk aurkeztutakoa.

- **Herrikoa**k, Nafarroako Ikasleen Gurasoen Elkarteetako Federazioak "Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko Txostenari” buruz aurkeztutako boto partikularra, “Eskola Zerbitzuak” izeneko 6.3 atalari buruzko iruzkinetan hirugarren lerroalde bat gehitzeko.

"Bigarren Hezkuntzako zenbait ikastetxetan goizeko eskolaldia baimentzeak –Departamentuak bere arauen aurka egin du horretan– eta horren ondorioz jantoki zerbitzuak kentzeak (horrekin batera, eskolaz kanpoko jarduerak eta kirol jarduerak antolatzeko eta egiteko zailtasunak erantsi dira) nabarmen okerragotu du irakaskuntza publikoaren kalitatea; horrek, gainera, eragin berezia izanen du desabantaila gehien dituzten ikasleen sektoreetan. "

## 15. boto partikularra, HERRIKOAk, CC.OO.k y STEE-EILASek aurkeztutakoa.

- **Herrikoa**k, Nafarroako Ikasleen Gurasoen Elkarteetako Federazioak, eta **Langileen Komisioak** (CC.OO.) eta **STEE-EILAS** sindikatuek "Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko Txostena" dela-eta aurkeztutako boto partikularra, hain zuzen ere hirugarren lerroalde bat gehitzeko "Hezkuntzarako aurrekontuak" izenburupeko 7. atalean.

"Konstituzioak eta indarreko legeek hezkuntza administrazioei ezartzen diete sare publiko doako bat mantentzeko betebeharra, eta sare publiko horrek ondokoak bermatuko beharko dituela: herritar guztiek hezkuntzarako eskubide berdinak dituztela, aukera berdintasuna eta desberdintasunen konpentsazioa, aukerarik egin gabe eta inolako bazterkeriarik gabe.

Nafarroako Eskola Kontseiluak uste du sare pribatuak sare publikoaren subsidiarioa izan behar duela, eta sare publikoa iristen ez den herrietako derrigorrezko hezkuntzako ikastetxeetako unitateak baizik ez direla finantzatu behar, eta itunpeko ikastetxe pribatu horiek hertsiki bete behar dituztela ikastetxe publikoei eskatzen zaizkien baldintza berak."

## STEE-EILASek txosten osoari buruz aurkeztutako boto partikularra.

STEE-EILASek uste du Nafarroako Hezkuntzari buruz Eskola Kontseiluak egin duen txostenean huts egin dugula, aukera galdu dugula hezkuntza sistema bera hobetzeko balioko luketen proposamen berriak aurkezteko, gure ustez.

Huts egin dugu ondoko arrazoiengatik:

- Ez dago, gure ustez, ikastetxeetako partaidetza demokratikoaren aldeko apusturik.
- Sindikatuekiko negoziazio kolektiboari buruzko Hezkuntza Administrazioaren interpretazioak ontzat ematen ditu, zalantzan jarri gabe negoziazio hori existitzen ote den ere.
- Ez du irudimenezko planteamendurik egin nahi irakasleen hasierako prestakuntzari buruz ez eta hezkuntza sistemaren barreneko estratifikazioa pixkanaka kentzeko biderako ere.
- Ez dio Administrazioari eskatu nahi arauak emateko duen ahalmena erabil ditzan, hezkuntzako eskumen osoak dauzkan komunitate bat izaki Nafarroa.
- Kultur aniztasunaren errealitateari, gutxiengo etnikoei eta etorkinei buruzko arazoetarako konponbiderik ez du ez aztertu ez planteatu nahi.
- Ez du Foru Komunitatean euskarazko eta euskararen hezkuntzaren aldeko jarrera argirik, oraingo lege markoa gainditzeko.
- Ez du Irakaskuntza Publikoaren aldeko apustu argirik egiten; ez du nahi hura izatea Nafarroako hezkuntza sistema egituratu behar duen ardatza.

NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEAK txosten osoari buruz aurkeztutako boto partikularra.

Nafarroako Ikastolen Elkarteak Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko txostenaren aurka bozkatu du, ondoko arrazoiengatik:

- Ikasleei eta ikastetxeei buruzko estatistikak ez datoz bat errealitatearekin, andeatuta daude. Ikastoletako 500 ikasle nafar falta dira.
- Ez du onartzen ikastolen berezitasun ekonomiko eta soziala; ikastolak ez dira ikastetxe pribatuak eta ez dute izen horren pean egon nahi
- Ez du Administrazioa premiatzen gizarte ekimeneko ikastetxeetan inbertsioak egiteko hartu dituen konpromisoak bete ditzan.
- Ez du Administrazioa premiatzen euskararen eta euskarazko matrikulazioen gorakada nabarmenak behar duen plangintza egin dezan; plangintza horren bukaeran Unibertsitate elebidun bat egon behar du.
- Ez ditu nafar guztien eskubideak errespetatzen, eta ez du euskararen zonifikazioarekin bukatu eta koofizialtasunaren alde egin nahi.
- Euskarari buruzko kapituluak desadostasun nabarmenak agertzen ditu (ia beti bezala), eta ez ditu sakonki aztertzen gai nagusienak.
- Federazio honek salatu nahi du, halaber, boto “ofizialista” bat egon dela, zeinaren aurka zuzenketek eta azalpenek ez duten ezer ere balio; zenbaitetan, leialtasun horren ondorioz nork bere interesen aurka boto ematera ere bultzatu ditu batzuk.
- Azkenik, errealitate bat da euskarak Eskola Kontseiluan daukan presentzia eskasa ez datorrela bat hizkuntza horrek Nafarroako gizartean daukan egoerarekin.